

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Getaria



Aurkibidea

Udalerria: Getaria

Sarrera



Urola Kosta eskualdeko herria, UEMAko kide da. Herriko 2400 biztanleen artean %88 euskalduna da. Inguruko herrien antzeko hizkera da Getariakoa (Zarautz eta Zumaia ditu alboan), baina izaera berezia ematen diote herriko hizkerari getariarrek, doinuan eta joskeran. Dena dela, bi hizkera bereiztu daitezke herrian: kaletar-arrantzaleena eta baserritarrena. Azken horiena hurbilago dago inguruko herrietako hizkeratik. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 2.675
- **Euskaldunak:** %88,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **30**
- Zintak: **35**
- Pasarteak: **578**
- Transkribatutakoak: **91**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **578**

Proiektuak

- Ainhoa Beolaren fondoa
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Gazte gara gazte
- Getaria: euskara eta itsasoa
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Andres Alberdi Gorostiaga (1950)



Getarian jaio zen 1950ean. Gurasoak ere biak getariarrak zituen. Herrian bertan ikasi zuen umetan, baina 11 urterekin Saturrarango seminariora joan zen eta handik Donostiakora ondoren. Seminarioan euskaraz alfabetatzeko aukera izan zuen Juan Mari Lekuonari esker. Filosofia ikasketak amaitzera Erromara joan zen eta, han zegoela, Elgoibarko ikastolara lanera joateko proposamena egin zioten. 1973an hasi zen Elgoibarko ikastolan lanean. Bi urteren buruan soldadu joan beharra izan zuen. Itzultzean, 1976an, ikastolako zuzendari izendatu zuten. Euskaraz alfabetatzeko gau-eskolak ere eman zituen sasoi horretan. 1980an Elgoibarko institutura pasa zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Mintegi bat sortu zuten eta DBHrako eta Batxilergorako Euskara eta Literatura ikasgaiko hainbat material sortu zuten 1985etik aurrera. 1991-92 ikasturtetik 2011ra bitartean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko EIMAn ere egin zuen lan. 2018an euskaltzain urgazle izendatu zuten.



Edurne Alegria Aierdi (1949)

Itzultzailea eta UEUko lankide-ohia da.

Sebastian Aranguren Ulazia (1922-2013)



Getarian jaioa, bertan bizi izan da beti. Gurasoak biak Askizu inguruko baserrietakoak zituen eta eskolara Askizura joaten zen. Ume-umetatik arrantzan aritu izan da, beti Getariako ontzietan. Hasierako elkarrizketak bere lagun [Paulo Argibe](#)rekin batera egin zitzaizkion. Argazkian ezker aldean ageri da.

Paulo Argibe Uraola (1922-2007)



Getarian jaioa, bertan bizi izan da beti. 16 urtera arte (1938. urtera arte) aitarekin aritu zen ontzi txiki batean arrantzan. Motorrik gabe, arraunekin, kosta inguruko arrainak harrapatzen zituzten lamotak, erlak, txitxarroak, legatzen bat... Eta gerora, bizi guztian, ontzi handiagoetan, bisigutan, antxoatan eta atunetan. Elkarrizketa gehienak bere lagun [Sebastian Aranguren](#)ekin batera egin zitzaizkion.

Maria Azkue (1916)

Sabina Azkue Fernandez (1926-2015)



Getariako Elkano kalean jaioa, beti herrian bizi izandakoa. Txiki-txikitatik Getariako kontserba fabriketan lan egin zuen. Gizona arrantzalea zuen, eta despeskan eta sarekonpontzen ere aritu izan zen.

Joxe Mari Azpeitia Basurto (1928)



Getarian jaio zen, sei senideren artean laugarren. Aita okina zuten, eta etxeko hiru semeek laguntzen zioten lanarekin. Gaztetan Getarian eta Zarautzen ikasten ibilia, Joxe Mari bizi guztian izan da okina eta lanaren ordutegiak baldintzatu izan du bere bizimodua. Arantzazun ezkondu zen Arrasateko emaztearekin.

Raimunda Basurto Lazkano (1921)



Getarian jaio zen San Roke kalean, hiru senideren artean bigarren. Gurasoak getariarrak zituen eta txikitatik itsasoari lotuta egon izan da bere bizitza, aita arrantzalea baitzen Balenziaga ontzian, eta amak salazoi-fabrikari egiten baitzuen lan. 11 urtera arte Getariako eskolan ikasten ibilia, handik salazoi-fabrikara pasa zen lanera. Getarian bertan ezkondu eta bi seme-alaba hazi ditu. Kanturako zaletasun handia izan du beti.

Jon Ander De la Hoz Arregi (1992)



1992an Getarian jaioa. Kazetaritza ikasi du Bilbon eta Artzape Getariako herri aldizkarian lan egiten du. Horrez gain, kirol kazetari gisa ere lan egin izan du Euskadi Irratian, arraun estropadetako esatari gisa. Kazetaritza du ofizio zein afizio. Kirolzalea ere bada eta triatloietan parte hartzen du.

Juliana Eizagirre Osa (1929)



Askizuko Iturregi baserrian jaio zen, hamaika senideren artean hamargarren. Baserriko lanak egiten umetatik ohituta, hamazazpi urte zituela neskame joan zen Getariako etxe batera lehenengo, eta Donostiara geroago. Hogei urte zituela ezkondu zen Getariako Joxe Mari Mendizabalekin, eta bost seme-alaba izan zituzten elkarrekin.

Juanito Eizagirre Ulazia (1930)



Herrerrieta kaleko "Santinekoa" kale-baserrian jaioa, ondo ezagutu zuen Getariako kale-baserrietako bizimodu gogorra: etxeen egitura deserosoa, lurrak urruti eta txikiak, arraina garraiatzen aritu beharra... Hainbat urtez itsasoan ere jardundakoa da.

Jose Mari Erkizia Osa (1925-2011)



Arroa Goikoa auzoko Zugastitxiki baserrian jaioa, Getariako Bizkarraga baserrira ezkondu zen (San Prudentzio auzoa), eta han bizi izan zen harrezkero. Bizi guztian baserriko lanetan aritutakoa, gai hauen gainean hitz egin zuen: garia, txakolina, sagardoa... San Prudentzio auzoko kontuak ondo ezagutzen zituen, baita ehiza kontuak ere.

Agustin Errazkin Iribar (1941-2011)



Getariako San Roke kalean jaio zen, 2 anai-arrebaren artean zaharrena. Gurasoak getariarrak ziren eta itsasoarekiko lotura handia zuten: ama sare-konpontzailea zen eta aita arrantzalea. Agustinen familia hainbat itsasontziren armadore izandakoa da: Agustin bera 14 urterekin hasi zen txalupa-mutil lanetan, eta 23 urterekin itsasontziko patroilakatu zen. Pasaian ikasten ibilia, bizi guztia eman izan du arrantza munduan eta ondo ezagutzen ditu itsasoaren gorabeherak. Erretiroa hartu ostean ere txalupan txibiak harrapatzera joateko zaletasuna izan du, besteak beste.

Maritxu Ezenarro Idiakez (1929)



Getariako Aldamar kaleko kale-baserri batean jaio zen ("Higinionekua"). Aita arrantzalea ere bazen. Alaba nagusia izaki, ondo ezagutzen ditu baserriko eta arrantzako lanak: ganadua gobernatzea, despeska... Kontserba-fabriketan ere lan egindakoa da.

Jose Ezenarro Isasti (1924-2014)



Eitzaga baserrian jaio, eta bertan bizi izan da beti. Aita bertakoa zuen eta ama Askizu auzokoa. Baserriko lanez gain, itsasoan ere lan egindakoa da, batez ere antxoatan. Getarian nahiko arrunta zen baserriarrek neguan itsasoan lan egitea, diru pixka bat ateratzeko. Aita gazterik hil zenez, berak hartu behar izan zuen baserriaren ardura. Emaztea Maria Gurrutxaga da, oikiarra (Zumaia). Meagako erromerian ezagutu zuten elkar.

Agustina Garmendia Lazkano (1921-2011)



Getarian jaio zen Elkano kalean, hiru senideren artean bigarren. Aita arrantzalea zuen eta baratzean ere aritzen zen; ama arrain-saltzailea zen eta Getariatik Zumaiara 25 kilo arrain buruan eramaten ohitutakoa. 11 urte zituela, salazoi-fabrikari lanez egiteko aukera suertatu zitzaionean, eskola utzi zuen nahiz eta maistrak ikasten jarraitzeko bultzatzen zuen. Bizi guztia arraina saltzen eman izan du. Getarian ezkondu eta 4 seme izan ditu.

Maria Gurrutxaga Gartxotenea (1929)



Oikian jaio zen 1929an. Getariako Eitzaga baserriko Jose Ezenarrokarekin ezkondu, eta Getarian bizi da harrezkero. Emakumeek baserrietan egiten zituzten lanak ondo azaltzen ditu.

Brigido Iribar Arrizabalaga (1939)



Getarian jaio zen, "Katukalian" (Aldamar kalea). Aita eta familiako gehienak arrantzaleak zituen eta bera ere arrantzale izan da bizi guztian, 12 urterekin lanean hasi zenetik. San Prudentzio itsasontzia izan du bere senideekin batera. Itsasoari buruzko kontakizunak aipatu ditu elkarrizketan, eta Getarian erabiltzen diren arrain-izenen zerrenda ere egin du.

Claudia Iribar Salegi (1934-2020)



Getarian jaio zen, "Erromerokua" etxean eta hantxe bizi izan zen beti. Ama Oikiakoa zuen (Zumaia). Aita, berriz, Joxe "Loidi", getariarra zen, Loidi baserrikoa eta dolarea jarri zuen Getarian. Hasieran sagardotegia eta txakolindegia zena "Iribar" jatetxea bilakatu zen, elkarrizketa garaian Getarian zegoen jatetxerik zaharrena. Claudiak eraman zuen jatetxearen ardura 50 urtean zehar.

Maria Iruretagoiena Olano (1928)



Ermuan jaio zen, hiru anai-arrebaren artean gazteena. Aita getariarra zen, ogibidez arotza; ama, aldiz, Zaldibiakoa zen, jostuna. Txikia zela Asuara joan ziren bizitzera, baina gerra hasi zenean Gernikara joan, eta bete-betean harrapatu zituen bonbardaketak. Ama eta hiru seme-alabak Bordelera joan ziren itsasontzian ihesi, eta handik Bartzelonara. Gerra amaitu zenean, Euskal Herrira itzuli ziren eta orduan jakin zuten aita fusilatu egin zietela. Itzultakoan, familiak sakabanatu egin behar izan zuen, eta Maria Getariako senide batzuen etxean gelditu zen. Orduetik Getarian bizi, ezkondu eta lan egin izan du.

Jaxinto Isasti Aizpuru (1932)



Jaxinto Getarian jaio zen 1932an. Aita ere arrantzalea zuen eta bera ere gaztetatik arrantzan jardundakoa da. Oraindik ere txibitan aritzen da.

Rufo Isasti Aizpuru (1936-2017)



Musikari familiakoa, aita koruko eta bandako zuzendaria eta txistularia zen, nahiz eta bizibidea arrantzatik ateratzen zuen. Rufo bera ere mutikotatik arrantzan ibilia da. 21 urterekin hasi zen "Elkanoren lehorreratzean" parte hartzen eta kanpora ere joan izan dira antzeztera.

Juanita Isasti Otamendi Markos (1918)



Getariako Elkano kalean jaio, eta bertan bizi izan da beti. Aitarengandik jaso zuen ezizena, Juanita "Markos". Hamazazpi urterekin Carmen "inglesa" zenaren dendan hasi zen lanean, eta jabea hil ondoren berak hartu zuen denda. 70 urtez egin du lan denda horretan, janaria, arropak eta denetarik saltzen.

Gregorio Larrañaga Ugartemendia (1950)



Luisa Ugartemendiaren semea. Luisari elkarrizketa egitera joan, eta jakin genuen familiak zinea izan zuela Getarian. Gregoriori ere elkarrizketa egin genion, 15 minutuz, Elkano zinemaren gainean.

Eugeni Lazkano Ulazia (1919-2012)



Getariako Askizu auzoko Mirubia baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebako sendian. Baserritarra izan arren, kontserbalantegietan eta despeskan lan egindakoa da. Musika gustatzen zitzaionez, ahoko soinua jotzen ikasi zuen gazterik, eta Azkizuko erromerietan jotzen zuen.

Jesusita Manterola Larrañaga (1922)



Getariako San Roke kalean jaio zen bost senideren artean hirugarren. Gurasoak getariarrak zituen: aita Getaria eta Zarautz arteko korreo-zerbitzuaz arduratzen zen; ama, berriz, jostuna zen. Jesusitak zazpi urte besterik ez zituela, aita hil zitzaion eta amak atera behar izan zuen aurrera familia. Getariako eskolan ikasia, hamaika urterekin salazoi-fabrikari hasi zen lanean. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen, baina haurrak oso txikiak zirela oraindik, alargun geratu zen.

Martina Olaizola Balerdi (1912-2010)



Urdanetan jaio eta gazterik Aizarnazabalgo Sarasola auzunera joan zen bizi izatera. Inguruko beste hainbat neska gazte bezala, 17 urterekin Getariara joan zen zerbitzatzera; udan Donostian ere aritu zen. Getariako arrantzale batekin ezkondu ondoren, zerbitzari lanak utzi, eta arrantzako kontuetan aritu izan da beti, arrain-salmentan (Getariako kaleetan eta Donostiako azokan) eta sare-konpontzen.

Julia Olaziregi (1914)

Julian Sorazu Aginaga (1931-2016)



Askizu auzoko "Alikante" baserrian jaio, eta bertan bizi izan da beti. Aita eta aitona ere bertakoak zituen; ama, oster, Zarauzko Alleme baserrikoa. Baserritarra izan arren, kostako gauzak ere ondo ezagutzen ditu, sarri joaten zirelako Orroagako harraldera olagarroak, lapak eta itsaskabrek harrapatzen.

Luisa Ugartemendia Labaka (1909-2011)



Asteasun jaioa, 2-3 urterekin familia Zizurkilgo baserri batera joan zen bizi izatera. Hamaika anai-arreba zirenez, eta berari baserriko lana ez zitzaionez gustatzen, 17 urterekin neskame joan zen Getariara. 12 urtez Getariano ostatuan lan egin zuen eta udan Zarauzko hoteletan ere bai. 29 urterekin arrantzale batekin ezkondu eta sare-konpontzen aritu da bizi guztia. Getariako "Elkano" zinema ere izan zuten 10 bat urtez.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Itsasoa

1.1. Umetatik itsasoari lotuta

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-003/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Lehen getariar gehienak ziren arrantzaleak, fabriketan lan egiten zuten banakaren batzuk kenduta. Umetatik moilan ibiltzen ziren eta ohituta zeuden txalupetan ibiltzen. Euren familia gehiena osabaren itsasontzian hazi ziren. Umetan eliz-mutil izan zen. Goizean meza lagundu eta gero aitarengana joaten zen tretzak nola betetzen ziren ikastera. Gero, 13 urte ingururekin "primabera" batean sartu zen. Lehen, 14 urte behar ziren barku batean lanean hasteko.

Transkripzioa

- Eta, aita ere arrantzalia?
- Bai.
- Hemen, Getaian, kalia jende gehiena arrantzalia izango zan, ez?
- Arrantzalia, hemen jenerala arrantzalia. Arrantzalia ta basarritarra. Kaleiko bakar-bakarra lehorrian lana iten zuenak Zarauzko taillerretan, ebanisteidxa ta horrelako... bestela dana arrantzaliak.
- Eta zu're txikitatik itsasuan?
- Txiki-txikitatik.
- Gogoratzen dezu lelengo egunak, txalupa batera igo ziñan lelengo eguna?
- Bueno, txalupa batea... bai, mutil-koxkorretan hamentxe, erten gabe ibiltzen giñan moillan ta. Baiño, geo baporía, aita ta etortzen zianian juten giñan ta, hantxe barkuan ibiltzen giñan. Ta geo, edadea hurreatzea bezela gehidxo-gehidxo ta, ya ohituta ya zahartzeako nun, ze barkotan o ibiltzen ziñan. Aita ta jenealian, jenealian, mutillak, semiak juten zian, aita ta nun eoten zian, hara. Beno, ni osaba baten zean, aiten ta anaidxen barkua zan.

Ta aita're han, ta famili gehidxenak bertan hasi giñan gu, gure partetik.

- Bertan, barkuan?

- Bai.

- Eta baporía o ya motorra...

- Ez, motorrian.

- Motorrian ya.

- Motorrian nik ya.

- Orduan txiki-txikitatik lanian gutxi gorabehera, ez?

- Bai, bai. Monagillo eon nitzala, hortxen bertan, bixigutako trezak betetzen ibiltzen zan aita. Ta zean lagundu, mezan lagundu, eta hara, ikastea, treza nola betetzen zan, ta... Horrelaxe. Geo ya primaberan sartu nitzan ni, primabera batian. Bai.

- Zenbat urtekin?

- Beno, hamahirukin. Hamahirukin. Ta geo hamalau, hamalau... Beno, hamahirukin, orduan ya primaberan goizo hasten giñan, ta geo junidxuan in nitun hamalau. Bestela hamalau urtekin paperak ematen zituten, orduan. Oan geo hamaseikin o ematen due. Ta lehen rola o barkoa juteko ya hamalau urte behar zian.

- Galarazita zeon hamalau urtetik behera...

- Bai. Bai.

- Eta, goguakin hasi ziñan? O bildurtuta o?

- Ez. Beste lagunak'e danak hara juten zian ta, hamen ez zeon beste zeikan. Estudixua zakana, estudiatzea juten zan, baiña guk, gure estudixua hori zan. Bai.

1.2. Baporetatik motordun ontzietara aldatu zeneko garaia

- **Hizlaria(k)**: Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-003/003
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
 Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Bera hasi zenerako barkuak motordunak ziren. Baporeak ere ezagutu zituen lau-bost herrian. Bera itsasoa hasi zeneko ontziak Monte Arno zuen izena, eta Mutrikutik ekarri zuten lehen zuten baporea saldu ostean. Lehenagoko ontziak egurrezkoak izaten ziren, baina gaur egun denak txapazkoak dira. Getarian ontziola zegoen eta bertan ere egiten ziren barkuak. Ontzi zaharrak Santander aldera saltzen ziren. Motordun ontziekin etorri ziren aurrerapenak.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, ya, zu lanian hasi ziñanerako motorra zala, ez? Barkuak motorrezkuak ziala?

- Motorrezkuak, bai.

- Zuk ya baporeikan ezautu zendun?

- Ezautu bai, ezautu...

- Baziran?

- Baporiak Getaidxan orduan lau eo bost eo horrela zian. Ta ni hasi nitzan hoidxek'e bazuen baporía, aurreokua, Karmengo Ama, bai. Ta geo motorra.

Ni hasi nitzan, motor hori zan, hortikan lehenbizikua.

- Eta izena nola zeukan barkuak?

- Monte Arno.

- Monte Arno?

- Monte Arno. Zeatik, Mutrikutik ekarri zuen hori, Mutrikutik.

- Eta beti barko horretan ibili zifian?

- Bai. Itxe horrekin beti. Geo bestia Kaximirona in zuen, Kaximirona. Geo ya handikan aurrea Kaximironak, hiru bat eo. Harrezkeo, hiru bat berri, o... E! Hirugarrena?

- (Laguna): Bai.

- Hiru bat. Uan bestia, laugarrengua huan txapazkua in due ni ibiltzen nitzan zea hortan.

- Egurrezkuetan?

- Eta nik ya egurrezkua. Txapakuan, danak Getaidxan, danak txapazkuak dabe. Lehen egurrezkuak zian. Beno, bat o bi o bazian oan dala berrogei bat urte, lehenbiziko txapazkuak, bajuran [in zituena]. Bestela, dana egurrezkua. Ta geo uan dana txapa. Bai.

- Eta normalian ze iten zan, e... Barkua esan dezu Mutrikutikan ekarri zutela?

- Bai, orduan han salgai eo. Ta hemenguak baporio zuen, ta bapore hori Donostira saldu zuen. Ta geo, haren orde, hura hartu zuen. Bai. Bai, ta geo hamen astillerua, hamen Getaidxan iten zituen, beste batzuek Getaidxan indakuak. Eta hura Mutrikutikan ekarri zuen behintzat.

- Bai, eta barkuak Getaiyan bertan eindakuak [...]?

- Getaidxan iten zian, Astilleruan, bai, barko...

- Nun zeon hemen...

- Hortxen, ixkiñako... Hor oan zea dao, restaurantia. Astillero. Hori zan, hoidxen, hoidxen osabak eo aitik eta zian iten zituenak.

- (L) Aita eta aitona.

- Oan restaurantia dakaenak. Hoidxen aitik eta. Hortxen bertan. Hor iten zan, hortik [...] zian barkuak moilla barrura.

- A bai, e?

- Bai.

- (L) Aitona hasiko huan.

- Aitona, aitona Euxebio.

- Eta normalian barko zaharrak ze iten zan, saldu o?

- Bai, jenealian, hemen beti pixkat aurretuko barkuak eoten zian beti, hemen, lesteko aldea. Hor, e, zea, beheko castellano jende hoidxek beti barku exkaxouakin, o... Orduan, e? Oan ez, oan haidxek'e gu bezela. Eta hamen... Zuk geo berridxa in behar baldin bazendun, lehengua txikidxa dalako o hola, hori hara saltzen zan.

- Santanderrea o...?

- Santanderrea o, Galizira o...

- Galizira.

- Bai.

- Ta hemen berriya in.

- Hemen berridxa, bai. Geo ya haidxek paren jarri zian, e! Baiño lehenbiziko urte [...], urte dexente, beti hamengo barkuak berridxa in behar zunak, hara saldu, Galizira.

- Orduan, eta zuk ezautu zendun orduan, garai hori, ez? Baporiak [...]...

- Baporiak deseinditu ta motorrak hasierakuak, bai.

- Orduan sekulako adelantua izango zan, ez?

- Bai, Jesus! Lana're oso gutxi. Ikatzakin ta lan haundiya zuen haidxek. Bai.

- Eta arrantza egiteko ta hobiak berriak?

- Bai, beti beste adelantua, adelantua etorri zan, gauza gehidxo. Makinillak eta. Lehen eskuz gehidxo, eskuz iten zan. Ta geo makiñei txiki bat jarri ta

harekin, ta horrela prosperatzen. Bai, pixkat adelanta..., beti adelantatzen.
- (L) Pixkanaka-pixkanaka.
- Baporetik motorrea, ba, adelantua, bai.

1.3. Ontzi bateko arrantzale kopurua eta bakoitzaren papera

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-003/005
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** 14 lagun inguru ibiltzen ziren ontziaren barruan: patroia eta tostarteko gizonak. Soldapatroia patroiarri laguntzen ziona zen. 24 orduan zaindu behar izaten zen ontzia, eta lo egiterakoan txandak egiten zituzten, adibidez. Bisigutarako lehorrean ere jendea behar izaten zen aparejuak prestatzeko. Txalupa-mutila: mandatuak egin eta gauza askotan laguntzen ibiltzen zen mutikoa izaten zen.

Transkripzioa

Ontzi bateko arrantzale kopurua eta bakoitzaren papera

1.4. Emakumeen lanak arrantza munduan

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-003/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Emakumeen lanak. Despeska emakumeek egiten zuten. Itsasontzia lehorreratzen zenean goizeko orduetan emakumeen bila joaten ziren etxez etxe arraina sareetatik libratzera joan zitezten. Fabrikan ere lan egiten zuten emakumeek arrainei buruak kentzen. Sareak konpontzea eta arrainak saltzea ere emakumeen lana zen. Arrainez betetako zinkak buruan hartu eta inguruko herrietara joaten ziren saltzera.

Transkripzioa

- Zeintzuk izaten zian, emakumian lanak zeintzuk izaten zian?
- (L) Beno, despeskatik aparte sariak konpontzen ta, e!...
- Horixen... Motorra dana arraiz beteta etortzen zan eta geo hoidkek lehorrian, saria gizonak iten zuen aurrea prestatu, honela, tira. Eta

emakumiak igual eongo zian hogeita hamar bat tiran eta danak zutikan, banaka-banaka kentzen, ta honeaiño garbitzen zuenian, berriz'e tiraa in ta berriz'e segi, ta horrelaxen bukatu arte.

- Eta hori gabian gaiñera.

- E?

- Gabian.

- Gauian. Goizeko [orduetan]... Ta noix arte, e? Asko baldin bazan, ba, egunez, hamarrak alde arte o, goizeko ordu bitan igual ta. Emakumiak billa ibiltzen zian. Tak!, ta atia jo ta, "Aitu, etorri gea ta...", "Zein da?", ta, "Honelako barkora", ta. Lehenbizi etortzen zienak, haiek harrapatzen. Aurrena etortzen zanai [...]. Bai. Nik lau arreba banitun eta haiek ikusten nituan nola ibiltzen zian. Etxe guztitan, emakumiak.

- Beste lan batzuk ere izango zian emakumienak, ez?

- Ke fabrika. Horko [aitten] fabrika. Burua kentzea.

- (L) Baiño baforia bertako zea, e, Jaxinto, bafore bertako lanak geo, saria konpontzen. Nahi dit esan emakumiak saria konpontzen.

- Sare-konpontzen. Baiño jenerala, ordia...

- (L) Bai! Baiño nahi dit esan...

- Jenerala zan...

- (L) Ez, ez, nahi dit esan baforeko lanak, saria konpontze hori emakumiak iten zuen.

- Emakumiak, saria...

- (L) Oan, beste, geo, fabrikan ta ...

- Fabrikan. Fabrikan.

- (L) Ta kontxo, ta arraidxa saltzen'e bai, e, Jaxinto?

- Horkua in ta geo burua kentzea.

- (L) Arraidxa saltzen ta...

- Baita're. Esto, emakume...

- [Fresko daon] arraia, sikatu burua ta Zarautza ta Zumaira ta Azpeitira ta, arraia saltzea... ibiltzen zian.

- Otarretan?

- Bai, emakumiak'e lana.

- (L) Zinkak, zinkak.

- Zinkak?

- (L) Bai, jenealen zinkak buruan, e?

- Bai. Zinkak.

- Zinkakin.

- Ta hori gainera astuna izango zan?

- (L) Aber, ba!

- Ba... hogei bat kilo ibiltzen zituen.

- (L) Getaitik Zarautzaiño juten zian [...] hartu zea, buruan, ta oiñez, Zarautza, e, Jaxinto?

- Bai. Oaingo aldian hor... Emakumiak oan'e iten due lana, baiño orduan'e lan txarra emakumiak, e!

1.5. Emakumeak antxoa fabriketan

- **Hizlaria(k)**: Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-003/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:21:55. **Bukatu**: 00:23:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

- **Laburpena:** Fabriketan ere emakumeek lan handia egiten zuten. Atunetako fabrikak gutxiago ziren, baina antxoatarakoak dozena inguru. Antxoei burua kentzen zieten lehenbizi eta gero esperientziadunek latetan jarri eta gatza ematen zieten. Antxoei burua kentzeko ez zen esperientziarik behar, umeak ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- (L) Zergatik orduan fabriketan emakumek iten zuen lana. Bai, ibiltzen zian fabrika bakoitzian bost-sei gizaseme. Baiño jeneala lanian emakumia bai antxuakin ta baita atunakin'e, e, Jaxinto? Emakumen lana izaten zan fabrikako hori.

- Hamen, hamen ordun lan asko. Lan asko. Fabrika asko zan gaiñea.

- Fabrikak zer zian, e, denetan eiten zan bai atuna, bai antxua, o...

- Ez, ez. Atuna, hiru bat fabrika zauden. Bestela igual eongo zian dozena bat, o, zea, antxotako.

- Antxotako.

- Bai, dozena bat eo bai. Gehidxo.

- (L) Igual zeoze gehidxo, e!

- Gehidxo igual.

- Eta, antxotakua izaten zan, zein izaten zan beaien lana?

- Beno. Orduan antxua, batzuek burua kentzen eta geo bestiak latian jartzen. Behin lateko jartzen zituen pixkat zakienak...

- (L) Gatzakin, gatzakin.

- Zakienak. Ya emakumiak pixkat zakienak. Ta bestela berriz, edozein. Burua kentzeko, ba, igual basarritik, o...

- (L) Jitano pillua.

- Jitanua, bai. Baiño orduan jendia bertakua ibiltzen zan ta umiak'e bai.

Ume txikidax'e buruk kentzen ibiltzen zian. Haidxek burua kendu eta geo ya pixkat emakume zakienei, ya, haidxei, artia bezelako... Latian ta kolokatu, gatza eman ta... Haien gain zeon zea, nola arraidxa atea, ta...

Geo zaitu in behar izaten zan haidxek iten zuenian bere [salbuellakin] ta gauzakin ta. Hoidxek ya fabriketan gizonak eoten zian, bi-hiru gizon.

- (L) Geo gatza're bere tamaiñan bota behar, ta makinan jarri behar, zeatik gatza gutxi bota baiozu, hura usteldu iten da.

- Bai, bai. Ohittua zeona behintzat haidxek iten. Bestela hamen, burua kentzeko eozein.

- Eozein.

- Bai.

1.6. Bisigutako arrantza negua pasatzeko eta antxoatakoa dirua ateratzeko

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-003/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

- **Laburpena:** Getarian 3 arrantza egiten ziren: antxoa, atuna eta bisigua. Garrantzitsuenak lehenengo biak ziren. Bisigutako arrantzak ez zuen diru asko ematen, baina jateko eta negua pasatzeko garrantzitsua zen. Neguan zorrak egiten ziren aparejuetan eta horiek udaberri inguruan kitatzen ziren antxoatan irabazitakoarekin. Otsail erdian hasten zen antxoatako garaia eta San Pedro ingurura arte (ekaina) luzatzen zen. Gipuzkoan Mutrikun eta Getarian egiten zen bakarrik bisigutan; Bizkaian hainbat herritan. Orion antxoatan eta angulatan egiten zen. Hango arrantzaleak baserritarrak izaten ziren, sail handiagoak izaten zituzten.

Transkripzioa

Bxigutako arrantza negua pasatzeko eta antxoatakoa dirua ateratzeko

1.7. Majuako arrantzan konpainiak izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-004/001
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena:** MAJUA. Ontzi guztiak zain-zain egoten ziren eta majua irteten zenean hurbilen zegoena azkar joaten zen sarea botatzera. Harrapatutakoa ontzi guztien artean banatzen zuten (partila), hartara elkarren arteko haserrerik egon ez zedin. Konpainia edo ontzi-taldeak egunero aldatu egiten ziren. Batzuek tranpa ere egiten zuten arrainik ez zutela harrapatu esanez. Urrutiago zeudenek arraina harrapatu zela ikustean "dena emanda" joaten ziren konpainian sartzearen. Baina arraina harrapatu zuen ontziak jada soka gora jasota izanez gero ez ziren taldean sartzen.

Transkripzioa

- Eta majua, hortxe zai eoten zan ta, igual, zenbat?, minuto batzuek eoten zan han. Brast!, ertetzen zuan. Barkuak zai zabenak, zeifei eran [...] zunak, hark jotzen zuan ondoena. Porke hemen zeona hor [botzen] bazuan, ez zuan horrek [botzen], honek. Eta [botzen] zun hark, eta bestiak, ta!, gelditzen zan... Arraidxa baldin bazuan, partia bazekan honek.

- A, bai, e?

- Igual-igual, erdira.

- (Laguna) Bai, ba.

- Bi. Lau baldin bazaben, lau partetan. Lana haidxek in behar, bestela izango litzake alkar ondo [...]. Hartaka nola berdin dan, ba, errespetatu, eon ta eiten zuen, ba, biekin baldin bazan, ba, zuen partida hori bientzat berdin. Ta lau re baldin bazian, lauekin.

- Ta parte bardiñak?

- Berdiñak, ta...

- Berdin-berdiñak.

- Bai.

- (L) Geo gertatu zaken, geo, beste majua gehidxo're ateatzia. Ta geo igual laurak harrapatu arraidxa. Geo laurak harrapatzen bazuen arraidxa...

- Haidxekin parte suma, bai.

- (L) ...lauren suma, igual, parte, laurak igual.

- Bai, ta zea, lau haidxek konpañero eun hartan.

- Eun hartan.

- Eun hartan.

- (L) Hala izaten zan.

- Eta konpañiak egunero-egunero aldatu egiten zian? Edo gutxi gorabehera...

- Ez, ez, ez. Egunian egunekua.

- Egunian egunekua.

- (L) Aber ba! Zeiñentzat? Parte.

- Eta gertatu zaken, ba, hark arraidxa harrapatu ta lau partekuak'e harrapatu, ta danok berdin, hartaka... Beno, iten zuen geo konpañia haura jutun zian ta juntatzen zian beste batian. Ta iten zuen partilla, lau barkoko jendiak, e, konpañikuak...

- (L) Konpañian sartzeko in behar zan saria bota, ta zuk aurreko ta atzeko txikota, nola ekartzekua? Haidxek kostaura ekarri, oseake, kortxua atze horretan kostaura ekarri. Zuk ekarri ta bestia ez zan sartzen konpañian. Entenditzen?

- Haik barrura ekarri ezkeo, ya...

- (L) Haidxek barrura ekarri ta "ez zea sartzen konpañian ezta [aillatuta]'re!", esaten zan. Ta beste batzutan berriz, konpañe, han, zea, konpañiakua ta, zuk nahi ez badezu arraidxa barrun zeola, aurreko [txigota] suelta laga. Ta han hola beira: "harek ez zakek, ez die aurreko [txigota]", ta martxa ta [...].

- Engaiñatzeaitikan.

- (L) Holako, holako trapu erdi asko're bai.

- Bai, bai, engaiñatu, baiña zailla izaten zan.

- (L) Bai.

- Porke, banko bat ta da!, lixto eoten zian ta. Eta geo, aparte zeona're igual zeon bakarrik gertatu majuan, barko aleik gabe...

- (L) Bai, bai.

- ... eta aparte o. Ta dana emanda etortzen zian ta honek esan duna...

- (L) Bai.

- ... sokak presaka ekartzen, ekartzen, ekartzen... Ta haiek sartu ta aillatzen bazan, fuera, ez zun parteik. Baiño askotan, sartu baiño lehenuo sartu ta konpañe. Ixtori goorak izaten zian hor.

- Sarian bueltan zeuden barkuak sartzen zian...

- Beno, saria bota...

- (L) Bai, zure bai, zure zea...

- ... soka barruan...

- (L) Bai...

- Beno, han kieto zabenak haidxek parte, porke han zaben. Baiño aparteotikan [...], dana emanda etortzen zan aillatzea soka hoidxek sartu baiño lehen, sartzen baldin bazian, konpañe.

- (L) Geo [...] 're iten zan jenealian, o jenealian, ahal den zeenak, geo axkarro ekartzeko ekartzeko ta, ez al dakik.

- Ahal dan azkarrena barruan eukitzeko soka. Pikardi goorak, ordun.

1.8. Arrantza-motak; bakoitzarentzat garai egokia

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Jaxinto

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-004/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Ilargia zegoenean egiten zen majuko arrantza, ilargiaren argiarekin ardora (arrainek mugitzean ateratzen zuten zuritasuna) ez zen ikusten eta. Majua egunez egiten zen eta ardora gauez. Majua aspaldi galdu zen. Orain [SARDAN] egiten omen da egunez. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- (L) Ordun zea txarra izaten zan, ta beti ez zuen ateatzen majua, eun guztidxan eon, izurdiakin hantxen asper... eun guztidxan, e! Hara ta honea ta hantxen. Majuik atea ez, ta itxea. Hua izaten zan txarra, e, Jaxinto?
- Bate gabe. Askotan bate gabe.
- (L) Bate gabe, izurdian gorabehera.
- Ta jenealian horrea juten zan ilargiya zeonian'e bai. Porke ilargitan ardora ez da ikusten. Ilargidxa baldin bazeon, ardora ez du iten. Bota harrika ta ez da iten. Eta aorduan gabaz ez zendun arrantza erabiltzen, ta majuta juten ziñan. Ta eunez arrantzatzen zan. Bestela, ardora zeonian gabaz zeatzen zan. Ta ikusten ez zalako, harrapatzeik ez.
- (L) Ilargidxa dola, ur gaiñia're txuri-txuridxa eoten da...
- Zuri-zuridxa.
- (L) Ta ardora ikusten'e zaila ikusten .
- Argidxei.
- (L) Iluna, [...] illunakin ta errexo ikusten zea, fosforo hori.
- Eta garaian arabera izaten zan hobeto ardora in edo majuata jun o...
- Beno, majueta juten zan egun argiz, "alba". Hamen gabaz, baita're gabaz ibili ta izerrez, ta geo majueta, bai.
- Ezer ez bazan harrapatzen orduan eiten zan [...].
- Bai.
- (L) Geo... Aber, Jaxinto. Baiño oain, aspaldiko urte hauetan ta majuan ta ez, aspaldiko urte hauetan ta ez.
- Majua hura, haiek galdu zian.
- (L) Hura lehenotidxo zan, e!
- Aspaldi galdu zian.
- (L) Oan, harrezkeo gehidxo sardan. Gehidxo. Euna argitu ta sardan. Sarda da antxua ur gaiñian saltuka ikusi, sarda. Hori gehidxo, sardeta gehidxo, majua baiño, ya oaingo zeara.
- Egunez, egunez sarda ta.
- (L) Hoi egunez sardeta.
- Eta hori zer da, jun ta jun ta jun...
- Ez, inguruan jartzen dezu kala...
- (L) Hoi ikusi iten da apartetikan'e.
- Aparte.
- (L) Sarda nabarmena da.
- Haizia, haizien brixia nola uren gaiñian iten du "briiiii" zea hori? Tipo horretan ikusten da.
- (L) Hamendikan urrutira ikusteko zeak dia hoidxek.
- Bai. Baiño igerri iten da.
- (L) Ur gaiñian dana saltoka ta harei igertzen zaio.

- Arraidxa daola igerri iten da, pixkat hartako dana, ba... Moimentua igerri iten zako arraidxai.
- (L) Bai.
- Apartea, e!
- (L) Geo antza ematen, antza eman, beno, nola dijuan saltoka-saltoka-saltoka. Hura itxi mutur hura, saria bota ta batzuek harrapatu, bestiak ez, ta.
- Gero bizimoua ardoratikan gehidxo majuetatikan baiño.
- (L) Bestela, ardora.
- Bai.
- (L) Bai, bai, bai, bai.

1.9. Bisigutako kontuak; distantziak, tretzak, lexikoa

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-005/012
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Bisigutako arrantza gogorra izaten zen, baina gero egunero jaten zuten bisigua. Erreta jaten zuten normalean, baina behin San Antonak ezkerro pusketak eginda. Goizeko ordu bietan jaikitzen ziren itsasora joateko. Frantzia aldera joaten ziren. Ze distantziatara joaten ziren eta distantziak nola neurtzen zituzten. Korrederarekin neurtzen zuten distantzia. Tretza bakoitzak 180 amu inguru izaten zituen eta 70 tretza betetzen zituzten lau lagunen artean. Lexiko interesgarria. Supilla: "madria bezala amarratuta joaten zen txikota". Kordela. Bakoitzak 60 metro zituen. Honen inguruko azalpenak. 4-5 ordu egiten zituzten alatzten.

Transkripzioa

- Ta bixigutako [egoera] ziharo txarra, e!
- Bai, e?
- Puuu! Diru gutxi irabazi... Oain, eunero jaten giñun bixigua, e! Arrai frexkua! Oain ya zenbat baliyo duan? Esaten giñoun nagusiyai ta, "bixigua?", ta ez zeon problemikan. Bere aurrian garbitu ta geo etorri ta erre ta. Ta geo, behin sanantonak pasatu ezkeo, pusketak inda. Ordun asko jaiotzen zan ba! Grasa iten zikon, ba... Ta pusketetan arrazo jaten zan, oliyua bota gabe. Eunero bixigua jaten giñun guk!
- Bai, bai! Ez da gutxi!
- Jolin! Garai hartan, bai, bai, bai. Hoixe iten giñun, jateko ona jan. Baiña dirua ez, e! Ta geo treza esaten zun aitak, "treza beteta baldin badabe lojan, argi ibilli ai, e!" Bai, ba, itsasoa juteko... ordu bitan, goizeko ordu bitan jaikitzen giñan. Ta hamazazpi... hamendikan hogeta hamazapi milla juten giñan, Frantziko kosta, pixkat goroxio, [nor(o)estia], hogeta hamazazpi milla. Korreoria eukitzen giñun markatzeko, osea, katxarro bat atzea botata, ta oaintxe ingurura aillatzen zanian, han lagatzen zan ta beitzen ziñun numeraziyuai, ta "oaintxe, oaintxe gaituk, ba!". Ta geo iten

giñun hogeita hamazazpi milla, zea, ruta. Eta geo sonda iten giñun. Ez zan aparatuik sonda iteko ta burni haundi batekin erriatu, ta ehun braza zanian, marka. Ta geo banaka-banaka koxkorak apuntaua, honela, beayen koxkorak, zeatzen, zenbat?, ehun ta hamar, ehun ta hogei... pusketa. Ta geo ur...

- Ta zenbatera botatzen zan?

- Moitzen giñun ehun braza o horrela, ta ya ehun ta larogeira. Ur mehetik hasi, ehun braza, larogeta hamar hasi botatzen, ta uraldika-uraldika, larogeta hamar... berrehun baiño barruro behintzat bukatzen giñun beti.

- Eta esan dezu distantzia neurtzeko...

- Ze, korredera.

- Korredera. Eta korredera...

- Korredera erderaz da, baiño... euskeraz ez dakit.

- Eta, hemen moillan lotu, o...

- Hamen beyan bota. Hamen ertetzen giñunian moilla muturretik kanpora, bras!, bota. Ta, lau bat braza.

- Harri batekin?

- Ez, ez, bea botatzen zan burni... Bea, bea zan burnizkua. Ta bere katxarruai da! ematen zan, fletxai ta, bota, hiru-lau braza atzetikan, barku martxan. Ta oaintxe, aillatzeko relojuakin kalkulatu ta "uaintxe gaztik [...]". Atzea jun, ikusi, ta numeraziyua ikusi atzian. Eta, "ba, aillatu gaituk". Ta geo in behar ziñun plaia billatu, zea, runbua hartzeko berriz, itsasoa juteko. Ta geo hartzen giñan, berriz sonda hartzen giñun, [...], ta danak illaran jartzen giñan. Hamendikan horrea danak. Eta tarte... hurre're asko, ta geo, nahastu iten giñun.

- Horregatik!

- Hura izaten giñun haserria! Ta ez zeon... Kordak gabe baliyo zuan garai hartako...

- Bai.

- Eta, oan bezela izan bazan bai, amua kendu dana ta dana libre. Baiño, ño!, dana libratu in behar zan. Dana gaiñez txigotezko gauza, e!, dana txigotekua...

- Soka.

- Orduan linolik ez zan, soka. Kordela ta geo supilla. Supilla ta amua honenbesteko pusketa. Ta treza bakoitzak zitun, e, ehun ta larogei bat amo, treza bakoitzak, ehun ta larogei amo. Geo hasi zan pixkat gutxitzen. Bakano ta hobio zala, ta. Baiño, ehun ta larogeta hamar. Ta haiek bete in behar zian, e! Hirurogeita hamar treza, lau lagunen artian.

- Guztira zenbat amu botatzen zian?

- E?

- Guztira zenbat amo botatzen zian?

- Ba, ateako dezu hor, e... Berrogeita hamar treza, ehun ta larogeita hamarrekin.

- Ehun ta larogeta hamarrekua... Ba, zortzi milla edo bederatzi milla, o...

- Bai! Haiek danak bete in behar zian egunero! Ta libratu? Alatzian. Baiño egun asko bixigu gutxikin, e!

- Esan dezu, supilla?

- Supilla.

- Zer da supilla?

- Supilla da, txigota, amarria bezela juten zana, amarrauta. Ta kordela zan [...] gora altxatzeko. Kordela. Ta supilla zan, amarre, tiratzen ez zuna, illara guztikua. Bakoitzak zituan hirurogei metro, paño bakoitzian, treza bakoitzak. Hirurogei metro, ta geo iten zan amarratu alkar: hirurogei metro, hirurogei metro... Ta geo iten zan bi trezen partez, [kluisa] bat bota, flotadore bat...

- Flotadore bat.

- Hura. Ta handik hartzen zan. Flotadore [...] hartu ta geo alatzten ai ziñala treza, bestia etortzen zan, ta bestia're hartu, ta gora. Hala, bost ordu edo, lau ordu t'erdi bai alatzten!

1.10. Berotzeko motorrak arrankatzeko metxak

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-005/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena:** 4-5 ordu egiten zituzten alatzten eta sarritan eguraldi kaskarra eta hotzak egoten ziren. Motorrak arrankatzeko erabiltzen ziren metxak erabiltzen zituen berak berotzeko.

Transkripzioa

- Alatzten?

- Alatzten. Ta askotan, e!, ta ez dakit zer. Ta giro kaskarra! Ta hotza...

- Neguan.

- ... ta tristura gogorra. Ta geo iten giñun, leatza harrapatzen giñun ta bertan jaten giñun, baiña ez zan gozaten. Jendia're debill o, zea, hotza! Hotza, ta gozatasun txikiya. Puf! Nik'e orduan motorra arrankatzeko zian metxeruakin, metxakin, han berotzen zian, berotzeko. Nik, buruan sartu zitzakun ta, nik kalia behera sumatzen nun usai hura, buruan sartuta, metxakin. Metxa batzuek zeatzen zian holako, nola zigarrua pizteko, zigarruak pizteko lehenoz izaten zian ba [...]?

- Bai.

- Ba, holako puxketak, sua eman, ta sartu, ta estutu, kulatra bakoitzian, holako lau. Haren usaia ziharo fuertia izaten zan, ba, ta nik usai hura buruan, mareagarriya neretzat. Ooo! [Tistur!] Triste!

- Bai?

- Triste, triste.

1.11. Tretzak preparatzeko lanaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-005/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Ofiziorik txarrena zen berarentzat bisigutakoa. Sotoan geratzen zirenean tretzak betetzen goxoagoa izaten zen, tarteka amak jateko zerbait eramaten zien eta. Bisigutako lanean 8 lagun inguru

itsasoratzen ziren eta beste 4-5 lehorrean geratzen ziren tretzak betetzen. Itsasotik etortzen zirenean gero lehortu egin behar izaten ziren. Tretzak betetzen goizeko ordu bietatik hamarrak aldera arte egoten ziren. Bakoitzak 12-13 tretza betetzen zituen. Tretza bakoitza betetzeko ordu erdi inguru behar izaten zen. Tretzetan antxoak jartzen ziren karnata moduan amuan. Azalpen zehatzak.

Transkripzioa

- Neetzat, ofiziyoik txarrena. Esaten zuen ona zala, baiño neetzat ez. Sotokua bai earki! Sotuan geatzen giñanian, amak ekartzen ziun sei t'ardiyak zazpirak aldian kabitzen ez giñakin zopak in kazuan eta geo, hamarrak aldian, arrautza erdi bat edo arrautza bat, pusketa bat ekartzen ziun. Geo berriz arrebak eo ekartzen zitun. Ta gizon zaharrak nahio izaten zuen, bai ba, hamaiketakua barkuan kontura ekartzen zan ardua, ta zaharrak, [han antxua] iteko're baakizu, ez zeon. Ta haiek gustoa. Ta haiek, dana bukatu arte eoten giñan gizon zaharrakin, beakin batian, han eoten giñan.
- Orduan, hori izaten zan neguan bixigutan bakarrik, ez?
- Bai, bixigutan, bixigutan.
- Eta izaten zan tripulaziyoko parte bat edo lehorrian geratzen zana, ezta?
- Bai. Itsasoa juten giñan zortzi, betzi. Ta lehorrian beste lau edo bost. Hola ibiltzen zan.
- Tretzak, karnata...
- Bai, betetzen.
- Karnata betetzen.
- Ta geo itsasotik ekartzen zituen askotan, nahasteik ez baldin bazan, libratuta. Ta haiek in bihar zian hurrengo egunian sekatu. Itxian giñakaun bi mahaiko silla holako, bi holako silla, ta geo arraun pare bat. Gau guztiyan sua martxan. Arrauna hoiek jarri zabal zabal ta trexak. Ta geo [okasiyuak]. Geo sekatu ta aitei behera eraman behar, arrebak eta eramaten zituen. Ta geo iten zan txotxetikan, txotxa holako pusketa izaten da, egurra, ta han amua sartzen zan. Ta bi istutzen zianian zeakin, bustiyakin [...], geo lehortzen zianian lasaitu iten zan. Ta igual brasa erten. Okasiyuak! Oooo! Bakizu, pixkat goor samarrak zian, karakterra're... uuuu! [...]. Geo gizon haundi samarrak zian, ta puuuu! Ixilikan eonda, hobio. Ez kontestatzia munduko gauzikan earrena haientzat.
- Eta lehorrian getzen ziñaten lauak, zuen lana ze izaten zan?
- Bete!
- Goizian goizo...
- Goizian ordu bitan. Ordu bitan [saltoena] in makinistai ta kuadrillai, ta etorri sotoa ta hasi ta hamarrak aldea arte. Hola bakoitzak'e hamar-hamabi milla treza betetzen giñun. Ordu erdi batian... Azkarrauk bazian, baiño guk ordu erdi bat o ibiltzen giñan, treza bakoitza. Ehun ta larogeitaka, ordu erdi bat o hola ibiltzen giñan.
- Eta tretzak, karnata hartu eta ze, ze, ze in behar izaten zan?
- Antxua, antxua.
- Antxua, amuai jarri...
- Amuai jarri antxua, ta [...] texaola. Texaola haitan.
- Texaolan.
- Texaola izena zuan. Holako tabla bat eta geo beheia pixkat laga, eta lixtoi bat. Lixtoi bat honela jartzen zan, ta geo [...] bat atian palillatzen, goraka-goraka, betetzen. Ta geo hura itsaso beika jarri, asteburua ta, dana banaka-banaka [...], tza-tza-tza-tza-tza. Ez al dezu ikusi pintxuan ta hola reportajia? Tipo hori, igual-igual. Hura, martxa haundiyakin jungo zian, haiek sarriyo, habek, guriak. Igual atzea beira jarri ta ta, geo hantxe

1.12. Antxoarik ezean karnata moduan lantzoia

- **Hizlaria(k):** Isasti Aizpuru, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-005/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
 - Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Karnata moduan antxoa erabiltzen zen normalean. Antxoa gutxi zenean lantzoia ere erabiltzen zen. Antxoa asko izaten zen orduan eta ondo moldatzen ziren, baina antxoa harrapatu arte kezka izaten zuten neguan. Tretzak betetzea etxean egiten zuten bisigutara joan aurretik. Izaten ziren urte txarrak ere eta antxoarik ezean lantzoia ekarri behar izaten zen. Baina garai batean oso garesti ere egon zen.

Transkripzioa

- Eta karnatako antxua beti?
- Antxua. Geo gutxi zanian'e, lantzoia're ekartzen giñun, lantzoia're [...] giñun. Ta bixiguantzat, bixiguak jotzen zunian hobe zan zea...
- Lantzoia.
- Lantzoia.
- A, bai?
- Gogorro. Ta ez zun botatzen, zebo firmeo zan. Ta hoixen. Geo antxua're ordun asko zan, antxo polit askua. Antxua, holako antxua. [...] jan laike pare bat paleka, e, txakoliñakin!
- Bai.
- Ta orduan ondo moldatzen giñan. Baiña hura iñ arte, beti kezka. Beti... hura zan neguko ogiya. Hura iñ ezkeo, lasaitutzen zan.
- Antxua?
- Bai, antxua ibiltzen zanian, "bixigutako garnata in diguk, behintzat eta". Ta geo bakoitzak norbeak iten giñun hamalau o hamabosna treza berriyak, ta amua jo, ta bakoitzak, bakoitzak, lagun bakoitzantzako horrenbeste. Lagunak iten zituen, lagun bakoitzak hamabi, hamalau treza, berriya.
- Berriya.
- Itxian, itxian iten giñun. Batzuk...
- Hori noiz egiten zan?
- Etxian [bankotik] ez bazeon, ta iltze bat sartu, ta aurrenengotik jo ta bestiai aitak peatu, ta. Sillan, etxe barruan. Etxe barruan iten zan.
- Eta hori neguan?
- Neguan. Neguan.
- Udazkenian?
- Bixiguta jun baiño lehenotikan. Garnata iten giñunian. Garnatik ez bazian iten, ez zeon trezik iteikan. Ez zeon trezik iteikan garnata behar zulako. Garnata in behar.
- Eta izan zan urteren bat, gogoratzen dezu, urte txarren bat?
- Bai.
- Antxua gutxi, eta...
- Bai, bai, bai. Ziharo. Ta geo ekarri're iten giñun, lantzoia ta hori.

Lantzoia're etortzen zanian, lantzoia gehio sartu behar.

- Erosi in behar?

- Ez, lantzoiak geuk iten giñun! Baiño hura're gutxi, ta hura garesti, bakizu. Garai hartan, e, kuarentaiseisian o hola, hogei duro balixo barriyak! Zeak, nola... zenbatekuak izango zian hurak? Hamabost, hamabost hamasei bat kiloko, hola [...] dan ontzi bat zan, Donostiyan. Baiño ziharo urriya. Hamabost hogei etxea iten giñun, poitua iteko. Ta poitua iten zuenian, bai poito polita garai hartako. Lanian! Goorra, goorra! Lehenore goorra, ta uain'e goorra.

1.13. Sarea azkar konpondu behar izaten zen marinela berriz itsasoratzeko

- **Hizlaria(k):** Azkue Fernandez, Sabina; Lazkano Ulazia, Eugeni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-010/022
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:40:22. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena:** Sabina sarea konpontzen ibiltzen zen. Edozein ordutan deitzen zieten eta sarea azkar konpondu behar izaten zen marinela itsasoratzeko zain egoten ziren eta. Lurrean eseri eta josi egiten zuten apurtutako sarea. Lehenago kotoizko sareak izaten ziren eta tindatu ere egin behar izaten zituzten; gerora nylonezkoak izaten ziren. Udaberrian, antxoara garai, egiten zen sare-konpontzea.

Transkripzioa

- Eta pentsatzen det, hamen Getaian, emakume asko, modu batian o bestian, beti arrantza kontuekin ere ibiliko zinetela?

- S: Oin gutxidxo, e!

- Baiña zuen, zuen gazte denboran normala izango zan, ez? Zuk esan dezu umetatik...

- S: Bai, ni sare-konpontzen ibiltzen nitzan. Ni saria konpontzen, gizona mariñela nuan, ta... Geo baforia're bazun, armadoria zan, ta... Derrior sarian ibili bihar izaten gendun... Saria konpontzen ibili bihar izaten gendun.

- Jarriko dizut, zuri jarriko dizut eta...

- S: E?

- E: Bai.

- Zuri jarriko dizut hau, eta...

- E: Jarri, bai.

- Eta kontatuko diazu sare-konpontzaille kontu hoiek nolakuak izaten zian, ta...

- E: Horrek esango dixkizu, ondo dakixki.

- S: Bai, han izaten giñan, bai. Eozein ordutan deitzen ziguen saria puskatu zula ta saria konpontzea moilla gaiñea goizeko ordu bitan igual, ta eguna hasi bai, konpondu zai eoten zian itsasoa juteko.

- Eta ze izaten zan, bafore bakoitzak bi edo hiru andre izaten zitun, e...?

- S: Bai, bai, bai. Asko bihar bazian, asko. Zeatik askotan etortzen zian saria dana puskauta ta piezak falta zitula, ta. Hua in in bihar zan, uain bezelako aukerik ez zeon orduan sare asuntuan, ta. Orduan in bihar izaten

zan azkar ta dana eskuko lana izaten da, eskuko lana.

- Eta nola izaten zan? Kontatuko diazu?

- S: Eskuko lana.

- Nola izaten zan...

- E: Sariena?

- S: ...sari-konpontzia eta?

- E: Sari-konpontzia, jostorrazakin ta...

- Bai, bai, baiña nola?

- S: Nola iten zan? Ixerita. Bai. Oseake, dibujo hori ikusten dezu? Dibujo hori. Ba, igual-igual in behar izaten zan. Dibujo horren iguala in ber dezu / bertzu/. Saria hola da, e? Ta hori in ber dezu /bertzu/ "tejer". Igual-igual in behar izaten dezu.

- Josi?

- S: Josi. Falloik gabe. Hala in behar izaten zan. Ta gizonak zai eoten zian itsasoa juteko. Halaxe.

- E: Hauek konpondu zai.

- Eta ze... ze ibiltzen zan?

- S: Hari algodoiakin.

- Algodoia.

- S: Geo hasi zan nylona. [...] Algodoia zanian gaiñea in behar izaten gendun tintatu tintalekuan. Ta gizonak itsasuan baldin bazian geuk ahal bagendun. Gizon pare bat hartu lehorrekuak launtzeko sariak jasotzen ta, astunak izaten zian ta. Ta tintatu, lehortzen euki., ta horrela. Geo nylona azaldu zan, ta harekin salbatu giñan. Ta oan, berriz, hain haundixak dazkae, ez due ia lehen bezelako lanik hartzen, porke... Gaur goizian eon naiz batekin. Esan diot, "ze, sarea konpontzea al zuaz?", ta "bai". Ta, "lehen bezela segitzen al dezue /altzue/?" Gu urte asko geauta geo. Ta esan zian "Ez! Lehen bezela? Pentsatu're ez" esan zian. "Lehen bezela? Ikusiko bazenduke uan ze sare dazkaun? Herridxa baiño haundixaguak dazkau! Eta hau ez dao harrotzeikan lehen bezela". Lehen iten genduzen, ba, geuk, ahal zan bezela. Baiña oan ezta pentsatu're. Oan haundixak ziharo.

- Eta lehen, sare zati bat apurtzen baldin bazan, ze egiten zan? Beste sare zati bat hartu ta...

- S: Peatu. Pusketa falta bazun, pusketa jarri. Ta bestela, "tejer".

- E: Jostia, bestela.

- S: Bai, josi. Zergatik xulo bat ikusten bazuen gizonak, handik arrai asko jun zeikien, bakizu, zulu.

- E: Igesi.

- S: Igesi iten.

- Eta hori gutxi gorabehera eguneroko lana izaten zan?

- S: Euneroko lana, gutxidxo o gehidxo, primaveran, e? Primaveran. Geo ibiltzen zian neguan, ba, bixigutan, papalardua ta. Arraidxa ederra pranko jan deu saldu eziñik hemen kalian bixigua. Saldu eziñik hemen kale ertzetan jarrita, ze bixigu eder ta ze arrai eder!

- E: Bai! Haiek bai bixiguak!

- S: Jesus, Maria ta Jose! Haiek bai ziena gauzak!

- Sare-konpontzia izaten zan udaberrian, antxua sasoian.

- S: Bai, orduan. Ta geo udaan'e bai, garnaata itea juten zinian, hemen bertan, Oridxoko [kanpo...] puskatu zuela, ta. Baiño, ez. Gehidxena primaveran, sare asuntua. Holaxe.

- Eta beti, bi hiru emakume beti bafore bateko sariak konpontzen.

- S: Derrior. Derrior, derrior. Karruan eon behar zan, bai. Ni baiño maextraguak bazian, ta han ibiltzen zian haidxek.

- E: Geo kuadrilla haundiyak'e bai, lan asko zuenian.

- S: Bai, bai, bai, bai, bai.

1.14. Sareak tintatu egiten ziren konserbatzeko

- **Hizlaria(k):** Azkue Fernandez, Sabina; Lazkano Ulazia, Eugeni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-010/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena:** Sare-konponketa lanak gutxitzen ari direla komentatzen dute. Gazteek ez dute lan hori egin nahi. Bartzelonan sareak josteko makina bat atera omen dute. Sareak lehen Bartzelonatik ekartzen ziren. Sareak tindatu egiten ziren lehenago konserbatzeko. Tintalekua non zegoen. Tinta koskortsua irakin tina handietan eta bertan sartzen zituzten sareak. Sareak astunak izaten ziren eta gizonezkoen laguntza behar izaten zuten tindatzeko garaian.

Transkripzioa

- S: Oain, hori're gutxitzen ai da. Gaztiak ez due nahi sareik konpondu eta lehenguan batek esan zian, "Ez dakit ze ikusi behar deun!". Zaharrak erretiratzen ai dia eta gazteik ez dator. Ze in behar da?
- E: Gaxtiak'e... Lan astuna da hori, ta!
- S: Eta esan zuela, esan zian batek. Barzelonan ai zila ateatzen makina bat "para tejer".
- Josteko.
- S: [...] Barzelonatik etortzen dia en jeneral sariak eta gauzak. A! Auan ikusi in behar "si resulta o no". Baiña hor eskua beti behar da emakumiana. Armatzeko ta daneako, hor eskua beti behar da, gaiñian.
- Lehen sariak nundik ekartzen zian?
- S: Barzelonatik en jeneral.
- Lehen'e bai, e?
- S: En jeneral Barzelonatik.
- Oain dala berrogeita hamar urte're bai, e?
- S: Bai, bai, bai. Barzelonatik etortzen zian biazantiak beak, itxiak hartuta eukitzen zituen, e! [...] hobeto esateko. Beti Barzelonatik. Beste non o nondik ekarriko zian, oan ni... Aspaldi, esan dizut, aspaldiko urtetako kontuik ez dakit, ez dakit. Baiño jeneralmente Barzelona erabiltzen zan. Bai.
- Eta... esan dezu, tintatu're iten ziala, ez?
- S: Hori lehen, algodoiak in bai. Baiño uan ez.
- Eta tintalekua esan dezu...
- S: Tintalekua hor nola dao oan Myflower? Horren behian zan tintalekua. Estreña zan, beno, mataderua godxan.
- E: Bai.
- S: Te geo behian tintalekua.
- E: Bai.
- S: Hor tunel bat bado, ba, hor behian? Zean, txiringituan pare hortan? Hor, hortxe zan tintalekua. Hor tintatzen zian sariak. Konserbatzeko, konserbatzeko.
- Oain, tintatu ta...

- S: Lehortu. Algodoia konserbatzeagatik izaten zan. Ta geo atea zian habek, nylona, ta... puf!

- Eta tintatu nola iten zan?

- S: Ba, tersa jarri, zea batzuk, e, tinta esaten zan...

- E: Koskorra.

- S: Koskorra bezela. Hua irakin in behar izaten zan. Irakin in behar izaten zan koskor hua, deseindu.

- Tiña, tiña haundi batian [...], edo?

- S: Bai, tiña, ontzi, zea [...], deposituak.

- Deposituak.

- S: Deposito haundixak zaben hor. Ta hua in behar izaten zan disolbitu, dana likido jarri ta han sartu. Alkitrana're eman izan diyoun, alkitrana're. Puf! Ta geo gabian, hua eman ta, umiakin komerita plaza. Komeridaxk izaten zian orduan, komeriantiak.

- E: Ordun bai!

- S: Eta gu etorri zai orduan ume danak banko txikidaxkin plazan, komeridaxa ikusteko zai.

- E: Ume ta andre!

- S: Honbre! Gustora gu're! Geo, uan zea dakau, telebista, baiña orduan gustoa asko eoten giñan komeriantia ikusten.

- Eta tintatzia emakumian lana izaten zan, o?

- S: Gizasemiana, hobeto gizasemiana, baiño gizonik ez bagendun, ahal zan bezela, norbeak moldatu bihar.

- Astuna izango dalako, ez?

- S: E?

- Astuna, e...

- S: Astuna. Oso astuna.

- E: Bai.

- Sariak eta moitzia...

- S: Oso astuna, oso, oso.

- E: Oain...

- S: Beti izaten zan baten bat laguntzeko, e! Gizasemen bat o beste beti izaten zan. Geo karroa ate hua, busti-busti inda, ta geo handik zabaldu. Ta geo lehortu.

- Kaian?

- E: Lehengo sariak...

- S: Kaian zabaldu ta lehortzen segi, denboa guztidaxan...

- E: Lehengo sariak gaiña astunak oinguan aldi.

- S: Bai, algodoia... Jesus!

- E: Jesus!

- S: Konparatu. Astuna? Hoixe zan, ba, astuna!

- E: Hoi ba! Lehenguak ziharo astunak.

- S: Bai, oso astunak'e.

- Eta tintatzia ze izaten zan, astian behin edo hillian behin, o...?

- S: Hoixe ez dizut /etxut/... Ez naix gogoratzen! Hillian behin ez. Hillian behin ez, baiña... Bastante zean bai. Hillian behin, o bi hillabete izango zan. Ez dizut /etxut/, hori ez dizut /etxut/ kalkulatu. Hortako bestiak gehidxo zeaten zian ta. Baiña oso-oso astuna lana.

1.15. Emakumeen lana mallako arrainarekin

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Idiakez, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-017/005

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Fabrika txikiak eta bodegak atetik atera zeuden. Italianoak apopilo egoten ziren Rosanean edo Pionean, Italian antxoa oso estimatua zen eta. Arraina etortzean emakumeak ilaran jarri eta saretik burua kenduta otarrara botatzen zuten arraina. Hortik saltzera eramaten zen. Antxoa horrek brilo handiagoa izaten zuen majuran harrapatutakoak baino.

Transkripzioa

- Asko zan, bai. Idxa atetik atea.
- Bai, bai.
- Ta fabrika txikidaxak'e, atetik atea.
- Hori bai, ez?
- Bai.
- Bodegak eta?
- Bodegetan jartzen zan antxua, mallan etortzen zan antxoa guztidxa, ba, hor, italianuak etortzen zian ta apopillo jartzen zian Rosanian ta Pelaionian. Bai. Nik haidxek goguan dazkat. Gizon diferentia beti ikusten giñuzela, italianuak. Eta hoidxek benta juten zian ta gure aita [...]: "Aquí viene San Francisco lleno de pescao" ta, bentako listo eoten zian. Ta geo, mallako arrai hori arrai diferentia izaten zan egunez majuan harrapatzen zuenan aldian, e! Porke, saretikan jartzen giñan filan, emakume pillo bat, arranpalian, eta saria luzatzen zan antxoz beteta, ta geo deskabezatzen zan saretikan burua sangratuta, eta otarrea botatzen gendun. Kendu ta otarrea, kendu ta... Geo haura benta juten zan. Ta hori konserban iten zuenian ikusi in behar zan haren koloria zer zan! Plata koloria erteten zun antxo hark!
- Diferentia.
- Bai, diferentia. Baiña brillo batekin! Sangratutakua beste gauza bat. Eta estimazyua izaten zuan hamengo antxuak Italidxan. Eta etortzen zian epoka horretan antxua itea.
- Ta hori mallakua?
- Mallakua. Eta majuakua're bai, baiña mallakua zan konpletamente... Zea ematen zuan, brilluan brilluakin, zillarrezkua. Oso... plantxa dana ta oso-oso, oso polita izaten zan. Ta antxoa lanian'e asko ibili gea gu. Udaberridxan beti danok.
- Klaro, ordun emakumiak eta...
- Ta despeskan, txingorretan ta, goizeko bostetan jaiki ta, lau t'arditan jaiki ta, hantxen. Geo ardo goxua ematen ziguen galletakin...
- A, bai?
- ...ta hantxen.
- Epeltzeko?
- Pixkat berotzeko o ematen ziguen ta. Holaxe bizi izandu gea, oso bizimou polita zan bestela hamen.

1.16. Olagarroak nola harrapatu eta hil

- **Hizlaria(k):** Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-018/016
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- **Laburpena:** Olagarroak makila batekin harrapatzen zituzten. Olagarroa hiltzeko begitartean duen zaina ahoarekin apurtuz gero gozoagoa egoten omen da.

Transkripzioa

- Eta olaarruak eta? Nola harrapatzen zan? Nola harrapatzen dia olaarruak?
- Olaarruak hor...
- Eskuakin o?
- Eskukiñ. Jesus! Hola gaxto samarrak... kakua, baiño gutxi... [...]. Gue anaiak askotan eabiltzen zun harrek kakua. Baiña hola, etorri nahi ez bazun, burua atea ta, ta!, haizuluan, luzatu bai erruak hola, ta burua ixkutuan ta. Eaman, ta tzas!, sartu ta... olaarrua.
- Bestela, eskua sartu ta atea.
- Eskua sartu ta... Eskua sartu ez! Hola... [zihorra] esaten giñun guk, makilla, hurritzekua, harekiñ. Puntan garra, ta amarra o, o bakaillaua o, zeoze [...], ta, tta! zeatzen zan. Ta, rrrrrrra!, seituan etortzen zan kanpoa. Burutik rak! heldu hola. Estutzen baziñun, ra!, dana heltzen zun hola, jata, behetik gora! Baiña justu-justu, rak!, ttak!, atea... Ta geo, bi begi eukitzen dittu, eta begi-tartian zaiña. Ta hartu ahuakin ta, krak!, ta, krak!, ra!, seittuan. Ta hobia. Beste batzuk hola, jo ta akatzen duen hoiek... Hesten nunbait odola o, heste, hesteta. Hori gozoaua.
- Biunaua.
- Gozoua. Sangratu iten, itxuraz. Bai! Hori askoek esaten zuen ta. Oaiñ, oaiñ ez. Oaiñ postizuak, ta oain ez da bate. Oaiñ, oaiñ, oaiñ ez.
- Eta ordun hamen, e, inguruko basarriyak...
- Danak, danak olaarrota. Olaarro pilluak ekarri're. Oain geo, uain azkelnaldin'e galdu in zan, [...]. Nunbaitt arrasteruak honeaiño etortzen zian ta jata garbi itten. Hi, ze, horreaiño beste, arrasteruak.

1.17. Gau-arrantzan kabrak harrapatzen zituzten gehienbat

- **Hizlaria(k):** Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-018/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:33:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza
- **Laburpena:** Gauez ere ibiltzen ziren arrantzan karbuoarekin argi eginda. Kabrak harrapatzen zituzten. Nekorak ere egoten ziren, baina paraje txarrean (planea harriak zeuden inguruan).

Transkripzioa

- Eta bestela, beste... ba... nekora, o...?
- Nekora...
- [...] o... Baztarran izaten zan beste zerbait?
- Gau-arrantzan'e makiña bat itten giñun guk... Jesus! Launa bagiñun hemen ta, karburuakin. Ta hiru muturreko inda. Gure anaiak tallarran in, ta hiru... Batek, batekua izaten due karburu potua, karburua sartu behian ta goien ura eukitzen du, eta zuk manejau itten dezu: gehixio iriki, gutxixio iriki. Bere zea ateatzen du: zuuuuuuu, eoten da. Ta hiruekin, ta argi haundiya. Ta kabreta. Ta holako... Arrankatzia esaten giñun, kertenakin, ta, tzas! bizkarran, ta zakura. Ttak! han atea, ta...
- Kabrak?
- Kabrak. Ta, [...] zea hori, nekora hori, hemen... oain biberua nola dao Getaian, oain daon molla, atzea hori, hoi zan ona.
- Inguru hori?
- Hori ona, baiña ibiltzea txarra... Jesus! Harraldian, hola, planea esaten diou guk, altua, eta hemendik hara pasa in behar, tartian, ta gero goitik behera jatsi behar. Ta seuru jun ezkeo [...] baiño, ibiltzen bajamar haundiya behar ondo ibiltzeko. Gaiña jarri uain pentsatzen, jata, guk ibiltzen giñun bala, nik neure buruai esaten diyot, guk ibiltzen giñun bala, e! Ta oaindik ez diyo gaiña esan izango iñuik juteko're. Esango diyoe, "ez jun, paraje txarra dek eta". Hala're jun ingo dia, baiño...
- Eta nola esan dezu, harri zapal hoiei nola esaten diyezue?
- Planea.
- Planea?
- Planea, guk planea esaten diyeu.
- Planea.
- Planea. Hola eoten dia hoiek, planean. Oso toki txarra zan hori. Ta jun ezkeo, zea, nekora hori asko.
- Hola, e..., harraldietan eta dian, e..., harri hauek, ez? Zapal-zapal, goitik beherakuak...
- Hemen ez da, hemen gutxi da. [...] eta honea gutxi da. Bajuak, bai, harri... Hor zean dia hoiek, lehen esan deun San Anton mendiko...
- San Anton atzekaldian, bai.
- Hor, hor, hor! Ta tuneletik hauntza're badabe hor, tuneletik hauntza bajamarren daunen ikusiko zendun hola...
- Bai, bai.
- ... haen azpin ibilita gea gu! Gau-arrantzan, bajamar haundiyakin. Ta akordatzen naiz, batian jun ta, hiru kabra harrapatu giñun, ta beste ze?... ihesi! Dezente zeon. Ihesi, ra! Dios! Hura're hantxe gora, ta bildurra ta, hantxe gora. Behera jun, ta, peligrosua! Peligrosua.

1.18. Ilargiak badu zerikusia gau-arrantzarako

- **Hizlaria(k)**: Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-018/018
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:33:02. **Bukatu**: 00:35:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

- **Laburpena:** Non egoten ziren kabrak. Lazuna zikina zegoen lekuetara biltzen zen, baina beraiek ez zuten harrapatzen. Behin sei kilo pasako aingira harrapatu omen zuten. Debako Sakonetara ere joaten ziren kabra txikiak hartzera. Ilargiak badu zerikusia gau-arrantzarako.

Transkripzioa

- Geo, bestia, txilinduna o, badao, ba, Getaian? Txilinduna o, behian, nola daon, ta cruz roja o, zer dao hor? Hoi dana harraldia, itsasua zan hoi dana, harraldia. Ta goian mataeia. Ta geo, goiko, herriko zikiñak'e asko hara jutenezian, horrea, ta. Han kabra asko harrapatzen, harrapatu giñun. Baiña geo, sartu [ziyeun] dios!, zikiñeko're gauza, ta ez zikiña zabelako hua, baiño zikiñeko zea. Ta ez giñan jutenezio, gerora, azkenaldea. Ta, lazuna're zenbat dao? Lazuna're zikiñea ibiltzen dia.

- Bai.

- Gu ez gendun lazuna harrapatzen. Harrapatu izan gendun hola, baiño... Angira batian harrapau gendun, hortxe [...] esan deten zea hortan...

- San Antongo...

- San Anton biberoko... Hoiak harraldia zan, ba, dana, ta. Goien ez zan, behero zan hor planea hori. Goi-goien ez zan, behero barra, ta. [...] gora jutenezian, goien'e dana agortu itten zan, ta. Angira bat harrapatu gendun sei kilo, iya zazpi o hola eskas o, angira haundiya. Hura behera junda, potzuzuloa, [...], atea gendun.

- Sekulakua, ez?

- Bai. Baita gu hor zea aldera jutenezio, Debako zea're. Hor Deba aldian, Itsas..., hor zea horta.

- Itsaspe azpiyan?

- Horrea, bai. Hor, nola esaten diyoe, Itsaspe ta...

- Sakoneta...

- Sakoneta, horrea're bai. Hor kabra txikiya. Txikiya hor kabra. Habetan handiyagua. Gorri hori [...], ta beste marros... marroia itten dun hori da haundiya. Baiña gorriya, gorriya. Gure ama zanak earki prepaatzen zun hemen, de dio! Gozua jaten, haren saltsa!

- Eta hori beti gau-arrantzan.

- Gau-arrantzan. Aurrenengo junaldiyan gehien harrapatzen gendun, ta geo hurrenguan gutxiyo, ta hirugarrenekua gutxi. [...]

- Bai...

-... o illargiyak itten ziyon, o ez dakit ze...

- Inportantia izaten da illargiya?

- Bai. Illargiya berriyan gehiena. Illuna're eoten da, ta ikusi're itten da. Ta illargiya haundiya, dio! Argik beak'e... Hola gure kontuak gazte denboakuak.

1.19. Belauntziak eta kostaldeko arrantza

- **Hizlaria(k):** Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-021/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

- **Laburpena:** Claudio gaztea zela, antxoa mailan harrapatzen zen. Antxoaren neurriaren arabera, maila bat edo bestea erabiltzen zen. Ontziak ere belakoak ziren, txikiak, eta "kaleuan" egiten zen, kostaldetik bertan, hurrean. Motorrak gero agertu ziren. Moila ere beste bat zen, "antxirridxa". Hantxe ikasten zuten mutikoez igerian. Txalupak ere bertaraino iristen ziren.

Transkripzioa

-Eta antxua orduan, bi-hiru hillian antxua?

-Bai. Lenbizi, gu, ni gaztea nitzanian, maillan.

-Maillan?

-Maillan. Sariak mailladunak. Ze mailla zuan, antxo hura arrapatzen zan.

Maillatu ta geatu iten zan. Orain in dia gauzak aldatu.

-Mailla diferentietako, neurri diferenteko.

-Antxua diferentia.

-Eta ze erabiltzen zan, sasoi garai batian bat eta bestian bestia, edo...?

-Ez, gutxi gorabehera, ikusten zanian zeak'e bai, ikusi [...] haundiyak zauzkak, sare bat o bi bota, antxua haundixue dek edo txikidixue dek, eta orduan batzuk bota eta bestiak barroa ta hola.

-Eta hori, baporetik'e bai, maillan? Edo txalupa txikiyak?

-Bai, txalupak eta geo lehenbiziko motorrak, zeak zianak, esto, gasolin motorrak eta zeak, eon pixkat... belan ibiltzen zianak. Zea, [panpaloi?] txiki batekin belak, belak.

-Hori ere ezagutu al dezu?

-Bai, bai, belan.

-Eta maillan?

-Bertan e? Klaro, orduan antxua honea etortzen zan.

-Kostan bertan?

-Kalegua.

-Kalegua esaten zan?

-Kalegua. Kalegua. Klaro, fabrikak zian kale hontan, beno, kale hori ya geiyena bajo denak antxua eiten zan. Hemen'e bai batzuek, eta geo plastikorako pixkat haundixaua fabriketan, antxua dan-dana Getaidxan elaboratzen zan. Geo etortzen zan Italitikan barko bat aldian behin. Orduan zeatu bakarrik, ez zan latian-ta jartzen; barrilletan zeatu, gatzakin zeatu, geo itxi, kargatu eta Italira.

-Eta Italiara ya eramaten zan barriketan . . .

-Barriketan, berrogeita hamar kiloko, hirurogei kiloko barriketan.

-Eta orduan, zuk ezagutu zendun ya lehenbizi, ba, belakin eta kale...

-Bai, bela, bela gutxi zan baiña... geo han aldian erakutsiko dizkiyat, bazezkatek hor argazki batzuek Getaiquak pilla bat zio, nahi badek utziko diat eramaten. Moilla zarra, moilla zarra... ez hau, e? -Barrurokua, oain arranpla nola do? Ba horixe zan, moilla hori huan leno Getaiyan. Nik ezautu nien, nik ezagutua diat hau oaingo zea hau, baiña lehengo Getaike moilla zaharra hura bakarrikan, San Anton azpidxan daon hori.

-Txintxarria o nola da hori? Txintxarriya.

-Txintxarriya... Ez.

-Atxirriya?

Atxirridxa! Atxirridxa! Han ikasten giñun igeriyan danok.

-A bai e?

-Hondar pixka pixkat huan han goyan, eta...

-Eta, txalupak eta bertaraiño?

-Bai, bai, hura bete-bete-betia. Ta gero erakutsiko diat.

1.20. Antxoaren arrantza: ardoran, majuan eta "estraperluan"

- **Hizlaria(k)**: Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-021/006
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:13:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- **Laburpena**: Antxoa harrapatzeko modu asko zegoen. Gauez ardoran egiten zen eta egunez majuan, izurdeei segika. Izurdeek antxoak jaso egiten dituzte itsaspetik eta ikusi egiten da azalean. Antxoak beti eguzkira egiten du ihesi eta horren arabera botatzen da sarea. Gauean ardoran egiten zen. Antxoa gauez ikusi egiten da, argia egiten du. Ilargia zenean harriak botatzen ziren itsasora (danba-harria, txikote batekin lotuta). Harria botatzean, arraina dagoen tokian arraina mugitu eta ardora egiten du, argia egiten du. Danba-harria bi lagun artean botatzen zen. Orduan ez zegoen aparatorik eta ikusi ahala harrapatzen zen. Bestela, "estraperluan" ere egiten zen: sarea iritzira bota, ahal zen tokian edo antxoa egongo zela pentsatzen zuten tokian, eta batzuetan asmatu egiten zen.

Transkripzioa

-Eta mailla gehienbat?

-Maillan, maillan, maillan. Eta geo kazan, atuna kazan.

-Bai e?

-Kazan. Biberuak eta, nik hogeitun urte nitunian o hola hasi biberuak, hori bai, hori, hamabost urte nitunian edo hola.

-Eta antxua ta, antxuatan iteko, zer zeren, bi o hiru modu diferente bazian ez?

-Bai

-Edo zerkuan ere bai, gabian edo majuan edo...

-Gabian ardoran.

-Gabian ardoran?

-Ta normalki egunez majuan, majua deitzen zakok izurdiakin: izurdiak segi, segi, segi, segi, segi, segi eta izurdiak antxua billatzen zunian, ordun iten zin behera sartu, ta jatea dijuanian, hik'e ze ingo huke? Igesi! Igesi! Orduan antxuak igesten dik behetik gora. Ta ordun iten dek gorri-gorri-gorriya itsasua, ordun ez [zitxon] aparatoik eta ezer: bista, txoriya, ta..., nik lenbiziko antxua hala harrapatu nian.

-Majuan?

-Majuan. Ta beti eguzkiyen ondoren, hura itxiaz.

-Ze ba?

-Eguzkiya nun dao? Eguzkiya moitu iten dek, estetiken erten ta oestea arte. Asike eguardiya baldin badek, eguzkiya surrian zeok. Orduan surra itxi beti.

-Surretik bota?

-Surra itxi, muturra itxi, muturra itxi. Saria hola botatzen dek.

-Beti harako joera daukalako?

-Beti eguzkiyan joera. Antxua igestea eguzkiya, eguzkiyan billa.

-Eta goizian estetik eta...
 -Goizian estetik, eta illuntzian oestetik. Oestea, bai.
 -Eta hori zan majuatako...
 -Majue.
 -Majuatako arrantza.
 -Eta gabian esan dezu?
 -Geo sardeta're bai, sardeta're bai. Izurdeik gabe berez jaikitzen dana ba..., saltoka edo bestela ikusten dek errutia beltzunia, "oi! Arraya". Antxua ta bota. Gabian ardoran, ardoran hasiera. Geo dana argiyakin.
 -Eta hasieran nola ardoran?
 -Ardoran, ikusi iten dek gabez.
 -Jun ta ibili ta...?
 -Ibili ta ikusi, billatu arte. Ilargiya zeonian, ilargiya zeonian, orduan ibiltzen hituan holakoxe harri batzuek, hauxe, hiru bat kiloko harriyak, kanala atea, txikota amarratu harei, esto... ardorik ez dek ikusten, ilargia bado ez dek ikusten, arrairik ez dek ikusten. Orduan, aurrian jarri bafore txikiyuak'e bai, batek bota dzu! Bestiak dzu! Batek dzu! Bestiak dzu! Arrayan gaiñian jartzen zanian, arraia sustatzen zanian, dzu, iten zien, ta orduan ikusten zien arraya zeola. Ordun iten zien, ta dzu! Orduan, bota saria.
 -Eta harri hori botatzen zan?
 -Harri hori.
 -Izenik edo bazun?
 -Danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya, danbarriya.
 -Eta hori aurretik...
 -Bi launek: blast batek eta blast bestiak, eta blas bestiak, eta blas bestiak, eta.. "in dik! Listo!" Ta erria.
 -Eta erraz aurkitzen zan antxua?
 -Zeonian bai!
 -Gehio zeolako.
 -Gehio zeolako. Hori ez diat nik ezautu, e? Baiña... geo baita zean'e, bazterrea etorri hemen kostata, kosteta etorri ta, klaro, aparatoik eta ez zeon ezer, eta antxua ez dek beti jaikitzen, ta orduan zeon "estraperlo". Asi ke jun ta toki seiñale bat o toki batzuk beti hobiak dia geyo harrapatzen dalako "o lo que sea" , "por tiempos" jakin iten da, ez? Ta jun ta bate ikusi gabe... bota; ta batzuek harrapatu ta bestiak ez ta. Estraperluan.
 -Holan esaten...?
 -Bai.

1.21. Bisigutako arrantza eta tretza-betetzea

- **Hizlaria(k):** Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-021/008
- **Iraupena:** 0:06:55. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
 Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Bisigutako arrantza ere ezagutu zuen. Hala ere, berak lehorreko lana egiten zuen gehienetan. Bisigutako arrantzarako tretzak egin behar izaten ziren eta berari lan hori egokitzen zitzaion. Ontzi bakoitzak bi aparejo zituen, bata itsasoan eta bestea lehorrean. Ontzi bakoitzean 8.000 amu inguru. Egunero-egunero amu guztiak prestatu

behar ziren, hurrengo egunerako. Tretzak ere eurak egiten zituzten. Tretzen egitura eta zatiak ere azaltzen ditu, eta tretzak nola egiten ziren. Tretzak egin ondoren, amuan antxoa jarri eta tretzaolan jartzen ziren. Tretzaola bakoitzean 300 amu inguru. Herriko jaietan ere konpetizioak egiten ziren, ea nork azkarren egin. Bisigutako arrantza neguan izaten da, azarotik urtarrilera. Otsailerako antxoa hasten zen. Bisigutako arrantza baino lehenago ere antxoa hartu behar izaten zen, gero bisigutan erabiltzeko.

Transkripzioa

-Eta bixigutako arrantza ezagutu zenun?

-Bai! Ibili gutxi ein nai. Ni, orduan, lau lagun, sotuan gelditu ber izaten zuen. Lenbizi in ber izaten gendun setienbrian edo holako antxua ein.

-Harrapatu?

-Harrapatu. Hura gazitu, ura zeatu, salatu, eta geo norbeak ein trezak. Tretzak. Treza deitzen dia horik. Treza bakoitzak ehun ta hirurogeita hamar amo, hirurogeita hamar amo, berrogeita hamar treza, berrogeita zortzi, berrogeita hamabost, ta orduan juten zian han zortzi-hamar gizon, ta beste sei-lau-bost geatzen zian lehorrian. Porke ein ber izaten zian bete hayek.

-Egunero-egunero?

-Egunero-egunero bete.

-Bete ta askatu ere bai trezak? Aurreko egunekuak edo ya garbi etortzen zian?

-Geidxenak garbi etortzen zian, geidxenak garbi etortzen zian. Azkenea behintzat amua ere gutxitu ein zan, ta arrazo sartzen zan, ta garbiyo [...]. Asi ke apajo bat itxasuan ta beste apajo bat lehorrian.

-Eta esan dezu ehun ta hirurogeita hamar amu?

-Ehun ta hirurogei ta hamar, ehun ta hirurogeitamabost, ehun ta larogei.

-Treza bakoitza.

-Treza bakoitza.

-Ta zenbat treza ibiltzen zian?

-Berrogeita hamar.

-Guztira orduan, zortzi milla...?

-Ba, zortzi milla amo. Oain motor txiki batek ibiltzen txu zortzi milla amo.

-Eta lehorreko lana, zein izaten zan orduan? Goizian izaten zan o gabian, trezak [...] Ta...?

-Ez, ez. Segun ze ekipo zeon. Gizona're, askotan daneako ez huan gizonik izaten, ta orduan trezak itxian bete're bai. Famili askoek, dozena bat trezo hartu ta, ama-alabak o... Baiña guk, ni lehorrean goizeko hirutan hasi ta hamarrak aldea arte edo hola.

-Goizian beti?

-Beti goizian. Ta gero bafora etortzen zanian, baldin bazeon... Ta geo iten huan puskatu, ta hayek konpondu, arreglatu . . .

-Gero egunian'e . . .

-Egunian'e lana eoten huan.

-Deskargatzen ta . . .

-Deskargatzen lan gutxi izaten huan orduan. Bost peztan bixigua.

-Eta trezak eta, zuek egindakuak ziran?

-Bai, bai, bai. Gizon bakoitzai ematen zitzakon fabrikatik etorrita bezela [rollotikan] ta sokak, honenbeste amu, ta geo txanpela. Txanpela dek "puntera". Treza juten dek hola, hauxe huan neurriya, amotik amoa, ez? Hamen amo bat, hamen bestia, ta hamengua izaten dek, ba, zenbat izaten dek ba, zentimetroko holako soka, soka, ta geo beste erdiya, meheua, jaten duna, meheua.

-Hori da?

-Txanpela, txanpela.

-Eta trezak orduan egiteko, soka hartu eta txanpela...

-Sokai, sokai lehenbizi, bihurridxa kendu uno por uno. Bihurriya, bihurridxa fabrikatik ekartzen du. Bihurridxa kendu, eta tiratu, trezak in. Ez huan zaila iten. [...] lehenbizi amua jo, amua jo. Amotan honelako zea jarri, "puntera" hori jarri, holakoxia, hauxe. Geo koapilua in, porke zean, bestela korritu eiten zian. Orduan, silla batian, silla... Tiraan'e bai, bestela sillan jarri, amarra muturak eta da! Honenbestian. Da! Sillai. Ta firme eiten zuenian amarra zeatu, amarra zeatu, amua zeatu...

-Lotu?

-Lotu zeai. Bea, amo bea ez e! Amu bea lotu. Amua lotua zeok, amuai buelta bat eman, han jarri, ta bueltak eman, bueltaka, bueltaka, bueltaka... Iten zanian, holako txotxa hartu, San Antongo mendira junda, txotxak ekarri, ta hura han sartu, banaka-banaka, to ordun gelditzen huan honela apajua.

-Amua bertan?

-Amua sartu, sartu, sartu, sartu, eta gelditzen huan honela.

-Amua goyan?

Amua goian, eta apajua hola. Geo, hamen jartzen huan, harriya jartzen uan gaiñian, hemen maya, antxua eta geo, zea, trexaola. Trexaola. "cincuenta por cuarenta" o hola, ta da! Hamendikan, antxua hartu ta bete ta jarri, hartu ta bete ta jarri. Banaka-banaka. Bakoitzian, trexaol bakoitzian, bi bi bi bi apajo.

-Bi apajo? Hirurehun bat amo?

-Bai, hirurehun bat amo, bai. Ta geo eiten hitun konkursuak eiten hituan, zein azkarro, herriko festa zea izaten huan ta.

-Bai e? Herriko festetan hori?

-Bai.

-Eta zuen artian'e bai igual, ez?

-Bai, beno, guk guren artian bagiñakigun zein giñan onak.

-Eta esan dezu tripulaziyo bakoitzian lau-bost...?

-Bai, lau-bost bai. Edo hiru. Hiru behintzat gutxienez.

-Bai, ze hori lana izango da, ezta?

-Bai, batzuek ohitu gabiak eta, gu mutil koxkorretatik ohitu giñun, gu azkar xamarrak giñuan... Baiña batzuk nahio izaten zien itsasoan denboaletan neguan, trezak betetzen eon baiño. Nik ez.

-Gaiñea, bixigutako arrantzak neguan eta izaten zian.

-Negua, negua, negu purua.

-Eta zu orduan bixigutan ez ziñan ibili. Itsasuan eta...

-Ez, ni beti lehorrian, beti.

-Eta hori, bixigutakua noiz izaten zan? Ze garaitan izaten zan?

-Ze garaitan? Nobienbre, nobienbretik eneroa, San Antonak pasa, ta febreroako behintzet ya antxoata

-Baiña esan dezu bixigutako're, antxua lehen harrapatzen zala.

-Leno harrapatu, geo gazitu, gazitu, geo aroma emateko pixkat gustua... Honbre! Harek ez hitun tontuak e! Esto, zea sartzen zitxakon erramua.

-Erramua e?

-Erramua.

-Antxuak...?

-Usaya hartzeko! Usaya hartu deilla erramuena.

-Bixiguai erramua gustatzen zayo?

-Erramua, bai.

-Eta, bestela, antxua bizirik eta harrapatzen zan edo?

-Bizirik? Oso bizirik.

-Ez, ez, baiño bizirik, gorde bizirik?

-Ez, ez, hori, hori... "el año cincuenta y cinco, cincuenta cincuenta y

cinco"... Ba nik hamalu urte nitunian edo hola hasi hituan.

1.22. Lehen berdel gutxi harrapatzen zen, zailagoa zelako

- **Hizlaria(k):** Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-021/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Berdela eta txitxarroa ere harrapatzen zen. Lehen berdel gutxi harrapatzen zen. Garai hartako sareekin oso zaila zen. Orain askoz errazagoa da.

Transkripzioa

-Eta orduan neguan zan bixigua, gero antxua eta...
-Ta geo, derivados, txitxarrua, berdela, na.
-Harrapatzen zan berdela?
-Bai, baiña oaingo aldian gutxi. Saria gutxi. Berdela zaila izaten zan harrapatzen. Oain, "en cambio", sare habek eta... Sare habekin erraz harrapatzen due berdela
-Ta lehen ez e?
-Len ez, len zaila, oso zaila, oso zaila leno berdela harrapatzen
-Ta zergatik da hori?
-Arrai azkarra dalako, ta geo bloke haundikuak, ta sare... Sare txikiyak, sariak algoidozkuak. Izaten zian larogeita hamar braza. Oain zea, oain hirurehun braza, badabe sariak hamabi tonelada pixatzen txuenak, ta orduan bizkarrean jazotzen giñuzten zeara, lonjara.
-Ta orduan bihar zian berdeletako o...?

1.23. Azores inguruko mareak gogorrek ziren

- **Hizlaria(k):** Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-021/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa
- **Laburpena:** Claudioren garaian hasi ziren Azores ingurura joaten atunetara. Ez zuten ondo pasatzen. Lehengo ontziak eta frigoak ez ziren oraingoak, eta Azorestik Vigora egun asko ziren. Marea gogorrek izaten ziren.

Transkripzioa

-Ta geo beste harek, geo hasi giñuan zeara juten, lenbizi Azoreseta.

-Atunetara?

-Bai, atuneta. Ta Azorestikan Vigoa, "muchu tortilla". Egualdiya pixkat txarra jotzen zigunian ta, paraje txarra, txarra.

-Bai e? Aldia dago hamendik harea?

-Bai, bai, bai, izugarriya. Ta geo, bide luzia, erdi bidian harrapatzen badik, "no hay arribada". Honea o hara, beti "dos días", o "día y medio" o...

-Bai, eta baforiak ere, ez zian oraingoak.

-Ez. Oainguak hobiak dia, baiña hala're bastante haundidxa bagiñuan orduan hara juteko. Baiña beti karga-karga eginda: biberuak kargauta, larogei tonelada ura, o hirurogeita hamar [...] ura. Geo frigua're, oain bezelako frigoik ta gauzaik'e ez, ta jela asko eraman bihar , eta...

1.24. Garai bateko ontziak oso kaskarrak ziren: sukaldea, komuna, oheak...

- **Hizlaria(k):** Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-021/011
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena:** Lehengo baporeak, ontziak, egurrezkoak ziren. Ez zuten inolako erosotasunik. Komun txarrak, edo askotan komunik ez. Kamaroterik ez, kamaina txiki batzuk besterik ez. Ura ere gutxi. Oraingoekin alderatuta, lehengoak oso kaskarrak. Kanpainak ere txikiagoak ziren, hiru egunekoak. Euren garaian luzeagoak ere bai. Gaur egun askoz luzeagoak. Sukaldeak ere oso txarrak eta jan ere nahiko gaizki. Gehienetan marmitakoa edo arraina parrillan. Eta ardoa ugari.

Transkripzioa

-Eta baforiak ere nolakoak zian? Lehenbiziko baforia ezagutu zenuna, "años cuarenta" ta, nolakoak izaten zian? Egurrezkuak izango zian.

-Egurrezkua bai bai, egurrezkoak.

-Eta barrutik eta nolakoak eh . . .

-Barrutik, barrutik, lo eiteko tokiyak eta, "indeseables". Geo personen ta bean garbitasunikan eta ez zeon.

-Komunik eta bazan?

-Komunik? Bai. Bai ta ez. Bestela atzian ein bihar. Atzian holakoxe zea bat, zulo bat, ta antxe, arriskuan e, arriskuan.

-Eta lo egiteko ta?

-Lo iteko, hola, kamaiñak. Kamaiñak ez zan komeni zabalak izatia, kamaiña istua bihar zuan. Zabala baldin bada kamaiña, lotako tokiya, balantza eiten dunian, ibili iten haiz. Orduan, kamaiñak, holakoxe kamaiñak. Oain'e bai e? Oain kamarotiak dauzkae. Lagun bakoitzek edo bi lagunentzako bat.

Armayua, pertxak, kumunak ez dakit hiru o lau uste det dauzkaen, dutxak... Dutxak eta jarri ta geo, dutxetan urik ez [dutxatzeko].

Entenditzen? Oain zenbat arte ba? Oain bata gehiago haunditu, ta bestiak ura gezatzeko aparatuak jarri dixkoela, ta uan ura aukeran; baiña orduan ez.

-Orduan ez

-Orduan ez.
 -Kamaiñak ta sukaldia ta . . .
 -Bueno, baiña itxea e? Atuneta're jun, ta hiru egun pasata ta itxea, ta guk hogei egun pasatzen giñuzen. Baiña gure barkua ta haundixuak hituan.
 -Zuek asko jota, bi-hiru egun?
 -Ez, gu geyo, gu geyo, gu geyo. Guk zortzi egun, hamar egun, hamabost egun, ta geora ya, tenporada juten giñanian... Almeria juten giñen bi hillabete edo hola.
 -Eta sukaldia-ta izaten zan?
 -Bai, txikiya, txikiya, sukaldia ziharo txikiya.
 -Eta pertsona bat izaten zan tripulaziyoko sukaldian ibiltzen zana?
 -Bai, bai, bai, bai, bai.
 -Beti berdiña?
 -Sukaldia, sukaldia, sukaldia, sukaldia txarra; ta han eramaten zana txarro. Klaro! Ez zitxon ta!
 -Dana arraia izango zan!
 -Arraya bai, baiña dana marmitakua jan bihar. Iya aste guztiyan egunero marmitakua jaten. Oain marmitakoik porratu're ez. Oain ondo jaten dek, ondo.
 -Ta lehen ze jaten zan?
 -Geyena marmitakua.
 -Arraya: egosiya, egosita...?
 -Erreta, erreta, arraya erreta, erreta, parrilla eramaten genun. Bafora bakoitzak parrilla, ikatza, egur-ikatzakin parrilla.
 -Ta horrela, patatekin ta ez...
 -Bai, bai, marmitekua, marmitekua. Marmitekua dek atuna patatakin, atuna patatakin. Hori asko: bakailua... Ta geo, faltatzen zana, ardua, ahitu iten. Hori lengo zaharrak oso ohituak ardua eraten. Oain ez dek ardoik eaten. Hori bai, hori gutxitu, dana gutxitu.
 -Baiña lehenoz?
 -Lehen bai.
 -Ardua gehienbat?
 -Ardua, ardua, ardua bakarrikan.
 -Sagardua eta?
 -Ez, ez, sagardua gaiñea, zea, mariatu iten dek. Bai. Akaso oain ez dek mariatuko, baiña orduan prozesuak edo...

2. Euskara

2.1. Majua hitzaren definizioa; beste zenbait esaera

- **Hizlaria(k)**: Isasti Aizpuru, Jaxinto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-004/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- **Laburpena**: MAJUA: berez izurdeak ateratzen duen arrain (antxoa) multzoari deitzen zaio. Hitz hori gero beste testuinguru batzuetara pasa da "suertea" adierarekin. "KALA IN DIU": gauza ona egin dela esateko erabiltzen da.

Transkripzioa

- Eta majua berez zer da majua? Majua da...
- Izurdiak ateatzen du, arraidxa ateatzen dunian.
- (L) Bai, bai, gorridxa. Antxua hor zabal eoten da antxua. Ta izurdiak iten ditu hori juntatu. Ta behetik gora atea ta juntatzen danian gorri-gorri gelditzen da, antxoa gorridxa [...], bai.
- Hilda, bate moimentuik gabe.
- (L) Akabo. Haor aurrian'e danak junta-junta inda. Ta hari saria bota.
- Baiña majua da antxua pillua?
- Huraxe da, huraxe da majua, bai.
- Antxoa pillo hori.
- (L) Bai, bai, bai.
- Bai, izurdiak ateatzen dun arrai hori, majua.
- (L) Baiño [...] beste gauza, majua horrei jarri izena, majua, e, antxua. Antxotan, majua. Ta iruitzen itsasoko gauza dala, ta geo izen hori beste gauzai in ziouk zeatu. Hik gauza on bat iten dek o, "koño, zeñek esaten ziak [...], hau dek majua, hau!". Igual, ez zekit...
- Suertia, suertia bezela. Suertia. "Hau dek majua, hau!"
- (L) Ez zekit ze izango dan. Neska batekin dantza in ta [...], "jode, majua hau!". Hitz hori bea geo bestiai jarri.
- "Kalaa in diu" bezela esatia.
- (L) Bai, "kalaa in diu".
- "Kalaa in diu. Kalaa in diu".
- (L) Bai, ba.
- Kalaa?
- "Kalaa in diu".
- Kalai?
- Kalaa.
- Kalaa.
- "Kalaai ein diu".
- (L) Bai, "kalaa in diu".
- Zeoze, gauza...
- (L) Bai, zea dek hori, bai...
- Arrantza ona iten bazun, esaten zuen "kalaa earra in diu!".
- (L) Gauza on bat, gauza ona "kalaa" zea hori, bueno.
- Bai, bai, bai, bai.

2.2. Inguruko herrietako euskarak doinu desberdina

- **Hizlaria(k):** Isasti Otamendi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-016/021
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:41:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Tratamenduak
 - Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
 - Euskara » Tratamenduak » Berorika
 - Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Zarauztarrek eta zumaiarrek desberdin hitz egiten omen dute, eta erraz antzematen omen da nongoak diren. Getariako baserritar eta kaletarren artean ez dute alderik somatzen. Beraiek beti

hika egiteko ohitura izan dute. Nagusiagoei hika egitea errespetu falta. Lehen berorika ere egiten zen, baina Juanitak ez zuen erabiltzen. Senar-emazteek hika egitea ez zaio gustatzen.

Transkripzioa

- Eta, ari gea jasotzen'e bai euskera kontuak eta. Eta euskera, Getaiko euskera, ta inguruko herrietakoa ta, diferentia al da?
- Beno, guk euskera, beti euskeraz in izan deu. Zarautzen eta hoidxetan gehidxo iten da.
- (A1) Euskeraz gehio hamen.
- Bai, ba! Hemen gehidxo. Han castillanoz gehidxo.
- (A) Bai. Geo, desberdiña da.
- Desberdiña, bai. Boza o, boza o, ezaguna izaten da. Zumaiarrak'e bai! "Zuek zumaiarrak zeate", ta. "Zuek bizkaitarrak zeate", ta.
- (A2) Baiño getaiarrai seituan.
- Seituan, bai.
- Eta zuk igartzen dezu zein dan zarautzarra ta zein zumaiar bat, eta...?
- Bai. Hau eibartarra omen den, baina ez zekan eibartarren bozik.
- (A2) Zu Eibarkua al zea?
- Bai.
- (A1) Ta azpeitiarrak'e asko...
- Bai. Azpeitiarrak eta azkoitiarrak eta hoidxek boza diferentia due.
- (A1) Baiña guk beste zea bat dakau.
- Beste... gatza bat.
- Eta esan diate Getaian bertan kalekuak eta baserritarrak diferente hitz eiten duela.
- Bai? Iruitzen al zazu, e?
- Ez dakit! Jendiak eta esan dit.
- Ez. Basarritarrak getaiarrak... boza diferentia? Ez! Ke ba! Ke ba! Ez zat, ez zat iruitzen.
- (A1) Doiñu berdiña.
- Doiñu berdiña, bai.
- Eta euskera, zuen artian eta, beti hika?
- Bai! Nik hika gehidxo ohitura det horrela, ba, habe, ta oan gure umiai'ta zuka iten [zuat] eta zaharrei berriz, Aitziberrei ta hoidxei're zuka iten al diot? Ez zekiñat, bai! Zuka ingo zionat, bai.
- (A1) Nei hika iten diazu.
- Hika iten diñat hiri, bai.
- (A1) Nik zuri zuka.
- Bai! Nola ingo dian, ba, hika? Ez diñat utziko, gaiñea! Ez diñat utziko! Lehen beorika ta zan, e! Nik behiñ'e ez berorika zeai, amai ta hoidxei. Ez, zuka.
- (A1) Nik umiai zuka, baita're. Nik nere umiai zuka.
- Gure umiai zuka iten zionat.
- (A1) Baiña been artian hika.
- Been artian hika, bai.
- Baiña lehen lagunen artian eta dana hika.
- Hika're bai, bai, hika asko.
- Bai mutillekin, bai neskekin?
- Bai.
- Berdin?
- Uain, ez zatena gustatzen da senar-emaztiak alkarrei hika. Horrek inpresidxo haundidxa iten dit. [Hitatoka, hitatoka]. Dendan'e etorri ta, "Aizak, hi!"... gizonai nola leike hika, e? "No me gusta".
- (A1) Ta gizonak andriai.
- Bai. Ez zaiten gustatzen.

2.3. Euskara aldatu egiten da kaletik baserrietara

- **Hizlaria(k)**: Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-018/022
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:40:26. **Bukatu**: 00:41:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Inguruko herrietan (Zarautz, Zumaia, Getaria..) bakoitzean hizketa diferentea egiten da. Getarian ere alde dago kaletik baserrietara.

Transkripzioa

- Eta, e, euskera aldetik eta, zuk, e, igartzen dezu Zumaiko euskera, Askizukua... diferenteiak al dia? Getaikua, hemengua, Zumaikua?
- Zaautzkua're!
- Zaauzkua?
- Oriyokua're bai. Ta Motriko [...], Itziar ezkeo berriz'e difeentia. Ta Deba ta hor behera ezkeo, gehio.
- Eta Getaikua? Askizukua ta kalekua difeentia al dia?
- Askizukua ta hor, e, frontoietikan o gora, ya hamengua bezela itten due. Hortik beherakuak...
- A bai, e? Erregieta kalia hemengua.
- Bai. Erreitta kalia beheia da, baiño hor gora, zeara, Indaux ta...
- Bai.
- ... hortik honeo, gora, oan beheku'e gora etortzen dia, ta... Baiño hor lehen, hor zeatzen zan, aklaatzen zan gehiena: ttak!, goikua dek o beheku dek.
- Horko baserri batzuk.
- Zean, kalia, kalia bertan. Baiño kalen, uain itxe asko dao hemen goien, baiño lehen gutxi zan, ordio. Baiño ezaun, e! Bai. Getaia're "itsasora", ta. Zumaia're beste hizketa bat, eta zaauztarrez "sasitan", ta oriyotarrak berriz, beste... difeentia, difeentia! Bai, bai. Herritik herrira difeentia...
- Bai, bai.
- Bai, bai.

3. Familia eta harremanak

3.1. Umetako jolasak: "Kinkinisetan", "Potsetan", karburoarekin...

- **Hizlaria(k)**: Aranguren Ulazia, Sebastian; Argibe Uraola, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-006/007
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak. "Kinkinisetan": batek makila lurrera bota eta punta sartu; besteak beste makila batekin hura jo eta bota egin

behar zuen. "Potsetan": bi makila muturra zorrozuta urrutira kolpez jota botatzen aritzen ziren. Karburoarekin ere jolasten zuten: lurrean ura eta karburua jarri, gainean pote bat eta gero hari sua ematen zioten potea airean botatzeko. Karburua lapurtu egiten zuten nonbaitetik.

Transkripzioa

- Eta, umetan eta, sei, zortzi, hamar urtekin eta, zeintzuk izaten zian zuen jolasak eta? Jolasak eta iten zenduen?

- Bai, honbre! Jolasak bai, jolasak! Jolasak, klaro, jolaseako amorratzen! Kinkilisa, kinkilisa esaten giñoun! Makillak, makillak, egurrak, loriera hontakuak o, ta luzaera hau, e! Luzaera, holako luzaeran bat. Eta, beno, igual da! Altuera zun hau. Zenbat? Zenbat zentimetro? Berroeta hamar zentimetro? [Alturan bat]. Ta ibiltzen giñan, lurren pixkat biundu, ta tak!, zas!, muturra sartu. Ta bestiakiñ, bestiak in behar zun hura jo ta bota. Ta hola. Botatzen zuna, bata besten ezpata botatzen zuna, hura nausi. Ta hola ibiltzen giñan. Hura nausi. Geo beste bat, han-han goyan ibiltzen giñan, potxetan, potxetan. Potxak, potxak. Egur bat, holatxeko egurra, bi muturrak zorroztu, e, bi muturrak zorroztu ta makill bat. Behiñe ikusi...

- (Laguna) Bai, bai, bai!

- Ba, hala, jartzen gendun plazan, plazan o zean, egur bat. Hola jartzen gendun makilla, egurra hori eta hura jo behar potxakin. Jo ta hemendikan igual han bazterrea. Ta! Tira pelota! Jotzen baezu, ta makilla botatzen bazuan, harrek iten zuan hartu potxa ta ziuuuu!, bota urrutira. Ta berriz, beste hark hartu ta beste, tira berriz'e zeara, ta hola, holaxe jolasten [gendun]. Ta [...] hau're polita da. Esto... karburuakin, karburuakin. Baten batek esaten zuan, "nik karburua ekarriko diyat", ta piper, piper potua, potua piper potolokua, pote zea hoiek...

- (L) Hoi, peligrasua hoi...

- Bai. Iten gendun xulua in lurrian, e, baatzetan. Biuna, biuna, uretan daude ta. Xulua in ta hara ura bota, ura, ur pixkat. Ta karburua, karburua... bakizu zer dan? Ura bota hara ta gasa azaltzen zuan. Ta poto horrek xulo txiki bat. Poto hori iten zendun zulo horretan sartu, poto hori zulo horretan sartzen zendun, ta kañaberak, makil muturrian papera o zeatu, ta hari su eman. Ta geo, makilla harekin poto haren xuloa. Paun! Ta behetik gora ertetzen zan.

- Lehertu.

- Ta nik batian, Patxi Iñarra, Patxi Iñarra. Hola ez bazan esplotatzen ta sua o hola, "paola!, Paola!", esaten gendun, "paola!, Paola!". Patxi Iñarra hori, "Paola! Paola!", hola moitu zun ta jata pum!, ta potuak muturrian jo zuan.

- Eta karburua nundik hartzen zan?

- A! Ostu!

- Ostu?

- Ganbara... Geo, ordun kinkiak...

- (L) Motorra... Kotxian ta argiya iteko...

- Argiya, gabian argiya iteko da. Kinkiak [zea zian], kinkiak. [...] eoten zian, ba! Eta latak, hamar kiloko latak izaten zian, latak. Ta iten zan gaiñea [...] haustu, zetu, bea deseindu iten zan. Baiño, bea zeonian, goor-goorra izaten zan. Ta huai, bruuuuuuu, zea haundiya ateatzen ziyon, gasa haundiya ateatzen ziyon.

3.2. "Txapelarrastaka" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Aranguren Ulazia, Sebastian; Argibe Uraola, Paulo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-006/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:18:55. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: "Kukuka", "Masisaltoka", "Txapelarrastaka"... jolasak: hanka azpitik txapela ahalik urrutien bota behar zen. Galtzen zuenari zigor moduan txapela lurrera bota eta arrastaka erabiltzen zuten futboleko bezala.

Transkripzioa

- Geo, pixkat hasten da mollan, txalupakin ta, jolasian ta.
- [...] beste jolasen bat?
- (L) Tokan. Beitu, kukuka.
- A! Baita're, kukuka. Honbre!
- (L) Matxinsaltoka.
- Ta txapelarrastaka, txapelarrastaka ta.
- (L) Txapelarrastaka.
- Txapelarrastaka ta...
- (L) Txapelarrastaka, hoiek, hoiek, hoiek earrak. Geo kontatuko diguk nola zan.
- Txapelarrastaka, txapela, txapelakin hola, ipurdi gaiñetikan jarri makurka, ta bota. Ipurdi, hankatartetikan, e! Horrela. Da!, ta, tziinii! Zeiñek motzena, zeñek motzena bota, izaten zuan zein motzena izan, hura, hura kastigatu iten zan. [Jarri] txapela, arrastaka geo. Ti-ta, ti-ta-ta, fubolian bezela, baloia bezela.
- Orduan, norbean hankazpitikan bota...
- Bota, bai.
- Buru gaiñetik, buru gaiñetik.
- Jarri makurtuta, makurtu, ta hola jarri ta, ta! Ta, bueno, makurtu baiño... Ta! hola zeatu ta, txapela urrutiyena [...] hura nausi. Hura nausi.
- Eta galtzen zunak, txapela...
- Galtzen... txapela, haren txapela arrastaka danak, jata tirriki-tarraka, arrastaka.
- Fubolian.
- Bai.

3.3. Kanikatan nola jolasten zen

- **Hizlaria(k)**: Aranguren Ulazia, Sebastian; Argibe Uraola, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-006/014
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:24:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Kaniketan nola jolasten zen eta nola neurtzen zen; "Kask eta arra bi". Limonada botiletan etortzen ziren kanikekin jolasten zuten.

Transkripzioa

- Ta zea're bai, kaniketan. Ta geo arra, e, arra, arra zeatu ta.
- (L) Kaxk eta arra bi. Kaxk eta arra bi.
- (Laguna 2) Kaxk eta arra bin in behar zuen jo, e, beste kanika jo eta gelditzen baldin bazan arra barruan...
- Bi kanikak, bi kanikan eaman behar.
- (L2) Bi kanika: jo zenduna ta bestia eaman behar. Kaxk eta harra bi dek hori.
- Bai. Geo kanikak izaten zian, este, limo, limoailak nola...
- (L2) Limonada.
- Limonada botellak gasanak, gasanak, eukitzen zuen kanikak presiyuan, tak!, zeauta. Hari saka ta puuuuuf!, zea, edariya, burbujak. Ta kanika hura, botellak bezela kanika eukitzen zuen barruan, kanika, kristalezkoa. Hark baliyo zuan zaharrak baiño lau. Zaharren lau o bost o... Kanbiatzeko.
- (L) (...) Bestiak, lurrezko zea hoiek eta hoiek batere...
- A!
- (L2) Uaindik kanikak baittuk!

3.4. Emakumeek lan ugari baserrian

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Isasti, Jose; Gurrutxaga Gartxotenea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-008/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Baserrietan emakumeek etxean eta etxetik kanpora lan ugari egin behar izaten zuten. Gizonezkoek ere lan handia izaten zuten, gainera, "asto-lana", lan gogorra. Baina emakumeek ere lan ugari, batez ere, garbiketa kontuetan. Astean behin garbiketa orokorra egiten zuten etxean.

Transkripzioa

- Orduan, zein izaten zan lan gehien iten zuna baserriyan? Emakumia?
- J.: Emakumia.
- M.: Emakumia. Bi semiak'e bai.
- J.: Orduan emakumia, orduan emakumia.
- M.: Bai, baiño bi semiak'e bai ordun. Dana lana asto lana zan, dana atxurrakin ta zeakin, ta.
- J.: [...] beti gogorruak iten zuen, emakumiak beti zeauak.
- M.: Bai, emakumiak, esan dezuna egiya. Entre erropa garbitzen, entre zoze... Oain bezelako itxetza baiño haiei [...] pasaa ta, pasaa onena astin behin linpieza jeneral [...] izaten zenun...
- Etxe guztiya.
- M.: ...ordun jaian, ta bestia berriz al zan bezela astian in, ta... erten in behar izaten zendun ta. Amona ta [...] zozer, Jesus! Itxea gatzela ikusten gendunian tximinitik zea, kia, aaaaaa! Hau da difeentziya hua hil zanian guk billatu genduana. Itxea etorri ta zeu hasi behar hasiera-hasieratik.
- Dana iten.
- M.: Bueno, bueno. Eske, esanda esanda're, ta oain horrenbeste, oain pixkat gehio nahi ta ezertako gauza ez dao, tristia da berriz. Katxis la mar!

- Eta orduan esan dezu, emakumiak lan gehio iten zula... Gizonak baino gehio?

- M.: Lan gehio...

- J.: Gehio, goorro...

- M.: [...] Hauek entre segakin ta zea, jun [kanpo hoita] ta...

- J.: Guk, ez dakit, gehixio, baiña, ez, emakumiak lana gehixio izango zun, e!

- M.: Emakumiak, bai.

- Emakumeak etxia eta kanpuan, ez?

- M.: Bai.

- J.: Bai.

- M.: Hoixe! Bueno! Bueno!

- Gizonak kanpuan, baiña...

- M.: Bai.

- J.: Bai.

- M.: Ta behiai [...] dana eskuz in behar izaten zenun. Ta zean, uraan, igual "cincuenta céntimos más" izugarriya iruitzen, [...] ta hartu hamabost litroko marmita, tzi!, astua bezela. Dana [...], ordun sasoa! Sasoa dakazula, eozar gauza itten da. Hori galtzen danian dana galduta.

3.5. Zizurkilen ezkondu eta Bilbora ezkon-bidaian

- **Hizlaria(k)**: Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-012/006
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Senarra. Zizurkilen ezkondu ziren eta Amasan egin zuten banketea. Ezkon-bidaian Bilbora joan ziren. Gerraostea zenez, Bilbo txikituta omen zegoen. Euren lagun batzuk eurekin batera ezkondu ziren.

Transkripzioa

- Handikan... Launa're elkarrekin hazi giñan ta, Casildoneko [...], Casildoneko zea, Felix. Ta haik Aian ezkondu hittunan. Ta gu ezkondu giñunan, hemendik jun, ni... hemendik jun niñunan, ta nakeiñ zeara, Zizurkillen ezkondu, Zizurkillen...

- X: Ezkondu...

- ...ezkondu...

- X: Ta Amasa.

- ... ta Amasa banketea.

- Banketia?

- Bai.

- Ordun, ezkontzea, Zizurkillen, ordun?

- Bai, neure herrira, bai.

- Eta hemen bizi ziñala...

- X: Ta viaje de novios Bilbora, e!

- Bai?

- Bai.
 - Kontau hori, kontau.
 - Bai! Bilboraiño allatu al giñan? Bai. Bilbo aurreaiño bai, bai. Bilbon, gaiñea, pixkat beherakuan ta ibili giñuan, ta...
 - Ordun, viaje de novios eta egun bat o bi, igual izango zian, ez?
 - Bai. Ez, gehio pasa giñun.
 - Gehio bai, e?
 - Ez dakit. Han ibili giñan behintzat, [...] ta bestea...
 - X: Buelbaka.
 - Danak botiak eta txikituta zian baserri guztiyak eta.
 - Noiz zan, gerran?
 - Gerra bai, gerra.
 - X: Gerra ondoren...
 - Gerra bukatu ta seittuan ezkondu giñan, bai.
 - X: Gerra bukatuta.
 - Ta nik ezkondu behar nunian beste lagun horrek'e seittun ezkondu behar zula, Felixek, Casildonekuak.

3.6. Zizurkildik Getariako bidea

- **Hizlaria(k)**: Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-012/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena**: Zizurkil eta Asteasu ingurutik Tolosara joaten zen jendea eta ez kostara, kotxerik ez eta urrun joatea ez zelako erraza. Zizurkildik Getariara joateko Lasartetik Zarautzerakoa trenez egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta ordun, jende asko Zizurkildik eta Asteasutik eta, jende asko etortzen zan honea? Zarautz eta Getaira?
 - Ez, ez, ez.... Honea ez. Honea... Handik Tolosa gehio da ohitura. Nola dan? Oin ya hau aldrebes eitten da.
 - Bai.
 - Hor kotxe bat baldin badao, ordun kotxe gutxi zan.
 - Leheno nundik etortzen zan? Aiatikan?
 - Aiako bire hori ni ezkontzeako [...], [...] aldapa ta goitik behera.
 - X: Baiña [...] hua're etorriko zan, ama.
 - Ez! Hemen Lasartetik bueltan gu beti.
 - X: Lasartetik buelta beti?
 - Bai. Baiña ondo. Tranbian sartu Villabonan eta Lasarten atera. Ta Lasarten trenian sartu... Pixkat, bire pixkat bazan, baiña bire ona zan. Eta trenian.
 - Zarautza.
 - Zarautzaiño.
 - Eta... itsasua ta noiz ezautu zenun? Hamazazpi urtekin o lehenoa?
 - Ez... Leheno.
 - Leheno, bai?
 - Bai, bai. Donostira ta juten, asko juten giñan, ta...

- Bai?
- Bai.

3.7. Aristokratik udan Getarian

- **Hizlaria(k):** Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-012/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Oporrak
- **Laburpena:** Aristokratik ere etortzen ziren udan. Behin aristokrata baten txoferrarekin barkua zegoen lekura joan zen txibiak kazuelan hartuta. Fabiolaren gurasoak ere Getarian egoten ziren, baita beste zenbait markes ere. Aristokratik karro handiekin eta txofer, lorezain eta behar zituzten guztiekin etortzen ziren.

Transkripzioa

Luisa: Ta udaran´e jendia etortzen zan.

Galdetzailea: Bai? Izaten zan... udako... turistak-eta izaten zian?

L: Bai, bai...

Alaba: Lehenguan... atzo esan ziazun, ba, txibiyakin, mantal zuriya jantzita jun ziñala txibiyak ematea...

L: Bai...

Alaba: Kondia o ez al zan, ba?

L: Ez, kondia ez hunan...

Alaba: Askotan aitu dizut. O duke o...

L: Ez zakiñat, ez.

G: Zer zan, ba, Aldamar edo?

L: Ez, Aldamar ez zan.

Alaba: Honea etortzen zana, yatian-ta ibiltzera...

L: Eta horrek bialdu zun txoferra, eta txibiyak aber bazeuden, eta baietz.

Inda bazeuden eta, baietz, eta aber zenbat nahi zun, ba, ta... Etorri zan

[berriz oster] haren kriaua ta esan ziun zenbat txibi ta geo txoferrakin

etorri. Txoferra jun hunan nereana bila, ta ni mantal zuriya jantzi, ta

txibiyak hartu kazuelan ta, zeara, barkura, moillaa. Ta holaxe.

G: Ta, orduan, jende inportantia etortzen zan, ez?

L: Bai, gurena jende asko etortzen zan...

Alaba: Ama, [...] Fabiolan ama ta...

L: Bai, haik´e udara dana [hementxe pasatzen zeen]. Urtiak eta urtiak etortzen ziela.

G: Fabiola eta, bere gurasoak eta ...

L: Bai, ta gero markesak´e hor eoten zian.

G: Bai, hor parte... karreteratik gorako...

L: Bai, oain obran a(r)i die, bukatzen ez dan obra.

Semea: Oain Museo Balentziaga hori eitten ai dia ta...

Alaba: Eta ordun, amak esaten du, etortzen ziela "con carruaje" etortzen ziela.

G: Bai, e? Karro haundiyekin ta?

L: Bai. Ta txoferrak eta haik etortzen zian zea osua...

G: Eta ze pasatzen zuten, udara guztiya?
 L: Bai, bai... abuztua dana, ta leheno etortzen zien. Jardineruak eta beak zittuen danak haik. Jardineruak fijo eukitzen zeen gaiñea.
 G: Ta herriyantzako ona izango zan, ez? Dirua-eta ekarriko zun...
 L: Bai, bai. Oain, udara, jun dan udara ta [...] baiño zea... udara hobia itten zun gaiñea.
 G: Bai?
 L: Bai. Jun dan udara txarra geratu da...
 Semea: Aurten udara ona in du, ama.
 L: Bai?
 Alaba: Aurten udazkena´re fenomenala.
 G: Eta hondartzara juten ziñan?
 L: Bai zea! Hondartzaa?
 G: Orduan ez zan izaten holakorik, ez?
 Alaba: Ez zun ikasi igeriyan amak behiñ´e. Lana besteikan ez du in.
 L: Ta lagunak´e oso langilliak nitun, onak.

3.8. Ganadu-zain zeuden denbora beste lan batzuk egiteko aprobetxatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Idiakez, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-017/013
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:23:46. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Bide-bazterretan behiak zaintzen egoten zen. Orduan garbiagoak egoten ziren bazterrak. Behiak zaindu bitartean dotrina ikasten edo galtzerdiak egiten egoten ziren. Soroan ere lan asko egiten zuen eta baita ikatza eta egurra banatzen ere.

Transkripzioa

- Ta geo ganauakin berriz, ganaua esan dizut (esan txut) zenbat giñuzen: bi behi, bi txahal, bi txerri aldameneko [tejamanian], ta oilluak, astua, ta... danak kale-basarrira jateko ekarri behar izaten [...] astuakin. Ta geo bire-bazterretan ibiltzen nitzan ni behidzak zaitzen. Ta behin, bire-bazter guztik eon zian orduan danak garbi-garbi-garbi. Danak ateatzen giñuzen larrea. Eta beheko kamiduxa, plaiko kamidxu horretan´e, asko ibili naiz ni ganauakin. Eta haor, plazatikan aldapa daon horretan, mendi horretan´e bai. Ta San Antongo mendidzan ze esanik ez! Ta badakizu zer zan gure zea, ganao-zaitzia?
 - Zer zan?
 - Dotriña ikasten edo galtzetiña iten behidxakin genden bitartian. Gure bizimoua horrela izan zan. Beti lanian! Ta artillezko galtzerdixak eta iten itsasoa juteko ta...
 - Gaiñea gazte-gazte, ez? Hamar-hamabi urtekin...
 - Jesus! Nik ez dakit, e, hamasei-hamazazpi urte, ze izango nitun nik orduan. Ta gero, gure aita horrek esaten zun beti "souan´e in", [...] bazekin [...] beti zeoze iten neola, bea itsasoa jun arren. Ta itxian ezin izaten zian ikusi. Egualdi txarretan josten pixkat hasitzen nitzan ta, muturrakin ta

patarrakin ta, “egualdi txarra iten [...]”, “[...] ba soora, ba”. Baiña, holaxe! Beti iruitzen souan eon bihar detela! Ta halaxen, dana lanian ikasi deu, ta bate penik ez dakat, eskolik ez det, baiña nahiko eskola lanian ikasi deu.

- Bai.

- Bai. Hori bai.

- Eta kale-baserriyan beste lanik eta izaten zan? Hor, e...

- Ikatza ta egurra partitzen'e bai. Egurrak partitu in behar izaten zian otarrak betetzeko ta. Gatza're deitzen zunak, ba, hura're pixatu ta zakuetan. Ta geo aitak beak eramaten zitun itxian zanian. Ta semia bai, Pakok'e bai. Horrelaxen, lan klase asko.

3.9. Iribar jatetxea

- **Hizlaria(k)**: Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-020/001
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Claudia Iribar Salegi, 1934ko irailaren 1ean jaioa, Getarian. Orain Iribar jatetxea dagoen tokian jaio zen. Bere gurasoak ezkontzean erosi zuten. Dolarea zegoen bertan eta sagardotegia izan zen hainbat urtez. Denda ere izan zen lehenbiziko urteetan, batez ere, Itsasora eramateko.

Transkripzioa

-Lehendabizi esan behar dituzu izena eta bi apeliduak.

-Kludia Iribar Salegi.

-Salegi.

-Salegui, bai.

-Getaikua da?

-Ez, nere ama Okiyakua zan.

-Bai, hori Oikiya eta Itziar eta.

-Zumayan ta bai

-Eta aita bai?

-Aita bai, aita Getaikua zan

-Iribar.

-Iribar.

-Eta, noiz jaiotakua zera?

-Ni, beatzi . . hogeita hamaluan, bueno, setienbrien batian, hogeita hamaluan, treinta y cuatroa.

-Eta gerra aurrean orduan.

-Bai, ni ez naiz akordatzen gerrakin por que txikiya nintzan.

-Zuk, gerra bukatu zenean, bost urte. .

-Baiba, horigatik

-Eta jaio, nun?

-Hamen, etxe honetan

-Bertan?

-Bai, bertan, bai, bai, bai . .

-Ta familiyakua, aitan...

-Bai, nere aita ta ama eskondu zianian, nere aitak igeltseritzan ere egiten zuan eta. Gero hamen -Sagardo... tolaría zegon ta. Tenporadan egiten zuan eta geo hamentxe jarri zian bizitzen, eta pixkanaka-pixkanaka jun zian ba... sagardotegiya zan, ta taberna gero, ta taberna ere pixkat herri mailako taberna, nola esaten da...

-Popularra?

-Bai, popularra ere bai, baiño..., gauzak, denda bezela ere pixkat bai. Porke itsasoa eramateko ta, gauza batzuek saldutzen giñun, o sea ke....

-Egindako janariak?

-Ez, ez, pixkat denda bezela, nola esango nuke ba nik, igual tabakua ere bai, eta jendeak..., orduan ezberdiña zan bizimodua...

-Herri txikietan eta denetik.

-Bai, bai, eta gero ba pixkanaka-pixkanaka, nere anaiak, nik lau anai nitun, geo bat hil zan, eta haiek eskolaa ta...

3.10. Garai hartan, antxoa diru-sarrera nagusia

- **Hizlaria(k)**: Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-021/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: 14 urterekin hasi zen itsasoan. Tarte batean utzi bazuen ere, ia bizi guztia pasa du itsasoan. Getarian horrela zen beti; hamarretik bederatzi itsasotik bizi ziren. Hasieran txalupa txikietan eta gero bapore handietan, arrantza-ontzi handietan. Garai hartan batez ere antxoa harrapatzen zen, horixe zen urteko diruaren % 50. Gero atuna, bisigua, papalardua, txitxarroa... Orain atuna da nagusi, baina lehen askoz gutxiago.

Transkripzioa

- Eta zu, txikitatik itsasuan?

- Bai, bai.

- Noiz hasi ziñan?

- Bai, ni hasi hamalau urtekin. Geo utzi nuan, ez nintzan... itsasuak ez zian ondo hartu, eta soldautza bukatu nuanian hogeita bat urtekin berriro hasi eta ya oan arte.

- Eta, orduan normala izango zan hori?

- Bai, bai, bai, bai, Getaiyan bai, normala. Getaiyan ba zenbat, hamarretik bat gelditzen baldin bazan o zoze estudiantu ta ez baldin bazan zoze hola zerbait, itsasora.

- Eta zuk, familiya eta aita ere...?

- Bai, familiya. Bai, bai, danok, danok. Aita ta..... Bai.

- Eta normalian ze hasten zan, aitakin barkuan edo?

- Bai, txalupa txikian ta, txalupa txikidzan ta. Gero ez, gero ya bafore haundira, bafore haundira ze tokatzen zan. Guk geuk giñun bafore bat. Ni itxeko baforera, baiña bestiak normalki...

- Aitak eta...

- Aitak eta zuen bafore bat.
- Izena nola zun?
- San Pudencio. Oan'e bada.
- Eta gero, bizi guztian bertan?
- Bizi guztiyan baforian.
- Eta zu hasi ziñanian eta, zer harrapatzen zan gehienbat?
- Antxua, antxua. Garai hartan, antxua zan... Ondo aitu hau, e! Garai hartan bakarrik ez, pixkat geora're bai, ehunetik hirurogeita hamabosteko jatekua, arrantzalena. Ehunetik hirurogeita hamabost. Ez, gaixki ai naiz: ehunetik berrogeita hamar, antxua. Atuna, ehunetikan hamabost. Eta geo bestiak, ehunea ailleatu arte falta dian habek danak, ba bixigua, paparlardua, txitxarrua, berdela... Ta oan?
- Baiña klabia?
- Klabia antxua, antxua "cincuenta por cien". Ta uan gertatu da da antxua, bajatu da hainbeste behera, behera, behera, kiloz jaisten, jaisten, jaisten, jaisten, "setenta y cinco por ciento" atuna da. Gaiñea, gaiñea ez due utzitzen harrapatzen. Aurten'e, aurten ez do harrapatzeikan
- Eta lehen atuna ostera ehuneko hamabosta besteik ez.
- Bai, ez. Kostera ere motxa iten zan e?
- Atunana?
- Atuna. Geo, baforiak txikiyak zian errutira juteko ta. Juten zian Gijon gaiñea, juten zian... gure denboran bai. Gure denboran ni izan naiz ba Afrikan'e bai, Azoresetan'e bai, Mediterraneoan'e bai...
- Baiña gerora?
- Gerora.
- Baiña zuen gurasuen sasoian eta?
- Ez, ez, ez, gure gurasoen sasoian ta ez.

3.11. Getariatik Zarautzera ikastera

- **Hizlaria(k):** De la Hoz Arregi, Jon Ander
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre Agoues, Libe
- **Erref:** GET-033/009
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** Batxillergoa egitera Zarautzera joan zen, kuadrillako askorekin batera. Horregaitik dio jautzia ez zela oso handia izan.

Transkripzioa

- Hamasei... hamasei, bai. Kurso bakoitzian gu hamasei.
- Bai, baiño danak edade berdiñekuak, ezta?
- Bai, ehuneko larogeita hemeretziya bai.
- Eta saltua haundia izan zan o...?
- Ez, ez, ez. Ez, porke azkenian danok alkarrekin etorri gitzin, eta kuadrillako... bai, igual bat gela batea, bestia beste gela batea... Ba gu Lizardira etorri giñanian, [juxtu] bost gela, bost gela ez zakiñat zenbat lagunekuak, ba, hogeit bat o? Ez zakiñat /etzakiñat/ zenbatekuak. Baiño hala're, nahiz ta gelan alkarrekin ez eon, beti [...] getaiarren batekin o beti egongo [litxan] batenbatekin. Beraz, ez zitxon arazoikan, ta geo, gaiñera, ba, errekreotan ta bazkalorduan ta zea, ba, kuadrillakuakin. Ez, saltua...

Errexa, errexa.

- Ze ibiltzen ziñaten getaiarrak getaiarrakin gehio o, bueno, pixkat iriki ziñaten ´e bai? [...] iriki edo, bueno, beste jendiakin sozializatzen ziñatela pentsatzen det, baiño...

- Noski baietz! Bai, ondo eramaten giñuztenan, baiña azkenian gu herriyan ´e nola ibiltzen giñan alkarrekin, eta gure bizitza osua alkarrekin ibiltzen giñan, ba, errekreuan ere tendentzi hori bazitxonan. Geo, horrek ez din esan nahi gainontzekuakin gaixki eramaten giñanik, ezta gutxiyo ´re.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. "Apuilla-apuillaka" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Aranguren Ulazia, Sebastian; Argibe Uraola, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-006/008
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Apuilla-apuillaka" ere jolasten ziren. Kuadrillatxoak elkartzen ziren jolaserako. Taldeak aukeratzeko nola egiten zuten. Talde bata behean eta bestea plazan egoten ziren. "Apuilla" esan eta besteen bila joaten ziren. Markoseneko etxean ezkutatu zireneko anekdota.

Transkripzioa

- Eta beste jolasikan?

- Hori, horrek, horrena...

- Bestela, harrapatzen o korrikan o...

- A, bai, bai. Apuill-apuillaka! Honbre!

- Nola?

- Apuilla-apuille, apuilla-apuille. Beno, eo... Apuill-apuillaka. Ta iten gendun hori, igual zortzi, hamar o dozena bat lagun juntatzen giñan, ta bi, beti izaten zian kuadrillan bi jefianak iten zuenak. Haiek iten zuen oiñakin, hankakiñ, hola, tak-taka! Alkar, hura handik honea ta ni hemendik hara. Tik-tak, tik-tak. Gaiñian harrapatzen zunak, hark nahi zuna apartatu.

- Izenik bazekan... Hanka itia?

- (L) Bai.

- Hanka, hanka aurrena tapatzen zunak, hark [...] hasiera [...]. "Beno, nik hau", ta bestiak, "hau". "Nik hau", ta bestiak "hau". [...] Apartatu, bi grupo iten giñan eta kuadrilla bat plazan, eta bestiak, hor, e, berrogeita hamar bat metro, hirurehun metro behera jartzen giñan. "Apuille!", ta, tas!, kantoian behetik gora, kantoian behetik gora o al zan zea. Ta batzuk iten zuen [...]. Ayuntamientotikan, ayuntamiento aurretik hasten giñan, ta iten zuen, tras!, beste aldea jun, ikustea, ikustea aber noa juten dian. Ta, "beno hi" esaten [...], "beno hi, hi horrea, e! Gu behera [...], hi horrea". Ta behekuak, beheko kuadrillak iten zuan... [...]!, ta anda dio!, juten giñan. Guk badakau batian arratsalde guziya etxe batian [...] barruan sartuta. Markoseneko etxian, Markoseneko etxian. Cuarto o zer zan, entrada...

- (L) Ganbaran, ganbaran.

- Illun-illuna, illun-illuna. Itxin barruan!

- (L) A! Etxe barruan?
 - Andriak beak sartu. Ama o... Illun-illuna zan entrada, illun-illuna ta. Hala, "hi", esan ba, "beno, hi, zeara jun dituk, Markoseneko zeara jun dituk [...]". "Apuille!", apuille esaten giñun. "Apuille!", saltaka, da, da, da, ri, ri, ri, sartu gea zea horta, entrada horta. Ta Markos xaharra xiestan, siestan, ta gu eskandalu-eskandaluan ta. Piperra, piperra zan geo bea, letxe txarrekua ba. Andria berriz on-on-ona zan. Ta hala somatu zunian, "xiiiiii!", hola in zigun, "xii!". "Ixo! Pasa, pasa barrura, pasa barrura", [...], "pasa barrura, pasa". Sartu giñan sei, danak barrura sartu giñan ta Markox hori jaiki ta, "ze ostia horrekin zer dezue!". Hura bere maldiziyuakin! Hau dek hau! Beste kuadrilla akordatu guregaitan. "Hemen zabek! Hemen zabek! Hemen zabek!". Ta gu [...], "eon bertan, eon, beak aspertu [bitartian]". Aspertu in zian arte eon giñan. Geo [...] geu're [...] kanpoa.
 - Hori zan apuilla-apuilleka.
 - Apuill-apuilleka. Ta izan deu zea're, apuilla-apuilleka moillan barrena, haben fabrikako atze hortan. Orduan fabrika ez zala, jun, arraldea jun, ta hantxe lapa jana, lapa batzuk jan ta, denboa pasan ta, arratsalde guztiya han bota.

4.2. "Erretzen ta kiskaltzen" jolasa

- **Hizlaria(k)**: Aranguren Ulazia, Sebastian; Argibe Uraola, Paulo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-006/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Erretzen ta kiskaltzen" jolasa. Pareta batean zapi bat ezkutatu eta besteak itsuka aurkitu egin behar zuen. Behin, ezagun batek, jolas horretan jolasten, babarrun alea belarriko zuloan sartu zuen.

Transkripzioa

- (L) Akordatzen al zeate beste bat, joko bat, nola zakan Primitivok, zean hori, San Roke kalian, beno, San Roke... Iribarren ta kalian, baatza bat zean, pikotaneko aldamenian, ta paeta haundi bat?
 - Bai.
 - (L) Txomiñeneko...
 - Ez, txomiñeneko ukuillua o zana zeona?
 - (L) Bai. Aldamen hura, paeta haundi bat, paeta haundi bat.
 - Bai. Bai.
 - (L) Eta han erretzen ta kixkaltzen. Pañelua ezkutatu...
 - A, bai! Erretzen ta kixkaltzen, ta... [...].
 - (L) [...] Han, paeta hartan. Paeta hura desagertu zan.
 - Hor esango diat horren zea polita. Joxe, [...], Joxe Txomin ta, nola Joxe Txomin ta?
 - (L) Bai.
 - Haien... Haiek'e orduroko iten ziyen erretzen ta kiskaltzen. Babarrun alia sartu, belarriyan sartu, ta geo atea ezin! Atea ezin ta marruaka ta...

Babarrunak [...] erretzen ta kixkaltzen ta, beti're beitu ta zea ta, belarriko zulun sartu babarruna, ta barrura jun, jun zako barrura ta, han bestia beira, ta "Erretzen ta kiskaltzen! Erretzen ta kiskaltzen!". Zenbat eta hurreo zabillen, [...], zer eta bea kejatu babarruna behera jun zaionen, bea kejatu. "Kaguen! Hemen zekat barruan!". Barru-barruan sartu zitzaion. Ta, ba, holako joku zeak...

4.3. Lehengo neguak gogorrakoak; izozteak

- **Hizlaria(k)**: Erkizia Osa, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-009/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:29:25. **Bukatu**: 00:31:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: Lehengo neguak gogorrakoak izaten ziren. Elur-garaian gertatutakoa: depositutik etxera bidean ura izoztu. Lehen izugarritzko kandelak egiten ziren. Lapa biltzera joandakoan gertatutako anekdota.

Transkripzioa

- Eta gogoratzen dezu, holan, tenporal gogorren bat? Ba, ez dakit ze urtetan tenporal gogorra izandu zala o, haizia o, elurra...
- Elurrakiñ'e bai, elurrakiñ'e gogorrak izan dia hemen urtiak. Ur danak geatu ta etxian atzian hortxe gaude [...]. Handikan hartu baldian ura ta hemen ataian honea pasatu orduko, jelauta. Lurrea eroitzen zan ur [...] jelatu itten zuan. Ba, holakuak ezautu dittugu hemen.
- Lehengo neguak zer zian, gogorrakuak? Oainguak baiño gogorrao?
- Bai, bai, Urte habetan ez da neguik izan. Hotzak eta zeak izan dia, baiño ez da, ez dao uaiñ konparaziyoik [...].
- Lehen izaten zian izotz kandelak, eta?
- Buuuf! Hor, hemen azpiyan kandelak ikeagarriyak eta batian pentsau ta jun naiz harraldea, lapata. Ehizian'e gustatzen zitzaiten asko botakiñ ibiltzia, baiña harraldea jun ezkeo, lapa baare seuru. Eta hala jun naiz harraldea, ta ai naiz lapak biltzen ta, "uuuuuuu!", [...] goittikan. Haize soiñua goitik behera, ta, "bruauuuu!", behian soiñua, ta. Ze etorriko? Ta jela pilla haundiya etorri zan txintxilika zeona. Soltau ta behera. Haura sustua eman zian! Dedio! Bildurra? Bai, hau parajia... Ez zeazte hor hauzkaldian izan? Ikusiko bazendun behera... Hortxe kamiyua, beheko kamiyua, karretera jenerala azpiyan ertenda...
- Bai, jeneralea.
- Bai. Hor tunela nola in da uaiñ?
- Bai.
- Peligrua zeola haundiya hemendikan, ta tunela in zan hor. Goittik harriyak jun ta eroitzeko zeola ta...
- Bai, bai, bai.
- ... zeatzeko, miña hartzeko arriskua zeola ta tunela in zuen.

4.4. Lastoarekin argi eginda Askizutik kalera mezara eta esnea saltzera

- **Hizlaria(k):** Azkue Fernandez, Sabina; Lazkano Ulazia, Eugeni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-010/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:20:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Askizuarrek goizeko lehenengo mezetara etortzen ziren, 06:30ekora. Lastoa piztu (suarekin) eta harekin argi eginda etortzen ziren esneak astoan hartuta kalera. Mezara igandetan bakarrik etortzen ziren, baina esnea saltzera egunero.

Transkripzioa

- E: Gu mezeta etortzen giñanian goizeko...
- S: Seietako.
- E: ...seietako mezetako Getaira Askizutik. Lastua piztu ta haekin birian zatozela, astua esniakiñ ta...
- S: Aurretik.
- E: ... atzetik, aurretik astua.
- S: Ta zuek lastua.
- E: Ta geo lastua hola pixtuta, haren argitasunakin illunpetan...
- S: Pentsa zazu.
- E: ...Getaira.
- S: Bai.
- E: Goizeko sei t'erditako hortxe izaten zan meza.
- S: Bai. Sei t'erditan lehenbizikua.
- E: Seiretako itxetik erten, esniak danak hartu astuan, ta geo argiya itzalduta igual geatzen ziñan birian illunpetan.
- S: Illunpetan, hori earra!
- E: Non etorri asmatu eziñian! Holaxe. Holaxe.
- S: Oso bizitza diferente. Oso diferente.
- E: Eta lasto, lasto pixkat hartu, ta...
- E: Bai, bai. Lasta, lasto bat, holako zea bat izaten zian, ta hua...
- S: Seituan erreko zan hua, Eugeni.
- E: E?
- S: Seituan erreko zan.
- E: Deskuidatzen baziñan, euriya o haixia bazan, haixia [...], ta hurruna berriz batez, ta illunpetan igual pausua non eman asmatu eziñikan.
- E: Biriare txarra.
- E: Bai, bai.
- S: Biriare txarra. Oso txarra.
- E: Bai.
- S: Oso txarra.
- E: Egunero onian zeoze. Txarrian gaixki.
- E: Txarrian gaizki. Eta hori egunero?
- E: E?
- E: Egunero seietako...
- S: Igandetan, igandetan.
- E: Ez, igandetan. Mezetako kontu hori igandetan.

- Eta bestela, esne-partitzen eta?
 - E: Eunero. Esne-partitzea eunero. Bai. Eunero.
 - Eta gozian, ez? Goizian goiz.
 - S: Goizian beti.
 - E: Bai. Goizian, beti goizian. Bai, atzea. Hoiiek, lan hoiekin ta, beatzi t'erdiyak, hamarretako atzea buelta in ta etxea juten giñan, ta.
 - S: Etxea.
 - E: Lan hoiiek danak inda, ta. Puf!
 - Hamarretako etxian.
 - E: Geo etxea jun ta gosaldu. Leheno taluak eta izaten zian, ba?
 - S: Talo ta esnia.
 - E: Talua ta arrautza prejittua urdaiakin ta jan, talua ez [...] katilluka, ta holaxe.
 - S: Halaxe hazitakuak.
 - Esan dezuna, lasto honek, sua emandako lasto honek, izenik bazeukan?
 - E: Ez.
 - S: Lastuak izena?
 - Lastua ta sua, o...
 - E: Bai, izena...
 - Bidia argitzeko, e..., suziya, o? Lastakua, o?
 - E: Izena ez dakit nola esaten ziyoen, ba!
 - S: Lastuakin iten zendun... Ez dakit.
 - E: Bai. Ixena ez dakit ze ixena.
 - S: Antortxa ezin esango diyou, antortxa.
 - E: Ez! Aparteko ixenik ez dakit hark zer izango zun.
 - S: Holaxe ba.

4.5. Jendeak arraina eta mariskoa jaten zuen jatetxean

- **Hizlaria(k)**: Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-012/014
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Hondartzara joateko astirik ez zuen izaten eta ez zuen igerian ikasi. Bere lankideak ere oso langileak omen ziren. Jendeak arraina jaten zuen asko; bisigua jaten zen gehien eta baita mariskoa ere.

Transkripzioa

- Eta, hondartzara juten ziñan?
 - Bai ze, hondartza!
 - Ordun ez zan izaten horrelakoik, ez?
 - X: Ta ez zun ikasi igeriyan, e!, amak, behiñ'e.
 - Ez.
 - X: Lana besteikan ez du in, ez zuen in.
 - Ta launak'e oso langilliak nittun, onak. [...] ez giñan kanbiatu. Bi nexka fiyo eoten giñan, ta geo, larunbatetan ta hola ekartzen giñun, faltan, beste nexka bat eo beste, posaderian laguntzeko ta.

- Eta orduan, bazkaiak eta ze izaten zian? Jendiak ze jaten zun gehien?
 - Orduan arraia asko izaten zan!
 - Arraia?
 - Bai. Bixigua asko ordun.
 - X: Mariskua're bai, ama, e?
 - Ta mariskua ta dana, igual.
 - X: Langosta earrak jaten zituen [...].
 - Langosta, langosta, langosta...
 - X: [...] ni hilko naixela gure aita baiño langosta gitxio janda, hori fijo!
 - Bai! Langosta're asko, langosta asko harrapatzen zan.
 - X: Hori fijo.
 - Bai, ez? Itsasua aberatso.
 - Aberatsaua zan lehen, oain baiño.

4.6. Pelikula espainiarrak ziren gehienak; elizaren zentsura

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Ugartemendia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-013/003
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:03:32. **Bukatu**: 00:07:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Hiru anai-arreba gazteenek, nahiz eta rolloak jasotzen lanean aritu, ezin izaten zituzten pelikulak ikusi "3R" (nagusientzakoak) izaten zirelako. Pelikula gehienak espainiarrak izaten ziren legeak hala agintzen zuelako. Larunbat eta igandetan izaten zen zinea eta bi pelikula desberdin ikusteko aukera egoten zen. Zinearen justu aurretik bezperak izaten ziren. Getarian zine bakarra zegoen, baina Zarautzen hiru zeuden: Modelo, Antoniano eta beste bat. Zentsura handia zegoen eta apaizek gogor egiten zuten ezagunak izan arren. Sermoietan ere zinea kritikatu egiten zen; gaizki ikusia zegoen zinea elizan. Getarian izan diren apaizak.

Transkripzioa

- Eta esan dezu txikitan ta pelikulak, nausien pelikulak zianian eta, zuek pelikulak jaso bai, baiña gero ikusteik eta?
 - A! Klaro! Pelikulak pixkat... lehen "tres mayores" esaten zien, o? Ta "tres erre" ta, bahituan. "Tres con reparos" izango huan, pentsatzen diat, "tres erre" zana. Ta orduan gu nola, zortzi anaieetatik hiru txikiyenak geatu behar izaten giñin itxian ohian, ta bestiak, ba, etortzen hituan pelikula ikustea.
 - Eta pelikulak izaten zian Españolak asko?
 - Bai, porzentaje haundiyan Españolak bota behar izaten hituan.
 - Legez.
 - Bai, bai, lege, legia zitxion. Legia ipiñita eongo huan, ta "Fidez" o, ez zekiyat, organizaziyo bat bahuan, usten dit Tolosak, elizako zean sartuta eongo giñun itxuraz, beak erabakitzen zitun organizaziyo hortan. Ta hura enkargatzen huan astero-astero zapatuan ta jairako pelikula. Geo, norma bezela hartzen huan...e... Iten huan zapatuan, zapato gabian pelikula bat bota eta geo pelikula hura normalian botatzen huan hiru t'erditan jai

arratsaldian, e, umientzako. Ta ondoren, bostak aldian o, beste pelikula bat botatzen huan haundiyentzako. Oseake, pertsona normalak zuxken astian bi aukera, osea, bi pelikula ikusteko aukera: bat zapato gabian, ta geo beste pelikula bat jai arratsaldian. Zeatik zapatuan botatzen zan pelikula hura, ez baldin bazan haundiyentzako, osea, “tres mayores” o “tres erre” o, zea hortakua, kalifikaziyo hortan ez baldin bazan sartzen, ez baldin bazan sartzen, botatzen huan arratsaldian hiru t’arditan. Ta aurretik izaten zian bizperak, bizperak, eliza. Hori’re goguan zakat, ba. Bizperak izaten zian. Haiek kantatzen zian, ta, juxtu-juxtu zineako, ba, denbora’re tamaiñan izaten huan. Orduntxe handik erten, eta saltaka, honea allatzeko moua. Hori ezautu gendun, amona!

- Ta ordun hori izan da Getaian izan dan zine bakarra?

- Bai.

- Elcano.

- Hori ezautu diyat.

- (Amona): Zarautzen ez, e?, bakarra ta...

- Ez. Zarautzan bazian gehio. Zarautzan Modelo ta Antoniano ta, beste bat’e bazan. Beste... nola zuan bestiak izena? Beste bat’e bazan. Hiru zian Zarautzan.

- (Amona): Hiru, bai.

- Eta, zentsura ta asko izaten zan?

- Zentsura haundiya zitxion orduan, bai. Zine maillan zentsura haundiya. Geo, apaizak nahiko atakatzen zien.

- Bai?

- Bai, bai, bai. Hori gaiñea, kontxo!, nahiz apaizak geure lagunak eta izan, pixkat, e, hola, pelikula zea zanian ta, pixkat sartu iten hituan, e!

- Elizan’e bai, sermoietan eta? Edo...

- Bai. Nik goguan zakat hola, askotan ez, baiño... noixik eta behin, bai, sartu iten hituan. Orduan zinia begi txarrakin ikusita zitxion, zea, gauz zea bat bezela, “fuera del orden”.

- Gaiñea, Getaia herri txikiya, ta...

- Karo. Orduan hik pentsatu behar dek Getaian nik hiru apaiz ezautu dixkiyat. Habek been garaian gazte denboan: zuk bost bat ezautuko ziñun? Zu etorri ziñan garaian, ta...

- (Amona): Nik lau.

- Oain bakarra zakau, oseake...

- (Amona): Bakarra, ta hua’re...

- Bea’re kanpotik. Zumaian bizi dek, baiño honea, baiño hontako, Getairako dao ipiñita.

4.7. Ezkontzako soinekoarekin egindako bainujantzia

- **Hizlaria(k):** Isasti Otamendi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-016/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Nolako bainujantzia zuen. Concha Ortiz de Artiñano izeneko bilbotarrak ezkontzako soinekoa kapa batekin egin zuen eta gero berari eman zion soinekoa. Berak bainujantzia egin zuen harekin.

Transkripzioa

-Guk, berez, nola dendan lana in ber giñun, jun ez.

-Eta traje de bañuak eta?

-Traje de bañuak eta, ahal zan bezela.

-Bazeon?

-Ta burla iten zien nei, ta nik elegante juten nitzala uste.

-Ta nolakua zan ba?

-Esango ñat: nik egin nian /inian/ traje de baño Kontxa Ortiz de Artiñano. Badakin zeidan e? Kontxa Ortiz de Artiñano medikuak ere badia. Orduan bilbaotarra zan, ta hemengo Karmen Inglesen illobakin ezkondu zan. Ta haren aitak eta hitunan oso aberatsak Bilbon, "vivian en Campo Volantín". Entenditzen? Ta hark zitxakanan kapa haundi bat, lehenorero eramaten zituan bezela. Ta orduan, gerra denboran ezkontzeko ta zeik ez, telik ez nunan /enunan/, ta hark in ziñan kapa earki trajia ezkontzeko. Ta geo eman zitxanan nei.

-Trajia?

-Trajia. Ta nik in niñan traje de baño. Honela ta geo tira goitik behera.

-Ezkontzeko?

-Ez! Traje de baño in niñan.

-Ya, ya, ya, ya.

-Ta gure umiak eta, nik elegante juten nitzala uste niñan, ta gure umiak gero hazi zianian lotsatu iten hitunan ez al dakin ze izaten dan. Baño baxkiñat oaindik hor zaben bi traje de baño, Benidorma ta eramate nitunak geo.

-Lodi-lodiyak izango zian.

-Haiek bai baño oainguak ez, oainguak modernuak, bueno ez, oaingo modeno habek baño denboa onokuak. Mari Karmenek ekarrita Zarauztik.

4.8. Garbitokian txanda itxaron behar izaten zuten emakumeek

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Idiakez, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-017/014
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:29:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ganaduak plazako iturrira eramaten zituzten ura edatera. Labaderoa nolakoa zen deskribatzen du. Emakumezkoak han zeuden bitartean, txalupa-mutilek zirikatuta egiten zituzten. Herri guztia plazako garbitokira joaten zen eta txandan egoten ziren zain. Ganaduak aldameneko putzuan edaten zuen ura. Behi baten inguruko anekdota.

Transkripzioa

- Hor, kale-baserriyak txarrena izango zun, e, terrenuak eta lurrak eta aparte ziala, ez?

- Bai, horixen, ba.

- Urruti.

- Ta gero, ganauak'e ura eratea, ez zan urik zean, askaetan, okoillotan ta.

Plaza eramaten giñuzen. Ta plazako iturri zarra eukiko dezu dibujan beharbada ayuntamentuan, e! Han aska hiru erreglan zan, e! Hamen hasi naiz ni itxuran... ez dakit, dibujatzen'e ez dakit eta! Han! Dibujatzen'e ez dakit! Hau zan herriko labaderua. Hemen harridxak, harridxak, harridxak eta harridxak, harridxak. Ta gero, goro zan teillatua, hau zan teillatua. Teillato horren zean, hamen [zinkak eta] lagatzen giñuzen, petrilla honetan. Ta hemendikan beste hainbeste, [zinkak]. Ta txalupa-mutillak ba al dakizu ze iten ziguen? Arbidxan buruik haundixenakin zuluakin kalabera jartzen ziguen kandelakin koska habetan gaiñetan, ta gu barruan lanian, hamen. Ta, "Ah!", bildurtuta. Broma jartzen ziguen txalupa mutillak. Geo illuntzetan ez zuen zer iñik eukitzen, ta guri tentatzen ibiltzen zian. Ta holaxe bizitza zan lehen. Nik ez dakit...

- Eta labaderuan, zan bai erropa garbitzeko eta bai ganadu askak'e bai?
- Ez! Geo hau zan... Luzia zan, e! Ta harri asko zitun. Oain esango dixut, ba! Ta txandan eoten giñan, e! Herri guztidxa horrea juten zan ta. Ba, hoi danak harridxak ta ur hau dana betia eoten zan. Ta garbitu harridxan ta uretan danok hantxe, saltsan. Garbitu... Geo hamen zan, honen onduan zan, labaderuan onduan zan, honela, uren zea bat, ura korrientian eoten zana. Ta geo ura korrientian ta geo honea beste zea bat, hiru puntan. Hau dana ganauen ura zan. Ta hau atai zea zan, harrizkua, kale kantoiak eukitzen duan holako harridxa, ta hemendikan sartzin zin ganauak, bazakien larreatik etortzian noa jun bihar zun ura eratea. Ta hemendik okoillotikan'e bazekien ura eratea noa zijuazten, plazatikan. Guk hurre giñakaun. Ez dakit bestiak eramaten zuten horrenbeste, hamen, kale honetakuak eta [...]. Behero giñan oaindikan ta plaza pasa bihar izaten gendun ganauakin, ta honea ohitura zaken, ta honea etortzen zian ura eratea. Hamentxe ura eraten zuen ta atzea, danba-danba-danba, okoilloa. Ta ganaua bagendun Iturritxiki, hiru txaletak pasata, hor zelai haundi bat gendun... ez dakit hauek danak esatia?

- Bai, bai, bai.

- Bai?

- Bueno, nahi badezu!

- Eta handikan... Bat bagendun, nik Suizua deitzen nion, behi gris zea, beix bat, oso jatorra zan, ondraua... Ba al dakizu ze iten zun hark? Tripa betetzen zunian zelaidxan, uan hainbeste kotxe ez zan orduan ta, danba-danba hasitzen zan eta okoilloaiño juten zitzaitan bestiak han lagata.

- Etxeaiño.

- Etxeaiño. Kamidxua dana korritu in behar da, e? Iturritxikitikan, Iturritxiki deitzen diogu guk, hiru txaletak pasa ta beste kamidxua plazaiño, ta geo hor Kale Nagusira sartu ta etxeaiño. Ta hark bazakin biria iñork zeatu gabe, ez zin harek bate preokupazioik ematen, ta ez zeon hainbeste kotxe, ta, ederki. Holaxe ibiltzen giñan.

4.9. Txerria hil eta odolkiak, txorizoak... egiten zituzten etxerako

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Idiakez, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-017/021
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

- **Laburpena:** Bi txerri izaten zituzten etxean. Tabernetako sobrak eta pentsua ematen zieten txerriei. Bata etxerako hiltzen zuten eta odolki, urdaiazpiko eta abar egiten zuten. Urdaiazpikoa gazitu egiten zuten, txorizoak zintzilik jartzen zituzten lehortzeko. Artoak ere zintzilik edukitzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta, esan dezu txarriya're izaten zendula...

- Bai, bi txarri itxian hazitzen giñuzen. Ta bat, ba... Tabernetakuak ematen zizkiguen sobratutako baldeka gauzak eta, ta geo itxian erramolatzakin ta, artuakin, arto aliakin ta nahastutako pentsuak eta... ondo gobernatzan giñuzen guk txarridxak, e! Ta geo bat itxeako hiltzen gendun, bestia ez dakit saldu o ze in zuan. Eta hori iten gendun itxian oholkidxak, eta txorixo, urdaiazpiko, danak itxian konserbatzen giñuzen. Ta guk goseik ez genduan pasa, egidxa esan. Gu gazteik goseik pasatu gabiak gea.

- Txarriya gaiñera, oso-osorik aprobeixatuko zan, ez?

- Bai, oholkidxak eta danak iten giñuzen, txorizo ta dana. Ta geo urdaiazpikuak gazitu iten giñuzen, gure aitzak gazitu iten zitun, ta barriño batian jartzen zitun ta geo handikan, ba, bere, bere ekis denboa atea, ta ya helduta zaben ta, garbitu ta rajatu ta, urdaiazpikua, earra.

- Eta nola konserbatzen zian txorixuak eta oholkiyak eta...

- Txorixuak eta iten giñuzen, ta, goiko tetxotan txintxilika jartzen giñuzen sekatzan.

- Sukaldian bertan?

- Sukaldian ahal zan tokidxan. Leheno artuak'e zeak iten zian, montoiak iten zian ta txintxilika jartzen zian. Behian ez, traban batetikan dana jasotze arren. Azkenengo apurrak, ba, okoilluan ganauei ta horrela. [Lakras] asko indakuak gea! Bizi guztidxa lanian.

4.10. Getariako jatetxeetan arraina nagusi: bisigua, legatza, barbarinak, panekak...

- **Hizlaria(k):** Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-020/010
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Bisigua nola egiten den. Sare batean jarri eta kanpotik egiten zen. Ondoren ireki eta refritoa bota. Elkanokoak legatz-kogotea ere jarri zuen, lehenbiziko aldiz. Ordura arte ez zen jaten. Mihi-arraina (lenguado) ere egoten zen, baina erreboiloa gutxiago, geroago agertu zen. Bisiguaz gain, antxoa frijituta eta sardina erreta ere egiten zen. Eta horretaz gain, barbarinak, itsas kabrak, panekak... arrain asko zegoen, denetarik. Orain komeriak!

Transkripzioa

-Nola egiten da bixigua?

-Bixigua nola egiten dan?

-Erretzeko?

-Ez, eske batzuek esaten due Bizkaian eta “a la espalda” ta eiten duela, baiño hemen ez, hemen bixigua ba hartu eta, o sea garbitu ta sare batian sartzen da; bueno, besugera batian eta horrela ia parrillan, buelta ta buelta, eta gero sukaldera eraman ta ereki eta erdiko hezurra kendu eta orduan refritua bota, o sea, olidua ta binagria, piper pixkat eta baratzuiyakin, eta refrito hori hartu ta listo. “Más al natural, imposible”. Eta gerora hasi zian beste jatetxe batzuek ia, igual adibidez, badakit nik, Elkanoko arran... Elkano, eta igual hari ere iten baldin badiozu, restaurante Elkanoko Pedro eta nere gizona joan zian alkarrekin kanpoa, “en los años de”, krisisa zan orduan ere, cincuenta y ochoko krisisa. Zu jaiyo gabe eongo ziñan artian baiño. Eta handikan etorri zian eta nere gizonak jarri zuan Elkanokuakin taberna txiki bat. Baiño gero, handik urtebetea, ezkondu ta ia gure itxea etorri zan. Eta Pedro Elkanokuak jarri zuan, leheno dana bixigua, bixigua, ta kogotia, lehendabiziko aldiz, porque leheno egiten omen zan... Eta gustatuko litzaidake harei ere eitia entrebista. Brigido nere laguna da, ta guria ere bai, eta lehendabiziko aldiz legatza leheno burua ta ez zan estimatzen, ta beai okurritu ba legatz burua eingo det, kogotia, gero harrezkeo beste gauza geiyo, ta gero rodabailua ta lenguadua ta horrela. Baiño kogotia harek jarri zuan lehendabiziko aldiz. Bai, gure itxian eta artian bixigua ta bixigua, ta horrela, baiño.

-Eta bestela, rodabailua ta lenguadua ta horrelakuak izaten zian edo?

-Rodabailua gutxio izaten zan, lenguadua bai, rodabailua pixkat gerotiyoa bezela edo. Bai.

-Eta bestela, zein arrain izaten zan?

-Bueno, gero...

-Bixigua neguan izango zan?

-Bai, bueno gero antxua asko ematen zan, antxua prejituta, sardinak erreta parrillan. Antxua prejituta, edo egosita edo horrela, baiño sardiñak berriz parrillan, banaka-banaka inda ta. Hori sardiñakin'e asko egiten zan lana.

-Eta barbaiñak edo?

-Baita ere, bai, bai. Paneka..., pixkat hola prejituta eta horrela baiño, bai, barbariñak eta ere bai, ta itxaskabrak eta, bueno, danetikan, danetikan.

-Hemen bertan, itsasoa bertan.

-Bai, eske harrapatu eiten zuen. Oain berriz, azkenian antxua ere ez dakit zer ikusi biar deun hemen. Atuna ere lehengo urtian ondo baiño beti ez da ondo izaten eta.

4.11. Antxoak kontserban nola egiten diren

- **Hizlaria(k):** Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-020/013
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Antxoak kontserban jartzeko, burua eta tripak kendu egiten zaizkio. Ondoren latetan jarri, bueltan-bueltan, gatzetan, eta lata betetzen zenean, gainean egurrezko tapa jartzen zitzaion. Taparen gainean pixua jartzen zitzaion. Prest zeudenean, atera, garbitu eta olioarekin jaten ziren. Orain ezin da horrela egin, galarazita dago, baina

lehen asko egiten zen eta oso ona izaten zen. Jatetxean ere jartzen zuten eta asko gustatzen zitzaion jendeari. Orain debekatuta eta gainera antxoa ere faltan. Lehen etxe guztietan egiten zen. Etxeetan baino gehiago sotoetan, usain handia botatzen duelako. Zenbat eta denbora gehiago utzi, kolore gehiago hartzen du; hasieran zurixkak eta gero gorritzen joaten dira. Behin atera ondoren, garbitu, gatza kendu eta fileteak egiten dira.

Transkripzioa

-Eta nola egiten zen hori?

-Hori nola eiten zan? Pues antxua asko izaten zan orduan, eta burua ta tripak kendu, osoikan, eta gatzetan euki. Ta gero atea ta, ontzi batian ba jarri, ontzidxan behian jarri antxua, gatza, eta gero antxua. Batzutan hamar kiloko latak eta horrela, ta un poco, banaka banaka bezela, como haciendo círculo bezela. Barrikan iten bazan, “más a granel”, baiño bestela banaka jarri eta gero en cada... fila bakoitzian gatza bota, ta horrela, azkenearte, ta geo azkenian, gatza, eta lata honeaino iyotzen baldin bazan, ba ya bere tapa bat egurrezkua jarri, ta horrei jartzen zitzayon este... pixua, ta gero iten zan zuuun!, betik gora juaten zan, eta gero handikan, hurrengo astian edo horrela, bete baita ere eta hola. Eta geo, garaia allaatzen zanian, atea, garbitu zakuzko trapuakin eta kutxiluakin eta horrela, eta oliyuakin jarri. Eta, klaro, hori dendan ere erosten dezu antxua, oain makinakin eta horrela eiten da asko, baiño orduan, guk ere bai, ta beste jatetxetan eta ere, hori ya oain dala urte gutxi arte, oain Sanidadiak yz ez du utzitzen iten, baiño oso, antxuak hamenguak eta hanguak eta ze onak dian, eta dana zan poke iten zan hastian behin edo hastian bietan edo horrela, eta orduan, antxua latekuak daka peligrua de que, nola gatzakin kontserbatutzen dan, geo gatzak beak gazitu egiten du, ta orduan, etxian egiten giñuna zan, ondo garbituta jarri ta denborik etzeukan gazitzeko, eta orduan jendiak “huy, esto es jamón” eta hola askotan esaten zuen ta. Asko ematen giñun, osea ke garbitzailea ere ona giñakaun eta asko eiten giñun, ta oain berriz ezin da ein batez. Oaindikan'e batzuk klandestinamente bezela iten da, baiño oain, nola, adibidez, “falta la materia prima”, ta orduan ba...

-Antxoarik ez da.

-Antxoik ez dao ta, Sanidadea're sartuta bezela, baiño...

-Eta hori lehenago etxe guztietan.

-Bai, etxe guztietan. Eta geo laga zan pixkat porke ia itxiak e dotoretzen ta usaya ta, bodega zakaenak eta bai egin, baino...

-Normalian nun egiten zan, bodegetan?

-Bai, bai.

-Etxean bertan?

-Ez, sotuak eta horrela, bai. Hori da, klaro, porque usaya asko zeatutzen du baiño antxuakin fama, herri mailan eta, geuk ere partikularmente ba, danak, “que ricas son”. Y era por eso porque ondo gaxituta, baiño ondo garbituta jarri eta ya urrengo asteako remesa. Ez zakan /etzakan/...

-Freskua?

- Ez, freskua ez, egin berriya, eta gatza hartzeko denborikan ez zakan /etzakan. Hoixe ba.

-Eta beti barriketan edo gehienetan?

-Bai, bai. Edo gero ba plastikozko hola, barrikak edo “bidones de plástico”. Haundiyak ez, e, eta gero bere neurriko tapa egin eta. Eta gatza askoekin.

-Eta esan dezu tripa eta burua kendu?

-Bai, horrela, forma batian...Tripak kendu ta gero..., salmuera da gaziya, ur gaziya. Han garbitu eta gero ba ta, ta, ta!, jarri, bota gatza; ta, ta, ta!,

beste fila, bota gatzia; eta gero gaiñian hori, ta klaro, horrei, hori bai eoten da freskua, ta pixua hartu bihar du lehortzeko ta honela jartzen baziñun ya, pixuakin jetxitzen zan, ta geo hurrengo astean berriz e “rellenar”, eta gero ya utzi ta, udaberriyan in eta negurarte utzi, dizienbre arte edo horrela. Geo orduan erten behar zun ba kolore... Bai, pixkat hobeto zan lagatzia, batzuek presa zakaelako pixkat txuri xamarrak ertentzen due, eta orduan, denbora geyokin, gorri, arroxaz bezela koloria

-Eta osorik orduan.

-Bai, bai. Eta gero, atea atea ta. Oain fabrikan-eta urakin.

-Filetiak?

-Bai ba, filetiak iten, filetiak ein bihar, bai ba. Eta orduan esaten zan ba zakua edo tela fuertiakin kendu gatzia dana eta gero kutxiluakin batzuk oso artista zian. Honela, tripako salientia, ra!, korte, korte, eta gero, honela're bai kutxiluakin egin eta gero orduan honela altza eta ta, ta!, kendu azala. Altza eta hezur hura bota. Orduan “ya eran dos filetes”, bai.

-Eta azala ere...

-Ez. eske azala berekin zuan, eta orduan azala gero gatzakin juten zitzayon, garbitu eiten da, ta orduan dana kolore batekoa. Erekitzen badezu oain askotan lata bat eta pixkat grixaz baldin badaka gaiñian ba hori ondo ein gabe daolako edo horrela. Berez, perfektua da zure jertsien kolorea, marroia ya eginda, oseake bai. Hori egiten giñun aldameneko bodegan. Bai, bastante kantidade “para lo poco”. Gu toki txikiya giñan, osea, lehen [esan dedan bezela], gure jatetxea txikiya da, ta hoixe. Ta uan ba ez dao antxoikan baiña ekartzen due “de donde hay”.

-Mediterraneanotik edo...

-Bai, ez dakit nundikan. Eta gero ba egiten due baita ere, ta danak esaten due “uy, esto no es lo de antes”, “pero cuando no hay más, contigo Tomás”. Hoixe.

-Bai, bai. Beste zerbait apuntatuta...

-Ez, ez, ez. Habek dazkat, habek dia nere lotako gelak eskatuta dazkatenak eta. Ez dakit zer esan dituen, gure Marijek nahi du, baino... Nei, eta nik beste gizon batei esatia nahia baldin baziñuke... Zuk ya gaur ein dezu Getarikua, no?,

-Bai, baiña bihar edo...

4.12. Abesti elebiduna

- **Hizlaria(k)**: Basurto Lazkano, Raimunda; Manterola Larrañaga, Jesusita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: GET-028/016
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:23:12. **Bukatu**: 00:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Euskara eta gaztelania nahasten dituen kanta bat abesten dute.

Transkripzioa

- Raimunda: Euskaldun kanta asko dazkiu, baiño...

- Bai?

- R.: Euskaldunak, bai, kantak.

- Aber, ze kanta dakizkizue? Bota kantak. Lehenoko kantak. Lehenoz kantatzen zan?

- Jesusita: Hainbeste kanta kantatzen giñuzen...!
- Kororen baten ibili al zeate?
- J.: Ez! Orduan ez giñun koroikan!
- R.: "En la época...", hik badakin "En la época de invierno"?
- J.: Bai, hori bai.

En la época de invierno
Getari honetan,
se ve muy poca gente
gabaz tabernetan.
Se ve que no hay dinero
gure patriketan,
a la madre pidiendo
beti errietan.

Y yo digo francamente
arrazoiarekin
cuando no hay pescado
kabra txuriakin
cogidos con el anzuelo
tollen gibelakin
se hace buen guisado
patata birekin.

Somos afiladores
patrika hutsakin,
vamos a la Artzape (moilla)
kutxilluarekin.
[Hay petriles] gastado
ofizio honekin,
se afila suavemente
txistu pixkatekin.

- J.: Ze nahi dezu gehidxo?
- Gehio ba al dauka?
- [...].
- Oso ona! Zer da euskeraz ta erderaz?
- J.: Akordatzia´re gitxi dala uste al dezu?
- R.: Ta dana kantatu! Dana. Ez! Azkenengua:

He sacado ocho versos
broman pasatzeko
en la cuadrilla de [...]
danok kantatzeko
para olvidar las penas
alegre jartzeko
siempre los de [...]
danok kantatzeko.

- J.: Hoidxek, hoidxek... asmatu zituen!

4.13. `Ixil-ixilik´ kanta

- **Hizlaria(k):** Basurto Lazkano, Raimunda; Garmendia Lazkano, Agustina; Manterola Larrañaga, Jesusita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** GET-028/048
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:21:46. **Bukatu:** 01:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Hirurek `Ixil-ixilik´ kanta abesten dute.

Transkripzioa

Ixil-ixilik nago, kale barrenian
ontzi txuri polit bat uraren gaiñian.

Goizeko ordu bietan, esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.

Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago, itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat bat, bart parrandan ibili
bart parrandan ibili;
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili
ez naiz ondo ibili;
Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru,
kolkua bete diru;
Lau, lau, lau, sardiña bakalau.

Anteron txamarrotia,
[Txingarren] bibotia,
haretzek ez daka, ez daka
preso Euskal Herria.

- Jesusita: Ez zekiñat ondo esan den hori.
- Raimunda: Nik bai zakiñat ondo!
- Oso ondo! Oso ondo! Bi ahotsetan ta dana in dezue.
- Agustina: A! Nahi degun eran! [...] Gaztetasunian gaztiak bezela, ta oan ertentzen digun eran.

4.14. Eskolan gustura ibilitakoa

- **Hizlaria(k):** Azpeitia Basurto, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** GET-030/003
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:04:51. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Hasieran herriko eskolan ikasi zuen Martina maistrarekin. 20 ikasletik gora ziren klasean, eta oinarritzko gauzak ikasten zituzten. Geroago, maisu nazionalarekin ikasi zuen 2-3 urtez; eta handik Zarauzko anaietara joan zen ikastera. Zarautzen denetik eta ondo ikasi zen. Gai bakoitzerako liburu bat erabiltzen zuten, eta ez zuen inoiz zigorrik jaso. Dena gaztelaniaz ikasten zuten. Ikasleak klasera bizikletaz edo autobusez joaten ziren Getariatik.

Transkripzioa

-Ikasi ikasi hasi ziñan hemen ikasten.

-Zer, eskolan?

-Eskolan.

-Bai.

-Zein eskolatan hasi ziñan?

-Urietako eskola nola izena ez dakit ba nik.

-Baino kofradikuan-edo?

-Ez, ez. Hemen oain ez dao eskol hura ta ezer hemen. Emakume bat zera maestra, harekin ibiltzen giñan.

-Nola izena zun?

-Martina uste det, Martina.

-Eta zenbat ziñaten klasian?

-Ez dakit. Asko giñan, baiño hogeitikan ta gora bai, hogeitikan ta gora bai.

-Danak mutillak edo mutillak eta neskak?

-Ez dakit, ni ez nai akordatzen, ez nai akordatzen

-Eta zer ikasten zenuten edo?

-Ez al dakizu hasierako zera: a, e, i, o, u. Ta horiek guztiak, hasierako zerak.

-Ta matematikak edo?

-Matematikak eta gerora. Bai gero hemen maixo bat egon zan, ez zana hemengoa. Ta nazionaletakoa, bueno, "maestro nacional"-edo esaten zana, ta harekin beste bi urte edo hiru. Gero handik Zarautza hermanota.

-Ta nungo hermanota Zarautzen zein hermano?

-Hermano horiek ematen zituen ba.

-Baino nun zeuden horiek? Nun egoten zian?

-Nola dao miserikordia eta Zarautzan? Nola esaten dioe residentzia esaten dixoe, pixkat goro jun ezkerreta, edifizio bat han dao oraindikan.

-Bai

-Ta han seitzen du.

-Kamian onduan han dao oraindikan, bestiak berriyak, bueno kendu eta beste gauzek inda.

-Eta han?

-Han ondo.

-Ondo gustoa eta ikasi al zenun han?

-Bai, ondo-ondo.

-Ta zer ikasten zenuten han?

-Joe, oraintxe...

-Gutxi gorabehera edo historia sagrada o?

-Historia sagrada. Denak ez zian hoiek, erlijiosos eta holakuak ´e bai eta historia sagrada eta mamatuta. Historia sagrada asko. Ta geo, esto nola esango dixut ba, danetik matematikak eta zera horiek, danetikan edade hortako. Zea guztiyak ikasten gendun. Holako gaztiak ez due holako gauzik ikasten e!

-Nundik ikasten zenuten ze liburu ibiltzen zenuen?

-Hoi aber, aritmetika, geometria. Jo, ez dakit [...]. "Historia sagrada,

Historia de España” [...] hoiek danak bagenduzen.
 -Bakoitzantzat liburu bat zan?
 -Bai, bai.
 -Ez zan entziklopedia edo?
 -Ez, ez ,ez bakoitzantzako bat, bai bakontzatzako bat.
 -Eta, txintxo portatzen ziñaten?
 - Bai, oso ondo.
 -Zigorrik edo ez zizuen jarriko.
 -Ez, hortan “número uno”.
 -Ta euskeraz edo erderaz ikasten zenuten?
 -Han erderaz dana, euskueraz orduen ez zeon eskoletan ta hamen holako zeikan.
 -Ta euskeraz hitz egiteagatikan zigortu edo baten bat iten al zan-edo?
 -Ordun ez zeon, euskeraz hitz egiteagatikan keba, ez. Zarautzarrak askok euskuera gu, estuditzen giñan bai euskuera, baiño profesoriak zian kastillanuak hitz egiten zuenak.
 -Ta klasian hermanotan, ze jun ziñaten getaiarrak, zarautzarrak?
 -Getariarrak hemendikan jutun giñan gu orduan, hamabost bat bai, bizikletan jutun giñan.
 -Bizikletan?
 -Bizikletan, orduan hamaika urte nitun ta,hamaika urtekin.
 -Ta bizikleta bakoitzak beria zeukan?
 -Bai, bai. Batzuk jutun zian autobusan ta beste zea batzutan ta.

4.15. Parrandan, Zarautzera

- **Hizlaria(k)**: De la Hoz Arregi, Jon Ander
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizagirre Agoues, Libe
- **Erref**: GET-033/018
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:17:45. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
 Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena**: Zumaia aldera jo beharrean, Zarautz aldera jotzen dute parrandara, ikastera, kiroldegira...

Transkripzioa

- Ez. Lehen gehio zitxonan. Uan tabernak ere eskastu o geo gutxio zaben eta... ez. Igual... Iten dixkiñu /iteixkiñu/ azkenian, e? Ze azkenian zerbeza pixkat daon lekuan ta gu musika pixkatekin ondo moldatzen gaitun, baiña... baiña ez. Azkenian... edo gatzetxian´e bai o... baiño... baiño ez. Zarautzen. Normalian esaten deunian “Jo, parranda in bihar diu! – kuadrillan esaten deunian- Gaur parranda ingo diu” normalian Zarautza. O oso-oso gutxitan Donostira. Baiño normalian Zarautza etortzen gaitun, bai.

- Ta zuk zeba uste dezu Zarautzea etortzen zeatela, adibidez, Zumaira jun baiño gehio? Ere bai hemen ikasi dezuelako igual? Azkenian...

- Nik zumaiarrakin harreman oso ona zakanat, baiña nik nere bizitzan gehidxo jo izan diñat Zarautza aldea, bai ikasketagatikan, bai zea... Baiño Zarautzen ikasi ez duenak ere nik uste diñat Zarautzea etortzeko ohitura dakenak, ze azkenian getaiarrak´e, ba, bueno, Zarautzakin erlaziyo gehidxo euki diñe...

- Bai, azkenian...

- Bai, bai. Azkenian, zapatak falta dixkiñula? Ba zeara, Zarautza; dentistanea Zarautza; ez zakiñat ze? ba, Zarautza; ikastea... Bai, bai. Kirola... askotan kiroldegira´re ni neu etortzen naun Zarautza, pizina. Ni ta nere lagun asko. Futbolea Astira ta bat eta beste. Ta... Bai, bai.

- Hor, adibidez, Getaian kiroldegia badago?

- Bai.

- Ta pistina ta guzti daka o...?

- Ez, ez, horregatikan etortzen gaitun gu Zarautza. Baiño bai, kiroldegi polita zion, txiki xamarra. Eta Getaiko... Bueno, getaiarra, azkenian, ba, kirolian ez dabillena, arraunian dabillenak bere gimnasiyua zakan, arrauneko elkarteko lokalian. Berriz, beste batzuek nahio izaten diñe saltaka itea jun, ba, ez zakiñat, Zarautza, paseua. Paseua´re ear askua zeon. Eta, bueno, kiroldegira jun nahi duna kiroldegira juten den, baiño nola ez dan ikaragarri jende ibiltzen, ba, dan txikiyakin´e, ba, moldatzen dittun /moldatzentxun/ danak.

5. Baserria

5.1. Gariaren garrantzia; honen inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Isasti, Jose; Gurrutxaga Gartxotenea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-008/006
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Artoa, garia eta babarruna ziren garrantzitsuenak baserrian. Garia txartzen hasi zen eta orduan utzi zioten ereiteari. Gariaren inguruko lanak. Kale ingurukoek herriko frontoian jotzen zuten garia.

Transkripzioa

- (Maria Gurrutxaga, emaztea).: Ordun ez zan nahi izaten, ordia! Gure ama zana, gaixua, jesus! Bere gariya ta artua iñ ezkeo, babarruna, konforme.

- J.: Ordun gariya ta artua zan. [Hua iñ ezkeo] ona, e!.

- M.: Bueno! Ta nere koiñatak, koiñatak esaten ziyon: "Ama, baatza pixkat bada're...", "Ixilik eon ai, neska! Ixilil eon ai! Nola baatza ingo den, ba, zean?" Hark bere gariya ta bere artua izan ezkeo, Jesus!

- J.: Ordun dana [behar zan ta], zea [guziya], hartua ta baba.

- Gehiena hori?

- J.: Dana hori, dana.

- M.: Geo in zan gariya're txartzen hasi. Olua ta...

- J.: Geo txartzen hasi zan, bai.

- M.: Ta geo beherago gendun zea, terrenuan, han garbi-garbi-garbiya, zillarra bezelakoxia. Ta "Ene! Hau ez deu uzteik! Hau ez deu uzteik!". Han zea in zan ditxosozko olua, "Utzi beharko deu, Maria, ba!". Haor, ba. Ordun, ene!, gurasoi zea ez ematetik, disgustua ematetik, ya etsi zunian, beak "ez, utzi in beharko da". Eske ordun zan garia han, garbi-garbiya behian, [...], bueno! Ordun txoatzen.

- Eta hemen ingurun garia asko iten zan?

- J.: Ordun gariya iten zan dezente, bai, bai, bai, ondo, ondo.

- M.: Bai, orduntxe ze zea iten zan: gariya...
 - J.: Guk geuk'e urtiak beti hortxe...
 - M.: ...gariya jo...
 - J.: Eun bat, eun bat [zea, anea, anea] esaten diyou guk, geuk'e beti urtian, e, eun bat izaten giñun.
 -M.: Garia jotzen. [...] ez zan atea're itten. Entre, ekarri in zunak ta zea in, hua jo. Ez...
 - J.: Ez, ta uain bezela ez da zeaik, eta orduan gastua [...], hoixe.
 - M.: Bueno, bueno, bueno. Gariya iñ, ta o zea in ta, garittan gehio gastatzen zan ogiya ekartzen. Gariya in [...] ta, zea itten zan, errotan ta jo banakin ta zea, ordungo... Jesus! Gariya ekarri ta bereik ez!
 - Lan asko ta...
 - M.: Lan asko ta [...] ez.
 - J.: Bai. Lan asko ta, lan asko ta zea gutxi.
 - M.: Jesus!
 - Esan diate gariya frontoian joten zala... e... Getaiko...
 - J.: Getaiko...e... kaleko, kalekuk bai, kalekuak danak frontoira.
 - Kale inguruko baserritakuak eta frontoira juten ziñaten?
 - J.: Bai, frontoira.
 - Baiña baserritakuak ez?
 - J.: Basarritakuak aleik ez [...].
 - Zuek hemen bertan?
 - J.: Hemen bertakuak, basarritarrak basarrin. Haiek kalekuk zian haiek, kalian bizi zianak. Hola badaude basarri txiki batzuk?
 - Bai. Kale inguruko basarriyak.
 - J.: Kale ingurukuak, bai. Hoiek'e danak kalea.

5.2. Arbia ganaduentzat

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Isasti, Jose; Gurrutxaga Gartxotenea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-008/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:23:45. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Inguruko auzoetakoek izaten zuten harremana, baina jaietara gutxi ibiltzen ziren lan asko izaten zelako baserrian. Arbia egiten zen lehenago ganaduei jaten emateko. Arbiaren inguruko lanak. Arto-orriak ere ganaduari ematen zitzaizkion.

Transkripzioa

- Eta ordun, Aizarnazabal esan dezue ta, bestela, hemen inguruko auzuen artian eta, hartu-emana haundiya izaten zan?
 - M.: Bai, bai. Auzuan bai.
 - Ba, Aiako... ez dakit ba... Urdaneta, Elkano...
 - M.: Hori beste aldea da, baiño.
 - ... Mia...
 - M.: Bai, bai. Alkartasuna.
 - Bertakoekin eta?

- M.: Bai, bai. Bertako zeakin ta bai.
 - J.: Bertako zeakin.
 - Jaietan' e bai? Urdaneta ta Urteta ta...
 - M.: Ordun ibili iten al zan, ba? Mezeta jun behar zendun. Ta ordun ez zan ibili're itten. Zeure zean hortan, ta listo. Geo arbiya zeon ordun ta, arbi hostrua in ta, ...
 - Hori noiz?
 - M.: Hori neguan... ze garaittan izaten zan hua?
 - J.: Nobienbria.
 - M.: E?
 - J.: "Noviembre", "noviembre".
 - M.: "Noviembre" izango zan gaiñea. Hostrua itten zan bittartian... bueno! Arbi haundiya bazan, ta arbi hori haundiya in bazan, ordun earke jata zea itteko. Geo majina jarri zan ta, majina jarri zanian hua txikitzeke difeentzi haundiya. Eske dana etorri da... Ai! Ta hori apuntatzen ai al zea, gaiñea?
 - Danetik pixkat.
 - M.: Ta ni berriz, txoliñan moun [...].
 - Ez, oso ondo.
 - M.: Pentsatzen jarrita're...
 - Eta arbiya ordun inportantia izaten zan?
 - J.: Ganauentzako.
 - M.: Ganauentzat.
 - J.: Ganauentzako.
 - M.: Oain bezelako pentsu, oain bezelako janak ez. Oaingo zeak... Jesus, Maria!
 - Eta noiz batzen da? Noiz biltzen da arbiya?
 - J.: Hori hortxe, nobienbrian o hola izaten zan.
 - M.: Bai. Ta geo bestia, artua, artazorrua in ta zea're bai, artua txikittu, zuittu, ta haen hostruak zea inda, dana holaxen, dana holaxen, ganauai. Bueno, bueno, bueno! Oain bezela... Oain bezelako pentsu zeak eta... Jesus! Ziharo kanbiauta dao!
 - Eta arbiya nobienbren hartu...
 - J.: Bai.
 - M.: Bai.
 - ...eta gorde iten zan? Neguan gorde, o?
 - J.: Ez, hua eman...
 - M.: Ez, hor huaxe ibiltzen zan.
 - J.: Ganauentzako hua izaten zan, ta bata jasotzen zanian, bestia ta hola.
 - Bildu ta eman, bildu ta eman.
 - M.: Bai, bai, jenealian. Zapa... jaian ez itteattik, mezeta jun gabe ez zeon gelditzeik ordun jaietan, ta bezperan ekarri pilla bat, han [tolestun] jarri ta. Geo jarri zanian majina txikitzeke, [dongiñian] ordun, hua zean, txikittu itaiakiñ eo, diferentzi haundiya zan. Geo motorra jarri zanian txikitzeke, difeentzi haundiya. Ene! Gauza kanbiatzen jun zan bezela, izugarrizko difeentziya.

5.3. Gariaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Isasti, Jose; Gurrutxaga Gartxotenea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-008/014
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:30:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

• **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko lanak » Garia

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Ganaduentzat jana arbia, belar-ondoa eta lastatxikia izaten zen. Lastatxikia: gariaren lastoa txikituta. Hasieran eskuz txikitzen zen, makina etorri arte. Garia ere igitaiarekin ebaten zen lehenago. Gariaren inguruko lanak. Etxekoak ibiltzen ziren gariaren inguruko lanetan. Gari-jotzea eskuz egiten zen lehen, harriaren gainean joz, eta, gerora, makinarekin hasi ziren.

Transkripzioa

- Eta ganaduentzat ze izaten zan, jana ze izaten zan? Arbiya esan dezue, ta... bestela?

- M.: Ta bestia belar-ondua...

- J.: Belar-ondua bestia.

- M.: Ta lasta txikiya ta hoiek.

- J.: Lasta txikiya ta hoiek, hoiek die.

- Lasta txikiya zer da?

- M.: Hoi lastua...

- J.: Lastua txikitutakua, lastua, txikiuta lastua.

- M.: Bai. Gariyen...

- Gariyana.

- M.: Bai, ba.

- J.: Gariyana.

- Eta txikitu nola iten zan?

- M.: Hori txikitu? Jotzen zanian geo eoten zan bat hola txikitzeo're, ta holaxe. Hori estreiñeko urtetan. Geo oso pixkanaka zeoze adelantatzen hasi zanian, orduntxe zea itten zan, gariya're itaiakiñ ebaki.

- Eskuz?

- M.: Bueno!

- J.: [...]

- M.: Bai, ta geo beste majina bat jarri zan, ze majina, lan gehio bai, jata tara-ra-ra juten zan ta dana zabalik laatzen zun ta. Nik esaten nun hamaika bider, "hau baiño hobeto deu gero itaiakin", baiño geo gui iruitzen adelanto gehixio zala, ta geo haikiñ jarri giñan, [zea itten zala].

- Majinakin?

- M.: Bai, majinaz. itaia o segakin baiño okerro geatzen zan, majina zea ba, klase bat, ta holaxen, adelante. [...] adelanto.

- J.: Negua're ona zan ordun, e?

- M.: Bai, izuarri earra. Dana ona, ebaten zanian.

- Nola izaten zan ebatia eta?

- M.: E?

- Gariya ebatia eta nola, nola izaten zan?

- M.: Ebaki, ta gero itten zan lotu hua berriz.

- Ta, kontaiazu mesedez, dena, nola hasten zan, goizian goiz edo, hasiko zan?

- J.: Goizian, goizian hasi behar ba, [...] bestela ez zan zeatzen.

- Euzkiya irten aurretik?

- M.: Bueno, bueno!

- J.: Bestela lehenaotik hasi behar!

- M.: Bai hoixe!

- Eta, ordun, baserriko jende guztia auzolanian, o nola izaten zan?

- M.: Ez, auzolanian ez, familiko zea jenealian.

- J.: Familiko zea.

- M.: Jotzekuan ta bai, jotzekuan bai auzuak eta ordun.
- Baiña ebateko ez.
- J.: Ebateko ez.
- M.: Ebateko zeaik ez. Bai, oso gutxi baldin baziñan o zea in baziñun, baiño... etxeako [...] zintuela, beakin.
- Etxekua nahikua izaten zan.
- J.: Etxekuak, etxeakuak.
- M.: Bai, bai, jenealian.
- Eta ordun etxeko guztiak...
- M.: Ebaketa lotu behar zan, lotu ta geo meta in.
- Kontaiazue hori, mesedez...
- M.: Ta gero meta txikiya [...]!
- ...nola zan, nola zan dana, ea, hasi ebaten eta...
- M.: Ebaten, bai.
- Nola izaten zan?
- M.: Geo lotzen haiek beak. Haiek lotu...
- Lotu nola?
- M.: Beakiñ, bere zeakiñ. Hola ez Joxe!
- J.: Bere zeakin.
- Lasto...
- J.: Lastuai beai kendu.
- M.: Bere gariyan zeakiñ. Batzuk zea...
- Eta horrela, e, zerbaiteatikan?
- M.: Ta holaxe in ta geo sartu. Buelta eman ta geo bere tartian sartu zea itteko. Ta geo in behar izaten zian metatxuak. Estreña meta txikiyak, ta geo berriz, pixka bat ya zea inda zeonian, sekauta ta zea inda zeonian, ordun meta handitxoauak. Lana itten zan "como un burro".
- J.: [...] lana...
- M.: Geo, berriz, jotzeako etortzen zanian berriro, Jesus, Maria ta Jose! Hori majinakin zanian, ta eskuz jotzen zanen harriyan berriz, haiek danak zabaltzen, "en cruces". Beste [...] hua!
- J.: [...] harri bat jarri, hari jata danga-danga!
- M.: Bai.
- Harriya jarri eta danga jo?
- M.: Bai, hari jo. Hari atea behar zitzaion.
- Gariya, burua, burua harriyan kontra jo.
- M.: Bai, bai, bai. Ta geo jarri zan adelanto gehixio ta ordun majina jarri zian ta. Majina jarri zianian bai!
- J.: Hua're probau gendun ba!
- M.: E?
- J.: Izugarri probau gendula harriya!
- M.: Dinbi-danba! Dinbi-danba!
- Ezagutu zenduen, orduan?
- M.: Bueno!
- J.: Ezautu gendun, bai.
- M.: Ta geo majina jarri zanen salto haundiya.
- J.: Majina jarri zanian [...].
- Eta izenik bazeukan harriyan kontra jotiak? Edo harriyak? Izen espezialik?
- M.: Ez. Aproposko harriyak jartzen zian zean...
- Izen espezialik edo bazeukan?
- J.: Ez, ez.
- M.: Izena? Ez, ez.
- Gariya joteko harriya, o... ez?
- M.: Bai, ba. [...] haundiya behar zun gariya hor jotzeko ta pixkat zea itteko're.
- Beste toki batzutan entzunda daukat, e, txanketan jotia zala, o... horrela

esaten diyoela.

- J.: Txaketan hoixe da ba!

- Hori da txanketan?

- J.: Bai., hoixe.

- Horrela esaten zaio?

- M.: Txanketa bezela.

- J.: Hori da txanketa.

- M.: Pentsatzen jarrita, Jesus!

5.4. Tratua saltzera Eibarrera eta itsasontzietara

- **Hizlaria(k)**: Erkizia Osa, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-009/003
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gauean berandu erretiratu eta goizean goiz jaiki behar izaten ziren tratuarekin saltzera joateko. Hasieran astoa eta karroarekin ibiltzen ziren eta gero zaldia eta karroarekin. Eibarrera joaten ziren saltzera trenez salmenta ona izaten zelako. Barkuetara ere jenero asko eramaten zuten moilara. Dendakoarekin tratua egin eta traktorea kargatuta eramaten zuten moilara han zeuden 10 itsasontziak hornitzeko. Zumaiatik bueltan trenez Eibarrera joaten ziren saltzera eta asteburuetan kamioian ere joaten ziren. Zarautzen baino gehiago saltzen zen Eibarren.

Transkripzioa

- Lehen... Jesus! Bolada baten itten giñuzen... Korrika asko in ber, ibiliya naiz, ta bai andria're, biyok.

- Bai, e?

- Hasi giñan, gero zea, tratuakiñ ta demonio guztiyakiñ, benga, benga...

Gabian erretira orduko beandu, ta goizian bost eta erdik, seiretako...

- Goiz.

- ...arriba. Ta hemendik Zumaira, astua ta karro zahar bat bagendun, ta haekiñ. Ta geo zaldiya ta karrua, eta haekiñ. Haundiya iruitzen zitzaigun. Ta holaxe.

- Eta Zumaira tratura?

- Ez, ez, ez. Eibarra.

- Eibarra.

- Eibar aldea [...] treneako, Zumaiako estaziyua. Eibarra. Udazkenian behintzat, tratua asko.

- Eta zergaitik Eibarra? Gehio saltzen zan Eibarren?

- Bai! Oain kanpotik etortzen da tratua danian, plazatan, kanpoko fruta o zeakiñ. Guk sagarra ta tomatia ta hortakuak eukitzen giñun. Ta patata, patata [...] ez, sagarra ta tomatia udazkenian. Patata itten gendun... berrogei zako ta eraitten giñuzten...

- Bai, e?

- ... [hazittan]. Ba... beatzi barku geneuzkan Getaian, ta haiantzako patata iñ in behar izaten gendun. Haiek atuneta ertetzeko, igual bi milla kilo.

- Bi milla kilo, e?

- Emanaldi baten, lehendabiziko, hasierakuan. Tratoria kargatu, ta molla. Geo, tipula're asko itten gendun.

- Eta tipula're bai, e...

- Tipula?

- ...barkotako?

- Bai, bai, bai. Asko. Tipula [...] jartzen gendun. Ta geo bestia porrua. Porrua're asko. Ta segi.

- Eta zuzenian molla jun, ta... arrantzaliei...

- Bai, bai. Denda, denda zeatuta eukitzen zuan, dendak eukitzen zittuan hoiek, danak, barko hoiek. Beti hamar barku o eukitzen zituen, ta hoiek. Haiek etorri orduko itsasutik igual egualdi txarra o [...]. "Baatoz ta holako... honenbeste kilo patata, o horrenbeste tipula, o horrenbeste porru" o eskatu [...], osatu in behar.

- Tratoria hartu, ta...

- Tratoria hartu o [...]. Geo, azkenian zeak, andriak karneta atea zuan ta [...], zeakiñ, kotxiakiñ, furgonetakiñ.

- Ordun zuen, zuen patatak eta atuneta eramaten zian?

- Asko!

- Marmitakua iteko!

- Bai, bai, bai. Marmitakua iteko o bestela jateko, nik ez dakit zertako eramaten zittuen.

- Bai, bai.

- Baiña asko, asko patata. Geo dendak laga ziyon, ta dendak laga ziyonian akabo, gu're mutu geatu giñan.

- Eta, ordun, arrantzaliak eta horrela ibiltzen zituen, ba, porruak eta tipulak eta jasotzeko baserritarrekin tratua zuzenian?

- Ez, ez, ez. Guk denda, guk iñ itten gendun tratua.

- Dendakin zuzenian.

- Dendakiñ eitten gendun guk tratua zuzenian.

- Eta gero dendakuak, e...

- Dendakuak barkutakuak. Guk dendatik kobratzen gendun ta dendaiyak esaten ziun. "Zuek ekarri honenbeste kilo o honenbeste gauza", ta "Bale!". Ta eamaten gendun, ta guk molla bai zuzenian barkura eraman. Baiña...

- Baiña...

- ... dendakuak.

- Diru kontuak dendakuakin.

- Dendakuakiñ. Dendakuakiñ arreglatzen giñan.

- Eta esan dezu tratua askotan, garai batian behintzat, Eibarren iten zenutela.

- Bai. Eibarrea're bai, Eibar'e... Larunbatetan ta jutun giñan zea, kamiona hartuta. Bestela trena, Zumaiako estaziyoa trena jun ta han fakturatu ta, zaldiya o astua o zana laga estaziyuan ta bueltan etortzen zanian trastiak hartu ta itxea.

- Eta, zergaitik Eibarrea? Zarautzen baiño gehio saltzen zan Eibarren?

- Bai, bai, bai. Askoz gehio! Hemendik jende asko jutun zan ordun Eibarra.

- Eibarra.

- Bai. Askoz gehio! Eta orduan, goizian goiz...

- Goizian goiz jaiki behar, ta sekula ez nun jarri despertadoreikan!

- Ez, e?

- Ez.

- Oillarrakin jaikitzen ziñan, o?

- Oillarrakiñ ez, ez. Bestela! Jartzen zitzaiten buruan, ba, "holako ordutan jaiki behar naiz". Ta ordu hortako beti tak! Beti tak, zuzen esnatu.

5.5. Artazuriketa-lanak

- **Hizlaria(k):** Erkizia Osa, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-009/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Garia eta artoa asko egiten zen lehenago. Artoa zuritzeko gaineko zorroa kendu eta garbitu egiten zen. Garbitutakoen otarra bete eta lepaka ganbarara igo. Arta-zuritzea normalean gauean egiten zen eta arrosarioa ere errezatzen zuten. Artoari kendutako zorroak ganaduari ematen zitzaizkion.

Transkripzioa

- Ordun, garai hartan, gariya're asko itten zan. Ta artua ta babarruna're bai.
- Gehien zer iten zan hemen?
- E?
- Gehien? Artua, o gariya, o?
- Artua gehio ingo zan, baiña... Ehun anea esaten diyou guk, ez dakit kiluak zenbat... Aneak izaten dittuk berrogeita bost kilo bakoitza.
- Berrogeita bost. Eta ehun, e?
- Bai. Ehundik gora, bai inguru hortan beti ibiltzen giñan.
- Hori gariya.
- Gariya. Ta artua [ez dakit]. Ta geo basarri honek duan nekia, dana lepaka, goiko ganbara. Eskailletan bigarren, biarren pisoa jun behar. Hemen [...], geo hurrungua pisu bat ta hurrungukua, gora. Dana. Lepaka.
- Gariya're bai, e?
- Gariya're bai ta artua're bai. Artua zuittu ta otarra haundiya bete ta hartu bizkarrian ta, tapa-tapa-tapa. Illuntzian etorri ta, leher inda ta, "Dios! Jasoko [...], jaso beharko dixkiu hauek'e!". Segi! [...] sasoi banuan, dedio! Laneako sasoi hua! Baiña alperrik da, ez dao uain sasoi hua.
- Eta esan dezu, artoa zuritu ta... Nola izaten zan? Arto-zuriketa ta izaten zan, ez?
- Geuk!
- Ze izaten zan hori?
- Hori... zeak eoten da hori, torruan barruan eoten da artuan burua...
- Bai.
- ... aliakiñ. Ta haura, gaiñeko zorrua kendu eta dana garbitu ta zestura bota. Ta zestua betetzen zanian, bizkarrian hartu ta gora.
- Eta hori egunero iten zan?
- Artua zeon arte bai! Egunero bai, gehienez, milagrua gabe uztia. Ta familiya juntatu ta... Familiya azkenian, zean geundela, danak juntatzen zanian, errosaiua zeatu.
- Hori gabian izaten zan?
- Gabian bai, gabian.
- Eta...
- Egualdi txarra jotzen bazun, egunez'e bai, baiña... Egunez gutxi.
- Eta artua ordun ganbara.
- Dana ganbara. Geure ganbara zaharrak badu indarra, bai,...

- Bai.
- ... horrenbeste tonelaai eusteko.
- Eta zorrua ta? Zuritutako hori?
- Geo behiai haura eman.
- Behiai.
- Behiai ematen zitzakoen. Hola ibiltzen giñan.

5.6. Txakolina egiteko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Erkizia Osa, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-009/011
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Txakolina egiteko prozesua. Lehenbizi hanka azpian txikitzen da mahatsa eta gero prentsara botatzen da. Eskuarekin bultza eta tira estutzen zen dolarea. Gero baldearekin barrika bete.

Transkripzioa

- Zu, ta gero, batu ta gero txakoliya itia ta, nola, nola iten zan txakoliña?
- Txakoliña? Beno, lehendabizikotikan zeatu itten gendun, hankakin xi-xiya, xi-xiya [xehe-xehea, xehe, xehea] in...
- Nola?
- Hankakin, xi-xiya esaten diyou guk.
- Xi-xiya?
- Xi-xi... txikittu hankakin. Hankazpiyan dana, hankahutsik jarrita. Dana txikittu, ta geo prentsa bota.
- Eta hori nun eiten zan?
- Hori hormigoizko zea baten, gurian behintzat, ta beste tokittan'e bai. Geo pats-oholak esaten zitzaten. Uain sagardua itten dan bezela. Pats-ohola hoiiek ipiñi gaiñian eta geo [tronbongo] haundiya jarri eta gero eskuakin: tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka, estutu.
- Estutu. Tolaria estutu?
- Tolaria estutu. Ta beak ateatzen dizu [prentsa] bat. Estutzen ai zean bezela, beak ateatzen zittun.
- Eta zuzenian barrikara?
- Guk bai ta ez. Guk beste barrika bat jartzen gendun, ta geo baldiakiñ bete barrika. Oaiñ, oaiñ eindako zea dakau guk hemen daon garaje hau're, uaiñ hor eoten dia. Garajiai bodega esaten diyou, baiño, hor eoten dia txakoliñak eta sagarduak eta danak.

5.7. "Txordoketan egitea"

- **Hizlaria(k)**: Erkizia Osa, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-009/013
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:26:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** "Txordoka" hitzaren azalpena. Mahatsa bildu eta gero nahi duena hondarrak batzera joan liteke; hori da "txordoketan ibiltzea". Mahatsa bildu aurretik ere egin daiteke hori, baina mahastiaren jabeak ez du uzten, normala denez.

Transkripzioa

- Eta entzuna daukat, baiña ez dakit zer dan, "txordoka" o "txordokia"... "txordokan itea", o...
- "Txordoka"?
- Zer da hau?
- "Txordoka". Zea izango da, mahatsa bildu, pasatzen dan jende, e, zea, aurea, ta geo atzetikan han geatzen dienak, morduak, haiek, zuetzako izaten dia, juten ta biltzen ditunantzako, "txordoka".
- Pasatzen dan edozeiñentzako.
- Bai, bai, eozein. Zeuk oaiñ nahi bazu mahastiyeta jun ta billatzen dezuna, zeuretzako.
- Neuretzako.
- Bai.
- Eta hori da "txordokan"?
- "Txordoka" hori da. Lehen, lehenetik ez dek laatzen, e! Iñok ikusi ezkeo, errieta ematen due, mahatsa hartzen mahastitikan, bildu baiño lehenuo. Geo biltzen danian, ordun bai.
- Ordun bai. Ordun libre.
- Ordun "txordokatan" libre. Hoixe da "txordoka".

5.8. Ama urtean behin Tolosara dirua sartzera bankura

- **Hizlaria(k):** Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-012/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Zizurkilgo baserria nola erosi zuten. Ama urtean behin Tolosara joaten zen bankura dirua sartzera. Amaren anaia Kubako gerran egon zen. Handik itzultzean ez zen gauza lanerako eta ez zekienez nola atera bizimodua guardia zibil sartu zen. Anaia honek laguntzen zion amari Tolosara, honek gaztelaniaz ez zekien eta.

Transkripzioa

Luisa: Eta Zizurkilgo basarriya, oain daukena, oso basarri ederra da. Hoi zan matrimoniyo bat ezkondu zan ta seitun gizona hil zitzaियon andriari. Ta andre hura ezkondu zan geo, mutilla jun zan, andria jun zan zeara, beste basarriko batekin ezkondu zan, oso basarri onea. Eta geo gure aitai saldu etxia eta jun zan Ameriketa mutilla. Oso mutil earra zan. Ta geo gelditu zan gure aita, ta kontentu, halako baserrira etorri zianian.

Alaba: Baiña zure ama juaten zan urtero.... urtian behin ez al zan juten

Tolosaa, dirua sartzea? Hango bankura.

Galdetzailea: Bankura?

L: Bai, bai.

Alaba: Eta erderaz ez zakin. Eta anaiya gerra denboran gaixotu edo ingo zan, ta guardia zibil sartu. Ta harek erderaz [jakiña], ez, ama?

L: Bai, bai.

Alaba: Harei laguntzen.

L: Harek hiru urtian, zean, Ameriketean gerra eon zan. Han eon, honea etorri ta gauza ez laneako. Gauza ez laneako. Kuban, Kubako gerran. Ta osasuna're txikiya, ta "Ze in bihar det nik? Lanea juateko gauza ez, baserriyan behiñ'e aritu ez", ta zeara... Guardi zibil sartu. Baiña berak esaten ziñan bere ume bat guardia zibil ikusi baiño Zurriolako zean bota nahiyo zula. Ta [ezin zun] behin ere bildurrik zeai, gizonai, baiño bati mozkor... e(d)anda zeon personai bai, harek esaten zun. Ez zitzaion gustatzen harei, Guardia Zibila.

Alaba: Ta harek laguntzen ziyon zure amai, porke zure amak ez zekin erderaz.

L: Ez, ez.

G: Eta Tolosara laguntzen ziyon bankora?

L: Bai, bai.

Alaba: Bai, baiño bankora, dirua... Horrenbeste umekin in zun basarriya erosi. Emakume latza.

5.9. Kale-baserrietan azpigarria oterekin egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ulazia, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-014/015
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:36:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Azpigarria egitera etxetik hiru kilometrora joan behar izaten ziren. Ota lakarreakin egiten zuten azpigarria. Baserritarrek garoa erabiltzen zuten gehiago. Nolako gurdiak erabiltzen zituzten kalean: gurdi-zorra, gurdi-bolantia..

Transkripzioa

- Eta, kale-basarriyen kontura itzulita, e, esan diazu azpigarriyak eta itea ta...

- Urruti, e?! Hori urruti. Hara juteko bazaben geure etxetik bertatik, bat, bi... hiru kilometro bai! Gaiña, han Garateko gaiñ hartatik geo pixkat gaiña beste aldea. Oan mahastiya dao han sartuta. Bai, hamen, e..., Aizpurua horrek mahastiyak euki behar du sartuta. Han, eta beste beak eabili zuen tokidhan eta... Baiña hiru kilometro bai hemendikan, e!

- Eta, azpigarriya ze izaten zan ordun? E...

- Otia, ote-lakarra hori... Ote-lakarra ta belarra nahastutakua. Ta geo iten zan ebaki ta pixkat lehortzen euki, ta geo ekartzen zan ganauen azpirako, hori.

- Ote-lakarra esan dezu?

- Bai...

- Zer da? Otia...

- Otia, otia deitzen gendun, bai. Otia.

- Eta, orbela ta erabiltzen zan?

- Hori, zukaenak. Daikena ibiltzia, orbela... Baita piñuen zea're. Piñuen orri hori're ibili ohi zuen, azpi-azpitan. Hori jeneralian kale-basarritan, e! Zergatikan basarritan orduan, e, garua, ta...

- Bai.

- Garua ebaki iten zan, ta. Garuakin asko ibiltzen zian orduan basarrikuak, garua ibiltzen zuen asko, ta bestiak otia're bai, baiño garua askoek. Garua ona zan oso, berogarri ona zan oso ganauentzat.

- Kale-baserritan ta ez zeon.

- Ez, ganaua... Kale-basarritan esan dizut, ahal zana, esan dizut ba, otia eo ta... Otia artian txikiya baldin bazeon, ba, piñutik hostro hori're igual, ta. Eskuariakin biltzen zan, eta ekarri, ta. Hori're erabiltzen zan kalia.

- Eta gero gurdiyakin ekarri o, lega...

- Bai, gurdiyakin, gurdiyakin. Kalia ez zan legik, e!

- Ez?

- Basarritan bai legak, baiño... hemen ez. Hemen lehenbizi iten zian gurdi-zorra deitzen zitzaion egurrezko kurpillak ta egurrezko ardatza, ta hoiei gurdi-zorra deitu ohi zitzaion, gurdi-zorra. Geo hasi zian hemen kalia, e, arrai-karritoako ta, gurdi-bolantiak. Gurdi-bolantiak zian, ta geo been llantakin, eta... Ardatza burnizkua, ardatza burnizkua, kurpillak haundiyo, been llantakin. Radi... bizikletakuak radiyo mehe hoiek dituen bezela, bere zeakin... este... nola esango dizuet nik ba zueri... soportiakin. Eta hoidxek, hoidxek sortu zianian kargak'e haundiaguak iyotzen giñuzen arraidxakin zeara, fabriketa. Hemen plazatik gora zian, fabrikak bazian hemen, geo behian'e bai, ta.

- Eta itxiak zian?

- E?

- Itxiak gurdiyak?

- Zeak, este, gurdiyak itxiyak? Ez, ez.

5.10. Gari-jotzea herriko frontoian egiten zuten kale-baserri guztiek batera

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ulazia, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-014/019
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:45:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gari-jotzea frontoian egiten zuten kale-baserrietako gehienek elkarri lagunduz eta garbitu ere egun berean egiten zen makinaren laguntzaz. Etxe bakoitzekoek beren senide eta laguntzaileekin bazkari-legea egiten zuten gero; normalean, olagarrozopa eta atuna tomatearekin.

Transkripzioa

- Ta gari-jotzia zanian, berriz, gari-jotzia zanian hemen frontoian jotzen zan gariya.

- A, bai?

- Hemen, e...

- Kale-baserriyetako gariya...

- Bai, bai, bai. Danak alkarrei lagunduta nola iten zan... Bai, nik zuri lagundu, ta bestiak nei, ta bestiak eta danak... Danak behintzat ondo zeatzen zian. Hemen Egurbide ta hoidxek ez. Egurbide ta hoidxek been itxe-ataidxan jotzen zuen. Eta geo bestia, Ostolaza ta hoidxek'e bai, goitik jotzen zuen. Ta zean, hemen plazaz behekuak, hemen, e, Aranguren, Olaskoaga, Ibarbia, ta hemen Galdos, eta hemen Goikoetxea ta hauek, hemen, frontoian jotzen zuen. Frontoian jotzen zuen. Hori nik mutil-koxkorretan ezautzen det. Ta baita geo, hor garidxa jotzian lasto-karreeta ta hortxe ibiltzen giñan, mutil-koskorrak.

- Eta, danak batea?

- Bai, bai. Horkuak danak batea.

- Egun bat hartu ta egun horretan...

- Bai, bai. Listo gu, ekartze... euna baiño, euneako ekarrita eoten zian hemen gurdixak, gurdi pillua, danak lastoz kargauta. Frontoian kabitzen ez zianak kamidxuan... transporteik, kamioik, automobillak eta enbarazuik batez, ta, hola eon ohi zian. Ta holaxe zeatzen zan ordun. Eun bat horretako.

- Horretako.

- Ta geo izaten zan, ba, gariya jo, ta geo gariya garbitzeko zea're bai, deitzen zitzadxona're bai.

- Makiñak?

- Bai. Eskuakin eraginda, e! Eskuakin... Makinak... eskuakin eraginda! Garidxa batea ta azala bestea botatzen zun...

- Eta...

- Nola deitzen zitzaion harei? Gari-garbitzeko makina, bai. Makina deitzen zitzaidxon orduan.

- Eta hori're egun horretan iten zan?

- Bai, bai.

- Jo eta garbitu.

- Bai, bai, bai, bai. Ta geo esaten dizut, ba, bakoitzak beria jaso, ta...

- Eta jaien bat iten zan?

- E?

- Jaia, o?

- Astian, astian iten zan hori, e?

- Astian.

- Astian iten zan hori.

- Baiña ez zan izaten gero, e, afariya o?

- Hori geo eun berian, eun berian afaidxa, segun... danak, danak gaur hemen ta bihar hor, ez zan iten hori. Zurekin launtzea jun [...] zergatik beak bakarrik'e ez zian moldatzen, entenditzen? Geo laguntzailliak'e behar izaten zituen gehidxo. Igual itxe batetikan bestiai, gizona itsasuan zalako, igual bat eo, bi o... baiño biek ezin laike [...]. Ta geo bestetikan, ta hola, juntatu. Ta geo horretaz gain, familiko bat o beste juntatu ohi zian, eta nik nere familikuak nik hartuko ditut, bestiak bere familikuak [...] han hartuko ditu. Ta bakoitzian zortzi hamar bat eo zianak eo zeatu, ta hola moldatzen zan, e! Hola, hola iten zan jatordua.

- Jatordua izaten zan, e...

- Bai...

- ... bazkaia?

- Bazkai-legia, bazkai-legia... o olaarru-zopa... Jenealen olaarru-zopa.

- Olaarru-zopa, e?

- Olarru-zopa, atuna tomatiakin... hori behintzat tipikua izaten zan.

- Udaan izaten zan?

- Bai, ba. Udaan, udaan. San Pedruak pasa ta, hori, e... ekaiñen bukaeretan

eo hola. Zergatik garidxa ebakita're puxka baten euki iten zan metak inda, ta, bai. Horrela.

- Bai. Eta, olaarru-zopa?

- Olaarru-zopa tipikua zan. Gari-jotzetan olaarru-zopa tipiku, ta atuna tomatiakin bestia. Zergatik marmitakuik eta ez zan zeatzen, artian ez zan erabilitzen, ez.

- Eta eateko? Txakoliña o, saardua?

- Ardua, jeneal. Umiak ez, umiai ura ematen zioen. O bestela ur-ardua. Baiño...

- Ur-ardua.

- Bai. Baiño beak ardua erango zuen noski, nik uste det, bai...

5.11. Lehen etxerako lain egiten zen txakolina

- **Hizlaria(k)**: Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-018/004
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:05:54. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Mahasti gutxi zegoen lehen. Baserri askok zuten mahastia, baina pusketa txikiak, etxerako lain. Gaur egun erosoago lan egiteko prestatuta dago dena. Lehen egurrezko kupelak izaten ziren eta haiek ondo garbitu eta lehortu behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta garai hartan, e, mahastiyak eta bazian?

- Mahasti gutxi. Gurian beti ezautu det, e! Hamen [atekun] ta hor puxketa, beti. Nik hoi beti ezautu det. Hor beste puxketa, ta hemen Agerrekuak beste puxketa hor pixkat hauntxio. Etxetxo pixkat aurrexio. Puxketak, [bujoi] bat eo bi, o... ta gehiena itten zuenak lau o bost eo. Tankera hori.

- Baiña holako...

- Oooooo! Hau uain jarri da, e! Oaiñ hamar urtetik aurrea jarri dia habek, hamar hamabi o urtetik honea jarri dia mahasti habek. Ta dana mahastiya ta. [...], gu hemezortzi... ez dia hogei urte o zer dia jarri gendula. Ta beti igual zan. Hor behian jarri gendun aurrea, ta geo pixkat xabalo. Geo hau, geo han goien, aurrea.

- Eta mahastiyak ordun? Txikiyak, baiña baserri...

- Mahastiya haxe, hamen ataian.

- Baiña basarri gehienetan, ez?, izango zan txakoliña ta...

- Bai, gehienetan. Gehienetan puxketa bat, puxketa bat itxeako. Milla litro o, o bostehun litro o... txakoliña, puxketa. Gehienetan bai, danian hemen eongo zan.

- Eta oaingo tankerako mahatsa ta mahastiyak, o...?

- Mahatsa iguala.

- Iguala. Klasia iguala.

- Iguala. Iguala mahatsa. Baiño mahastiya, bueno, Jesus, Maria ta Jose! Ta mahastiyan uain lana dana prepaatuta, ondo jarri dittue terrenuak. Tratoria azpin ibiltzeko, sulfatua emateko, bitzeko, geo atxurtzeko. Ta ondo jarrita. Geo, lan gutxi in. Eoso, lana erraz in. Ta geo itxian leheno berriz

barririk' e... egurrezkuak zian, gaur berriz inoxidabliak. Ta, puf... Haiei're hustutzen zinian, garbitu in behar ondo, ondo sekatu. Ta geo hillian behiñian [behittu] ta metxak erre ta behera ta, lizundu iten bestela, ta. [Hontutzen] gero, erariya ona ateatzeko ta. Ateatzen ez zunak, erariya gusto txarreku ta. Danetik. Ta habek, berriz, inoxidablek, puf!, betetzen dituzu, ta gaiñea nahi..., tapak dauzke batzuk. [...] bai ba, baldin baukazu hamar milla litro, o hogei milla litro, ehun milla litro ta gehio itten dituenak eongo dia, ta berrehun'e bai, e!, harrapatzen dittuenak. [...] mahastiyak, txomin-ta-tarren mahasti ikaagarrik dauzke hoiek ta. Barririk badabe, ba, milla litrokuak ta erdiraiño betetzen da, erdiraiño. Ta, tapa ra! behera bajatu, haizia eman ta itxita geatzen da. [...]. Gustatzen dunak ri-ra! pixkat mangera pasa, ta libre!

5.12. Lehen lan asko txakolinak; azpi guztia aitzurtzen zen

- **Hizlaria(k)**: Sorazu Aginaga, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-018/006
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:09:42. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Lehen mahastiak baxuagoak izaten ziren orain baino. Azpia garbitu egiten zitzairen eta sail guztiak aitzurtu egiten ziren. Gaur egun botika botatzen zaio garbi mantentzeko. Lan handia zuen lehen txakolinak. Sulfatoa ere bizkarrean potea hartuta eman behar izaten zen.

Transkripzioa

- Kontatuko diazu lehen-lehen, e, mahastiyak eta nola zaintzen zian urtian ziharreko lana zein zan?
- Lehen mahastiya, gaiñea baju, bajuak, azpin launa justu samar. Oain hori goian altu, ba al dakizu ze altura daken oain? Lehen baju...
- Eta garbitu iten zian, e, urtian zihar, e...
- Baai!
- ...udabariyan eta?
- Moztu, lotu, ta geo belarra atxurrakiñ eo segakiñ eo ebaki, ta geo neguan dana atxurtu. Atxurra, bi hankeko atxurrakin, dana [...], dana atxurtu, e! Oaiñ hori're ez dao. Oaiñ rotadorak dauzke, ta ra-ra-ra, atxurtu. Gaiñea zotza're botatzen badue, makinak, este, jata bertan txikitu ta dana deseintzen due bertan. Ta geo rotadorakin danak atxurtu, ta beste batzuk dazke oain rotadora berriyak dia habek. Hola sartzen diyoe, ta blak!, lurra jotzen due, tzau! Ta hau hobia, hori, neetzeko hori. Zaiña gutxiyo ebaki, ta... Baiño lehen... ta, atxurrian! Zeatik, hoitik galdu zian beak, mahastiyak, atxurreako're iñor ez. Ta belarra, mahastiyan gora belarra. Ta oan belarra, botika hau, oan daon botika hau ez baleo, geue itxian aurrena dala, mahastitik gora belarra, e!
- Bai.
- [...], ta hau bezela, garbi-garbi-garbi. Ta, lehen ez zan hori.
- Eta ordun, garbitu ta jorratu ta, neguan izaten da?
- Lehen bai...

- Izaten zan?
 - Lehenoa bai.
 - Eta udaberriyan ezer ez?
 - Udaberriyak, ba, atxurtu ta lurra. Ta geo udaberriyan ibilli xoxe, baiño pixkat atxurra in ta berdindu, lurra erre, dana hondarra bezela jarri ta.
 - Eta udaran?
 - Geo, mahastiyak galdu zian, e! Geo galdu zian mahastiyak, bai, ba, iñor ez. Atxurtu in behar, lotu in behar, geo sulfatua eman behar, gaiña sulfatua're hola, bizkarrian, hola eman behar. Jode! Ba la dakizu ze... Oaiñ ya segi zazu hoiei, potua hartu bizkarrian ta, saillai ematen... Bueno! Ta oaiñ'e hor, hasi gaur eta hamabost eunian eunero jardun hamabost eunian, ta hamabost eun o eman ordu, berriz atzian lixto, emateko berriz'e. Berriz'e sulfatua, saillak, saillak duzkenak, Jesus! Ta uandik aldautu dao hori're. Oaiñ ya ez dakit.

6. Politika

6.1. Sabinaren senarra 'Bou Navarra'ko naufragoa zen

- **Hizlaria(k)**: Azkue Fernandez, Sabina; Lazkano Ulazia, Eugeni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-010/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:01:35. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Sabinaren senarra arrantzalea zen: Periko De la Hoz Kintana, Bou Navarrako naufragoa. Gerra garaian, itsasontziak bataila izan zuen, eta 50 lagunetik 17 atera ziren bizirik, euren artean bere senarra. 20 hilabete kartzelan egin ostean, Calderon komandanteak libratu zituen heriotza-zigorretik.

Transkripzioa

- Eta familia, biyok zeneukaen getaiarra familia?
 - S: Bai, nik gizona nun, zea, arrantzalia, baiño Zarautzan jaidxua zan. Eta "Bou Nabarra"ko naufragua zan. "Bou Nabarra" aitu al dezu behiñ'e?
 - Ez.
 - S: Ez? Gerra denboran "Bou Nabarra" ez? Libruak'e badabe ateata...
 - Bai, e?
 - S: ... gure gizonan izenian, Perico Quintana. [...] zan, baiño Quintana. Ta librua daka ateata "Bou Nabarra"koa. Canariasen enfrentatu zian, Canarias, bafore haundixak...
 - A, bai.
 - S: ... enfrentatu zian. Ta hamazazpi geatu zian "supervivientes" berrogeta hamarretik. "Ya está bien, eh?" Eta Calderon, "comandante Calderón"ek salbatu zitun "de pena de muerte", "a la calle" atea zituen. Franco denboran hogeituhilabete kartzelan inda nere gizonak. "El Bou Nabarra", bai.
 - Ba, hori, hori interesantia da.
 - S: Hori jakin [...], librua ekarriko nizun. Baiña ez nakan hemen, alaban itxian nakan.
 - Baiña gero, gero galdetuko dizuet.

6.2. Elgoibarkoa institutu "pilotua"; hizkuntza-ereduak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Gorostiaga, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref:** GET-035/021
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:48:21. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Euskara eta politika
 - Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- **Laburpena:** 1979an, Eusko Kontseilu Nagusiaren baitan hainbat eskola eta institutu euskalduntzeko urratsak eman ziren. Mari Karmen Altzueta eta Xabier Mauleon ibili ziren zeregin horretan. Elgoibar, Hondarribia eta Hernaniko zentroak, institutu "pilotu" izendatu ziren eta ordutik irakasle berri guztiek gaztelaniaz gain euskara ere jakin behar zuten. Institutuan hasieran hiru ereduak zeuden: A, B eta D.

Transkripzioa

Hor Elgoibarko institutuak, gaiñera, suertia izan zuen. Garaitu horretan, 79an, sortu zan hemen artian ez Eusko Jaurlaritzaz baizik eta Consejo General eztaikit-zer -holako izen bat zuan- eta horrekin batera hasi zan "euskal" ikuspuntutik eskolak eta institutuak montatzen. Eta hemen bi pertsona ibili ziran nahiko fuerte, apustua egin zuten Donostia aldi honetako, eta izan ziran Mari Karmen Altzueta eta Xabier Mauleon. Eta habek ez dakit berez ze entidade administratibo -ze izen- jarri zioten, baiña Gipuzkoan Elgoibarko, Hondarribiko eta Hernaniko institutuak nolabait ere "instituto piloto" modura izendatu zituzten. Eta horren bidez aukera zegoen ez bakarrikan euskera emateko, baizik eta irakasle berriak -ze zeudenak hantxen zeuden, plaza euren zutelako-irakasle berri hoiek ekartzekoan, danak euskaldunak izatea. Nolabait ere eskola edo institutu pilotuak zirenez, ba, irakasle guztiak bi hizkuntza jakin behar zuten, irakasle berri guztiek bi hizkuntza jakin behar zuen. Eta hor ya hasi zan gupilla... Eta harrazkero ya Elgoibarko institutuan ez det uste irakasle erdaldunik sartuko zanik. Beharbada asignatura batean edo bestean, baiña ez, hori jarri zan baldintza modura. Eta urte gutxitan Elgoibarko institutuak ikastola baten martxa eta modua hartu zuan. Klaro, ikastolan danak zian D ereduak, institutuan hasieran hiru ereduak zeuden: A, B eta D. D ereduak gehienbat ziran ikatolako ikasleak, Mendaroko eskolako ikasleak -berez euskaldunak zirelako-; gero zegoen B, gehienak ziran familia euskaldunetakoak, baiña edo ikasiyak Pilarren edo Muguruzan eta abar; eta besteak ziran erabat erdaldunak, ba, aukerarik izan ez zutelako ta hoiek A. Eta gure lana izaten zan -hola globalki esanda- D ereduak aber ateratzen zuten EGA institutualdia bukatu ondoren eta besteak minimoki ea euskeraz hitz egiteko aiña ekartzen genituen aurrera.

7. Lanbideak

7.1. Janari-denda izan du Eugeni

- **Hizlaria(k):** Azkue Fernandez, Sabina; Lazkano Ulazia, Eugeni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-010/021

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:40:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Eugeni baserritik kalera joan zen bizi izatera eta anaiarekin janari-denda jarri zuen. Denetarik saltzen zuten. Goizeko lauretan jaiki eta Donostiara joaten zen fruta bila. Gero handik etorri, gosaldu eta dendan pasatu egun guztia.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu baserritik herrira etorri zifñala bizi izatea?
- E: Bai.
- Eta zergatik edo?
- E: Hogeita hamaika urtekiñ etorri nitzan ni honea zeakiñ, anaiakiñ. Ta in gendun denda jarri geo hemen.
- S: Hamentxe denda.
- E: Ta orain arte, iya oaiñ arte.
- S: Bai, denda euki due.
- E: Hogeita hamaika urtian hementxe dendakin.
- Ze denda zan?
- S: Komestibliak.
- E: Komestibliak. Bai. Ta geo komestibliak eukiyagatikan mantak eta maindiriak eta zea...
- S: Honek danetikan saltzen zun.
- E: Danetik saltzen genittun.
- S: Honek danetikan saltzen zitun.
- E: Bai, ordun. Bai.
- S: Tratante goorra zan ta!
- E: Bai!
- S: Tratante goorra.
- E: Goizeko lauretan jaiki ta fruta billa Donostira, astian hiru bat biaje, lauretan, goizeko lautako jaikita. Axier ta biyok... Joxe Inaxio ta biyok...
- Trenian o...
- E: Atzea zazpiretako etorri...
- ... autobusian, o?
- S: Semiakin kamionian. O furgonetan eo.
- E: Bai. Geo goizeko zazpiretako atzea hemen etorri ta bazkaiak eta gosaia eta, lan danak iñ ta, denda ta... Gizona lanian, artian semia... bai, uain bai, baiño... Gizona're taillarrea juten zan lanea, ta hementxe.

7.2. Zizurkildik Getariara lanera

- **Hizlaria(k):** Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-012/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Sei ahizpa ziren eta inori ez zitzairen baserria gustatzen. Luisak josten ikasi zuen eta amak Tolosako denda batera eraman nahi zuen lanera, baina berak ez zuen nahi. Neska bat behar zutela-eta Getariara etorri zen. Etorri eta lehenengo egunean mezara joan zen; getariarrei hartu zien itxura.

Transkripzioa

Galdetzailea: Eta esan didazu baserriko kontuak zuri ez zitzaizkizula gustatzen.

Luisa: Inori ez. Sei arreba giñan gu, ta iñor ez giñan basarriyan.

G: Danak sakabanatu.

L: Danok sakabanatu. Ta nik in nun, ba, pixkat gelditu ta josten hasi... Josten ikasi nun, ta amak esan zidan Tolosa eramango niñula denda batea. Dendan, familiarrak zian ta hara, ta nik esan niyon: "Nik ez det nahi Tolosa jun", esan niyon. Ta, geo behintzat, hemen neska falta, koiñatak, ahizpak abisatu zian, bere koiñatak, barreko zea hortan egon nitzan. Horrek nexka bat falta zula, ta hala, honea etorri nintzan. Ta jai batian, basarrira jun nitzan, basarritikan honera etorri nintzan illuntzian, ta geo goizetako mezetako honea. Ta orduan hemen historiya zan, oain jaiotakuak ez dakiye, zea, ama birjiña ekartzen ziñenan eleizetikan zeara, hor nola dao, komonak eta nola dabe, horrea, gordeta, ta geo ez zakiñat ze santokin behintzat etortzen [hitunan Golpeneko] ta... asto-jendia [...] ordun! Enee!

G: Eta zenbat urtekin etorri ziñan?

L: Ba, hamazazpi urte, kunplittuta, hemezortzi.

7.3. Ezkondu arte jatetxean zerbitzatzen

- **Hizlaria(k):** Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-012/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 29 urtera arte, ezkondu arte, zerbitzatzen ibili zen Getarian. Udaran hoteletan lanean ibiltzen zen Zarautzen eta Donostian. Zarautzen Nautikoan ibili zen lanean eta oso ondo egon omen zen. Egiten zituzten lanak.

Transkripzioa

- Eta zenbat urtekin etorri ziñan?

- Ba, hamazazpi urte...

- Gazte.

- ... kunplittuta. Hemezortzi...

- Eta...

- Urte asko nik hemen, e! Hor...

- Getarianoa?

- Getarianon, bai... Getarianon ez. Azkenengo urtiak hoteletan pasa dittut.

- X: Ze, Zarautzan?

- A, Zarautzan.

- Zarautzen ta Donostiyan.

- X: A! Donostiyan'e bai? A! Ez nakin nik hori.

- Bai, Donostikua...

- X: Udaan, e! Udaan!

- X: Udaran, e!

- X: Udaran, neskame.

- X: Bai. Baiña hemen urtiak... Ezkondu arte, e!

- Bai, bai, bai.

- X: Ordun, ezkondu ziñan hogeita betzi urtekin.

- Bai.

- X: Hogeita beatzi... urtekin. Orduarte, zerbitzen.

- Hamar, hamabi urtian, zerbitzen.

- Bai.

- Hamen, Getaian.

- X: Bai.

- Getaian ez.

- X: Getaidxan...

- Getaian bai, baiña geo behin zeatu nitzan ezkeo, hotelea jun niñun. Hasieran niñunan, ordia, hiru udaratan hotelea jun niñunan, e!

- X: Udaretan bakarrikan.

- Udaran.

- X: Baiño neguan...

- Neguan horrea, [...].

- X: Geo neguan atzea honea. Baiño udaran beti Zarautza o hola, La Perla o zeara.

- Bai.

- Ordun Zarautzen zeintzuk zian ordun, e, hotel...

- Zarautzan eon nitzan, ni hotel berriyan eon nitzan, oso jende ona zien.

- X: La Perla ez al zan?

- La Perla ez zan.

- X: Hotel Marina?

- Ez! Nauticuan. Berriya hunan hori lehen, partikularra hunan. Baiña oso... han exkiñan daon, nola, zea dijuan...

- X: Bai, bai.

- Huaxe, hantxe. Han ordun labadorak eta... ordun, uan bezela, ez hunan zeaik eta.

- X: Maletaik ez zeon lehen.

- Gu oso ondo, oso ondo, oso eleante eon giñan. Ta oso jende onak hittunan, Bilbaokuak. Bilbaon hotela zeuken.

- Eta zein izaten zan, zuen lana zein izaten zan hoteletan?

- Hotelen ze lan izaten zan? Goizian ohiak, [...] kuartuak, bestiak ohiak...

- X: Geo, zerbitu...

7.4. Etxe partikularretan neskame

- **Hizlaria(k)**: Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-012/005
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Gerra denboran, Donostiako etxe partikular batera joan zen lanera. Familia ona zen. Gero, beste familia baten ere ibili zen.

Transkripzioa

- Neskame, geo, hemendikan gerra denboran jun nitzan, zeara, Donostira, fameli partikular batea jun nitzan. Eta oso jende ona zian. Eta gizonak bankuan eitten zun lana, ta gauian, billetiak zeatzen, holako, koadro hontako kajak, ta dana dirua. Ta [hari] afariya ematea juten nitzan. Ta geo behintzat, berriz´e... sartu zian [Pasaian], ta etorri zian danak ta, Donostira jun nitzan, beste etxe partikular batea. Baiña han´e oso jende ona zien haik´e, oso onak. Ta hantxe. Ta gero handikan ezkondu.

7.5. Arrain-saltzaileak kalez kale

- **Hizlaria(k):** Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-020/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Claudiak ezagutu zituen kalerik kale ibiltzen ziren arrain-saltzaileak. Bai Getarian bertan saltzen zutenak eta bai Zarautzera joaten zirenak. Getarian, askotan, trukean banatzen zen arraina, familia gehienak arrantzaleak zirelako.

Transkripzioa

-Eta arrain-saltzaileak kalerik kale ibiltzen ziren?

-Arrai-saltzaileak, bai, bai, bai, Zarautza juaten zianak, buruan hartu karga e; "mujeres potentes", ba hogeiki kilo ta, lo que sea, ta. Hoiek, ni baiño zarrauak o sea que eiten zuen hori. Ta geo igual bazeon furgoneta bat'e ibiltzen zana horrela ta.

-Eta kalean?

-Bai, "lo que pasa es que" hamen asko izaten zan. O sea, nik, nere gurasoak eta anayak ez dia izan arrantzaliak, baiño osabak eta lehengusuak euki ditut baporiakin, eta, herriya txikiya zan da, saltzaile batentzako eongo zan igual, baiño berez, nik zuri, bestiak horrei, horrela asko izaten zan, arrai asko izaten zan eta. Bai, truke edo alkarrei ematen edo horrela izaten zan asko, bai.

-la familia guztietan?

-Bai ba. Eta gero antxua ere, adibidez, Brígidon aita, eta guri igual antxua latan egiten zanian eta horrela, ekartze ziguten ba ez dakit zenbat arrua edo ez dakit zenbat kilo, eta gero burua kendu ta eiten giñun zea, geuk eiten giñun ba antxua latetan. Bueno, osea, barriketan bezela ipiñi ta.

8. Aisia

8.1. Getariano jatetxearen funtzionamendua

- **Hizlaria(k):** Ugartemendia Labaka, Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-012/012

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Getariara etorri eta gero gutxi joaten zen Zizurkilera beti lana izaten zuen eta. Getariano nolakoa zen. Apaiz batzuk apopilo egoten ziren eta haiei gora eramaten zieten janaria. Bestela ere bazkari asko ematen zituzten. Antxoa-garaian italiarrak ere etortzen ziren apopilo. Beste hotel bat zegoen beste aldean (Zabalarena). Udaranturistak ere etortzen ziren.

Transkripzioa

- Eta zu honea etorri eta jarraitzen zenun Zizurkillea ta juten?
- Egun [...] hotelian. Hemen lana beti, ta jaia ta nola ta? Zea...
- X: Ordun lana egunero [...].
- Bai.
- Ta jairik eta ez zan izango, ez?
- Jaiik ez, ez. Gaiñea jende asko izaten zan...
- X: [...]
- Geldik eoten errexa al den! Zea, bazkaldu, gu bazkaltzeko ta kafia hartzen hasten hittuan, hemen, tabernan. Ta ze?
- Eta Getarianon, nolakua zan Getariano ordun?
- Oaiñ, igual-iguala. Holaxe.
- Zan hotela, o kafeteria, o?
- Ez. Euki itten gendun, bost [...] bost eoten zian apopilo, hok hor eoten zian. Eta geo, jana ematen gendun, jana asko ematen gendun. Ta [hairei] gora gaiñea, komedoria, bigarren pisoa.
- A bai? Aparte?
- Aparte.
- Apaizei?
- Apaizak eta, italianuak eta oain, garai hontan. Orduan antxua asko izaten zan eta...
- X: Honea italianuak etortzen hituan...
- Bai.
- Italianuak etortzen zian.
- X: Oain'e etortzen dittuk, e!, baiño gutxiyo.
- Honea etortzen zian sonbreruak jantzita. "Hau eleantia izango diñau, nexka!", guk alkarrei, ta.
- Eta bertan izaten zian apopillo?
- Bai, apopilo, bai.
- Beste hotelik bazan?
- Bai, beste aldian biyak, lehengusuk zian, Bar Getarianokuak eta Zabalako hoik. Hor'e jende asko eoten zan, ta jende asko ibiltzen zan jaten, ta.
- Ta gehienak ze izango zian, e, arrantzakin eta... Italianuak, eta...
- Bai, ta udaran'e jendia ta etortzen zan.
- Bai? Izaten zan, udako turistak eta izaten zian?
- Udaako jendia, bai, bai.

8.2. "Elkano" zinearen sorrera eta funtzionamendua

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ugartemendia, Gregorio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-013/002
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:03:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Getariako zinearen inguruko azalpenak. 1950 inguruan Albisuk zinea egin zuen. Garai batean Piorekin sozio egon zen eta honek uztean eurak sartu ziren sozio. Pare bat urteren ondoren beraiek hartu zuten ardura. "Elkano" zuen izena zineak. Zarautzik bidaltzen zituzten pelikula rolloak. Hasieran herriko batzuk ibili ziren pelikulak botatzen, gero Luis eta gero euren arreba. Jendea gutxitu zenean itxi egin behar izan zuten eta etxea egin zuten bertan.

Transkripzioa

- Eta cincuantan o, bertan zinia in. Zer zan, zine haundiya zan?
- Bai! Etxe honen luzero bea, iya kamiyoa arte, ta atzian'e beste lau bat metro o, luzea.
- Jarri bertan, jarri bertan.
- Hamen ixieitzeko, amona!
- Eta ordun, Pio horrek ein zun? O...
- Albisuk, Albisuk in zian zinia ta epoka batian, ba, euki zian soziyo bezela Pio. Ta geo, handikan urte batzueta, ba, Pion partez gu sartu giñun, ta beste urte batzuek alkarrekin in da geo...
- (Amona): Urte pare bat iñ al giñun?
- Bai, ya gu sartu giñan, guk hartu giñun zinia.
- Eta izena zun Elcano.
- Elcano. Izena ziniana Elcano. Ta garai hartan, ba, ibiltzen giñun, ba, zinia ekartzen huan, Zarautzik bialtzen zixkiyen trenian. Han [lakostan] sartu...
- Rollu haundiyak.
- Rollo haundiyak, holako paketiak eta geo remolke txiki batekiñ hamen goraiño ekarri behar izaten giñin.
- Ta zuk sei urte o zortzi urte izango zenitun?
- Bai. Gu orduan gaztiak.
- Eta pelikulak igotzen.
- Bai. Ta hasiera batian'e, pelikula botatzen herriko batzuek ibilli hituan, ta geo Luix'e bai. Geo hura Alemanira jun zanian, ba, gure arrebak titulua atea, ta bea ibiltzen huan, gure arreba Mertxe.
- Ordun, negoziyo guztiya zuek, ez?
- Bai, familiarra. Azkenian ya geatu huan zine familiar bat bezela. Ta geo, urtekiñ'e, ba, ohiturak aldatu itten dittuk, eta jendia ya gutxio etortzen da bezela, jende gaztia ta Zarautza ta juten hasi zanian, ba, denboakin, in behar izan geniyen itxi...
- (Amona): Geo gu, beak, hasi neskak eta, ez al dakizu? Beak'e nahio zea, ta beno.
- Ya, momentu bat allatu huan, ba, itxi in behar izan zana, ta, toki bertan in giñin itxiak.
- Gero in zian etxiak.
- Bai. Itxiak geo. Zinia zeon lokal bertan, dana goitik behera bota ta itxiak in hituan.
- (Amona): Dan-dana botata.
- Ordun zuek bertan, zinia bertan zeonian, zuen etxia beste bat zan. Ez zan...
- Bai, beste toki batian bizi giñan, hor, beherogo. Erregieta bertan, baiña

8.3. Pelikularen deskantsuan jendea kantinean

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Ugartemendia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-013/004
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:07:32. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Poltsa bakoitzean 10-12 rollo etortzen ziren eta haiek rollo handiago batean elkartu egin behar izaten ziren, elkarririk lotu. Azetonarekin pegatzen zituzten zintak. Pelikularen erdian deskantsu handi bat egiten zen beti, baina pelikula luzea zenean beste deskantsu bat ere egin behar izaten zen, rollo guztia batera ez zen kabitzen makinan eta. Jendeak kanpora irten eta edariren bat hartzeko aprobeztatzen zuten. Kantinean zegoen zinean bertan.

Transkripzioa

- Ziniak orduan etortzen hituan rolluak, bakik, zintak, zintak zeluloidekuak nola izaten zian? Etortzen hituan, ba, igual, e, poltsa batian hamar, hamar, hamar rollo eo, dozena bat o, "los que sean". Ta geo haiek in behar izaten hituan alkar enpalmatu.

- A bai, e?

- Karo! Hik, hik rollua ipintzen huan, ta geo zinia botatzen hasteako in behar izaten huan rollo haundi batian ipiñi. In behar izaten hituan enpalmatu. Ta enpalmatzen hituan zea, e, foto zea hoietako bakoitzai pixkat arraskatu, azetona eman, ta azetonakin iten huan peatu. Ta geo, ba, iten huan zinia botatzeko mouan hiru bat, osea, bi deskantsu inda, hiru bat alditan. Entenditzen al dek? Izaten huan deskantsu haundi bat, ta geo, pelikula luzia baldin bazan, ba, nola ez zun rolluak ematen makinak rollo danak kabitzeko, ba, in behar izaten huan aurretikan'e beste deskantsu txiki bat. Ta jendiak orduan aprobeztatzen zian zinian, ba, kanpoa erren ta, kontxo!, coca-cola o, fanta o, limonada o, zerbeza o, zeoze, holako erariya hartzeko.

- Eta taberna zeon bertan?

- (Amona): Bai.

- Ez. Zinian bertan kantina bat huan, kantina bat, eta bertan zerbitzen zixkien. Esito haundiya eukitzen zituen baita're abellanak, abellanak esito haundiya eukitzen ziyen.

- Orduan txikliak eta holako konturik ez zan izango.

- Bai, txiklia bahuan ordurako, e!

- Bai, e?

- Bai, bai, bai, bai. Orduan, ordurako txikliak eta bahituan.

- Karameluak, eta...

- Karameluak, abellanak, txikliak eta gero, ba, hoixe. Ta kopa're bai.

Kopa're zerbitzen zan. Kopa're bai. Koñaka zerbitzen, koñaka're zerbitzen huan.

8.4. Pelikulak botatzeko makina; zinean erretzea debekatuta

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ugartemendia, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-013/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Pelikulak botatzeko makinak bi elektrodo eta ikatzarekin funtzionatzen zuen. Ikatzak elkarrengandik urruntzen zirenean argitasuna ilundu egiten zen eta jendeak txistu jotzen zuen protestatzeko. Debekatuta zegoen zinean erretzea eta jendearekin borroka egin behar izaten zuten zigarro edo puruak itzal zitzaten.

Transkripzioa

- Ta makina're huan, ba, huan bi ikatzekin funtzionatzen zian, osea, bi elektrodo. Gaurko egunian ez zituan holako kamarik eta. Hituan bi elektrodo suakiñ. Nahiko ondo funtzionatzen zian. Atzetik pantalla bat eukitzen zian. Ta geo iten huan bere aurretikan zea pasa, zinta hoiiek, zinta hoiiek eta proiektatzen huan. Gaurko egunian'e pentsatzen diat tipo hortan izango diala zeak, ziniak, ez zekiat. Ta makina, ba, inportantia huan. Makina, noixian behin ikatzak eta pixkat distantziatzen baldin bazian iten huan argitasuna illundu ta, kontxo!, ikusi're gitxi iten huan. Ta jendiak, ba, orduan protestak iten zixkian...

- Txistuka ta...

- Txistuak ta pataleuak, pataleuak eman, ta... Zea hori bahuan.

- Dana eskuz izango zan, ez? Dana: makiña...

- Bai, bai, bai...

- [...], ta...

- Ez, e... Ikatzak eta automatikamente moitzen hituan, e! Ordurako nahiko makina politak hituan. Bueno, nik goguan dakatena behintzat! Baiño, beste gauza goguan asko dakauna garai hartako, garai hartako zinian prohibituta huan erretzia. Zenbat lutzatu deun guk, e!, jendiak ez zigarrua erretzeko ta ez puruik erretzeko. Zeatikan orduan zinia ikustea etortzen zianak etortzen hituan zapato illuntzian earki afaldu, txuleta jan, kopa hartu, purua pixtu, ta purua errez, ba, zinia ikustea. Purua botatzia ze kostatzen zan, jainko santisimok bakarrik zakik!

- Danak ezkututzen, ez?

- Baiño ordurako zinetan erretzia prohibituta zitxion, e!

- Peligrosua zalako?

- Ez zekiat. Ez, lokal itxiyak zialako, eo... Nik ez zekit ze motibogatik, baiño ordurako... Baiño beti gerra biziyen, zeatik orduan beti huan, batek sua pixtu zula, ta, kabreatzeatikan'e igual. Bakik jendia nola izaten dan askotan.

- Bai.

- Hori... danetik eoten dek! Batzuek errespetzen die, baiño bestiak, ba...

- Eta zapatu gabian, ba, gutxiyo. Bai, bai. Istoria polita.

- Gure gazte denboatako, nik, hori dek dakaten zea.

8.5. Goizean lanera joan aurretik hondartzara bainua hartzera eta mezara

- **Hizlaria(k):** Isasti Otamendi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-016/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Elkano kaleko etxe txiki batean jaio zen. 17 urte zituela Karmen "Inglesaren" dendara joan zen lanera eta 70 urte pasatu omen ditu bertan. Goizeko seietan hondartzan bainua hartu, sei eta erdietako mezara joan eta zazpiak aldean denda irekitzen zuen. Herriko jendeak lan egin behar izaten zuen eta goizean goiz joaten zen hondartzara. Egunean zehar, ostera, dirudunak, txaletetakoak joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta, bertan jaiotakua?
- Bertan jaidxo ta bertan bizi bizi guztidخان.
- Getaian.
- Getaidخان.
- Hemen, etxian?
- Ez, hor uan kale hartan, zu ez ziñan pasako ta, itxe txiki bat, han jaidxo nitzan. Ta uain dana bota ta berridخان in deu, habentzako, habentzako. Elkano kalian, bai, hogeita bostian. Ta ni honea etorri nitzan, hemen zeon "Karmen Inglesa" esaten zioen bat dendakin. Ta esan zion, bea ondoezik eta, gure aitai: "Markos, alaba bat bialdu bihar diazu /biazu/", ta ni bialdu niñun, hamazazpi urtekin. Asiske, eon nax...
- Dendan laguntzea.
- Bai, beai laguntzea, lanak itea ta badakizu, lehengo ohiturak. Eta, "setenta años he pasao de pie en el mostrador". Castellanoz ta euskeraz ta dana ingo dizut (ingo'xut)...
- Oso ondo.
- E?
- Eta hirurogeta hamar urte bertan, dendan.
- Dendan, jai ta aste, e?
- Bai.
- Ez zeon, ez zeon bakaziyoik eta...
- Ez. Ta geo nazkan...
- ... ez jaiyik, eta...
- Ez. Jaitan ireki iten zan denda. [...] señorak bezela mezeta, ta nik dendan eon behar izaten nuan. Ez al dakizu? Hamarretako mezeta.
- (A1) Ta gero?
- Geo ni, mezeta ni're hamaiketan... Oan... Leheno hamarretan, ta leheno sei t'erditan. Ta seiretan hemen aurreko ni baiño askozez zaharro zan batekin hondartza, baiñua hartzea [bisera] batekin. Ta geo, sei t'erditako mezeta.
- Kontaidazu hori. Nola...
- Bai, ba!
- Goizeko seiretan...

- Goizeko seitan jaiki... bai tontuena zala, e? Ohian eon besteik eta... Jaiki, hondartza jun, baiñua hartu, sekatu ta mezeta sei t'erditan. Ta geo zazpitako, zazpi ta laurden, zazpi t'erditan denda ireki.

- Eta goizeko seiretan baiñatzea, e?

- Baiñatzea, udaan. Jun in behar da, e? Ohian bero-bero eon besteik ez, ta...

- Eta ordun normala izaten zan emakumiak hondartza jun eta baiñatzia?

- Normala ez. Normala ez zalako juten giñan goizian, lana in behar zan ta!

- (A1) Baiña gero egunez iñor ez al zan juten?

- Bai, txaletekuak eta horrela.

- Bai, baiña bertako, Getaiko jendia ta?

- Getaiko ta bai, jungo zan, baiña gitxi, gitxi...

- (A1) "La gente de pasta".

- "La gente de pasta", bai. Horrela nunan. Ta guk berez nola dendan lana in behar giñun, juten ez.

- Eta, trajebañuakin ta?

- Traje de bañuak ahal zala, ahal zan bezela.

- Bazeon?

- Ta burla iten zien nei. Ta nik elegante juten nitzala uste!

8.6. Inguru guztietako jendea Meagara erromeriara

- **Hizlaria(k)**: Ezenarro Idiakez, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-017/008
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:17:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Meagara joaten ziren erromeriara San Isidroetan; trikitia egoten zen eta dantza-soltean aritzen ziren. Eurak goiz etorri behar izaten ziren etxera egun argiz itzultzeko. Inguru guztietako jendea biltzen zen Meagan eta bertan egiten zuten askok afari-merienda. Musika-banda beti ezagutu du herrian.

Transkripzioa

- Eta erromeita ordun, e, Miara?

- Miara juten giñan. Han trikitixa jotzen zuen ba, ta suelto iteko amorratzen eoten giñan. Eta hura're berandu hasitzen zan ta ez giñan bate disfrutatzen.

- Ta jende asko juten zan?

- Bai!

- Bertatik, Getaitik eta?

- Bai. Udaberridxan asko juten zan. Zeak esaten dia ba, San Isidruak 15ian? Eeeee, ze hil da hori?

- Maiatzian.

- Maietzian hamabostian, ez? Bai. Orduan. Ta bakizu, udaberridxa zan ta, gizonak'e antxotan ta, ez zian atunetan ta orduan ta, danak, gazte guztidax eta juten giñan gora. Baiña guk itxeko bildurrakin, Garate gaiña harrapatu bihar, hartaka ez zeon bate sermoiikan itxian, egun argiz itxea etorri geo. Gurasok bildur haundixa zuen neskaakin ta. Bai, e, ez dakit.

Orduan itxe launtza're asko zan, baiña guk ez gendun denborikan ezertako izan. Bai. Holaxen.

- Eta Mian, e, ze izaten zan, Getaiko jendia bakarrik edo Zumaitik eta Aizarnazabal ta...

- Ez, bazter guztititik etortzen zan, oso erromei polita izaten zan. Ta geo jendiak iten zuen bokaillo jan ta, batzuek afaldu're bai.

- Taberna're izango zan.

- Bai. Tripakidxak o zeoze hola, kaxuelitak eta eoten zian. Taberna? Bai. Uaiñ'e hala dao. Oain restau... zea, Azkue, hotela jarri duen oan, oso hotel polita. Atzo izan giñan azkena. Eta hortxe disfrutatzen giñan. Holaxe.

- Eta erromeritan gustora hamen e...

- Hamen bandakin ta gustoa.

- Bandakin?

- Bai.

- Hobeto?

- Bai. Baiña trikitixa're asko gustatzen zakun, e? Ordun dana hoixen zan, pelota, trikitixa... eta zea habek... banda txiki hori, ta... Uandikan'e bado hamen, e, banda, baiña...

- Bai, oaintxe zeon, oaintxe zeon joten.

- Bai. Baiña hori idxa festetako ta horrela gehidxo, oan ez da horrela jaiero ta izaten.

- Eta, e, hori bandana zan gerra ondorenian? Gerra bukatu ta aurreneko urtietan o gero o?

- Nik beti ezautu det banda. Jaitan beti ezautu det banda. Esan dizut (esan txut), ba?

- Udaran, edo?

- Zumaitik eta Zarauztikan jende gaztia etortzen zan, mutill gazte ta.

Batzuek nobidxuak'e in zituen, eta, horrela. Uain kanbio, dana hamendikan dana alde in iten da, ez dao zeikan.

8.7. Iribar sagardotegiaren sorrera

- **Hizlaria(k):** Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-020/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Iribarren, lehenago, beheko solairuan dolarea zegoen. Lehenago txalupak gordetzeko ere erabiltzen zen. Dolarean sagardoa eta txakolina egiten zen. 1930 inguruan jarri zuten eta sagardotegia izan zen 1970. urtera arte, gutxi gorabehera. Claudiaren aitak sortu zuen sagardotegia. Baserrikoa zen (Loidi baserrikoa) eta handik ekartzen zuen jeneroa.

Transkripzioa

- Eta etxia orduan, lehenbizi etxia zan eta esan dezu...

- Zan bajua ta pixu bat, eta bajuan zegon tolaría eta geo baita ere ba kanoa, kanoa, belero bat ere bai, esto, tetxuan ez, baiño alturan eoten zian.

- Baina gordetzeko erabiltzen zan?

- Ez gordetzeko, porke etxe hau omen zan... Hor beste etxe bat badago... Erromeronekoa deitzen ziyoen zaharrak gure etxiai, porke Erromero era como un personaje bezela, eta hau zan...

- Getaiarra zan?

- Ez, ez, "algo de Las Cortes" edo horrela, baiño gizon horren kanoa gordetzeko..., o sea como el local o, soto bat, soto bat bezela, bai, eta nere aitak gero jarri zuan tolaría.

- Berak jarri zuan?

- Bai, tolaría, jarri zuan, eta egongo zan, pues oain dala hogeita hamabost urte edo horrela kenduko giñun.

- Eta tolarían egiten zan sagardua edo?

- Sagardua, bai, sagardua ta txakolina, bai. Nere aitak, beste bere gurasoenak eta zitun mahastiak eta horrela, eta gero sagardua ere bai. Eta gerra denboran, ai, baino hori ez det nahi jartzia, gerra denboran zeara're bai, Kataluiña're bai, eta eramaten zuan barrikak. Eta gero ba jatetxia.

- Eta berak jarri zun tolaría? Berari okurritu zitzaiolako?

- Bai, o sea, bazakaten jenerua lana eiteko ta horrela, basarrikua ta horrela.

- Basarrikua zan bera?

- Bera basarrikua zan bai. Eta gero ba pixkat ere kanpokuentzako ere egiten zuan, etxeako... Sagardua, nik jardun izan det sagardua txotxian ere saltzen.

- Bai, e?

- Bai, klaro, oso ezberdina zan oaindikan, baiño hola toki batian, hor bodega batian eta, hoixe, basuak hogeita hamar xentimo; bueno, orduan xentimuakin eta, nola izaten zan eta, baiña bueno ez naiz hori ondo detailliakin akordatzen.

8.8. Iribar jatetxearen historia

- **Hizlaria(k)**: Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-020/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Claudia gaztetatik hasi zen aitari eta amari laguntzen etxean, sagardotegiko lanetan. Ondoren senarrarekin batera eramaten zuten jatetxea. Senarra hil ondoren alaba hasi zen eta orain bere esku dago, Claudia jubilatatu zenetik. Jatetxeaz gain, goiko solairuan logelak ere badituzte. Getarian dauden jatetxeen artean, Iribar da denbora gehien daramana.

Transkripzioa

-Eta zuk etxean aitari ta etxean laguntzen?

-Bai, bai, bai, hori da, berez ama ta're urte askoekin hil zian. Ama hil zan larogeta hamabi urtekin, ta aita're hil zan larogeta zazpikin horrela, baiño berak sasoia zakatenian eta nere gizona're beste lan bat egiten zuan, baiño gero jatetxian ya hasi giñan, eta indarra hartutzen hartutzen jun zan eta. Eta gero oain dala hemeretzi urte hil zan nere gizona, Marijen aita, eta geo beste alabakin segitu det jubila, jubilatatu, nik utzi det esku onetan, o

sea ke nere alaba beste soziyo batekin. Eta horrelaxe eta goyan daukagu ba, beti euki deu, e. Leno ere lotako tokia baiño igual hiru kuarto edo lau kuartokin, bi baño eta horrela. Oain ez, oain dazkagu gela bakoitza bere baiñuakin.

-Eta hola restaurana, jatetexe-jatetxia noiz jarri zenuten? Behin ezkondata?

-Bai, bueno. Lenotikan eta ere hasita giñauben, baino gero jun gea mejoratzen eta. Gero asko nere alaba Pilik, ikasi zuan, Madriden ikasi zunian, rebistetan eta ere hola erten izandu du eta, ondo ein deu lana, o sea, bere tamaiña batian. Getayan daudez beste batzuek famosuak eta hola, baiña momentu honetan, momentu honetan, adibidez, zarrena restaurantia, zarrena, o sea, urte geyena daramakiguna gu gea.

-Iribar.

-Bai. Txikia, o sea, geo haundiyak, Kaia eta Elkano eta hoiak haundiak eta jarri zituzten baiño, antziñakuena guria da. Oain gero bestiak ba toki egokiyuan, edo hobeto, edo..., baiño nahi dut esan, gu ere gure tamaiñan ondo.

8.9. Antzinako sagardotegiak eta parrillak

- **Hizlaria(k)**: Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-020/007
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:08:45. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Sagardotegian parrilla ere izaten zen, kalean jarrita. Jeneroa norberak ekartzen zuen etxetik eta bertan erre. Ondoren, aita marmitakoa egiten hasi zen, eta gutxika-gutxika jatetxe bihurtzen hasi zen. Madrilgo jendea ere hasi zen agertzen eta, ondoren, frantsesak. Hala ere, madrildarrak gehiago joaten ziren Zarautzera Getariara baino.

Transkripzioa

-Kontatu didazu pixkat lehen nola hasi zan.

-Ba sagardoteya, bai.

-Parrila kanpua jarri...

-Bai ba, orduan jendia hasi zan, esto, sagardua eta ardua eraten zuen eta, baiño beak ekartzen zuen ba, orduan arrai asko izaten zan, hurrian harrapatzen zutena, ta honela ein, ta ogidxen gaiñian jan eta hamaiketakoa bezela, eta horrela.

-Zuek parrilla jarri eta jenerua norberak ekarri.

-Bai, hori da, norberak ekarrita puxkanaka-ta. Geo, ba, pixkat gero hasi giñan ba gauzak eta egiten. Nere aita marmitakua egiten oso abila zan, eta, ona, oso ona egiten zula esaten zuen eta ya Madridko jendia, Frantziko jendia ere bai, eta gero frantzes jendia, baiño puxkat geldituzdi bat izan zuen, eta oain berriz ere asko etortzen da Frantzitikan, o sea.

-Eta garai hartan, zu gaztea zinala eta, hemen kondiak eta markesak eta Madridko jendia eta...

-Bai, bueno, bai baiño hamen orduan Zarautza juten... etortzen zan jende asko markesak eta holakuak. Oain zenbat itxe daude, igual itxiak eginda eta, "Las casas de Santillana" ta, por qué?, porque antes estaba el chalet

del Marqués de Santillana, ta horrela zaudezelako. Berez Zautza era más...
-Eta honera ez ziran etortzen?
-Honea? Bai, etortzen zian, baiña berez zan Zarauzko jendia, bueno, Zarautzan itxiak eta zauzkatena. Hamen oso gutxi zan, bat edo bi edo horrela, gutxi zan, honea...

8.10. Iribar, sagardotegi izatetik jatetxe izatera

- **Hizlaria(k):** Iribar Salegi, Claudia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-020/009
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Getarian kalean jarri zen lehenengoetako parrilla Iribarren izan zen. Sagardotegia zen, baina kanpoan parrilla zeukan. Norberak janaria eraman eta hantxe erretzen zuen. Sagardotegiari "Joxe Loidinekoa" esaten zioten. Aita marmitakoa egiten ere hasi zen eta gutxinaka jatetxe bihurtzen joan zen. Behin Claudia ezkondu ondoren, senarrarekin batera jatetxea jarri zuten. Garai hartan marmitakoa eta arraina ziren nagusi (arraina frijituta edo erreta). Arrain asko zegoen: pantxoa, panekak, bisigua... Bisigu asko zegoen eta merke egoten zen. Eta oso preziatua zen.

Transkripzioa

-Eta esan didazu parrilak eta kalean ez zirela leheno...

-Bueno, parrilean, usten det, lehendabizikua ez baldin bazan e bai; nei hala esaten zien, lehendabizikua gure aitak jarri zuan kalia, hori da bai, eta zan ba jendientzako, este..., adibidez, gizonak, itsasuan-eta ibiltzen zianak eta. Oan jende askoek esaten diu guri, ene!, gure aita honea etortzen zanian-eta, ni mutil koxkorra ta. Porque gure etxia ba, honbre, beste batzuek oain famosauak ta hola dia, baiño badu zahar..., o sea, nola esan det ba, Erromeronekua deitzen ziyoen leheno, geo Joxe Loidinekoa, Iribar, baiño Joxe Loidi nere aiten basarrixen izena zulako. Porque basarrixak izena zuan Loidi, baiño gero basarri hura, por lo que sea, fist! No ha desaparecido pero está completamente en ruinas, esaten dan bezela. Ta jende askoek daki, ni baino zaharruak eta pixkat gazteuak'e bai, ba... nola esango nuke ba nik, zan itxe bat, "sin grandes prete", pretentziyoric gabe, baiño oso, jende asko, herri maillan, betikua bai. Nik sukaldian pixkat ikasi nuan kanpuan edo horrela, eta igual eiten giñun ba atuna tomatiakin eta beste arrai batzuek saltxan, eta horrela, baiño geo, geo ta gehidxo ta gehidxo, ta oain ba dotore. O sea...

-Hasi zinetenian esan didazu aitak marmitakua ta.

-Bueno, hori udaran maillan izaten zan geidxo, e, eta gero ya neguan, klaro kanpoko jendia udaran etortzen zan eta. Baiño gerora ya indarra hartutzen eta gero nere gizona... Ezkondu giñanian e, baiño gero ta geidxo, ta sukaldea lehen hamen goyan giñun eta gero behian tolaría kendu ta jarri giñun, porke tolaríakin guk orduan ba, o sea jantokiakin, jatetxiakin ikusten giñun etorkizun hobeua edo geidxo, edo horrela.

-Eta jaten eta, orain dela berrogei ta hamar, ze izaten zan, jatordua ta

normalena ze izaten zan?

-Bueno ba, orduan, marmitikua izaten zan asko, eta geo arraya prejituta ere bai, prejituta ere bai; o sea ke hasieran. Eta bueno, bestela parrillan erreta, baiño... igual, nik, oain ez naiz akordatzan izena, baiño aukera haundidxa eoten zan arrayakin, hemen bertakoa. Hasi pantxo, paneka..., hainbeste, egunero-egunero. Eta bixigua ere, guk bixigua, oaindikan'e jendia akordatzan da, jesus! Iten giñun, bixigua halako merke eoten zan eta hainbeste harrapatzen zuen, goizian juten zian, bixigua neguan izaten zan orduan, eta adibidez, jendiak jaten zuen bixigua, [...] ta geo pixkat extra egiteko, haragiya. Baiña oain alderantziz, haragiya askoz'e merk..., baiño bixigua "artículo de lujo, de super lujo". Zergatikan? Ez dalako harrapatzen, eta ekartzen dan tokitikan... Baiño hamen jendiai gustatzen zaio hamen preparatutzen dan erara, eta orduan ba ordaindutzen du; oso garestiya da baiño.

-Eta hemen orduan arraia eta...

-Bai, bixigua asko asko. Osea ke igual San Antonak eta izaten zian hamengo festak, eta bixigua baiño eske kantidadea, e, asko, asko. Dana bixigua, dana bixigua, dana bixigua...

-Eta apreziatua zan?

-Oso apreziatua, bai, eta horigatikan segitu du baita ere. Gero Oriyon eta jarri zian, beranduo ta horrela, baiño. Asko gustatzen zan hamen jartzen zan erara. Erre iten zan ta gero ereki ta.

8.11. Getariako jaiak

- **Hizlaria(k)**: De la Hoz Arregi, Jon Ander
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Eizagirre Agoues, Libe
- **Erref**: GET-033/030
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:34:01. **Bukatu**: 00:37:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Getariako jaiak aipatzen ditu Jon Anderrek pasarte honetan, orokorrak eta auzoetakoak.

Transkripzioa

- Bai...

- Salbatoriak, San Antonak...

- San Antonak. Bi garrantzitsuenak hoiek. Geo, auzo bakoitzian'e bazauden, ez? San Prudentzion San Prudentzio jaiak, Askizun San Martinak, Mian San Ixidro uste diñat diala... uste diñat, bai. Eta... Baiño, bai. Ta auzoik garrantzitsuenak edo handidxenak behintzat Askizu ta zea. Ta aurten'e duatloi bat'e antolatu diñe ta beti eoten den festa ta mus txapelketa ta holako gauzak. Eta bertsolaiak'e bai San Prudentzion. Ta nik uste diñat... bai, ondo, ondo, festa politak diala. Eta ez igual salbadoretako... salbadoriak dakaen indarrakin, baiño bai, festa politak diala.

- Ya hor, salbatoretan zea iten da, desenbarkua ta konparsak'e bai ta...

- 2018dxan den zea, desenbarkua, Elkanona.

- Aber ta kontatu hori pixkat zer dan. Nik, zarauztarra izanda, badakit, baiño beste toki batzutan ez dakie.

- Bai, bueno, hor Elkanon "lehorreratzia" esaten den ofizialki, desenbarkua deitzen zakona, eta desenbarkuan, bueno, ba, ospatzen den, ospatu edo....

bai, gogora ekartzen den nola 1522yan, ba, Elkanok ba munduai buelta eman ta geo ta bere 17 tripulantiakin etorri zala ta bat eta beste. Eta antzezlan bezela oso polita den, hori dudaz kanpo zeon. Etortzen den ta barkuan bere hogeita bat [...kin] ta... Ez? Kañonazuak eta bat eta beste. Sartzen den barkua, danak erropa... halamoduz jantzita, itxura emanaz munduai buelta...

- Emanda.

- ... zatoztela. Ta poliki-poliki ta musika ezpezial batekin, ta zea ta, jo, oso... ba, bai, polita den, deigarriya den. Baiño... baiño bai... Lau urtian behin iten den ta jende dexente etortzen den egun hortan, jatetxiak ere nahiko beteta egoten dittun /egotentxun/ eta bat eta beste. Eta ondo. Azkenian getaiarrak ondo ezautzen diñun /ezautzeiñun/ festa bat den. Batzui gehio ikutzen zion barrua, bestiai ez hainbeste, baiña, bueno, bai, polita baden ikustekua.

- Parte hartzeko tentaziyoikan edo...?

- Ez.

- [...] o bai o ez o...?

- Hasteko, ezin detelako.

- Ez?

- Ez, hor iten diñe /iteiñe/ familiko... hamazazpi tripulantiana ematen den, ba, bueno, semiai o illobai o... hola den, ez? Titularidadia zakan ertentzen dan horrek.

- Baiño nola garai hartako familitako...?

- Ez, ez. Hori izango den /izangoen/, ba, aurrenengo aldiz in zuenian /intzuenian/, gutxi gorabehera in zuenan senitartekuak o... uste diñat, e! ez pentsa, ez askoik fiatu.

- Osea, ez dala jun ta apuntatu.

- Ez, ez, ez, ez, ez. Ta geo iten ziñenan hor geo bost kontinentetako... Gero iten diñe aurrena itxasoko parte hori bezela eta gero berriz eleizan sartu ta eleizan meza bat eta ez zekiñat ze... amabirjiñai ofrenda-o ingo zione. Eta geo, bueno, aldatzen dittun /aldatzetxun/, jazten dittun /jatzetxun/ ondo ta Carlos I, Carlos V o ez zekiñat hoitako batei...

- [...]

- Bai, bai, "primero de España, quinto de Alemania" edo ez zekiñat, hura, uste diñat hura zala. Eta harei zea bat, bueno, ez zekiñat ze eskatzea o bere balentrian berri ematea o ez zekiñat ze. Eta hor bai iten lunan lehen herriko emakumeik ederrenak o aukeratu; behintzat bihartzakin aukeratzen ziñen. Nere ama atera lunan bere garaian, Ozeaniako... Osea, bost neska, kontinente bakoitzeko bat. Nere ama atera lunan Ozeania, bere garaian. Eta gaur egun aldatuta zion hori. Aldatu diñe oan dala... oan dala lau bat urte edo zortzi bat -ez zekiñat-, azkeneko bi alditan behintzat. Eta oan uste diñat zozketa iten duela. Baiño...

- Zozketa. Oseake, nahi duna apuntatzen da?

- Ez zekiñat apuntauta dan eo zozketa iten diñen edade batetik edade batea bitarteko neska...

- Eta neskak bakarrikan, ezta?

- Bai, bai, bai, hori bai.

9. Herria, azpiegitura

9.1. Kale-baserriak txikiak eta terrenoak etxetik aparte

- **Hizlaria(k)**: Eizagirre Ulazia, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** GET-014/003
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Kale-baserriak antzekoak izan ohi ziren: ikuilua, gela bat eta ganbara. Kale-baserrietako jendea ere itsasoan ibiltzen zen, baserri txikiak zituzten eta. Kale-baserriek terrenoak ez zituzten paraje egokian izaten eta sarri besteen terrenoak alkitatzen edo erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta gutxi-gorabehera danak antzekuak izango zian, ez? Okoillua...
- A, bai, e...
- Eta gero bizitza, eta...
- Bai, bai, bai, bai, bai...Ez, zergatikan okoillua zeukanai, bizitzeko tokidxa're behar zun uaiñ baiño. Bestela, bajuaguak zian itxiak, e?
- A, bai?
- Hoiak zituzten, hoiak zituzten lehen esan deten bezalaxe, okoillua, habitaziyo bat eta ganbara.
- Ganbara.
- Ganbara. Geo esan dizut ba, guria're, guriai're in zioen beste piso bat eman erre ta geo. Baiña orduan, erre zan denboran, hark'e hori zun: okoillua, beak bizi zian tokidxa eta ganbara.
- Ordun, e, Getaia, nahiz eta arrantzalia izan...
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai...
- ... baserritarrak ere asko izango zian kalia bertan, ez?
- Bai, ta e... esan dizuten kale-basarri hoietatikan, kale-basarritik bertatik itsasuan'e ibilitakuak, e, geure aita ere bai, hamasei urtekiñ ibili emen zan hura're itsasuan. Hemen, Higinio hau're bai, itsasuan hori're. Eta Nikasio Galdos hori're bai. Derrior zeon, zergatik toki txikidxa zian. Bi behie ze atea behar zendun, bi behi. Bi behiek urtian bi txahal iten zituela? Beno, bale. Endrerua gehio zun kale-basarriyak. Baiña harta jarrita zaben aurretik, e...
- Bai.
- ... itxeako esnia izaten zala, ez dakit ze iten zala, ta badakit ze iten zala, ta dana...
- Eta lurrak'e bai, ez? Soruak eta, eta beti e...
- Bai, bai. Oan... hemen, e..., ez zian danak guria ta bezela terrenuak berenak zituenak ez zian, ez zian danak, ez. Beste batek zelaiak, toki txarreko zelaia dala ta, laboreik iteik ez eta "bueno, nik, nik garbituko didxat hori, nik garbituko...". "Beno, garbituta eukitzen baek" errentik'e kobratu ez, beste batek errenta kobratuko zun... Higinio honek, hor, Iturritxiki deitzen zitzaion hortan zelai haundi bat, baiño aldapa bai. Ta, hemen olaskoagatar habek eta're berdín, ta. Ez zian... Toki eroso gutxi zitun kale-basarriak, oso toki eroso gutxi zun.
- Eta esan diazu, zuek'e nahiko urruti, ez?, zenutela, e, ...
- Bai, bai. Esaten dizut, bat han, talaia deitzen zitzaion hartan. Eta hurrengokua, berriz, hurrengoko pusketa han, kanposanto, este, Kanpaia deitzen zitzaion hartan...
- Kanpaia, bai...
- Jeneral, jeneral, itxetikan aparte terrenua kale-basarriyak zitun, bai.
- Hemen bertan, Erregeta kalia atzian eta, bazan e...

- E... Hemen, e...
- baatzak, o...
- Egurbidek... A! Guk itxe atzian bagendun baatza, baatza deitzen, uaindikan hala deitzen diou, baatza deitzen diou, baatza txiki bat. Geo, goiko aldeko itxe hoiiek'e ez zian orduan ta euzkiya're sartu iten zan, ta iñ iten zan baatza. Uain ez. Uain itzala eoten da, ta ya lagata daukat neuk'e, loriak sartu ta ya, ta hola. Baiña, oain lehengo baatza txiki hoidxek eta behekuak, danak deseindu dia. Baatza txikiyak zian hemen, e?! Itxiai zeokion bezela, itxien tiradako terrenuak, batzuk ehun metro, bestiak berrehun metro, holako, holako zeak zituen.

9.2. Kale-baseritik ezin bizi eta beste lanbideren bat behar

- **Hizlaria(k):** Eizagirre Ulazia, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-014/004
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Bi terreno hurbilen zituen etxea Egurbide zen. Besteek terrenoak kaletik aparte zituzten. Normalean bi behi inguru izaten zituzten kale-baserriek lekuri ez zuten gehiagorako eta. Baserriatik ezin bizi eta beste lanbideren bat behar zuten aurrera egiteko.

Transkripzioa

- Hemen, e, hurriena, bi terreno euki zituna Egurbide. Horrek zitun, hor kanposantoako bire horretan, oain itxiak inda dabe, ta geo mahastiya zeon behian, eta gaiko aldetik. Geo, soro, soo koxkor bat, hor [Putzeko] soua deitzen zioena, ta oandikan horrei Putzoaga deitzen zaio, han dao zeon ta itxian "Kale Putzoaga". Ta horrei, sorokote horrei, Putzoaga deitzen zitzaion. Beste gaiñuntzian danak, ba, terrenuak, e, bire pixkatea junda, bai. Kaletikan ertenda, ertenda.

- Ordun lana're gehio.

- Bai, e, endrerua zun, kalia, kale-basarridxak endrerua zuan. Endrerua zuan, e, bat urrutira jun, urrutira o aparte ibili beharra, eta beste batzuk esan dizut... Bi behiei, gurian bi zian, akaso beste non eo non izango zian hiru, hiru. Gurian sutaidxa're bazan eta [...]tokidxa're bai, eta ez zeon, geo behi askoentzat'e ez zeon tokiik ta. Gurian bi: bi behi, ta bi txahal ta asto bat, han okoiloko gorabehera hori zan. Ta haiei ez zeon ezer ateatzeik! Handik ez zeon familiya zeatzeik. Ama beti zan kontraidxua gurian, baita aita bizi zala're, hemendik ez dao ezer, ta hemendik ez dao ezer...

- Eta itsasoa.

- Ta egidxa, ta. Aita itsasuan ibili ta geo zeatu zan, kale-basarrira geatu zan. Itsasuan ibili ta georo, zergatikan [...] igeri, hamasei urtetikan, e, hogeta hamabira bitartian ibili zala itsasuan. Baiña berrogeta hamarrek hil zan, ta ni jaio ta geo buelta horretan ta, ta ra, ya... Hemezortzi urte behintzat, hogeta hamabitik, berrogeta hamarrek hil zan, ta hemezortzi urte hoidxek lehorrian in zitun zergatik zerbait hobexio're bai, herrerua, entenditzen? Ta handikan'e zer zeon, ba? Handikan'e ez zeon ezer. Bi herremintak, han, zorroztu ta erdiyak paatu're ez, bestiak...

9.3. Elkano kalea dendaz beteta

- **Hizlaria(k):** Isasti Otamendi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-016/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Elkano kalea nolakoa zen. Atean-atean denda edo taberna omen zegoen. Elkarrekin bat egin eta prezioak edo erabakiak elkarrekin hartzen zituzten. Berak gutxi gastatu izan omen du beti, eta horregatik irabazten zuen dirua.

Transkripzioa

- Eta beti, bizi guztian hemen Elkano kalia eta bizi izanda, nolakua zan Elkano kalia lehen?
- Oan baiño zaharro. Oan danak, etxe danak berrituta dabez, baiño. Tabernak'e bazian, ta.
- Tabernak eta dendak eta [...] asko [...]?
- Bai, dana, dana, atian-atian, atian-atian. Lehen bajuak estimazidxua zukaen, baiño uan ez dukae.
- Ta lehen baju bakoitzian...
- Baju bakoitzian denda, o taberna, o... bai. Aurrian, bestia, bestia... Plaza puntatik hasita.
- (A1) Ana Marin denda, [...]’re bai...
- Bai... [Maritxanonekua, Kauanekua], Txomiñanekua...
- (A1) Bat, bi, hiru, lau, bost... nik sei denda ezautu ditut hamen.
- Bai, ba. Ta in dian kontu... Terexa [...], Xixili...
- (A1) Poito.
- Poitonekua, ni, Largoninian'e jarri ziñenan...
- (A1) Largonienian'e bai.
- Haor bost...
- (A1) Izeko Beltxora...
- Beltxora...
- (A1) Ana Mari...
- Estankua're tartian...
- (A1) Estankua, Ana Mari're bai...
- Joxepa [Etxabarri], Elkano txikidxa hemen aurrian...
- (A1) Zea, Maria Teresa...
- Panaderua [Kirinona], bai...
- (A1) Hor zortzi bat bai.
- Haor zortzi bat, kale honetan, aber, kale honetan. Horregatik esaten dizut / esaten txut, ba, ez dakit, ba. Ta geo iten giñun, noizik eta behin, "gauzak idxo in [dabe] ta, gaur reunidxua ingo diñau, ta" , "honela jarriko al deu?" O este... "perro haundi bat idxo den ta, perra haundi bat idxoko al deu?" Ta... danok alkarrekin, ta uan ez dao hori.
- (A1) Guk tabernak iten deuna.
- Bai, ba. Zuek tabernak alkar hartzen dezue (hartzen txue), dendaridxak

ez, ordia. Dendaridxak gitxidxo, gitxidxo. Dendaridxak iten diñu... Ba al dakin guk ze iten deun? Aurreatu iten diñau. "No gastábamos y ahorrábamos lo que ganábamos". Entenditzen al diazue? Ez giñun gastatzen, ta! Nik ez nuan gastatzen! Ta ni bezela, umiak jantzi ta jan, ta goseik ez deu pasa guk behiñ'e. Gerra denboran'e nik ez niñan goseik pasa. Ogidxa ekartzen zigun Zarauztik. Hiru, orduan hiru panadei bakarrik giñan saltzen. Oan, ateik atea iten zan, ta guk bakarrik saltzen giñun. Ta [Porrostuanekuak] eta Txomiñanekua. Geo hasi nunan Eulali. Ta iten gitxonan, ogidxakin, badakin, atea iten nunan orduan'e. Perro txikidxa zanagatik, atea iten nunan. "Pero, ganábamos" ta "el secreto es el no gastar. No hay otra cosa". Oi! Ez al da hala, ba?

- Hala da, bai.

- Oi! Hik ze iten din, ba? Bi irabazi ta hiru gastatzen bahitun, "hura zorretan zian!". Txanpaiñan hura're ez al dakin? Nik eraman nuan orduan. "Pu!", "pu!" in ta, "pu!" in ta erango nikin, "pu!" in ta erango niñan. Ta gure aita etorri nunan ta "pu"-ik ez zeak, txanpaiñak.

- (A1) "Pasao, caducao".

9.4. Getariako "Katukalea", Aldamar kalea

- **Hizlaria(k)**: Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-021/002
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:00:47. **Bukatu**: 00:02:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Aldamar kalean jaio zen, "Katukalian". Katu asko zegoen eta horregatik esaten zioten. Antxoa asko zegoen garai hartan, kalea mendi partera dago, eta horregatik izaten zen katu asko. Etxeko leihotik ere arraina botatzen zitzaien katuei. Kalea aldatu egin da azken urteotan, etxe berriak egin direlako.

Transkripzioa

- Eta jaio ziñan, Getayan?

- Getaidxan.

- Ze kaletan esan dezu?

- Esto, "calle" Aldamar.

- Aldamar?

- Aldamar. Goiko kale hura da.

- Baiña horrela deitzen diozue?

- Kato kalia.

- Kato kalia?

- Bai.

- Getaidxan hola esaten da ezta? [...]

- Kato Kalia, bai, Getadxan kato kalia.

- Eta hori zergatik da?

- Kato asko zalako, ta oaindik bada e? Oain'e kato pillua dago, bai.

- Eta holan esaten diyoze?

- Bai, bai, Kato kalia, Getayan iya ez do besteik, hua Kato kalia. Jakin'e ez due egingo gaztiek Aldamar izena dunikan kalia.

- Ez? Eta kato asko zan orduan?

- Bai, asko, antxua're bai, oain baiño geyo. Geo, geo itsas aldea ia ia mendiya ta zan, mendiya, mendi parte hartan, plai aldea, Zauzko plai aldea.

- Eta katuak libre?

- Bai, ba, katuak libre, oain bezela.

- Ta katuak libre.

- Bai, dana katuak libre, oain bezela.

- Eta arraia ta, kalia izaten zan arrain...

- Antxua oain'e jateko ez daukaguna, orduan bota iten giñun ya katuai leyotikan antxua, antxo frexkua.

- Oain botatzeko moduan...

- Ez...

- Eta asko aldatu al da kalia?

- Kalia? Bai, bai.

- Katu kalia?

- Bai, etxez bai, etxez bai, etxez, ba... etxe berri batzuk in dia, ta bai. Baiña Getaya zarra, parte zarra aldatu egin da pixkat estruktura, hola itxe berri asko ez da iten kalia [...] kale zaharrian, herri zaharrian.

- Oraindik eta etxe zaharrak eta badia...

- Bai, bai.

9.5. Getariako kale-baserriak. Baserritarrak itsasoan lanean eta arrantzaleak lurra lantzen

- **Hizlaria(k)**: Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-021/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:02:12. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Kale-baserriak ere baziren Getarian, kalerik gehienetan. Katukalean, besteak beste, Higinionekua eta Larrakonekua. Ganadu pixka bat izaten zuten eta soro batzuk ere bai. Baserritarrak itsasoan ere ibiltzen ziren. Arrantzaleek ere lurra lantzen zuten. San Anton mendian lur pusketa bat zuen familia bakoitzak. Batez ere patata eta kipula landatzen zuten.

Transkripzioa

-Eta esan diate kale baserriyak eta izaten ziala Getaiyan...

-Bai, hemen bertan'e bai.

-Bertan, Katu kalia?

-Bai, Kato kalia'n'e bazan. Kale baserriyak, joño, bi ganao, txarri bat, zukaenak, hemen'e bai, goiko kalia'n'e bai.

-Goiko kalia'n'e bai, Elkanon'e bai...

-Ez, hemen ez, ez, hemen ez.

-Baina Aldamar kalia, Katu kalia bai.

-Kato kalia bai.

-Zer zan, zer zeon, bakarra?

-Ez, geyo bazian, hayek, bat Higinionekua, bestia Larrakonekuak... Oaindik

bizi dia, e? Bi hoyek, bi hoyek zian.

-Eta ganaua eta . . .

-Bai, bi-hiru ganao. Ta gero, ba, souak. Nola ez zan, esto, udan ta atunetan eta azkar bukatzen huan, ba denbua izaten huan orduan lehorreko lanak egiteko ere. Oain ez zeok holako denboraikan.

-Eta orduan izaten zian lehorreko lanak ere bai, baiña itsasuan ere ibiltzen zianak.

-Bai, bai, itsasuan ibiltzen zianak.

-Eta soruak eta bertan?

-Ez, souak pasa egin behar. Beno, gero gendun San Anton mendidixan arrantzale danak puxketa bana.

-A! Zuek'e bai!

-Bai, bai, bai, dan-dan-dan-dan-danok. Familiya guztiyak. Ustez gaiña kendu zanean ustez betiko jana kendu zala Getaiyan, ta patata, patata bakarrrik zan: patata, tipula, arto pixka batzun batzuek, hola kale basarriya zunak eta bestelakoik ez.

-Eta kendu zanian jendia keja?

-Izugarrizko keja. Problematika izugarriya izan zan.

-Bai, bai, eta zuk, hori ere ezagutu dezu . . .

-Bai, bai, esaten det, geuk bagendun ta.

10. Ekonomia eta industria

10.1. Goizeko ordu txikietan despiskara

- **Hizlaria(k):** Isasti Otamendi, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** GET-016/020
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Txiki-txikitatik ibili izan zen antxoa-lanean. Mahaira ez zen iristen eta harri bat jartzen zuen oinen azpian. Goizeko ordu txikiak izan arren, baporea etortzen zenean antxoarekin despiskara (arrainak saretik libratzera) joan behar izaten zuten. Hasieran despiska txalupan egiten zen, baina gerora moilako arranplan, denak ilaran jarrita. Despiskako arraina ("mallakoa") gehiago ordaintzen zen.

Transkripzioa

- Zu ibilitakua zea antxoa lanian ta?

- Bai. Ni antxua lanian, bai, txiki-txikitatik, harridixan jarri ta burua kentzen. Mahaira ailleatu ezinda, harridixa jarri, ta...

- Harriya jarri iyotzeko?

- Hankian, azpidixan ta. Bai, bai!

- (A2) Baiño hi gutxiyo [...].

- Ez, nik'e in niñan! Hi haiz geo jaidxua...

- (A2) Esaten diñat...

- Hi ez haiz... ez! Eon hai ixilik! Hi zazpi urte ni baiño gazte haix. Ta zazpi urtian badakin, ni hamarrekin hasi banitzan'e, zortzikin hasi banitzan'e, hi [...] akordatzen. Ta hik nahi den esan ni honea etorri nitzala geo

Karmenena denda ta dendan eoten nitzala. Ta habek ibiltzen hitunan, ba, despeskan. Ta ni're despeskan jun izanda natxion. Gitxi, zuek gehidxo. Ni gitxi. Hemen etorri ta nik zazpitako denda ireki behar niñan, ta. Poz ederra're ez [...], esnatu ta, "ze ordu ete da?", ta... Askotan, esateako, goizeko ordu bitan igual txalupa etorri zala ta despeska, antxuai burua, zea, kentzea, saretikan ateatzea. Despeska esaten zan, motor txikidxai ta. "Oi, zazpirak! Ez zianen deitu gaur itsasoa [...]", gaztetasunian, lo iña, behintzat.

- Bestela ze pasatzen zian?

- Jun in bihar? Zeara...

- Baporeta?

- Bai.

- (A1) Despeska.

- Baporetarik etorri ta...

- Bai, deitu. Moillan hasi zian geo sariak ateatzen. Ta moillan zanian, juten gitxonan. Bestela mariatu iten.

- (A2) Aitu, baiño hik gitxi in den hura, e?

- Nik gitxi in diñat, baiño in niñan. Zuek asko. Bai, ba! Zuek asko.

- (A1) "Otra época" zuk ama.

- Bai, ba, "otra época". Ni orduan hemen nitxonan, ta. Ni're hemendik arratsaldian jostea igual juten nitxonan. Goizian in ta geo arratsaldian jostea. Ta geo fileteta jun nitxonan, pixkat, filete itea're. Ta geo Karmen'e gaixotu nunan, ta... ezin jun. Ta geo nere kontura jarri nitzanian berriz'e gitxio, ta, ez al dakizu, ba?

- (A2) En fin, en fin... Guk'e in deu nahikua.

- Eta despeska moillan izaten zan? O... motor txikiyan?

- Aurrena iten zuen motor txikidxan bertan.

- Bertan.

- Baiño geo hasi zian, han arranplak izaten zian, ba? Moillan, bajadakin, arranpla esaten zakoe. Ta han sariak atea ta han geo filan-filan-filan jarri eta otarra jarri, ta han buruak hara. Antxua hara. Ta hutsa hara. Antxua geo idxo, ta horrela. Ta orduan jende asko juten nunan porke mariatzen zianak ez zitxakaen han juteik baporian, ta txalupian'e gitxi jendia kabitzen, motorretan'e. Motor txiki hoidxetan zenbat jende kabituko nunan, ba?

- Ta moillan bai.

- Moillan bai, filan, ta.

- Bertan, lurrian jarrita, o?

- Ez, tente, tente.

- (A2) Ez, ez, ez. Tente jarri eta guk bota. Bueno, atea...

- Atea...

- Tente, tente. Oan hainbeste koplak, koplak, ta orduan ardo goxua ta horrela partitzen zuen. Ta danak ardo goxo hori erateko zai. Ta in zazu kontu! Antxuei burua kendu, dana eskamez beteta. Lehenguan eon nitxonan dendan esaten. Danak baso hartatikan ta zea eraten, ardo goxua. Gure umiak eramango ziyoen [eralontziya], galdezka [...]. Jesus!

- Eta hori gabian izaten zan, ez? Gabaz.

- Ez, goizaldea.

- Goizaldian.

- Goizaldea... Arratsaldian, goizaldea. Ordu bidxak o, bostak o...

- (A2) Eske, goizo ertetzen zuen, e!

- Bai.

- Bai.

- Oain ez liake, ez litzake iñor jungo.

- Goizeko hirutan ta lautan ta ...

- Honbre! Parranda bai, baiño! Ezta pentsatu're!

- Eta apreziatua zan despreskako antxoa hori?
- Bai! Gehidxo paatzen zuen, e!
- Gehio?
- Bai! Arrai hori gehidxo paatzen zuen. Nik ez dakit zergatik zan maillako arraidxa, "malla", maillako arraidxa esaten zan, garestidxo zan [...].
- (A2) Bai. Hobeto etortzen zan, ta hobeto jarrita ta...
- Ondo paatzen ziñenan, ondo paatzen ziñenan.

11. Natura

11.1. Itsasoko txoriak: gabaia, kaioak...

- **Hizlaria(k)**: Iribar Arrizabalaga, Brigido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: GET-021/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iribar, Jesus
- **Gaia(k)**:
 Natura » Fauna
 Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
 Natura » Flora
- **Laburpena**: Arrantzarako txoriak ere garrantzitsuak ziren: kaioak, pardelak edo gabaia... Gabaia, batez ere atunetarako dira onak. Gabaia dagoen tokian atuna izaten da gehienetan. Gabaia eta martinak antzekoak dira, baina ez berdin-berdinak.

Transkripzioa

- Eta esan dezu txoriai segika ere bai.
- Bai. Klaro.
- Ta? Ze txori izaten dia?
- Txoriya, hemengo txoriya, ze esaten da? Kayua esaten diyoo; kayua, kayo txikidxa. Ta bestela, zea, nola izena du...?
- Gabaia o...?
- Gabadxa, pardela.
- Pardela?
- Pardela. Batzuek gabadxa deitzen diyoe, bestiak pardela... hori atunetako hobia da, e?
- Antxuetako ez?
- Bai, antxuetako... baiña ez, pardeletan, zean ta bai, udaan ta bai. Hori geyenbat atunekin ta ibiltzen da. Atunak nola altxatu eiten duan zea, izurdia bezela, berdin-berdin. Atunek jan ber dunian, antxuek igesi iten du gora, ta orduan pardelak...
- Gabaidxa o martiña, o nola esaten dezue?
- Bueno, bat da martin txikiya, ta bestia gabadxa. Igualtzuak dia, baiña diferentia dia. Batzuek hega due gelditu gabia, ta gabayak du ibili ta zea, zea juten dana.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kostako herrien berezitasunak (GET-001/004)

Getariako euskarak antz handiagoa Zarauzkoarekin Zumaiakoarekin baino. Getariako baserriarrak euskaraz garbiago. Inguruko herri bakoitzak ditu bere berezitasunak euskara aldetik.

2. Hondarribiarrak nagusi bisigutan (GET-001/005)

Hondarribiarrak ez ziren bisigutan ibiltzen antzina, "kordakin", beste guztiak bai. Baina azken aldera hondarribiarrak bakarrik, kanaberarekin, eta asko harrapatzen zuten. Kanaberaren balantzeari "xaxiua" esaten zitzaion.

3. Getariarrak "trezekin", Hondarribiarrak geldirik (GET-001/006)

Desberdin arrantzatzen zuten bisigua. Hondarribiarrak geldirik egoten ziren, kanaberarekin. Getariarrak, berriz, tretzak erabiltzen zituzten, distantzia luzetan hedatuz boien bidez. Tretzak lotzeko "txitxak" erabiltzen ziren.

4. Arrastre-ontziek hondoko korala hondatu zuten (GET-001/007)

100 brazako sakoneran korala egoten zen hondoan ("kandelarioak"), meroa, itsas-kabra eta abar ugari egoten zen, baina arrastre-ontziek dena txikitu zuten. 1962 aldera gertatu zen.

5. Bisigutarako urte-sasoia noiz den (GET-001/009)

"Santa Katalina noiz da, bisigutarako goiz da", esaera. Urtarrilaren bukaera arte edo egiten zen. "San Anton besugo a monton". Bisigutarako aparejua, tretza, nola prestatzen zen.

6. Bisigutarako kalen izenak (GET-001/010)

Ordu eta erdiko bidea dago lehen bisigu-kalara. Kalen izenak: "Barrungo Kala", "Praiesu", "Gaztelu" eta "Ixxkote". Batetik bestera ibiltzen ziren.

7. Nola aurkitzen zituzten kalak (GET-001/011)

Zenbait zehaztasun tekniko bisigu-arrantzaz. Ez da oso ondo entzuten.

8. Arrastre-ontziek galdu zuten bisigua (GET-001/013)

Arrastre-ontziek eta pelagikoek galdu zituzten bisigua eta abar. Lehenago ezin zuten koral-lekuetan arrantzatu, baina sareei arrabolak jarri zizkieten eta koral guztia desegin zuten. Bestela oraindik iraungo zuen arrantza horrek.

9. Adelantuek beste arrantzak ere izorratuko dituzte (GET-001/014)

Asmazio berriek geratzen diren arrantzak ere izorratuko dituzte. Arrasteroak txarrak, baina pelagikoak okerragoak. Frantsesak hasi omen ziren Eskote puskatzen. Sareekin harrapatzen zuten, arrain asko hilda geratzen zen eta besteak uxatu egiten ziren.

10. Hondarribitarrek ere sarez (GET-001/015)

Hondarribitarrek ere sarez harrapatzen zuten. Arrantza mota horrek kalte handia egin zuen. "Sare bolantak" esaten zitzairen. "mailatutakoa" esaten zitzaion sarean mazpilduta geratzen zenari.

11. Arrastre-ontziek uxatu egin dute arraina (GET-001/016)

Arrastre-ontziek uxatu egiten zuten bisigua. Aurten berdela ere bai.

12. Amudun kordelak (tretzak) nola botatzen ziren (GET-001/017)

Aparaturik ez zegoenez, beste modu batera konpontzen ziren arraina non zegoen jakiteko. "Uraina". Kordelak nola botatzen ziren. Zehaztasun teknikoak.

13. Bisigu zozketa kaian (GET-001/019)

Loteak egiten ziren etxera eramateko arrantzaleentzat, eta kaian zozketatzen ziren.

14. Arrain-partiketa marinelen artean (GET-001/021)

Loteak egiten ziren: bana marinela bakoitzarentzat. Bisigu bat, kabrarroka, txitxarro... etab. Armadoreari marinela beste lote tokatzen zitzaion. Segun zer kala zen, arrain mota gehiago edo gutxiago.

15. Legatzak gusturik ez harrapatu berrian (GET-001/023)

Hasieran harrapatu berrian jaten zuten legatza, baina ez omen zuen batere gusturik, ura bihurtzen zen, eta gero ikasi zuten egun bat lehortzen izaten. Legatz handiak izaten ziren.

16. Bisigu-arrantza eguna nolakoa zen (GET-001/025)

Goizeko ordu bietan irten Ixkoteran, eta arratsaldeko bostak aldera itzuli, normalean. Barrungo Kalara ordu eta erdi, Ixkoteran lau. Gaztelura hiru.

17. Bisigu-arrantza gogorra eguraldiatik (GET-001/026)

Lan txarra bisigu-arrantza eguraldiatik, neguan egiten baitzen. Egunsentiarekin bat, "alba(ra)ko" hasten ziren lanean.

18. Lehengo marinela alaiagoak (GET-001/028)

"Neguko ogixa irabazi diu" esaten omen zuten mutrikuarrek karnata egiten zutenean. Lehengo marinela askoz ere alaiagoak omen ziren. Gutxiagorekin konformatzen omen ziren.

19. Patroiak bere sekretuak izaten zituen (GET-001/030)

Patroi bakoitzak bere arrantza-sekretuak izaten zituen. Zenbakiak ezagutzen ez zituen marinela baten anekdota.

20. Antxoa karnata onena bisigutarako (GET-001/031)

Antxua erabiltzen da bisigu karnatarako. Lantzoia ere ona da. Una batzuetan gaizki entzuten da denak batera egiten dutelako.

21. Deiadarren bidez abisua marinelei (GET-001/033)

Ahots indartsua zuen patroiairen anekdota. Txalupa-mutila ibiltzen zen marinelei itsasorako deitzen.

22. Lexikoa: txalupa-mutil, txotxo, txo... (GET-001/034)

Getarian "txalupa-mutil" esaten zaio, Orion "txotxua", Bermeon "Txo". Txalupa-mutilak errespetua, beldurra, marinelei.

23. 14 urterekin lanean hasi (GET-002/002)

14 urterekin hasten ziren legez itsasoan lanean, baina berez lehenago gehienetan. Partila banatzen zenean mutikoak ere joaten ziren "maxuenera", maisuarengana, armadorearen etxera.

24. Patroi baten esaera zebreak (GET-002/003)

Kaxildo armadorea zen eta Jenaro patroia. Arrantza ekartzen zutenean, "Kaxildok hainbeste arrai" esaten zuten, eta tretzak galtzen zituztenean, "Jenarok hainbeste tretza galdu".

25. Meza entzunda bisigutara (GET-002/005)

Goizeko 4etan meza entzunda irteten ziren itsasora zenbait egunetan.

26. Barkuen bedeinkazioa (GET-002/007)

Apaizak gainera igo eta isopoarekin bedeinkatzen zituen barku berriak. Eliza aurretik pasatzerakoan aitaren egin eta txapela kentzen zuten. Irteterakoan "Salbe!" esaten zuen patroiak.

27. Sareei santuen erlikiak zorte ona emateko (GET-002/009)

Sareei santuen erlikiak-edo josten zitzairen. Erramu Egunean erramua jartzen zen barkuan.

28. "Poitua" zer den esplikatzen da (GET-002/011)

"Poitua" edo "zakurrena" (Orion): 30 arroatik gora antxoa harrapatuz gero, hiru marinelentzat.

29. Alemanen gerra hasi eta arrainarekin dirua egin (GET-002/013)

II. Mundu Gerra hasi zenean hasi ziren dirua ikusten. Sardina kiloak 5 pezeta egiten zuen.

30. Harrapatutako antxoarekin zer egin jakin ez (GET-002/014)

Antxoa asko harrapatu zuten batean Zumaiako Beduara joan ziren eta baserriz baserri saltzen ibili. Gero Zumaiaren arranplara arrimatu eta hiru litroko ardo-zahatoaren truke laurogei arroa antxoa eman zituzten.

31. Karnata nola egiten zen (GET-002/016)

Urritik aurrera egiten zen karnata. Antxoa harrapatu, gazitu eta gorde. Papardotarako handiagoa eta bisigutarako txikiagoa. Lantzoia ere erabiltzen zen besterik ezean.

32. Lantzoiarekin ere karnata (GET-002/018)

Urte baten ez zuten antzo-karnatarik egin eta lantzoia erabili zuten eta ikaragarritzko arrakasta izan zuten bisigutan.

33. Lan egun bat antxoatan (GET-002/020)

Goizeko seietan irten eta gaueko hamabietarako (gehienez ere) etxean.

34. Antxoa ugari somatu zen aurreko urtean itsasoan (GET-002/024)

Iaz atunetan ibilitako arrantzaleek omen zioten antxoa asko markatzen zutela beren aparatuak. Antxoarik ez dagoela? Antxoa hori egongo da nonbait.

35. Lexikoa: gaztetan harrapatzen zituzten arrainak (GET-002/026)

Gaztetan txaluparekin arrantzan hasten zirenean txipiak, brekak, kabrak, txitxarroa... kanaberaz. Eta agureak, pantxoak... moila barruan. Dena galdu da. Pantxotik bisigua sortzen omen da. Allibuta ere antzekoa da baina azpian zerbait du beltza.

36. Ur garbia portuan (GET-002/028)

Ura garbia zegoen portuan, hondoa ere ikusten zen eta arrain asko ibiltzen zen. Kutsadurak dena aldatu du.

37. Gaztetan Paulo egunero itsasora arraunean (GET-002/030)

Eguraldi ona zen guztietan egunero joaten zen Paulo arrantzara aitarekin. Beti arraunean. "Aula", lantzoia bezalakoa, harrapatzen zuten dezente. Bost librako otarraina harrapatu zuen behin.

38. Harraldeko arrantza: "txangarrak" eta "sare-amarrak" (GET-002/032)

Nekorak "txarrak" ziren garai hartan. Ez ziren harrapatzen. "Txangarrak" eta "sare-amarrak" estimatzen ziren gehiago. "Arraldian" (haitzetan) "barbarak" harrapatzen ziren. Barbarinak-eta motor txikiaz.

39. Txalupamutilaren egitekoak (GET-003/006)

Txalupamutilaren egitekoak.

40. Mallako antxoaren arrantza (GET-003/007)

Normala izaten zen baserritarrak itsasoan laguntzera etortzea. Udaberrian etortzen ziren gehienetan antxoatara. Antxoa harrapatzeko modu bat zen mallarekin. Sarea botatzen zen ur-azalera eta gauez antxoak "mallatu" (sarean kateatu) egiten ziren. Era horretako arrantzan ibiltzen ziren gehienbat baserritarrak. Emakumeek libratzen zituzten gero antxoak sareetatik; despeska deitzen zitzaion. Lan gogorra izaten zen. Mallako antxoa hobe zela esaten zen, sangratu egiten zelako.

41. Antxoatako arrantza ardoran eta majuran (GET-003/013)

Otsail erdialdean hasten zen antxoatako arrantza eta ordurako ontziak prest egoten ziren. Sarea hartu eta ez zen beste traste gehiagorik behar izaten. Lehenbiziko antxoa (freskoa) Donostian saltzen zen eta geroagokoa fabriketarako izaten zen. Iluntzean irteten ziren eta gau osoa egiten zuten (ARDORAN). Gauez harrapatzen ez bazen egunez izurdeekin joaten ziren MAJURAKO arrantzara. Izurdea aurkitu eta hari jarraitzen zitzaion. Hark arrainak gora aterarazten zituen eta orduan sarea botatzen zen. Hasierako urteetan Zarauzko kosta inguru horretan ibiltzen ziren antxoatan (ardoran) eta nahiko antxoa izaten zen bertan. Lehen ez zuten inolako aparatuerik erabiltzen. ARDORA arrantza-moduaren izena nondik datorren. Harri bat (DANBARRIA) botatzen zen sokarekin lotuta uretara eta beldurturik antxoak mugitzean zuri-zuri ikusten zen ura. Arrantzarako zona onenak.

42. Astea 24 ordu bakarrik lehorrean (GET-003/014)

Aste osoa egiten zuten itsasoan: igandeko gauerditik larunbateko gauerdira. Sarea bustita ekarriz gero igande goizean hura lehortu behar izaten zen. Igande gauean elizako kanpaiaren zain egoten ziren denak itsasoratzeko. Gerora ostiral gauera arte ibiltzen ziren eta asteburua libre. Itsasoan gehiago irabazten zen lehorrean baino eta beraiek dirua izaten zuten, baina gastatzeko astirik ez. Igande arratsaldetan Zarautzera joaten ziren, baina 12etarako itzuli egin behar eta presaka beti.

43. Arrantzako prozesua urratsez urrats (GET-003/015)

Tostartekoen lan-banaketa; normalean bakoitzak bere lan finkoa izaten zuen. Itsasontziaren aurrean joaten zenak agintzen zuen sarea noiz bota uretara eta besteak prest egoten ziren. "Erria!" esan eta sarea botatzen zuten. Ontzia bueltan joaten zen eta gero makinilarekin sarea azpitik itxi egiten zen. Sarea eskuz jasotzen zen tiraka eta gorantz egin ahal ikusten zen zenbat arrain harrapatu zen. Txardanguarekin poltsa egiten zen eta bi zalabardorekin palketara (kaxa antzekoetara) husten zen arraina. Arrain asko zegoenean [munduak] erabiltzen ziren, salabardoa beheraino ez zen iristen eta. Maniobra osoa egiten ordubete inguru behar izaten zen. "Etxada" batean nahikoa bilduz gero portura joan eta benta zabaldu arte zain egoten ziren arraina saltzeko. Erabiltzen ziren neurriak arrua (20 kilo) eta kintala (50 kilo) (atunetan) izaten ziren.

44. Palkak nolakoak ziren eta zertarako erabiltzen ziren (GET-003/016)

Palkak antxoa husten zen kaxa antzekoak ziren. Lauki txikiak izaten ziren, antxoa ez mugitzeko barruan. Antxoatarako jartzen ziren palkak eta antxoa atera ahala txalupa-mutilek garbitu egiten zituzten. Bost arroa inguru kabituko ziren palka bakoitzean. sei kaxa inguru betez gero "poitua" egin zutela esaten zen.

45. Poituaren inguruko azalpenak (GET-003/017)

Poitua. Poitua zer zen. Arrain garestiena eramaten zen poiturako. Poiturako edo Partilarako izaten zen [arraina?]. Dirua normalean erdibana banatzen zen armadorearekin eta baita gastuak ere. Honen gaineko azalpenak.

46. Armadoreekin harremana lagunartekoa zen (GET-003/018)

Armadoreak getariarrak izaten ziren normalean eta baita arrantzaleak ere. Armadorea izaten zen patroia normalean. Beraiek harreman ona izaten zuten armadoreekin eta elkarrekin ibiltzen ziren. Andaluzia aldean armadoreak lehorrekoak izaten ziren eta beste kategoria batean egoten ziren, gainera. Tostartekoak nola hartzen ziren ontzirako. Bapore bakoitzean 2-3 lagun egoten ziren armadoreari ontziaren mantenuan laguntzen ziotenak: LAURDENEKUAK.

47. Arraina ontziratzearen inguruko azalpenak (GET-003/019)

POLTSA: arraina harrapatutakoan egoten den zorroa. Honen inguruko azalpenak. Salabardoarekin gero poltsatik hartzen ziren arrainak. Arrain gehiago bazegoen poltsa beherago geratzen ze eta [munduarekin] hartu behar izaten ziren. Gerora peskanteak jarri ziren, garabiaren antzera funtzionatzen zuten egiturak eta hura aurrerapen handia zen. Gaur egun zenbaitek txupoiarekin ateratzen dute arraina poltsatik.

48. Harizko sareak tindatu egiten ziren kontserbatzeko (GET-003/020)

Sareak ez ziren urtero aldatzen, baina poltsa egiterakoan gehien hondatzen ziren aldeetan zati berriak jartzen ziren. Emakumeek egiten zuten lan hori. Hasieran harizko sareak erabiltzen ziren, eta, erraz usteltzen zirenez, asteen behin atera egiten zituzten lehortzera. Kontserbatzeko tindatu egiten ziren. Galdara handi batean jartzen zen ura irakiten, hari tinda bota eta han sartzen ziren sareak. Txalupa-mutilak egiten zituen lan horiek. Gaur egun nylonezko sareak erabiltzen dira, gogorragoak. Sare gehienak marroi kolorekoak izaten ziren.

49. Sareen inguruko azalpenak: neurriak, nola bota... (GET-003/021)

Gauetz egiten zen antxoatako arrantzan sarea ur-azalean botatzen zen. Ze alturatan botatzen zuten sarea. Sareak ze neurri izaten zituen. Sarea berrogei metroan joaten zen ur-azpira eta gero gorantz harrapatzen ziren arrainak. Sareak goian kortxoa izaten zuen, eta behean "peuna". Eta gero, "txirritak" deitzen zieten aro batzuk, soka pasatzeko. Soka horrek ixten zuen sarea estutzean eta handik gorako arrainak hantxe harrapatzen ziren.

50. Majua: izurdearekin egiten zen arrantza (GET-003/022)

MAJUA. Egunez egiten zen arrantza-mota hau. Lehenbizi izurdea topatu behar izaten zen eta hari segitu. Halakoren batek hark arrainak ateratzen zituen ur-azpitik. Ontzi guztiak zain-zain egoten ziren eta izurdea ikusitakoan hurbilen zegoena azkar joaten zen sarea botatzera.

51. Txoriei begiratzen zitzaien arraina non zegoen jakiteko (GET-004/004)

Txoriei ere (batez ere glopei eta txirrinei) begiratzen zitzaien arrainak non zeuden jakiteko. Udaran atuna harrapatzeko gabaiei begiratzen zitzaien. Txirrinak nolakoak diren.

52. Poitoaren ohitura Alfonso Larrañagak ekarria Donostiatik (GET-004/006)

POITUAREN kontua Xabierren aitak ekarri zuen Donostiatik, han lehenagotik zegoen ohitura hori eta. Patroia zen aita: Alfonso Larrañaga.

53. Saltzen ez ziren arrainei ematen zitzaien irtenbidea (GET-004/007)

Saltzen ez zen arraina nekazariei saltzen zitzaien sororako, simaurretarako. Guardiarekin etortzen ziren bila. Beraiek ez dute ohitura hori asko ezagutu. Beraien garaian putzura botatzen ziren. Bestela, Donostian arrain-irina egiteko ere eramaten zen.

54. Arraina saltzearen inguruko kontuak (GET-004/008)

Otsailetik ekainera antxoatan bakarrik egiten zen. Tarteka beste arrain klaseren bat ere harrapatzen zen (berdela edo txitxarroa), baina oso merkeak ziren eta albo batera uzten ziren. Lehengo mentalidadea: arraina saldu ez arren, etxera etorri beharrean berriz itsasora joaten ziren gehiagoren bila. Egunean eguneko freskoa behar izaten zen saltzeko. Fabrikak irekitzen zirenean lasaitua hartzen zen, hara denak saltzen zirelako. Otarretan sartu eta gurdian eramaten ziren fabrikara.

55. "Antxoa gorritan" zeri deitzen zitzaion (GET-004/009)

ANTXOA GORRITAN: antxoak gora begira egoten ziren geldigeldi eguzkia hartzen bezala eta gorri-gorri ikusten zen.

56. Antxoatako arrantzaren inguruko kontuak (GET-004/010)

Antxoatan sarea botatzerakoan ez du garrantzirik itsasoak ze sakonera duen, garrantzitsuena antxoa ahalik goren egotea da. Hasieran ardoran uste zen sareak lurra jo beharra zuela antxoa harrapatzeko, baina ez zen hala.

57. Moilan "zanbullaka" ibiltzen ziren (GET-004/012)

Beraiek moilan hartzen zuten bainua. Bainujantzirik ez zen izaten eta zaku zaharren batekin bainatzen ziren. Buruz behera salto egiteari "zanbulla" deitzen zioten eta bestela "salto". Zanbulla nahikoa egindakoan harri bero-beroaren gainean egoten ziren lehortzen. Hondartzara joaten ziren kanpotarrei begira ere egoten ziren.

58. Portu zaharra, "Atxerridxa" (GET-004/013)

Moila zaharra ezagutu zuten (ATXERRIDXA), bertan enkailatzen zituzten ontziak. IMARAK eta POLTSEKUAK: ontziak lotzeko tresnak. Nolakoa zen portu zaharra. Astilleroa ere bertan zegoen.

59. "Elkanoren lehorretaratzea" irudikatzea aspaldikoa (GET-005/002)

Rufo 1957an hasi zen "Elkanoren lehorreratzean" parte hartzen, baina aurretik ere egiten zuten. Elkano joaten zen aurretik eta beste hiru atzetik.

60. Aita koruko eta bandako zuzendari (GET-005/004)

Aita eta osabak musikariak ziren. Aita koruko eta bandakoa zuzendaria eta txistularia zen. Aita arrantzalea zen eta itsasotik itzultzen zenean, bisigutatik, lanak amaitzen lagundu behar izaten zioten San Anton egunean jo egin behar izaten zuelako. Getariako bandakoek itsasotik etortzean larunbatetan entsaiatu behar izaten zuten.

61. Bandak igandero jotzen zuen plazan negu partean (GET-005/006)

Bandak igandero jotzen zuen plazan. Bina piezako hiru txanda egiten zituen bandak eta tartean gramola eta txistua egoten ziren. Jende nagusiak denak dantzan ibiltzen ziren, baina gazteak Zarautzera joaten ziren. Negu partean bakarrik jotzen zuen bandak, udaran atunetara joan behar izaten zen eta.

62. Giro bila Zarautzera (GET-005/008)

Gazteak Zarautzera joaten ziren giro hobea zegoelako eurentzat eta gurasoek ez ikusteagatik. Joan-etorriak askotan oinez egiten zituzten. Gerora "Nahia" izeneko taberna zabaldu zuten eta handik ordu txikitan ateratzen ziren. Beraiek, arrantzaleak izanik, zarautzarrek baino diru gehiago izaten zuten. Pixka bat nagusitu zirenean, kotxea zutenez, larunbatean joaten ziren Zarautzera eta nahi zutenean itzuli.

63. Gazte-gaztetatik itsasoan lanean (GET-005/010)

Bisigutara joatea gogorra izaten zen. 13 urterekin hasi zen itsasoan lanean eta 14rekin enrolatu. Hiru urte inguru egin zituen bisigu garaian sotoan tretzak betetzen eta 17 urterekin itsasora atera zen. Patrioiek gazteak eramatea nahi izaten zuten. Orduan 50 urtekoa zaharra ikusten zen, janzkeragatik edo. 65 urte ingururekin uzten zitzaion itsasora joateari. Berak 55ekin utzi zuen.

64. Gaur egungo egoera; arrain-klaseak galtzen (GET-005/016)

Gaur egungo egoera. Antxoaren gorabeherak ez direla normalak uste du; urte batean antxoa txiki ugari eta hurrengoan batere ez. Bisigua ere oso gutxi ikusten omen da. Galtzen ez dena lasuna da, inork ez du harrapatzen eta. Arrain-klase asko ari omen da galtzen.

65. Goizean mezalagun, tretzak betetzen aitari lagundu, eta arratsaldean eskolara (GET-005/017)

13 urterekin hasi arren itsasoan lanean, aurretik ere aitari laguntzen ibiltzen zen. Lehenbizi monagilo lanak egiten zituen, eta gero aitari laguntzen zion tretzak betetzen. Handik eskolara joan behar izaten zuen; baina, sarritan,

eskolara beharrean, baserrira joaten zen lehengusuarengana taloak jatera. Arratsaldean, eskolara joaten zen. Dotrina euskaraz ikasten zuten, baina eskola erdaraz.

66. Bi urte Cadizen soldadutzan (GET-005/018)

Soldadutza Cadizen egin zuen. Sakristau gisa egon zen hirurogei mila biztanle zituen hiriko elizan. Bi urte egin zituen han. Diruz gaizki ibiltzen ziren. Berari arrebak 40 duro bidaltzen zizkion hilean, baina sarritan etxean dirurik ez eta han zeudenei ezin bidali. Bi urtean bi baimen bakarrik izan zituen. Hiru egun tardatzen zituen etxera etortzen Madrildik bueltan. Itsasotik aparte oso bidaia gutxi egin omen ditu kanpora.

67. Udaletxe ondoan eskolak don Fernando irakaslearekin (GET-005/020)

Udaletxe ondoan zen eskola eta herriko neska-mutiko guztiak bertan ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Maisua don Fernando zen, kanpotarra. Gaztelaniaz ez zekiten, baina klaseak hala izaten ziren.

68. Monagilo-lanak; organistaren inguruko kontuak (GET-005/021)

Monagilo egiteko latinez ikasi behar izan zuen. Zazpi-zortzi urterekin hasi zen monagilo lanetan anaiaren ordeaz, hau itsasoko lanetan hasi zenean. Aita koroko zuzendaria zenez, organistaren bitartez sartzen ziren monagilo lanetan. Solfeoa ere ikasten zuten bazkalaurretik. Organistari hiru litro ur ekarri behar izaten zizkioten egunero Iturritxikitik. Monagilo-lanak zeintzuk izaten ziren.

69. Egunean lau meza; apaiz bakoitzak bere monagiloak (GET-005/022)

Bera egon zenean lehenbizi zegoen apaiza don Tomas Zupiria zen. Hura Donostiara joan zenean don Andoni Andonegi mutrikuarra etorri zen Kubatik. Egunean, lau meza izaten ziren. Apaiz bakoitzak bere monagiloak izaten zituen. Bera beti goizeko 6ak eta erdietako mezan egoten zen. Igandetan jende gehixeago egoten zen, baina astegunean ia inor ez.

70. Umetatik arrantzan pantxotan (GET-005/023)

Umetan hasi ziren eurak arrantzan pantxotan, 7-8 urterekin. Pantxo nahikoa izaten zen, baina etxean oliorik ez hura frijitzeko. Ama arraina saltzera joaten zen eta diru harekin etxerako behar zituenak erosten zituen. Txaluparekin ere joaten ziren harri bila.

71. Bizimodua ateratzeko itsasoan lan egin eta lurrak landu (GET-006/001)

Sebastian Aranguren Ulazia 1922ko abenduaren 18an jaio zen udaletxe azpialdeko kale batean. Gurasoak biak getariarrak zituen, biak Askizu inguruko baserrietakoak. Ezkondukoan gurasoak kalera etorri ziren bizitzera. Bizimodua ateratzeko itsasoan hasi zen lanean aita, baina herriarenak ziren lur-zatiak ere lantzen zituzten, gaiak lortzeko. Arrantzale gehienek zuten lur-zatiren bat.

72. Arrantzale familiek lur-sailak zituzten San Anton mendian (GET-006/002)

Arrantzaleek lur-zatiak izaten zituzten San Anton mendian. Neguan patata jartzen zen aurrealdean. Bera mutikoa zen eta peontza lanak egitearren (bideak garbitu, ingurua txukundu...) merienda ematen zieten. Beste bat izenak apuntatzen jartzen zuten arkatza hartuta. Arrantzale familia bakoitzak bere lur-pusketa izaten zuen lantzeko. Beraiek patata jartzen zuten, baina denetarik jartzen zen.

73. Askizuko eskolara egunero (GET-006/006)

Askizura joaten zen eskolara. Gurasoak hangoak zirenez, hara joaten zen eta eguraldi txarra zenean bertan lotan geratu. Eskolan dotrina eta gauza oinarrizkoak ikasi zituzten. Bere kontura askoz gauza gehiago ikasi dituela dio. Errepublikara garaian eskolan zegoen gurutzera kendu omen zuten. Doña Maxima errioxarra zen Askizuko irakaslea. Ume-umetan Avelina getariarrarekin ibili zen eskolan. Beste irakasle batzuk.

74. Zira zaharrenekin bainatzen ziren (GET-006/015)

Neguan gazte-koadrilek txabolak egiten zituzten leku ezkutuetan. Pixka bat nagusiagotan moilan hasi ziren entretenimendu bila. "Poliñean". Bainuak ere hartzen zituzten uretan, baina ez zuten bainujantzirik izaten, arropa zaharrekin edo zaku zaharrekin bainatzen ziren.

75. Lehenbiziko dutxak (GET-006/016)

Lehenbiziko aldiz non dutxatu zen Sebastian. Gerora, udaletxe inguruan jarri zituzten dutxak; eta, pilotan jokatu eta izerditutakoan, hara joaten ziren dutxatzera ur hotzarekin. Jesuita bat bainatzera zihoanean izan zuten elkarrizketa.

76. Herrikoak ez ziren hondartzan bainatzen (GET-006/017)

Herrikoak hondartzan gutxi bainatzen ziren, beti moilan. Ze entretenimendu izaten zituzten txaluparekin. Hondartzan neguan harriak egoten ziren eta udaran harea. Hondartzan egon diren aldaketak.

77. Arrain-beltza arrantzatu zuteneko kontakizuna (GET-006/020)

Arrain-beltz handi bat arrantzatu zuteneko kontakizuna. Kakoekin arrantzatu zuten 200 kilo inguruko arrain-beltza. Azala latza izaten du arrain-beltzak eta besoak urratuta geratu zitzaizkien.

78. Atunetara joan eta orka harrapatu (GET-006/023)

Atunetan zebiltzala, orka bat harrapatu zuteneko kontakizuna. Esparroiak ezagutzen zituzten, baina orkak ez. Esparroiak azaldutakoan, seinale izaten zen atunik ez zegoela, atunek haiengandik ihes egiten zuten eta. Atunari kolpe egin zioten eta orka azpian. Burdinazko arpoi bat sartu zioten, baina izugarrizko indarra egiten zuen eta itsasontzia ere mugitu egiten zuen. Barkura igotzea zaila izango zela eta, zegoen lekuan zatitzen hasi ziren. Marru egin zuenean, arpoia ahotik sartu zioten. Izurdearen antzeko haragia omen du jateko.

79. Esparroiaren eta orkaren ezaugarriak (GET-006/024)

Esparroiak eta orkak familiakoak dira. Esparroiak bizkarrean ezpata handi bat izaten du. Orkaren eta esparroiaren deskribapenak. Sebastianek arrantzale nagusiagoei entzun izan die esparroiak izurdeak buruarekin bota eta ezpatarekin ebakitzen dituela. Berak ikusiak ditu izurdeak ihesi eta esparroiak segika.

80. Arrantzako kontakizunak (GET-006/025)

Arrantzako kontakizuna. Urrutira zerbait antzeman zuten; eta, hurbiltzean, zer arrain klase zen ez zuten ezagutu, baina hegalkada handiak jotzen zituen. Ingurua gorri-gorri zuen, dena odolduta. Bi arrain-zuri zituen harrapatuta, bata jaten ari zen eta bestea preso zeukan. Preso zegoena euren barku azpian sartu eta eurei segika alde egin zuen. Arrain-zuria zuri-zuria izaten zen. Izurdeen familiakoa da, ugaztuna. Lehenago asko ikusten zen. Baleak, izurdeak eta atunak elkarrekin ondo konpontzen dira. Atunetara joan eta balea ikusi zuteneko kontakizuna.

81. Mazopa eta izurdeen inguruko kontuak (GET-006/026)

Mazopa asko zen lehenago; hauen inguruko kontuak. Izurdeak elkarren artean komunikatu egiten omen dira. Izurdeek sen handia dutela uste du. Izurdeen inguruko kontuak. Soinu handia ateratzen dute. Mazopak gaiztoak izaten omen ziren. Mazopen inguruko esaera.

82. Mazoparri eta Balearri izenen jatorria (GET-006/027)

Mazoparri leku-izena nondik datorren: masopa bat bertan enkailatu zelako omen dauka izen hori. Antzeko kasua da Balearri faroaren azpian dagoen leku-izenarena. Mazopak izurdeen antzekoak izaten dira.

83. Tronpa arrainaren inguruko kontuak (GET-006/028)

Tronpa: izurdea baino handiagoa den arrain beltz buruhandia. Sebastianek azkenengo aldiz itsasoan ikusi zuenik gauza bitxiena: arrain handi bat hilda eta tronpa ugari inguruan, bueltaka hileta egiten ariko balitzaizkio bezala.

84. Eguraldi-aldaketak antzemateko zantzuak (GET-007/001)

Arrantzaleak eguraldi txarra egiteko zain egoten ziren deskantsatzeko. Lehen ez zuten jakiten noiz zetorren eguraldi txarra. Gutxi gorabeherako iragarpen bat jakiteko Frantziako iragarpenak entzuten zituzten. Igeldon apaizen bat ba omen zegoen lehenago eguraldia iragartzen zuena. Eguraldi aldaketei antzemateko kontuan izaten zituzten zantzuak.

85. Itsasoan iparra zegoenean, kostan eguraldi ona (GET-007/003)

Egingo duen eguraldia antzemateko zantzuak. Itsasoan iparra zegoenean, kostan eguraldi ona. Honen inguruko kontuak.

86. Petrolio-ontzi bati buruzko gertakizuna (GET-007/004)

Sebastianek gaztetan ikusitako gertakizuna kontatzen du. Petrolio-ontzi handi bat zuzenean omen zetorren moilara eta azkenengo unean okertu zuen norabidea.

87. Motor batek kolpatu zueneko gertakizuna (GET-007/005)

Paulok berari gertatutako kasuak aipatzen ditu. Behin, txibitan geldirik zegoela, beste motor batek kolpatu zuen bere ontzia.

88. Ontzi batek bestea kolpatu zueneko gertakizuna (GET-007/006)

Sebastianek berak ikusitako gertakizuna kontatzen du: eguzkiaren argitasunarekin ikusi ez, eta herriko ontzi batek bestea kolpatu zuen. Honen inguruko azalpenak.

89. Moila eta "Katrapuna"; moila zaharra (GET-007/008)

Kaiari "moilla" deitzen diote. Hala ere, moilako txoko bati "Katrapuna" deitzen zioten lehen, nahiz eta gaur egun "Artape" deitu. Moillako arkupeak noiz eta nork egin zituen. Moilla zaharra nolakoa zen.

90. Tronpapeko iturriko kanta (GET-007/015)

Sebastian bizi zen azpian (Tronpapien) iturri bat omen zegoen. Emakumeek arropa garbitzera joaten zirenean kanta abesten zuten: "Tronpapeko iturriak baleki hizketan..." Ze emakume joaten ziren arropak garbitzera iturrira.

91. Garai bateko eta oraingo alde arrainaren prezioan (GET-007/017)

Garai batean aparatirik gabe harrapatzen zen arraina, baina diru gutxi ordaintzen zen. Asko harrapatuko balitz, sororako erabiliko lukete arrain hura. Gaur egun arraina garesti dago, gutxi harrapatzen delako. Antxoaren arazoa mundu guztikoa dela aipatzen dute, ez soilik hemengoa.

92. Mutikotatik antxoa fabrikan lanean (GET-007/019)

Antxoa fabrika ugari ziren lehen eta bodega gehienetan egiten zen antxoa. Mutikoak 8-9 urte zituztenerako fabrikan hasten ziren lanean antxoei burua kentzen. Sebastian eta Paulorekin dagoen lagunak hainbat istorio kontatzen ditu.

93. Atuna, edozein erataria jan daitekeen arraina (GET-007/020)

Kontserbako antxoa eta atuna konparatzen dituzte, zapora aldetik. Sebastianek dio atuna izango dela itsasoko arrainik onena, edozein erataria prestatuta goxoa delako jateko. Beraiek sarritan egosita ere jaten zuten. Kontserbako atunak antxoak baino askoz gehiago irauten duela diote. Garrantzitsua izaten zen atun-latak ondo istea. Honen inguruko kontuak.

94. Gerra denborako gertakizuna (GET-007/023)

Paulok gerra denborako gertakizuna kontatzen du. Gauz Frantzia aldera alde egin zuten eta pelikuletan moduan izan omen zen. Koltxoiak jarri zituzten barkuan, tiroetatik defendatzeko.

95. Gerra denborako gertakizuna plazan (GET-007/024)

Sebastianek gogoan du gerra denboran plazan gertatutakoa. Milizianoak goietan egoten ziren, fusilekin tiro egiteko prest. Plazan gazte ugari omen

zegoen (nazionalistak). Gazte horietako batek, bularra bistan jarrita, tiro egiteko esaten omen zien goian zeudenei.

96. Gerrako lehen egunetako bizipenak (GET-007/025)

Gerra denborako bizipenak. Gerra hasi zen hasierako egunetan, une txarrak pasa zituzten. CNTkoek gasolinari su eman nahi zioten eta herriko batek geldiarazi zituen. Gero San Roke aldera joan eta kotxe bati su eman zioten gasolina potera tiro eginda.

97. "Paloma mensajera"-k barkoetan (GET-007/029)

Garai batean atunetan ari zirela "paloma mensajera"k asentatzen zitzaizkien barkuan. Batzuetan jan egiten zuten, baina beste batzuetan komandantzian entregatzen zen, ze ibilbide egin zuen jakin nahi izaten zutelako. Sebastian honen inguruko gertakizuna kontatzen hasten da (baina moztu egiten da).

98. Meagako erromeria (GET-008/002)

Meagara joaten ziren erromeriara; inguruetako erromeria ezagunena zen. Barrentzo Zarauzko soinujolea izaten zen jotzen. Lehen erromeria goizago izaten zen. Erromeriara aurretik bezperetara joan behar izaten ziren. Hijas de María kongregaziokoa izanda pieza bat dantza egitearren Mariari gertatutakoa. Joxe bizikletan joaten zen Meagako erromeriara.

99. Eitzako baserri batzuk Zarautzera jotzen dute eta besteek Getariara (GET-008/004)

Eitza auzoan bertan aldea dago baserrien artean. Adibidez, Gaztaka baserriak Zarautz aldera jotzen du eta eurenak Getariara. Beraiek Zarautzerako joera gutxi izan dute.

100. Tratuarekin Zarautzera plazara (GET-008/005)

Esnea saltzera Zarautzera azokara joaten ziren. Getarian ere saltzen zuten plazan, baina Getarian gutxi saltzen zen. Gainontzean, Azpeitira eta Eibarrera ere joaten ziren.

101. Eitza auzoa; bideak (GET-008/008)

Lehen pinu asko zen Eitza inguruetan. Biderik ez zegoen. Eitza auzotik Getariara nondik zegoen bidea. Garai batean farolarekin edo karburoarekin ibiltzen ziren bideetan argi egiteko.

102. Arropak albergan garbitzen ziren (GET-008/009)

Arropa guztiak eskuz garbitzen ziren albergako harrian xaboiarekin. Ez zegoen gaur beste arropa eta ondo zaintzen ziren. Mariak ez du lixibarik egin izan, baina gogoratzen du bere jaiotetxean bazela lixiba egiteko tina eta bere aurrekoek egiten zutela.

103. Aizarnazabalera errotara (GET-008/010)

Auzo asko daude inguruan. Goizean, artoa aletu eta bi zakukadarekin Aizarnazabalera joaten ziren errotara. Bidezidorretik oinez joaten ziren. Getarian ere bazegoen errota, baina txikia zen eta Aizarnazabalera joaten hasi ziren. Errotara joatea debekatuta zegoen garaian, goizaldean joaten ziren.

104. Txerria isilean hil behar (GET-008/011)

Gerraostean, txerria isilean hil behar izaten zen. Txerria hil, gazitu eta ganbaran jartzen zen lehortzen.

105. Gerra garaiko kontuak (GET-008/012)

Gerra garaia gogorra izan zen. Soldaduak egun batez inguruan izan zituzten. Estraperloko kontuak.

106. Txakolina eta sagardoa egiten zituzten (GET-008/015)

Txakolina beti egin izan dute baserrian, baina etxerako bakarrik. Aurrekoek ere egiten zuten. Sagardoa egiten zuten txakolina baino gehiago eta hura saldu ere egiten zuten Zarautzera edo Getariara. Ezagunei banatzen zieten gehienbat.

107. Txakolina nola egiten zen (GET-008/016)

Etxerako beti egin izan dute txakolina. Dolarea zuten etxean eta bertan egiten zuten dena. Txakolina nola egiten zen. Sobratzen zen patsa kanpoan botatzen zuten.

108. Arraina botatzen zen soroan lurra indartzeko (GET-008/017)

Saltzeko balio ez zuen antxoa txikia baserrietara eramaten zen soroan botatzeko. Lurra indartu egiten zuen, baina izugarrizko usaina botatzen zuen. Baserritarrak joaten ziren gurdietan tina handiak hartuta antxoan bila. Gurdia idiekin edo behiekin erabiltzen zen garraioetarako. Lurra goldatzeko lau behi erabiltzen ziren goldeari tiraka; idiekin bi nahikoa izaten ziren.

109. Argia beti izan dute, baina ura errekatik (GET-008/018)

Elektrizitatea ez dute beti ezagutu, baina nahiko argi ona izaten zuten. Etxe ondoan zuten transformadore modukoa eta beraiek ematen zuten argia. Ur-korronterik, ordea, ez zuten izaten eta erre kara joan behar izaten ziren. Maria ontzi bat buruan eta bestea eskuan zuela joaten omen zen uretara. Emakumeen lana izaten zen ura ekartzea.

110. Inguruko jaiak: San Isidro eta Santa Barbara (GET-008/020)

Inguruko jaiak: San Isidro Meagan eta Santa Barbara. Elkano, Askizu eta San Prudentzio pixka bat aparte gelditzen zitzaizkien eta ez zuten harako ohiturarik. Herriko jaietara ere gutxi joaten ziren.

111. Harakina etortzen zen txerria hiltzera (GET-008/023)

Etxean beti izaten zuten txerria. Txikia ekarri eta etxean hazten zuten eta udazken-negu aldera hil. Goserik ez zuten pasatzen hari eskerrak. Getariako harakina etortzen zen txerria hiltzera.

112. Baserriko bizimodu gogorra (GET-009/002)

Arroa goikoko baserri batean bizi izan zen mutikotan. Baserrian ez omen dago jairik, abereei kasu egin behar zaie eta. Baserriko bizimodua gaur egun asko aldatu da.

113. Txakolinaren gaitza; saihesteko modua (GET-009/007)

Txakolina. Beti izan dute mahasti zati bat eta beti ezagutu izan du txakolina. Lehen sulfatoa potea bizkarrean hartuta botatzen zitzaien gaintetik. Sufrea, berriz, azpitik ematen zitzaion hauspoarekin. Hau arriskutsua zen begiak erretzeko arriskua zegoen eta. Txakolina gaitzak ez hartzeko botatzen zitzaion hori. Txakolinaren gaitz konkretu bat deskribatzen du.

114. Mahastiaren lana garai bakoitzean (GET-009/008)

Txakolinaren lanak garai bakoitzean. Neguan podatu eta hesolak txukuntzen zaizkio. Udaberrian botika ematen zitzaion eta udaran ere berdin. Sufrea 3-4 alditan eman behar izaten zitzaion. Neguan edo udaberri aldera aitzurtu eta simaurtu egin behar izaten lurra. Lurra ontzeko antxoa edo sardinak ere botatzen ziren.

115. Mahatsa biltzeko garaia (GET-009/009)

Pilarika inguruan batzen zen mahatsa. "Podaizea"-rekin batzen zen mahatsa zestoetara; gaur egun kaxak erabiltzen dira.

116. Mahatsa ondo zaintzeko jarraibideak (GET-009/010)

Mahatsa zaintzeko ondo begiratu behar zaio. Hosto puntak begiratzen dira gaitza duen ikusteko. Gaur egun traktorean litro asko jarrita botatzen da sulfatoa. Sulfatoa lehor dagoenean bota behar da, bestela ez du ondo hartzen.

117. Klean saltzen zen txakolina txotxean (GET-009/012)

Kale-baserrietakoek klean edo ikuiluan barrika jarri eta txotxean saltzen zuten txakolina. Basoa 3 txakur haundi kobratzen zela uste du.

118. Haizeak gogor jotzen du itsasotik Getarian (GET-009/015)

Jendeak Getaria paraje ederra dela uste du; baina, eguraldi txarra denean, ez da paraje ona, haizeak itsasotik gogor jotzen du eta. Bere iloba baten senarrarekin gertatutako anekdota.

119. Olagarroak harrapatzeko teknika (GET-009/017)

Harraldera joaten zen lapatara edo olagarrotara. Olagarroak "zigorrarekin" harrapatzen zituzten, puntan zerbait jarrita (urdai-azala edo). Askok ibili behar da harririk harri olagarroak harrapatzeko.

120. Inguruko txori-klaseak (GET-009/019)

Ehizarako zaletasuna izan du. "Gastrorizuak" (tordo campanario) egoten dira asko inguruetan. Pikuak eta udareak jaten dituzte amorratuta. Patxizarrak (gorrión) ere gaiztoak omen dira, etxean sartu eta aleak jaten dituzte eta.

121. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak (GET-009/021)

Soldadutzan hiru urte egin zituen. Boluntario joan zen Donostiara. Nora zihoazen jakin gabe, gauzak prestatu eta irten ziren. Lehenbizi Irunera joan ziren. Han zalditerian jarri zuten eta zaldi eskasa tokatu zitzaion. Handik Lesakara joan ziren. Zaldiak ondo gobernatzen ziren, baina eurak gose ziren. Taberna batean sardina zaharrak aurkitu zituzten; haiek jan eta ardoa edanda,

mozkortu egin ziren. Gau horretan, mandaskan lo egin zuen. Diana goizean goiz jotzen zieten. Kafea gaztaina-saldaren kolorekoa izaten zen.

122. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak (GET-009/022)

Makisen kontra ibili zen soldadutzan. Beraiek ez zuten tirorik bota, baina euren aurrekoek bai. Lesakatik Elizondora joan ziren. Zerbait jan eta arboladi batera erretiratu ziren, manta zahar batzuk hartuta. Ekaitza etorri eta lastoz betetako mandoen gurdietara joan ziren lotara. Hurrengo egunean, Arizkunera heltzen ari zirela, elurra egin zuen. Botak min egiten ziotela-eta, alpargatak zituen Joxe Marik. Urdaxera joan ziren handik zehar.

123. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak (GET-009/023)

Bera baserritarra izanik, berarentzako moduko lanak ematen zizkieten. Amaiurko alkatearen etxera bidali zuten lanera, eta 40 egun egin zituen han. Batailoia zetorrela-eta, Urdaxen aurkezteko agindua jaso zuen. Hara joan, eta hura ez zela berarentzako tokia; horregatik, Lekarozera joateko esan zioten. Hiru egun ezkutaturik egin zituen han, baina gero 22 hilabete pasa zituen bertan. Desmadre handia zegoen Lekarozen, nahi zuenak nahi zuena egiten zuen.

124. Arrantzale eta baserritarren euskara desberdina (GET-009/024)

Arrantzaleek eta baserritarrek hizkera zertxobait diferentea dutela uste du. Zumaiarrek ere pixka bat desberdin egiten omen dute, baina Arroan eta Askizu inguruan Getarian moduan egiten da.

125. Untxiak baratzeko jeneroa jaten zuten (GET-009/025)

Ehizarako zaletasuna izan du. Hegaberak asko izaten ziren garai batean. Erbiak ere ibiltzen ziren inguruetan eta erbitan edo untxitan ere ibilitakoa da. Untxiak baratzeko gaiak jaten zituzten.

126. Basoko piztiak; katamuxarrak (GET-009/026)

Beste piztia batzuk: erbinudeak; azeriak; katamuxarrak; kattagorriak. Katamuxarren deskribapena. Kattagorri gutxi dago inguruetan. Bere koinatuari katamuxarrarekin gertatutako anekdota. Jan egiten zituen katamuxarrak koinatuak. Basakatuen inguruko kontuak. Soldadutzan Maian egon zenean azeriak hil izan zituen alkatearen eskopeta zaharrarekin.

127. Txori-izenak (GET-009/028)

"Basoilo" edo "mendi-oiloak" gutxi ikusi izan ditu. Behin hil omen zuen bat. Zapelaitzak; beleak, kabirai txikiak... Itsasoko hegaztiak: kurriloak, kulixkak... Inguruetan gehien ikusten diren txori-motak.

128. Askizuko eskola; irakaslea Logroñokoa (GET-010/003)

Askizuko eskola eliza eta Eugeniaren etxearen artean zegoen, gaur egun elkarte dagoen lekuan eta bertara joaten ziren inguruko baserrietakoak. Irakasle ona zuten, Logroñokoa baina Getarian bizi zena Zabala baserrian. Klase partikularrak ere ematen zituen iluntzetan.

129. Doña Paz irakaslea (GET-010/004)

Sabina kalean ibili zen eskolan doña Paz irakaslearekin. Falangista omen zen eta sartu orduko Cara al Sol abesten zuten. Antxoei burua kentzen lan egin behar izaten zuten eta eskolara gutxi joaten zirenez, joandakoan makilakadak jasotzen zituzten. Irakasle gogorra zen. Senarra ere irakaslea zen eta kanpokoak ziren. Gauza oinarrizkoak ikasten zituzten eskolan. Irakasle asko "entxufatuta" etortzen zirela uste dute. Mutilen eskolan egon zen irakasle batek ezer ez omen zekien.

130. Askizuko irakaslea: doña Maxima (GET-010/005)

Eskolan gaztelaniaz hitz egin behar izaten zuten, bestela zigortu egiten zituzten eta. Askizun zegoen irakaslea (doña Maxima) ere kanpotarra zen, baina "suabea" zen.

131. Baserrian maiorazgoarentzat izaten zen dena (GET-010/006)

Eugeniaren etxean 8 senide ziren eta Sabinarenean 10. Baserrian maiorazgoarentzat izaten zen dena eta besteak hara edo hona joan behar izaten ziren lanera.

132. Bakoitzak abrigu bat eta zapata pare bat (GET-010/007)

Lehen ez zen arroparik aldatzeko aukerarik izaten; igandetan arropa hobetxoak, baina bestela arropa berdinarekin. Erromeriara oinetako zaharrekin joan, han ibiltzeko berriak jantzi eta etxerakoan berriz zaharrak. Oso arropa gutxi izaten zuten lehen, bakoitzak abrigu bat eta zapata pare bat.

133. Lehen gehiago begiratzen zitzaion auzokoari (GET-010/008)

Seme-alaben heziketa etxekoen araberakoa dela diote. Lehen gehiago begiratzen zitzaion auzokoari, zer egiten zuen, nola jantzita zegoen... Lan egin behar izaten zuten umetatik eta ez zuten etxekoekin hitz egiteko astirik izaten. Lehengo bizimodua zeharo desberdina zen, ez zegoen gaur egungo erraztasunik. Xaboa beraiek egiten zuten etxean. Olorrik ez zuten izaten (errazionamentua).

134. Neska-mutilak pilotan Askizuko frontoian (GET-010/009)

Frontoiaren atzealdean kanikatan ibiltzen ziren. Xakaponak. Sokasaltoa. Eugenia pilotan aritzen zen auzoko neska-mutilekin Askizuko frontoian. Bera oso abila omen zen. Ez dituzte sokasaltoko abestiak gogoratzen.

135. Francoren garaian altabozetik jartzen zuten musika plazan (GET-010/010)

Igandetan 10tan meza nagusia izaten zen eta ordu laurden lehenago txistulariak pasatzen ziren meza iragartzeko. Gero musika bandak jotzen zuen berdura plazan. Francoren garaian banda kendu eta altabozetik jartzen zuten musika plazan.

136. Arrain nahikoa zutenez, haragia nahiago (GET-010/012)

Taloak egiten zituen amak eta arrautzak edo katilukada esnearekin jaten zituzten gosaritan baserrian. Bazkaltzeko babarruna urdaiarekin. Kanean ez zen egoten baserrian beste janari. Jai egunetako menua garbantzuak eta zopa eta bakailao-patata edo haragi-patata izaten zen. Arrain nahikoa izaten zen lehen eta haragia nahiago izaten zuten. Eugeniren osaba barkuko patroia zen eta hark ekartzen zien arraina.

137. Soineko luze-luzeekin bainatzen ziren hondartzan (GET-010/014)

Hondartza zaleak izan dira beti. Antxoa-lanera sartzerako hondartzara joaten ziren, goizeko 7tan. Izara zahar batekin lehortzen ziren. Jesuitek aldatzeko txabolatxo batzuk izaten zituzten eta bertan aldatzen ziren. 11ak aldera beraneanteak etortzen ziren eta haiek etortzerako herritarrek alde egin behar. Orduan dena zen bekatu eta meza eta bezperetara joan beharra izaten zuten. Bainujantzirik ez zutenez soineko luze-luzeekin bainatzen ziren.

138. Herriko jaiak eta Meagako erromeria (GET-010/015)

Jaietan, frontoian txaranga egoten zen. Limonadak saltzen zituzten orduan edateko. Dantzan zebiltzala gertatutako anekdota kontatzen du Sabinak. Salvador eta San Anton festak ospatzen ziren. Gerraostean, gramola jartzen zuten plazan. Meagako erromeria. Baserriko jendea igandero joaten zen erromeriara.

139. Pelikula bat ikusteagatik kongregaziotik bota zuten (GET-010/016)

Mutilekin ligatzeko modu bakarra erromeria izaten zen. Hala ere, mutilekin dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten neskak. Sabina pelikula bat ikustearren bota zuten kongregaziotik.

140. Meagako erromeria (GET-010/017)

Meagako erromerian jende ugari biltzen zen.

141. Udaran komedianteak egoten ziren plazan (GET-010/024)

Udaran komedianteak etortzen ziren plazara eta umeak haiek etortzeko zain egoten ziren. Lehen herri hila omen zen Getaria eta gaur egun umeek edozer egiteko askoz aukera gehiago dutela komentatzen du Sabinak.

142. Matxitxakoko itsas bataila bizi izan zuen bere senarrak (GET-010/026)

Gerra garaian, bere senarra eta beste marinel batzuk Santurtzi ingurutik bakailao-ontzi txiki batean irten ziren, eta aurre egin zioten Canarias gerrako itsasontziari. 50 lagunetatik 18 geratu ziren bizirik, euren artean bere senarra.

143. 'Canarias' ontziko komandanteak atera zituen kartzelatik (GET-010/028)

Matxitxako inguruan izan zen bere senarraren ontziaren eta Canarias gerrako itsasontziaren arteko bataila. 50 lagunetatik 18 atera ziren bizirik. Bizirik geratu zirenak preso hartu zituzten. Bere senarrak 20 hilabete egin zituen

preso heriotza-zigorra jarrita; eta, azkenean, Manuel Caldera'n Canarias itsasontziko komandanteak atera zituen kartzelatik. Hiru getariar zihoazen Bou Nabarra itsasontzian.

144. Herriko emakumeak "Margarita" (errekete) jantzita gerra garaian (GET-010/029)

Gerra oso presionatuta bizi izan zuten. Komandante bat etortzen zen, fusila hartuta, meza nagusira. Zenbait emakume derrigortu egiten zituzten "Margarita" (erreketea) janztera. Bi emakume garaienak jartzen zituzten Espainiako bandera eta falangekoa eramaten; eta, atzetik, umeak egurrezko fusilekin Cara al Sol abesten.

145. Aldamar jauregiaren ingurua nolakoa zen (GET-011/001)

Getaria asko aldatu da. Kaleak ez dira asko aldatu baina bai portua eta herri gainkaldea. Lehen baratzeak zeuden herriaren goiko partean. Inguru hori nolakoa zen. Aldamar jauregia. Lorezainaren etxea eta inguruko terreno guztiak Aldamar-ko markesarenak ziren. Beraiek ez zuten ezagutu, baina udan etortzen omen zen. Fabiolaren ama egoten omen zen Aldamarren. Balentziaga museoaren inauguraziorako etorriko ote den komentatzen dute.

146. Getaria erdia Aldamarko markesarena (GET-011/003)

Aldamar-ko markesak, Fabiolaren aitona, esaten zuen esaera: "Desde Mollarra a Pintxoarri todos los campos míos". Herriko hainbat eraikin haundi ere bereak ziren.

147. Errepide nagusitik gorako dena baratzea zen (GET-011/004)

Errepide nagusitik gorako guztia baratzeak ziren. Rosaneko etxea esaten ziotena bakarrik zegoen. Baratzeak herriko jendearenak izaten ziren, bakoitzak pusketa bat zuen. Babarruna, patata... hainbat jenero egiten zen. San Anton mendian, ostera, patata bakarrik egiten zen.

148. San Anton mendian lehenengo patata, gero parkea (GET-011/006)

Aginaga sekretarioak jarri zuen legea San Anton mendian parkea egin behar zela. Jendeak uste zuen gosez hilko zela patatarik ezean eta larritu egin ziren. Sabinaren familiak ere bazuen terreno sail bat. Lurra ontzeko antxoak botatzen zituzten soroan. Sailak diputazioarenak ziren, baina herritarrek lantzen zituzten.

149. Herrerieta kaleko kale-baserriak (GET-011/008)

Herri gainkaldean, baratzeak ziren lekuan baziren kale-baserriak ere (gaur egun Herrerieta kalea): Gaxparrenekua, Krixketanekua, Agarrenekua, Iñarranekua... 6-7 kale-baserri zeuden kale horretan, bakoitza bere ganadurekin.

150. Indaux lantegiak bizia eman zion herriari (GET-011/009)

Lehen Getarian ez zegoen itsasoa beste lanbiderik. Gero Indaux-ek fabrika jarri zuen eta ondoren Alkortak eta herriari bizia eman zioten. Lehen itsasoa zenez bizibide bakarra, arraina harrapatuz gero ondo, baina bestela dirurik ez zen izaten.

151. Kontserba fabrikako lanak (GET-011/010)

Sabina umetatik hasi zen lanean arrainei burua kentzen. Latetan kontserbarako jartzeko burua kendu behar izaten zitzairen. Arrain handiak 5-10 kiloko potetan jartzen zituzten eta horiek Italiara salduta egoten ziren. Antxo txikiak fileteak egiten zituzten neguan.

152. Despeskako lanaren inguruko azalpenak (GET-011/011)

Goizeko ordu txikietan despeskara joan behar izaten ziren emakumeak, arraina saretik libratzera. Hura arrain ederra izaten zen. Goizaldean arrainarekin iristen zirenean etxez etxe joaten ziren despeskarako emakume bila. Eugenik dio Askizuraino ere joaten zirela. Mallako arraina gehiago ordaintzen zen. Sarritan despeskatik zuzenean joaten ziren gero fabrikara lanera iluntzera arte. Despeskako sareak nolakoak ziren. Gizonezkoek garbitu eta moilan jartzen zituzten gero lehortzen.

153. Egunean egunekoa kobratzen zuten (GET-011/012)

Emakumeentzat garairik gogorrena udaberria izaten zen lan aldetik. Despeskan egunean egunekoa kobratzen zuten, eta fabrikari lana amaitutakoan, bi-hiru egunean edo. Nagusia italiarra zen. Despeskako lanarengatik erreal bat ordaintzen zieten.

154. Arrainak kontserban jartzeko mimo asko egiten zitzaion (GET-011/014)

Kontserba fabriketako eta bodegetako lana antzekoa izaten zen: arrain handiak Italiarako latetan jarri eta txikiak filetetarako. Eskuz egiten zen dena eta lan mimatua zen, ikutu asko egiten zitzaion arrainari txukun jartzeko. Herriko emakumezko guztiak aritzen ziren lan horretan eta inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea lanera.

155. Atun kontserba; Zumaiako Ortiz fabrika (GET-011/015)

Atuna fabrika handietan konserbatzen zen lehenago, baina gaur egun ez, Zumaiako Ortiz fabrikak indar handia du eta.

156. Sare-konponketa eta tintatzea (GET-012/017)

Ezkondutuek zuzenean zerbitzatze-lanak utzi eta sareak konpontzen hasi zen lanean. Sareak tindatu ere egiten ziren. Sareak algodoizkoak izaten ziren. Horretarako prestatutako lekuan tindatzen zituzten sareak. Gizonezkoen lana izaten zen sareak tindatzea sare handiak izanik emakumeentzat astunegiak ziren eta. Sareak oso estropeatuta zeudenean elkarri laguntzen zioten barku desberdinetakoek. Sare pieza handiak kanpotik ekarri eta bertako emakumeek josten zituzten.

157. Moila lehen estuagoa zen (GET-012/020)

Moila lehen txikiagoa zen eta gero itsasoari kendu zioten zatia. Kofradia ingurua nola aldatu zuten.

158. Bapore "txoruak", asko okertzen zirenak (GET-012/021)

Lehenagoko baporeak. Baporeen inguruko kontuak; "txorua" zela baporea dio, oker-oker egiten zelako. Behin estropadak ikustera joan ziren eta beldurrez egon ziren baporea itzuliko ote zen. Donostian jokatzeko ziren estropadak.

159. Erregieta kalea; zinea izan zuten (GET-012/023)

Erregieta kalean ez zegoen ia etxerik Luisa Getariara etorri zenean. Eurak bizi diren etxean zinea zegoen. Albisuk egin zuen zinea eta hark utzi zuenean beraiek hartu zuten. Larunbat eta igandetan egoten zen zinea. Gerora jendea Zarautzera joan zen. Ez zen izan beste zinerik, zine parrokiakal besterik. "Elkano" izena zuen zineak. Ingurua nolakoa zen. Erregieta kaleko etxeak kale-baserriak ziren. 2-3 behi izaten ziren etxe bakoitzean. Hala ere, etxe gutxi zeuden.

160. Zinearen funtzionamendua (GET-012/024)

Zinea 1956 inguruan eduki zuten beraiek. Herriko mutil batek ematen zituen pelikulak. Beraiek lan egin arren, beste langile batzuk ere izaten zituzten. Jendea gutxitzen hasi zenean itxi egin zuten. Zentsura. Semeak zinearen inguruko azalpenak ematen ditu.

161. Itsasgizonen erlaxatzen laguntzen zien zineak (GET-013/005)

Telebistatik ez zegoenez zineak giroa sortzen zuen. Udaberrian galiziar asko etortzen zen antxoatara. Aste guztia itsasoan egin ostean gizonetako guztiak zinera etortzen ziren asteburuan. Itsasoko gizonentzat "desahogo" moduan garrantzi handia izan zuela uste du.

162. 10 urte inguruan izan zuten zinearen ardura (GET-013/007)

1968 inguruan itxi zuten zinea. Jendea gutxitu egin zen eta Zarautzera joaten ziren gehienak eta horregatik itxi zuten. Asteazkenean zehar itsasoan lan egin eta asteburuan zinean. 10 urte inguruan izan zuten zinearen ardura. Arrebak egiten zuen lan gehien zinean. Zertan laguntzen zioten arrebari zinean: akomodadore, takilan, kantuan... Bakeroen pelikulek izaten zuten arrakasta gehien.

163. Eizagirre abizenaren jatorria Urrestillakoa (GET-014/006)

Eizagirre abizena Urrestillatik omen dator. Urrestillako Eizagirre baserritik etorri omen zen bere birraitona morroi Enbil familiaren etxera, eta, gero, hango emakume batekin ezkondu zen. Bere aitonaaren arreba bat Balentziaga jostunaren ama zen. Familiatik omen zetorkion josteko artea.

164. Balentziaga jostuna (GET-014/008)

Balentziaga bere amaren adinekoa zen eta, beraz, 50 urte inguru zituela ezagutu zuen. Zerbait zegoenean etortzen zen Getariara. Gizon apala omen zen. Bere lehengusuei urtero txaketa bana oparitzen zien.

165. Hilerrriaren zati bat euren lurretan egina (GET-014/010)

Hilerrriaren zati bat euren lurretan egindakoa da. Harrez gero beste bi aldiz handitu dute hilerrria beste baserri batzuen terrenoak hartuz. Lehen euren etxearen atarian omen zegoen hilerrria. Mahastiak ere baziren ia euren etxeraino eta karabineroen kuartela ere ondoan zuten.

166. Aitari gertatutako pasadizoa (GET-014/011)

Aitari eskopeta eta karabineroarekin gertatutako anekdota.

167. Hiletetako ohiturak; klaseak egoten ziren (GET-014/012)

Berak beti orain dagoen lekuan ezagutu du hilerrria. Hiletetan kategoriak egoten ziren. Primerako hiletak apaiz askorekin egiten ziren. Lehen gorputza ez zen elizara eramaten eta hileta goizean egiten zen. Hileta ostean "seiziya" egiten zen.

168. "Probuko" joatea; honen inguruko anekdota (GET-014/013)

Bere senide baten hiletan gertatutakoa. Semeari esan zioten "probuko" joan beharko zuela eta honek ez zekien horrek ze esan nahi zuen. Gaizki ulertu eta apaizen eta guztien aurretik joan zen hilerrira. Zer zen "probuko" joatea.

169. Gurdiekin banatzen zen arraina fabriketara (GET-014/016)

Arraina gurdietan eramaten zuten fabriketara. Hasieran, 40 kilo inguruko dozena bat otarre; eta, gerora, karga handitu zuten, gurdi-bolanteak agertu zirenean. Aitari laguntzen ibiltzen zeneko anekdota. Normalean, amak laguntzen zion aitari, baina bera ere oso umetan hasi zen.

170. Lehen buru-gainean eramaten zen arraina fabriketara, gero gurdiekin (GET-014/017)

Bere amaren garaian emakumeek buru gainean eramaten omen zituzten arrain-otarrak fabriketara. Gurdiekin aldapa handiak pasa behar izaten zituzten eta karga handia zenean beste bide batzutatik joaten ziren. Kaleak salitrez beteta egoten ziren.

171. Etxerako lain egiten zen lehen txakolina (GET-014/020)

Lehen askoz txakolin gutxiago zegoen. Etxerako lain bakarrik izaten zuten eta txokoetan bakarrik izaten zituzten mahastiak. Ardo beltza ere egiten zen, baina dolareari tinta pegatzen zion eta gero txakolinari itsasten zitzaion tinta hori.

172. Ardoa edatea kategoria zen, dirurik ez zegoen eta (GET-014/021)

Orduan txakolindegi gutxi zegoen: Oskiolakoa eta San Prudentziokoa. Sagardotegiak gehiago ziren. Lehen ez zegoen kanpoan bazkaltzeko ohiturarik, ekonomikoki justu ibiltzen ziren eta. Ardoa edatea kategoria zen.

173. Apuila, apuilaka eta oinka jolasten ziren, baina gehien pilotan aritzen ziren (GET-014/023)

Orduko jolasak: apuila-apuilaka (elkar harrapatzen), oinka (zeinek besteari lehenago oina zapaldu), kukuka.. Baina pilotan aritzen ziren gehien.

174. "Potxetan" entretenitzen ziren moila aldeko mutikoak (GET-014/024)

"Potxetan": txalupa-mutil zebiltzanen entretenimendua. Orduan, sarearekin harrapatzen zen arraina. Arraina "mailatzen" zenean, "despeska" egiten zen gero (arraina saretik libratu). Gelditzen ziren hondakinak uretara botatzean, arrain ugari hurbiltzen zen hura jatera. Arrain haiek harrapatzeari deitzen zioten "potxetan".

175. Getarian hiru zati: baserritarrak, plazatarrak eta moilatarrak (GET-014/025)

Getaria hiru zatitan banatuta zegoen: baserritarrak, plazatarrak eta moilatarrak. Pikeak ere egoten ziren batzuen eta besteen artean.

176. Arrain txikia Donostiara eta handiagoa fabrikara (GET-014/027)

46tik 48ra bitartean sardinetan ibiltzen ziren udaran. Martxo inguruan ardora-arraina harrapatzen zen, txikiagoa. Arrain fresko eta txikiagoa Donostiara eramaten zen eta haundiagoa Oriora fabrikara. "Ardoran" gaeuz harrapatzen zenari deitzen zitzaion.

177. Aizarnazabaldik Getariara antxoa lanera (GET-015/002)

Aitak Aizarnazabalen baserria erosi eta bertara etorri ziren bizitzera Urdanetatik. Aitak eta osabak antxoatarako txalupa zuten ("Abarkas") eta bera antxoa-lanera etortzen zen Getariara. Gero Migel Alegriaren salazoiria etorri zen fabrikara lanera. Txortak egiten lan egiten zuen. 17 urte baino lehen neskame etorri zen nagusiaren etxera eta bost urte egin zituen bertan.

178. Donostiako hotelean egiten zituen lanak (GET-015/003)

Lagun bat eta biak Donostiara joan ziren Hotel Correosera lanera. Apiril alderako joaten ziren. Berak makinak maneiatzeko zekien eta hotelerako alfonbrak eta koltzak egiten zituen. Ekain aldera jendea etortzen zenean jangelan zerbitzatzen aritzen ziren. Jangela nola garbitzen zuten.

179. Gerra hasierako bizipenak hotelean (GET-015/004)

Irail bukaeran baserrira itzuli zen hoteletik. Izeba bati umeak zaintzen laguntzera joan zen hilabete batzuetarako, eta josten ikasten ere ibili zen. Hurrengo apirilean, berriz hotelera. Gerra hasiera nola bizi izan zuten hotelean zeudela. Etxekoandreak eta familiak alde egin behar izan zuten eta eurak kamioian etxera bidali zituzten.

180. Mutil-laguna hil zitzaion gerran, bera haurdun zegoela (GET-015/005)

Gerra denboran, haurdun geratu zen. Mutil-laguna itsasontzian gerrara joan zen, eta bertan hil zen, 24 urte zituela. Mutilaren anaia gerratik itzuli zenean, berekin ezkondu zen 1940an. Bitartean, umea izan zuen berak eta mutil-lagunaren gurasoen etxera etorri zen bizitzera. Haiek umea zaindu eta berak zerbitzatzen lan egiten zuen. Zarauzko harakin baten etxean lan egin zuen hasieran eta gero Miramar hotelera joan zen.

181. Donostian neskame egon zeneko kontuak (GET-015/006)

Getariara itzuli, eta Donostiara neskame joan zen berriz tranbietako zuzendariaren etxera. Zumaiako neska batekin batera egon zen bertan eta ondo konpontzen ziren. Elkarri laguntzen zioten. Getarian neska gazteek ez zuten lanerako beste aukerarik, eta zerbitzatzera joaten ziren. Berak umea aurrera ateratzeko lan egin behar zuen. Garai gogorrak izan ziren berarentzat. 1940an, ezkontzeko itzuli zenean Getariara, bere lankidea ere berarekin itzuli zen.

182. Gizona motor txikiarekin eta bera arraina saltzen kalean (GET-015/008)

1940an ezkondu zen bere mutil-laguna zenaren anaiarekin. Senarrak hasieran bapore batean lan egiten zuen, baina gero motor txiki batekin bere kontura hasi zen eta Martinak arraina saltzen edo sare-konpontzen lan egin behar. Arrain asko saltzen zuen kalean; non jartzen zen.

183. Donostiara arraina saltzera (GET-015/009)

Getarian salmenta gutxitu zenean, Donostiara joaten ziren arraina saltzera. Senarrak goizean goiz sarea bota eta 10ak aldean jasotzen zuen. Arraina izotzetan preparatzen zuten eta hurrengo goizean Donostiara joaten ziren saltzera. Ze arrain-klase harrapatzen zuten. Plazako arrandegi batera eramaten zuten arraina.

184. Sare-konpontze lanak (GET-015/011)

Sare-konpontze lanak nola egiten zituzten; zuloak josi edo puska handia apurtuta zegoenean puska berria josten zuten. Beraiek ez zituzten sareak tindatzen, txikiak ziren eta. Sare handiak tindatu egin behar izaten ziren.

185. Motor txikiarekin harrapatzen ziren arrain-klaseak (GET-015/013)

Arraina ondo saltzen zuten Getarian. Garbitu gabe saltzen zuten arraina. Sare handiko arrainak (zabalera "angel"; zapua; tolla; raia...) garbitu egiten ziren. Zabalera arraina nolakoa zen. Motor txikiarekin harrapatzen ziren arrainak. Goizean goiz botatzen zen sarea.

186. Antxoa fabrikako lanak (GET-015/014)

Antxoei burua kentzea izaten zen emakumeen lana kontserba fabrian. Txortak egiten zituzten eta ilaran jartzen zituzten barriletan, bakoitzari gainetik gatza botata. Gero, prentsan jartzen zuten hura harriekin. Nagusiak saltzen zuen gero jeneroa. Bi erreal ematen zizkieten.

187. Atuna eta papalardoa kontserbatzeko lanak (GET-015/015)

Atun kontserbetan ere lan egin izan zuen. Orduan "papalardua" (palomita) asko hartzen zen eta hura ere atuna bezala jartzen zen kontserban. Orlando fabrian lan egin zuen. Nola jartzen zuten atuna kontserban. Beraien lana atuna latetan jartzea izaten zen. Antxoa filetetan nola jartzen zuten neguan.

188. Igandetako entretenimenduak zinea eta plazako musika (GET-015/016)

Getaria gaur egun baino pobreagoa zen. Jaietan ere lan egiten zen; lan asko egin behar izaten zen. Igandetan musika egoten zen plazan eta inguruetatik jendea etortzen zen. Herriko batzuk zinea jarri zuten, baina 3 urte inguru bakarrik iraun zituen. Orduan ez zuten beste entretenimendurik izaten.

189. Aizarnazabaldik Getariara aldea hizkeran (GET-015/018)

Aizarnazabaldik Getariara badago aldea euskaran; ze diferentzia nabaritzen dituen. Zarauzkoa ez zaio hain desberdina egiten Aizarnazabalgotik. Getarian, Aizarnazabalen eta Urdanetan dena euskaraz egiten zen; Zarautzen eta Lasarten ez.

190. Urdanetan ibili zen eskolan 10 urtera arte (GET-015/019)

Apaizak ematen zien eskola Urdanetan. 10 urtera arte ibili zen eskolan. Bi komunio egiten ziren: txikia eta handia. Komunio handia egindakoa, 10 urterekin, lanera. Matematikako oinarria ondo ikasi omen zuen. Dotrina erakusten zien ondo. Apaizak euskara eta erdara nahastuta irakasten omen zien. Gustura joaten zen eskolara; bere anaiek piper egiten zuten.

191. Udarán esnea eramatera Alameda hotelera (GET-015/020)

12 urte zituela udaran esnea eramaten zuten Hotel Alamedara Urdanetatik astoarekin. Erregea (Alfontso XII.a) ere egon omen zen hotelean. Bidea ere hala-moduzkoa zen.

192. Karmen "Inglesa" gaitzizenaren jatorria (GET-016/004)

Karmen "Inglesa" gaitzizena nondik zetorren. Karmenen aita kapitaina zen eta Ingalaterrara bidai asko egiten zituen. Ama, berriz, Mundakakoa zen, baina bere familia Karlismo garaian Ingalaterrara joan zen, eta bertan ezagutu zuten elkar. Gurasoak hiltzean Karmenen ama eta izeba Euskal Herrira etorri ziren berriz. Berak 28 urte zituela hil zen Karmen eta bera geratu zen dendan.

193. Umetako jolasak: "kixkixean", "aponietan", "apuila-apuilaka" (GET-016/008)

Umetan, kanikatan eta intxaurrekin "kixkixean" jolasten zuten. Berak arra txikia omen zuen, eta ezin irabazi. Xakaponekin "aponietan" ere jolasten zuten. Mutilak "potorro-potorroka" ibiltzen ziren, poteak botaz jolasten. "Apuila-apuilaka" ere (ezkutaketan) aritzen ziren. Honen inguruko anekdota.

194. Umetako jolasak; mutilek makilak lurrean sartzen egiten zuten jolasa (GET-016/009)

Sokasaltoan ere aritzen ziren. "Txutxupeka" eta "apuila-apuilaka" gauza bera da. Mutilen jolasa: lurrean zuloa egin, txiza egin eta bertara egurrak bota, zeinek makila hurbilago sartu. Plazan edo frontoian jolasten zuten.

195. Gabonetan aza eta konpota (GET-016/010)

Gabonetan aza, bakailaoa eta konpota jaten zuten. Lehen xanpainik ez zen izaten. Behin bidaiari batek xanpaina oparitu zieten eta edateko penaz egon ziren. Turroia egoten zen, baina gutxi.

196. Eskolara joan beharrean ahizpa gazteagoa zaintzen (GET-016/011)

Eskolara gutxi joan zen ahizpa gazteagoa zaintzen geratzen zelako. Eskola parean josten aritzen zen lehengusu bat zuten eta eskolatik irtendakoan hari laguntzen ibiltzen zen.

197. Eskolan mutilak eta neskak banatuta (GET-016/012)

Eskola udaletxe ondoan zegoen. Beheko solairuan mutilak eta goian neskak egoten ziren. Irakasleak: Doña Paz eta Don Fernando. Euskararen inguruko kontuak; ba omen ziren euskara ikasi nahi ez zuten karabineroak.

198. San Anton mendian patata ereiten zen (GET-016/018)

San Anton mendian patata egiten zen. Gerora sekretario batek kendu egin zuen hori. Kaleko jendeak terreno puska bat (udalarena?) izaten zuen patata ereiteko. Aita hil ostean ama [Santurun] baserrira joaten zen lanera eta terreno puska bat eman zioten patata ereiteko.

199. Inguruko baserrietatik jendea lanera Getariara (GET-016/019)

Ama Aizarnako [Goiabide] baserrikoa zen. Familia osoa etorri zen Getariako baserri batera eta ama neskame lanetan aritu zen "Marzianonean". Inguruko herri eta baserrietatik neska asko etortzen ziren neskame edo antxoa-lanera.

200. Bisigu-partiketa; bakailaoa pobreen janaria (GET-016/023)

Bisigu asko zegoen lehenago. Hasiera batean gabonetan eta urte berritan bakarrik partitzen zen, baina gerora gehiagotan. Partiketa kontuak nola izaten ziren: arrain klase desberdinak pila berdinetan jarri eta zozketatu egiten ziren. Bakailaoa lehenago pobreen janaria izaten zen.

201. Angulen prezioaren aldaketa; bizimoduaren aldaketa (GET-016/026)

Angularik ez zen harrapatzen inguruetan, baina jan bai. Lehen urtero jaten omen zuen angula, baina gaur egun hori ordaindu baino nahiago duela afaldu gabe oheratu dio.

202. Kale-baserrietan abere gutxi (GET-017/001)

Kale-baserriko bizimodua; itsasotik eta baserritik bizi ziren. Aitak lan asko egiten zuen. Txerriak hazten zituzten etxean. Ganadua, oiloak... izaten zituzten, baina gutxi. Inguruko kale-baserrietan ere antzera.

203. Gerra denboran jangelak jarri zituzten pobreentzat (GET-017/002)

Fabiolak palazio haundi bat zuen, Kale Nagusira ematen zuena. Gerra denboran, neskek, erreketek jantziekin, desfilea egiten zuten, eta etxe horretatik irteten ziren. Falangeak bi etxetan jarri zituen pobreentzako jangelak: Rosanekoan eta Pelaionekoan. Beraiek ez zuten goserik pasa, baserrian jana bazutelako; baina eskean joaten zitzaizkien baserrira kaletarrak.

204. Dantzarik ezin zuten egin bekatua zelako (GET-017/007)

Banda polita zuten herrian eta inguruetatik jendea etortzen zen dantzara. Orduko doinu batzuk abesten ditu. Eurak ez zuten dantza egiten debekatuta zegoelako. Hijas de María kongregaziokoak ziren eta ondo zaintzen zituzten dantzarik egin ez zezaten. Dantza eginez gero listatik borratzen zituzten. Meagara ere joaten ziren erromeriara, baina goiz etorri behar izaten zuten etxera.

205. Gari-jotzea Agarreneko aurrean edo frontoian, auzolanean (GET-017/010)

Gari-jotzea Agarreneko aurrean edo frontoian egiten zen, baina beraiek ez zuten garirik egiten. Auzolanean egiten zen gari-jotzea. Gari-jotzearen ostean, hondartzara joaten ziren garbitzera. Etxeetan ez zegoen dutxarik eta hondartzan garbitzen ziren.

206. Bainujantzi bat modernoa zela-eta amak sutan erre zuen (GET-017/011)

Etxeetan ez zegoen dutxarik eta hondartzan garbitzen ziren eta gatzak kentzera fraideetara joaten ziren. Emakumezkoen bainujantziak soineko luzeak izaten ziren. Etxean zuten bainujantzi moderno baten inguruko gorabeherak.

207. Udaberrian italiarrak etortzen ziren antxoatara (GET-017/017)

Italiarrak etortzen zirenean Rosanean eta Pelaionean egoten ziren apopilo. Jatetxeak ziren bi hauek. Orain dauden jatetxeak berriagoak dira. Italiarrak udaberrian etortzen ziren antxoatara. Atetik atera zeuden fabrika txikiak.

208. Ia etxe guztietan zeuden bodegak (GET-017/019)

Bodegak ia etxe guztietan zeuden. Ganadua zutenek ganaduarekin ekartzen zen arraina eta prestatu ondoren saldu. Hezetasun handiko lana zen.

209. Lehen arraina gertuago egoten zen (GET-017/022)

Moilan despeskan lan handia egoten zen: buruak kendu sareetatik, sareak garbitu... Arraina gertuan egoten omen zen lehen. Aita arrantzalea zen, motor txikiarekin ibiltzen zen. Arratsaldean sarea botata uzten zuten eta goizean antxoaz beteta jasotzen zuten.

210. Tretza betetzea nola egiten zuten (GET-017/024)

Tretza betetzea: antxoak amuarekin jartzen zituzten eta otarra bat betetzen joaten ziren. Otarrari makil luze bat jartzen zitzaion alderik alde bi heldulekurekin. Antxoak banaka amuetan jarri eta otarra edo kaxa hori betetzen aritzen ziren emakumeak. Gizonetakoek bi heldulekueetatik hartu eta goizaldean itsasora botatzen zituzten. Era honetan egunero bisigua, papardoa, losa, kolaioa... arrain goxoak hartzen zituzten. Gero harrapatutakoa banatu egiten zen. Antxoa txikiak prestatu egiten zituzten gazituta horretarako.

211. Komediante asko etortzen ziren Getariara (GET-017/025)

Umetako jolasak: kinkilisetan, matxisaltoka, kanikatan... Udan komedianteak etortzen ziren Aldamar kalera. Jende guztia kalera ateratzen zen aulkia hartuta. Errifa egin eta opari bat ere zozketatzen zuten.

212. Umetako jolasak: kinkilisetan, maxisaltoka, xakaponetan, potorro-potorroka... (GET-017/026)

Jolasak: kinkilisetan, makilak lurrian sartzen. Tinen aroekin ere jolasten zuten. Bale-baleka. Maxisaltoka. Diaboloarekin ere jolasten zuten. Herriko bi neska omen ziren trebeenak diaboloarekin. Xakaponetan ere aritzen ziren udaletxe azpian. Potorro-potorroka.

213. Jolas bakoitzak bere lekua izaten zuen (GET-017/027)

Jolas bakoitzak bere lekua izaten zuen. Kaniketan edo kinkilisetan bere amonaren etxe inguruko plazan egiten zuten; udaletxe azpian xakaponetan.

214. Getariako hizkera Zumaia, Zarautz eta Oriokotik desberdina (GET-017/029)

Bereizten dituela inguruko herrietako hizkerak Getariakotik dio. Zumaian lehenago "xa xa" hitz egiten omen zen, baina oraingo gazteek ez.

215. Elizako Jesu Kristoaren inguruko kontuak (GET-017/031)

Gaztetxoak zirela, kanpandorrera igotzeko ohitura izaten zuten. Elizaren erdian Jesu Kristo handi bat omen dago eta gogoratzen du nola eskaiolarekin zurituta ikusi zuten irudi hori. Gero jakin zuten gizon bat kartzelatik aterata ekarri zutela lan hori egiteko.

216. Fabiolaren familiaren eraikinak (GET-017/033)

Bere ama bizi zen etxea Fabiolaren amarena zen eta baita herriko jauregia ere. Bere ama bizi zen etxea bihitegia omen zen eta bertan biltzen omen zituzten garai batean aristokratentzat lehengaiak.

217. Baserriaren "Alicante" izenaren jatorria (GET-018/002)

Gerra denboran udaletxea erre egin zuten, eta euren baserriaren inguruko dokumenturik ez omen dago. Azpeitiko mojena omen zen lehen baserria. Bertako semea gerra garaian Alacantera joan eta handik etortzean jarriko ziotela baserriari izen hori uste du.

218. Baserriko bizimoduak lan handia (GET-018/003)

Askizuko bizimodua asko aldatu da kalekoaren antzera. Lehen jende asko bizi zen baserrietan eta bat ezkondu arren, besteek han jarraitzen zuten. Garia egiten zen orduan. Lan handia zuten gariak eta artoak.

219. Askizun ikasi zuen doña Maxima irakaslearekin (GET-018/008)

Askizun bertan ibili zen eskolan, apaizetxean. Logroñoeko irakaslea izan zuen: doña Maxima. Irakasle ona zen eta kaletik ere joaten ziren umeak. Berrogeita sei ume elkartzen ziren, neska eta mutil. Neskei josten ere irakasten zien. Zumearekin eta urritx makilarekin zigortzen zituen eta ez zuen eskolara joan nahi izaten.

220. Elizpean aritzen ziren pilotan (GET-018/011)

Auzoko beste mutikoekin pilotan aritzen zen elizpean. Abarketak ez puskatzearren, batzuek oinutsik jokatzen zuten.

221. Garoa eta ota erabiltzen zituzten ganaduen azpiak egiteko (GET-018/012)

Baso gutxi zegoen lehen inguruan. Garoa eta otea segarekin mozten zituzten ganaduari azpigarria egiteko. Goizean goiz jaiki eta idiekin belarretara joaten ziren.

222. Aita "bolantearekin" ibiltzen zen garraioan (GET-018/014)

"Bolantea" radiodun gurpila zituen gurdia zen. Horrekin egiten zituen garraiatzeak bere aitak eta handik irabazten zuen diru pixka bat. Lehenengo kamioiak agertzean bukatu zitzaion lana. Sarritan gatza eramaten zuten eskabetxeriara.

223. Inguruko ospakizunetara bizikletan (GET-018/019)

Meagara joaten ziren asko erromeriara. Barrentzo soinujoleak jotzen zuen bertan. Beste inguru batzuetara ere joaten ziren. Gerora bizikletan joaten ziren erromeriara. Inguruko ospakizunak zeintzuk ziren (San Martin, San Prudentzio...).

224. Garai batean apustu asko egiten zen (GET-018/021)

Lehenago San Martinetan ahari-jokoak izaten ziren, baina bestelako ospakizunik ez. Bere aurretik apustu asko egiten omen zen idi-demen inguruan. Apustu baten inguruko kontuak.

225. Kostaldeko arrantza motor txikietan: paneka eta peskadilla (GET-021/012)

Kostaldeko arrantza ere bazen, motor txikietan eta txalupetan. Batez ere merlenka (peskadilla) eta paneka harrapatzen zen. Motor txikia izaten zen, edo bestela abantean (arraunean). Oso gogorra zen. Egunero arraina despiskatu, sare guztiak atera eta garbitu, ondoren sareak konpondu... eta hori egunero, hurrengo egunerako dena prest izateko. Sarea eramateko angalla erabiltzen zen. Orduan ez zen sarerik botatzen harrira, eta ez zen kabrarik-eta harrapatzen. Urraburuak, lupiak eta abarrak ere gutxi harrapatzen ziren, eta beti amuarekin.

226. Itsarora irtetean, aitaren egiten da (GET-021/013)

Itsasora irtetean aitaren egiten zen egunero. Carmengo ama ere han dago eta aitaren egiten da irtetean, nahiz eta moilaren irteera ezberdina izan.

227. Txitxarrota egiten du (GET-021/014)

Oraindik ere arrantzan jarraitzen du Claudiok. Txitxarrota egiten du, kasan. Motorra martxan, geldi-geldi, eta txitxarrota egiten du. Bi apareju erabiltzen ditu.

228. Arkumearen ilea eta maluta erabiliz aparejoak egiteko (GET-021/015)

Orain plastikozko aparejoak erabiltzen dira baina lehen arkumearen ilea erabiltzen zen. Zuritu eta horixe erabiltzen zen txitxarrotaarako. Eta atunetarako arto-maluta. Hori ere zuritu lixibatan eta lotu; "lejetako" horren gainera beste maluta bat ipini. Eta hori guztia orraztu, izpitu. Eta horrekin egiten zuten atunetan kasan. Malutan egin egiten ziren, baina bazeuden malutak egin eta saltzen zituztenak. Mutrikutik joaten ziren maluteroak Getariara. Malutak, behin erabiliz gero, ezin ziren berriro erabili. Arrantzale bakoitzak "kajeta" bat izaten zuen bere hari, orrazi eta malutekin. Orain dena aldatu da.

229. Antxoa bizia atunetarako (GET-021/016)

Beita bizirik ez zen ia erabiltzen. Biberoak geroagokoak dira. Lehenago, antxoa harrapatu ahala, zuzenean erabiltzen zen atuna harrapatzeko, esku aparailuarekin.

230. Ixkira gorria eta baleak (GET-021/017)

Eguraldi "berdearekin" (haizetsua) ixkira gorria ikusten da eta han arraina egoten da. Ixkira dagoen tokian baleak ere egoten dira. Ahoa ireki eta ixkira guztiak jaten ditu.

231. Arrainik onena da bat-batean hiltzen dena, ez itota (GET-021/019)

Arrainik onena da inpresioarekin hiltzen dena. Bizirik dagoela izotzetan sartuz gero, jateko gozoagoa da, bai antxoa eta bai beste guztiak. Eta txarrena itota hiltzen dena, pilan egon eta zapalduta hiltzen dena.

232. Gurasoen jatorria eta bizimodua (GET-024/002)

Ama Zaldibiakoa zuen eta aita Getariakoa. Gurasoak nola ezagutu zuten elkar azaltzen du. Aita arotza zen eta ama jostuna. Gurasoak lanetik irten bitartean, haurtzaindegi antzeko batean egoten ziren 20 bat umeko taldean.

233. Asuatik josteko makina hartuta, Gernikara ihesi (GET-024/004)

Gurasoek lana etxean eta etxetik kanpo egiten zuten. Ama jostuna zen; eta gerran, Asuatik Gernikara ihesi egin behar izan zutenean, josteko makinaren zati bat hartu zuen berekin, hura baitzen bere bizibidea.

234. Gernikako bonbardaketan bizitakoa (GET-024/007)

Gernikan kalean bizi zen jendea, ahal zuten moduan babestuta. Gernikako bonbardaketa gogoan du. Gernikan, janaria kamioi batean ekartzen zieten. Bonbardaketak iraun bitartean, alarma-soinua zegoen. Bonbardaketa aurreko giroa nolakoa zen azaltzen du. Aita preso hartu zuten Gernikan.

235. Gernikatik ihesi, Bordelera itsasontziz (GET-024/009)

Gernikatik ihesi, Bordelera joan ziren itsasontziz. Itsasontzian kandlekin berotutako ogitarteko txikiak jaten zituzten. Denak emakumeak eta umeak ziren itsasontzian. Bidaian 8 egun eman zituzten.

236. Bordele eta Bartzelonako bizimodua (GET-024/010)

Bordelen 6 hilabete egon ziren komentu batean. Jaten ematen zieten egunean bitan. Han egon ziren bitartean, leku berezian ematen zieten jaten. Handik Bartzelonara joan ziren, eta amak kartzelara eraman zuten hiru egun, alabari Miren izenaz deitu ziolako.

237. Bartzelonan bizirauten (GET-024/012)

Bordeletik Bartzelonara joan ziren, eta 13 hilabete egon ziren han. Han jakin zuten aita Gernikan fusilatu zutela. Beraiek komentu batean egoten ziren, eta jaten ematen zieten. Ume txikiak Bartzelonako familietan hartu zituzten, eta hala hartu zuten Maria ere. Gainerako senideak nola-hala moldatu ziren bizirauteko. Komentuetan ematen zieten janariari buruz hitz egiten du.

238. Bartzelonako familiaren etxean gustura (GET-024/013)

Bartzelonan egon zen bitartean, familia baten etxean hartu zuten. Han oso ondo egon zen, ondo zaindu zuten bai bera, bai eta bere senideak ere. Familia hartakoekin erdaraz hitz egiten zuen eta aldatu egin zioten izena: Miren izatetik, Maria izatera pasa zen. Ama kartzelan egona zen Miren izena esateagatik gerra garaian.

239. Gerra amaitutakoan, Euskal Herrira itzuli eta senideak sakabanatu (GET-024/014)

Bartzelonan zeudela bukatu zen gerra, eta zeukaten dirua baliorik gabe geratu zen; ezer gabe geratu ziren. Donostiara trenez itzuli ziren eta senideak sakabanatu egin zituzten. Gerora, Bartzelonako familiarekin harremana mantendu zuten, baina azkenean galdu egin zen.

240. Akerregi Txikin bizi zenekoa (GET-024/016)

Akerregi Txikin egon zen, lehengusu txikien etxean. Han baserriko lanak egiten zituen eta esnea banatzera joaten zen herrira. Esnea banatzeko neurriak nola kalkulatzeko ziren azaltzen du.

241. Senideak nola-hala aurrera ateratakoak (GET-024/018)

Gerra amaitutakoan, ama Donostian egon zen neskame; anai-arrebak nola moldatu ziren azaltzen du.

242. Komunioa eta orduko soinekora (GET-024/020)

Komunioa Zaldibian egin zuen hamar urte zituela. Komunio bakarra egin zuen berak, eta orduko soinekora nolakoa zen gogoan du.

243. Lehengo janzkera eta josten ikasteko gogoia (GET-024/021)

Lehen nola janzten ziren azaltzen du. Arropa aprobetxatzeko, tela zatiak eransten zizkieten arropen txikiegi geratzen zitzaizkienean. Ama jostuna zutenez, arropa polita josten zien. Mariak nahi izan zuen josten ikasi, baina baserriko lanak ez zion denbora askorik uzten hartarako.

244. Mutil-lagunarekin egiten zituen planak (GET-024/023)

19 urte zituela hasi zen mutil-lagunarekin. Hark Zumaia inguruko harrobi batean egiten zuen lan, eta bien ordutegiak errespetatuz tarteak topatzen zituzten elkar ikusteko. Igandetan jartzen zuten hitzordua elkarrekin egoteko; plan ugari antolatzen zituzten: besteak beste, zinera joatea, bizikletan ibiltzea...

245. Eskolako oroitzapenak (GET-024/026)

Eskolan abestiak ikasten zituzten; arbelean idatzitakoa kopiatzen zuten koadernoan, eta ortografia begiratzen zieten. Eskolako eraikuntza non zegoen azaltzen du. Eskolan erdaraz egiten zuten, maistra erdalduna baitzen eta zigorrak jartzen zizkieten euskaraz hitz egiten zutenean.

246. Umetako jolasak (GET-024/028)

Umetan zer jolasetan aritzen ziren kontatzen du: sokasaltoan, sakaponetan, potorro-potorron... Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren jolasean. Eskolako urteetan jolasten ziren.

247. Baserriko lanak eta otorduak (GET-024/030)

Baserrian denetik egin behar izaten zuen: soroan, garbiketean, sukaldean... Ganaduarekin gizonak ibiltzen ziren. Ze abere zituzten. Lehen zer jaten zuten azaltzen du.

248. Gerran gosea bai, baina gerraostean ez (GET-024/032)

Goserik ez zuten pasa gerraostean; bai, ordea, gerra denboran. Gerra garaian nola moldatzen ziren jateko azaltzen du.

249. Arropa garbitzeko moduak (GET-024/033)

Arropa garbitzeko, errekarra joaten ziren zinka buruan zutela. Errekan Txinbo eta Lagarto xaboiak erabiltzen zituzten. Sutako hautsarekin lixiba egiten zuten.

250. Koltxoien materiala eta banaketa (GET-024/035)

Koltxoiak urtean behin astintzen zituzten. Artilea zuten koltxoiek barruan; baina lehenagoko garaietan artoen hostoa izaten zuten. Koltxoien banaketa nola egiten zuten azaltzen du.

251. Sukaldean aritzen Zestoan ikasitakoa (GET-024/037)

18 urterekin sukaldean ibiltzen ikasi zuen Zestoan. Ahizparen bitartez lortu zuen han ikastea.

252. Asuatik Gernikara babes bila eta bonbardaketak harrapatu (GET-025/003)

Asuan bizi zireneko bizimodua kontatzen du: aita arotza zen; ama jostuna zen eta batzuetan taberna batean egiten zuen lan. Beraiek umeak ziren eta jolasean aritzen ziren. Gerra hasi zenean, jendea ihesi joan zen Gernikara, han babesa bilatzeko asmoz. Bonbardaketa izan zen orduan eta ahal ziren moduan babestu ziren.

253. "Arriba España" ez esateagatik fusilatutakoak (GET-025/005)

Gernikan, emakume batek "arriba España" esan nahi ez izateagatik, lau seme-alabekin batera fusilatu zuten.

254. Gernikatik Bordelera itsasontzian ihesi (GET-025/006)

Gernikatik Bordelera itsasontziz joan ziren. Bilbon ontziratu ziren eta pare bat egun eman zituzten itsasontzia kargatzen. Bordelen sei hilabete egon ziren eta lehendik hustutako komentuetan bizi ziren. Han zer baldintzatan bizi ziren azaltzen du: non egiten zuten lo, zer jaten zuten...

255. Bartzelonako bizimodua errefuxiatu gisa (GET-025/007)

Bordeletik Bartzelonara bidali zituzten denak trenez eta han egon ziren 13 hilabete. Anaiak ozta-ozta lortu zuen beraiekin joatea, Bilbotik irtetea altuera batetik gorako mutilei ez baitzieten uzten alde egiten. Bartzelonan janaria nondik lortzen zuten azaltzen du.

256. Bartzelonako bikote baten etxean hartu zutenekoa (GET-025/008)

Bartzelonan bikote baten etxean egon zen Maria. Izan ere, familia dirudunek etxeetan hartzen zituzten seme-alaba asko zituzten emakume errefuxiatuen ume txikiak. Noizean behin, amak bisita egiten zion.

257. Bartzelonan bizirauten: jatekoa eta babeslekuak (GET-025/009)

Bartzelonan etxez etxe ibili behar izan zuten eskean, eta jendeak janaria ematen zien. Bonbardaketak zirenean, sirena jotzen zuten eta tunel batzuetara joaten ziren babestera. Behin tunelaren sarrera batean bota zuten bonba eta barruan ito beharrean egon ziren herio batean.

258. Bartzelonako eguneroko bizimodua (GET-025/010)

Behin kalizarekin mozkortu zirenekoa kontaktzen du. Anaia haserretu egiten zen babeslekura joan behar izaten zutenean, goizegi baziren lotan jarraitu nahi izaten zuelako. Bartzelonan zegoela, panpina bat oparitu zioten eta Euskal Herrira itzultzean, berekin ekarri zuen.

259. Euskal Herrira itzultitakoan, familia sakabanatu (GET-025/011)

1939an, gerra bukatu zenean, Bartzelonatik etxera etorri ziren trenez. Zarautzera iritsi eta familiakoak joan ziren beren bila. Pixkanaka, senideak sakabanatzen joan ziren: Maria Zarautzera joan zen eta handik Getariako izeba baten baserrira eraman zuten 1940an.

260. Aita Gernikan fusilatu zutela jakin zutenekoa (GET-025/012)

Bartzelonan zeudela, aita Gernikan fusilatu zutela jakin zuten. Umea zenez, ez zen konturatzen egoeraz, baina bere amak eta ahizpak asko sufritu zuten.

261. Eskolara gutxi joan ahal izandakoa (GET-025/014)

Getarian Akerregitxiki baserrian zegoela, eguraldi txarra egiten zuenean bakarrik joaten zen eskolara. Gau-eskolan eta herri-eskolan ikasi zuen, baina gauza gutxi ikasten zuten, erdi jolasean aritzen baitziren. Herri-eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Katona eta entziklopedia erabiltzen zituzten ikasteko.

262. Garbitasuna eta etxeko erremedioak (GET-025/016)

Baserrian soroko lanak, sukaldeko lanak eta garbiketak egiten zituen. Garbiketa egiteko zer produktu erabiltzen zituen azaltzen du. Zinka buruan hartuta erre kara joaten ziren arropak garbitzera. Neguan eskuak zartatu egiten zitzaizkien urarengatik, eta pixa edo olio erabiltzen zuten eskuak zaintzeko. Arkakuso asko zeuden orduan eta ozpina ematen zuten haiek uxatzeko. Gerora hauts batzuk sortu ziren, eta hari esker arkakuso gutxiago egoten ziren.

263. Etxeko koltxoien ezaugarriak eta garbiketa (GET-025/017)

Koltxoiak arkumearen ilezkoak izaten ziren. Urtean behin ilea atera, makilarekin jo eta berriro sartzen zuten zorroan. Mantak baino, koltxilak erabiltzen zituzten. Bakoitzak bere ohea izaten zuen.

264. Etxeko garbiketak egiteko tresnak eta produktuak (GET-025/019)

Etxean lurra garbitzen zuten eta hartarako zer tresna eta produktu erabiltzen zituzten azaltzen du. Etxean usain goxoa izateko, mendabeltza erabiltzen zuten.

265. Etxean egindako koloniak (GET-025/020)

Mariak kolonia egiten zuen arrosekin. Gerora, ordea, drogeriako produktuak erabiltzen zituen.

266. Lehengo estetika: depilatzea eta eguzkia hartzea (GET-025/022)

18-19 urte inguru zituela, depilatzeko ohitura hartzen hasi ziren. Nola depilatzen ziren azaltzen du. Ez ziren eguzkia hartzera joaten, baizik eta soroan zebiltzala hartzen zuten eguzkia.

267. Modan egondako orrazkerak (GET-025/023)

Modan egondako orrazkerei buruz hitz egiten du: umetan melena, gerora permanentea, mototsa... Ile-apaindegira joateko dirua etxekoei edo amari eskatuta lortzen zuen.

268. Baserriko lanak eta behiak ugaltzeko egin beharrekoa (GET-025/025)

Baserrian garia eta artoa lantzen zuten. Goserik ez zuten pasa. Ganadua bazuten; behiak ugaltzeko zezenarengana eramaten zituzten eta zezenaren jabeari ordaindu egiten zioten. Zezenak non egoten ziren aipatzen du. Zezenketarik ez zen izaten lehen, baina idi-dema bai.

269. Aisialdiko planak: erromeriak eta zinema (GET-025/026)

Erromeriak Meagan eta Oikian izaten ziren lehen. Musika egoten zen, dantzan egiten zuten, eta etxerakoan neskak oso urruti bizi baziren, mutilek bi aldiz pentsatzen zuten lagundu aurretik. Zarautzera zinemara joaten ziren, eta bueltakoan pastela jaten zuten dirua edukiz gero.

270. Mutilarekin hasi zenekoa (GET-025/027)

Mutila nola ezagutu zuen azaltzen du. Igandetan elkartzen ziren eta ezin bazuten, nola edo hala konpontzen ziren elkarri abisatzeko.

271. Bataioei lotutako ohiturak eta osasuna zaintzeko bideak (GET-025/029)

Lehen haurrak zortzi egun inguru zituztela bataiatzen zituzten. Amak ezin izaten zuen haurra bataiatu bitartean etxetik irten. Umeak etxean jaiotzen ziren. Medikua behar izanez gero, haren etxera joaten ziren. Gaixotzen zirenean zer erremedio izaten zituzten aipatzen du.

272. Ateak nola ixten zituzten (GET-025/030)

Baserrian bazituzten leihoak. Ateak ixteko ez zegoen giltzarik, maratila baizik. Ez zen lapurretarik izaten lehen.

273. Arrainarekin lotutako lanetan ibilitakoa bizi guztian (GET-025/031)

Gizona arrantzalea izanda, haiek harrapatzen zuten arraina jaten zuten etxean. Ezkondutakoan, antxoa-lanean aritu zen. Lan hartan zer egiten zuten azaltzen du. Gerora, 25 urte ibili zen antxoa-lanean koinatuarekin batera.

274. Aurrerapenak pixkanaka sartzen joan etxean (GET-025/032)

Etiket kanpo lan egiten bazuen ere, etxeko lanak berak eramaten zituen. Aurrerapenak asko estimatu izan ditu. Baserrian ura bazuten, etxean depositu handi bat baitzuten; gerora jarri zuten ur korrontea. Janaria kontserbatzeko non gordetzen zuten azaltzen du. Lehen ez zuten telefono edo irratirik.

275. Ezkondutakoan eztei-bidaia Bartzelonara (GET-025/033)

Itziarren ezkondu ziren eta eztei-bidaia non egin zuten azaltzen du. Gehienbat trenez eta autobusez ibili ziren.

276. Elizaren debekuak: dantza lotua eta zenbait pelikula (GET-025/034)

Erromerietan dantza lotua egitea debekatuta zegoen. Harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zituzten eta desohore handia izaten zen hori. Zinemara zenbait pelikula ikustera joaten ere ez zien uzten apaizak.

277. Mutilarekin egiten ziren planak (GET-025/035)

Mutilarekin normalean zer plan egiten zituen aipatzen du: zinea, komediak ikustera...

278. Izandako zaletasunak (GET-025/039)

Irrati-nobelak entzutea gustatzen zitzaion, baina denbora zuenean bakarrik entzuten zituen. Loreak zaintzea beti gustatu izan zaio.

279. Emakumeen lehengo janzkera (GET-025/040)

Lehen arropak nola izaten ziren azaltzen du: alaiak, loredunak... Baina lutoa zenean, zorrotz errespetatu behar izaten zuten hura: beltzez joan behar zuten eta ezin izaten zuten erromeriara joan. Emakume edadetuek mantala eta buruko zapia eramaten zuten beti.

280. Ezkondu zen eguneko oroitzapenak (GET-025/042)

Itziarren ezkondu zen Maria senarrarekin eta Mutrikun eman zuten bazkaria. Gogoan du oraindik zer jan zuten. Ezkontzara familiakoak gonbidatu zituzten.

281. Norbait hiltzen zenean izaten ziren ohiturak (GET-025/043)

Norbait hiltzen zenean, gaubeila izaten zen. Jendea etortzen zen etxera eta jateko eta edateko ematen zitzaien. Azkenean kendu egin zen ohitura hori, gaupasa egitea bezala baitzen. Ehorzketetan hiru kategoria zeuden. Hildakoak hilkutxan sartzeko nola prestatzen zituzten aipatzen du.

282. Hortzetako higieena eta zainketa (GET-025/045)

Lehen dentistarengana ez ziren joaten normalean, baina berak joan egin behar izan zuen hortz bat puskatu zuelako. Lehen hortzak kentzeko erabakia erraz hartzen zen eta ez zen anestesiarik egoten gainera. Hortzak garbitzeko bikarbonatoa erabiltzen zuten.

283. Gabonetako menua eta txerri-hiltzea (GET-025/047)

Gabonetan zer jaten zuten azaltzen du. Txerria urtean bitan hiltzen zuten, haietako bat Gabonetarako. Txerria harakinak hiltzen zuen etxera etorrita eta dirutan edo janaritan ordaintzen zitzaion. Arrain gutxi jaten zuten baserrian.

284. Hondartzara joaten zirenekoa (GET-025/048)

Lehen ere hondartzara joaten ziren eta zer janzkera izaten zuten deskribatzen du. Hondartzara igandetan joaten ziren joatekotan eta bainatu egiten ziren; ez zeukaten eguzkia hartzeko ohiturarik.

285. Bizikletan ibiltzen ikasi eta aritu (GET-025/049)

Mendira ez ziren joaten. Noizean behin alokairuan hartzen zituzten bizikletak. Berak ganbarako bizikleta zahar batekin ikasi zuen ibiltzen.

286. Hezurrak haustean erabilitako erremedioak (GET-025/050)

Txikitan behatza hautsi zuen, baina ez zioten behar bezala sendatu bere garaian eta gerora ezin izan zioten zuzendu. Medikarengana joan ahal izateko, hiru hilabetetik behin kuota ordaindu behar izaten zuten.

287. Antxoa-fabrikako lan-baldintzak eta arrantzako aurrerapenak (GET-025/051)

Antxoa-fabrikatan aritu zen lanean, eta orduko lan-baldintzak nolakoak ziren aipatzen du. Lehen itsasontziak txikiagoak izaten ziren.

288. Gabonetan denak etxean janari berezia jaten (GET-026/004)

Gabonetan turroia eta beste hainbat jaki berezi jaten zituzten. Lurreko sua zeukaten etxean, eta aita ahia egiten zuen bertan urtero. Gabonetan familia guztia elkartzen zen.

289. Santa Ageda bezperan koplariak baserrira iristeko irrikitan (GET-026/007)

Santa Ageda bezperan gizon kuadrilla baserriz baserri ibiltzen zen, soinuak lagunduta, koplak kantatzen. Baserrian desiratzen egoten ziren haiek noiz etorriko. Santa Agedako kantaren doinua abesten du.

290. Gabonetako inozentzia joan zenekoa (GET-026/008)

Gabonetan familia dena elkartzen zen. Afaldu, jokoan egin eta lotara joaten ziren. Gabonetan zer opari jasotzen zituzten aipatzen du. Opariak amak jartzen zituela jakin zutenean, ez zuten opari gehiago jaso.

291. Zikloiak eragindako ezbeharrak (GET-026/010)

Xanti, bere anaia gazteena, itsasoan galdu zen 16 urte zituela, zikloi bat izan zenean. Lehen ez zegoen jakiterik zikloia zetorrela. Horrelako istripu gehiago egon ziren hurrengo urteetan.

292. Txerria susara zegoenean, Zarautzera (GET-026/013)

Baserrian denetariko lanak egiten zituen. Gerrara joateko, binaka eramaten zituzten anaiak. Txerri emea ugaltzeko, txerri arrarengana eramaten zuten Zarautzera. Txerria susara zegoenean eramaten zuten hara.

293. Baserriko lanetan murgilduta, eskolara joateko denbora gutxi (GET-026/014)

Baserrian denetariko lanak egiten zituen, eta ez zuen eskolara joateko denborarik izaten. Eskolan maistra bat zuten, eta Askizuko umeak joaten ziren hara.

294. Eskolara joateko denborarik ez (GET-026/016)

Komunioa Zumaian egin zuen. Eskolatik irteteen etxerako egurra biltzen zuten, eskolarako ikasi beharrean. Komunioa egindakoan utzi zion eskolara joateari.

295. Mezetara goizean goiz txandaka eta lasta-suziria eskuan (GET-026/017)

Igandero joaten ziren mezetara, eta hara joateko anai-arreben artean txandak egiten zituzten. Mezetara goizean goiz joateko, lasta-suziria erabiltzen zuten.

296. Errekara zinka buruan zutela garbiketak egitera (GET-026/019)

Baserrian emakumeek egiten zuten etxeko garbiketa. Errekara joaten ziren zinka buruan zutela arropa garbitzera. Garbiketa nola egiten zuten azaltzen du.

297. Suak gehiago irauteko, zerrautsa jartzea (GET-026/020)

Ekonomika erabiltzean, zerrautsa jartzen zuten egurraren gainean suak gehiago iraun zezan. Egur bila mendira joaten ziren eta beraiek mozten zuten. Artoa ere zuritzen zuten.

298. Lotarako prestaketak: koltxoia eta ur beroa (GET-026/021)

Lotarako binaka egoten ziren logela bakoitzean. Koltxoiak malutazkoak edo artilezkoak izaten ziren. Hura egunero astintzen zuten harrotzeko. Urtean behin koltxoi barrukoia atera eta garbitu eta astindu egiten zuten. Ohea berotzeko buztinezko botilak ur beroarekin bete eta hanka parean jartzen zituzten.

299. Lotarako garaian, neskameari egindako gaiztakeriak (GET-026/023)

Etxean neskamea bizi zen beraiekin. Hura koltxoian baldar etzaten zen, nahiz eta polikiago etzateko esaten zioten besteek. Halako batean, Julianak otea

jarri zion koltxoian, eskarmentu gisa. Beste batean, sagu txiki bat harrapatu, eta maindire artean jarri zion.

300. Artzainari egindako gaiztakeria (GET-026/024)

Etxean artzaina zuten. Behin, sukaldean gazta egiten ari zirela, ekonomikan bero-bero zegoen kakoa artzainari jarri zion besoan. Errieta egin zioten horregatik, baina zigorrik inoiz ez.

301. Tximista etxera sartu zitzaienekoa (GET-026/026)

Tximista hirutan sartu zitzaien etxera: batean, anaia eta ama jo zituen; bestean, etxea zeharkatu, ganadua hil, eta etxeko senide batzuk konorterik gabe utzi zituen. Azken aldi horretan, Ermandadekoen artean banatu zuten ganadua.

302. Tximistorratza etxean jarri zutenekoa (GET-026/027)

Tximista etxean sartzen zitzaenez, tximistorratza jarri zuten, eta tximistorratzarentzako lekua nola prestatu zuten azaltzen du.

303. Gerrako zauriak eta gurasoen heriotza (GET-026/029)

Oso gazte zela hil zitzaizkion gurasoak. Gerra iritsi zenean, bi anaia joan ziren frontera. Anaia bat zauritu egin zuten eta ibili ezinik egon zen. Azkenean, lortu zuen etxera itzultzea. Beste anaia hil egin zuten gerran. Gizonak gerrarako nola deitzen zituzten azaltzen du. Batzuek ihes egiten zuten gerrara ez joatearren.

304. Gerran eta gerraostean janariarekin nola moldatu ziren (GET-026/031)

Gerran ondo moldatu ziren jateko. Etxean egiten zuten ogia, astean behin, labesuan. Gerra ostean, errota itxita zeuden, eta ogia egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du. Taloa ere egiten zuten etxean.

305. Gerrako giroa Getarian (GET-026/032)

Gerran ez zuten bonbarik ezagutu, baina Getariako kanposantuan gizon bat hil zutenekoa gogoratzen du. Gerran ezin zituzten milarraiazko galtzak erabili, eta ezkutatu egin behar izaten zituzten. Cara al Sol abestera behartzen zituzten.

306. Etxean kalean baino ogi hobea (GET-026/033)

Garia ez zuten entregatu behar izan gerraostean. Kalean egiten zuten ogia ez zuten eramaten etxera, hobea egiten baitzuten etxean. Etxean ehotzeko makina zeukaten eta hari buruz hitz egiten du.

307. Errotara astoa eta bera (GET-027/002)

Gerraostean errota itxita egon ziren eta Juliana ezkutuan joaten zen inguruko zenbait errotatara. Haietara joateko, hala ere, bide luzea egin behar izaten zuen eta beldurrez joaten zen, astoari karga eroriko zitzaiolakoan. Astean bitan ere joaten zen errotara.

308. Erromeriatik etxera mutilengandik ihesi (GET-027/003)

Behin 15-16 urtez gero, Oikiako erromeriara joaten ziren. Erromerian dantza egiten zuten eta iluntzerako etxera. Atzetik zetozkien mutilak gustuko ez bazituzten, ihes egiten zuten.

309. Gaztetako mutil-laguna (GET-027/005)

Oikiako mutil batekin ibili zen denbora batez eta errotara joaten zenean ikusten zuten elkar. Erromerian ezagutu zuten elkar eta urte pare bat egon ziren elkarrekin.

310. Plaza txikietan poz handiarekin (GET-027/006)

Erromerian dantza soltea dantzatzen zuten. Gaur egun orduko plaza ikusita, oso txikia iruditzen zaio. Meagara gutxi joaten ziren, baina inguruko beste hainbat festatara joaten ziren. Erromerietako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

311. Dantzarako gogoa eta anaia soinu-jotzailea (GET-027/007)

Dantza lotua egitea leku batzuetan debekatuta zegoen, eta neskek dantza lotuan harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zituzten. Berari beti gustatu izan zaio dantza egitea. Etxean ikasi zuen dantzan, anaiak soinua jotzen baitzuen.

312. Erromeriarako apaintzen (GET-027/009)

Erromerian geratu gabe egiten zuten dantza, eta abarkak bizarrez josita zituztela bueltatzen ziren etxera. Soinekoa eramaten zuten, eta pinturarik gabe "makillatzen" saiatzen ziren.

313. Estetika ondo zaintzen (GET-027/011)

Ilean zer-nolako orrazkera izaten zuen azaltzen du. Beti gustatu izan zaio apaintzea, baita arropa aukeratzea ere.

314. Hondartzara gutxi, baserrian nahikoa eguzki hartzen (GET-027/012)

Normalean ez ziren hondartzara joaten. Behin neguan lapa bila joan ziren, busti egin zen eta ez zuen gehiago hondartzara joan nahi izan. Eguzkia baserrian lanean zebiltzala hartzen zuten. Julianari lastozko txapela erabiltzea gustatzen zitzaion eguzkitik babesteko.

315. Auzolanak eta norbere garbitasuna (GET-027/016)

Auzolanak egiten zituzten garitarako eta bideak egiteko. Auzolanaren egunean, jaten ematen zitzaion jendeari, eta garbitzeko zinka bete ur jartzen zitzaion. Garai hartan dutxatu ostean nola lehortzen eta apaintzen ziren azaltzen du.

316. Orduko estetika eta lutoaren indarra (GET-027/017)

Ilea orrazteko ile-apaindegira joaten ziren, Mari Pazengana. Gehienbat permanentea egiten zuten lehen. Ezkondukoan, mototsa eramaten zuten emakumeek. Lutoa zenbat denbora eramane behar izaten zen aipatzen du. 14-15 urtera arte lutoa bakarrik ezagutu zuen Julianak. Arropak lutorako nola

moldatzen zituzten azaltzen du. "Medio luto" ere eramaten zen. Lehen oso gaizki ikusia zegoen kolorezko arropa janztea alargunek. Luto garaian, elizan kandelak piztu behar izaten zituzten.

317. Hileta ostean, bazkaria eta lutoa (GET-027/019)

Luto garaian musika entzutea bazegoen, baina dantzarik ezin zen egin. Denak begira egoten ziren eta etxean ere debekatu egiten zieten. Azkenean, 16 urteren ostean, Juliana aspertu egin zen lutoaz. Hileta zenean, etxean bazkaria ematen zitzaaien auzokoei eta jendea mozkortuta irteten zen handik.

318. Gurasoen heriotza (GET-027/021)

Aita hil eta handik 4 urtera ama hil zen buruko atakeak emanda. Hilabete egon zen ohean atakeak eman zionetik, eta etxean nola zaintzen zuten azaltzen du.

319. Kanpai abeslariak (GET-027/023)

Hasiera batean Lezon ezkontzeko asmoa zeukaten. Edade batetik aurrera, jende asko joaten zen kanpora ezkontzera. Lezoko eta Errenteriako kanpaien kanta abesten du.

320. Erromerien inguruko tabernak (GET-027/025)

Erromerien inguruan tabernak egoten ziren. Neskak sartzen ziren tabernetan, baina gutxi. Egarria izanez gero, iturrira joaten ziren tabernara joan baino lehenago.

321. Erromeriatik neska-laguntzerainoko pausoak (GET-027/026)

Dantza lotua egiteko, mutilak neskari "faborez" eskatzen zion. Mutilek hitz eginda edukitzen zuten beren artean zer neskarekin nahi zuten dantza egin. Baina ez zitzaaien gustatzen neskek kalabazak ematen zizkietenean. Behin anaiari kalabazak eman zizkioten, eta orduan egin zuena kontatzen du. Erromeria bukatutakoan, mutilak nesken zain egoten ziren; neskak ez ziren mutilen atzetik joaten. Kotxea izatea arrunt bihurtu zenean, neska-laguntzea asko galdu zen.

322. Gustuko mutilak (GET-027/027)

Mutil jatorrak eta ederrak gustatzen zitzaizkien gaztetan. Hizketan antzematen zitzaaien mutilei nolakoak ziren. Erromeriara ahizparekin eta baserri inguruko lagunekin joaten zen Juliana.

323. "Etxekoandrea neskame izan bada..." (GET-027/032)

"Etxekoandrea neskame izan bada, ez egin lan haren etxean". Juliana neskame zenean diru eta arropa gutxi zeukan. Behin etxekoandreak abrigo bat egin behar zuela eta hartarako dirua aurreratuko ziola esan zion; azkenean Julianak dena ordaindu arte ez zuen soldatarik jaso.

324. Donostian abrigoa birziklatu (GET-027/034)

Etxekoandreari soldata igotzeko eskatu zion, eta ez zion eman. Horregatik, Donostiara joan zen lanera. Hara iritsi zenean, abrigoa kolorgetuta zegoen, eta etxekoandreak abrigoari buelta eman, berriro josi, eta abrigo "berria" egin zion.

325. Etxekoandreen erreferentziak (GET-027/035)

Ahizpak umea izan zuenean, arazoak izan zituen, eta hari laguntzera joan zen Juliana Lasartera. Donostiako etxekoandrea penatan gelditu zen. Geroago beste etxe batera joan zen lanera.

326. Kroketa "naturalak" (GET-027/038)

Donostian neskame zegoela, behin kroketen masa erori zitzaion lorategira. Janaria eta olioia soberan ez zegoenez, dena bildu eta huraxe prestatu zuen bazkaritarako. Ez zen inor konturatu.

327. Otorduetako menua (GET-027/039)

Neskame zegoela, zer otordu prestatzen zituzten azaltzen du. Izozkiak jateko komeriak izaten zituen.

328. Argindarrarekin tranpetan (GET-027/041)

Donostiako nagusiak tranpa egiten zuen argindarraren kontadoreak ez markatzeko zenbat gastatzen zuten. Argizalea etortzerako, ordea, prest egoten zen bere burua zuritu eta neskameari errua botatzeko.

329. Neskame zegoeneko bizimodua (GET-027/042)

Neskame zegoeneko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Behin etxeko obra egin zuten nagusiek, eta neskamearen logela txikitu zuten komuna handitzeko.

330. Garbiketak egiteko buruhaustekak (GET-027/043)

Goizero etxeko garbiketa egiten zuen. Astero pasatzen zuen alanbrea lurrean, argizaria eman eta trapua pasa. Etxekoandreak egunero begiratzen zuen ea ondo garbituta zegoen. Hautsa kentzeko nola moldatzen zen kontaktzen du.

331. Kontu handiarekin garbitzen (GET-027/045)

Etxea garbitzeko, ondo aztertzen zuen altzarien antolaketa eta gauzak non zeuden jarrita.

332. Platera puskatu izanaren ardura (GET-027/046)

Neskame zegoela, behin etxekoandreak plater bat puskatu zuen. Nagusiak plater haren hondarrak ikusi zituenean, etxekoandreak galdetu zion zer gertatu zen eta hark bere gain hartu zuen ardura.

333. Ohe azpiko trikimailua (GET-027/047)

Neskameek ohe azpia garbitzen zuten ala ez jakiteko, etxekoandreak dirua jartzen zuten ohe azpian. Julianak txikitatik izan zuen trikimailu horren berri.

334. Señorita artean garbiketa lurrean egiten (GET-027/049)

Neskame zegoela, astean behin garbiketa belauniko egin behar izaten zuen. Horrek mina ematen zionez, beste era batera moldatu ziren. Etxe hartan bi alaba zeuzkaten, eta alaba zaharrenak "señorita" deitzeko eskatzen zuen.

335. Aitaren lana Zarautz eta Getaria arteko korreoa (GET-028/002)

Aitak Zarautz eta Getaria arteko korreo-zerbitzuan egiten zuen lan. Bulegoan egiten zuen lan, baina gazte hil zen.

336. Amari laguntzeko, 11 urterekin lanean hasitakoa (GET-028/004)

Aita 41 urterekin hil zen, eta bost seme-alaba txiki utzi zituen. Jesusitak gazte hasi behar izan zuen lanean amari laguntzeko. 11 urte zituenerako, langile finkoa zen antxoa-lanean. Antxoa-lanean zer egiten zuten azaltzen du. Eskolan 11 urtera arte ibili zen.

337. Gazitze-fabrika eta botikaria (GET-028/007)

Amak gazitze-fabrika egiten zuen lan. Gazitze-fabrika zer egiten zuten azaltzen dute. Eskuak zartatzen zitzaizkienean don Federiko botikariak prestatzen zien botika.

338. Getariako ume osasuntsuak (GET-028/008)

Gazteak zirela, Getarian don Leontzio medikua izan zuten. Kostako umeak indartsuak eta sasoikoak zirela esaten zuen mediku hark.

339. Getariako eskolan ikasitakoak (GET-028/009)

Maisu-maistrak Burgoskoak ziren. Eskola non zegoen azaltzen dute; neskak bakarrik joaten ziren beren klasera. Eskolan hainbat gai ikasten zituzten, baina beren ustez ez zuten behar bezala ikasi.

340. Eskolako bizimodua eta janzkera (GET-028/011)

Maisu-maistrak gustura bizi ziren Getarian, baina ez zuten euskaraz hitz egiten ikasi. Herritarrak moldatzen ziren gaztelaniaz hitz egiteko. Eskolako ordutegia nolakoa zen azaltzen dute. Eskolarako perkalezko bata eta alpargatak janzten zituzten.

341. Umetako jolasak: sakaponak, potorro-potorro eta panpinak (GET-028/012)

Umetan zertara jolasten zuten aipatzen dute: sakaponetan, potorro-potorroka... Panpinak amak josten zizkien. Sakaponetan arkumeen hezurak erabiltzen zituzten, etxean arkumea jaten zenean gordetakoak. Antxumearen hezurak ere erabiltzen zituzten.

342. Umetako jolasak: kukuka, sokasaltoa eta diaboloa (GET-028/014)

Umetan kukuka ibiltzen ziren neskak eta mutilak denak batera. Sokasaltoan eta diabolorekin ere ibiltzen ziren. Diaboloan abilak ziren.

343. Sokasaltoko kantak (GET-028/015)

Sokasaltoko kantak abesten dituzte. Kanta haiek gaztelaniaz izaten ziren.

344. Biak abesten (GET-028/017)

Euskal kanta bat abesten dute. Gurasoengandik jaso zituzten abesti horiek.

345. Kantu-kantari (GET-028/018)

Zenbait kanta abesten dituzte.

346. Lehen arrantza gertu egiten zen (GET-028/022)

Normalean Agustinaren aita bere kontura ibiltzen zen arraina harrapatzen bazter-arrantzan. Lehen ez zen arrunta arrantzaleek egun asko ematea kanpoan arrantzan. Behin Jesusitaren osaba kanpoan ibili zen arrantzan, eta eskumuturrekoa ekarri zion oparitan Gijondik.

347. Arraina saltzera Zumaiara baldea buruan hartuta (GET-028/023)

Agustinaren ama arraina saltzen ibiltzen zen. Getariatik Zumaiara joaten zen oinez goizean goiz 20-25 kiloko baldea buruan hartuta arraina saltzera.

348. Eskolatik gazitze-fabrikara (GET-028/025)

7 urterekin antxoa-lanean aritzen ziren, eta antxoarik ez zenean, eskolara joaten ziren. 11 urte zituztela, gazitze-fabrikari langileak behar ziren eta beraiek sartu ziren. Zer lan-baldintza zituzten azaltzen dute.

349. Gosea ez pasatzeko baliabideak izandakoak (GET-028/026)

Goserik ez zuten pasa, bazutelako janaria nondik lortu: batzuek baratzetik, besteek mahastietatik, eta besteek itsasotik. Olioia erosi egin behar izaten zuten, eta ondo zaintzen zuten zenbat gastatzen zuten. Ogia erosteko jendea nola moldatzen zen azaltzen dute. Beraiek etxean ez zuten ogirik egiten; bai, ordea, taloak.

350. Lanean hasteko grinagatik eskola utzi (GET-028/027)

11 urterekin eskola utzi zuten lanera joateko. Agustinaren amari maistrak esan zion Agustinak ikasten jarraitu beharko lukeela, buru ona baitzuen. Baina Agustinak ez zuen nahi ikasi, eta uko egin zion baita gauzez klase partikularretara joateari ere. Lehen erraz uzten ziren ikasketak lanean hasteko.

351. Gurasoei jornala emateko poza (GET-028/028)

Gaztetan mutil batzuekin hizketan zeudela, ama etorri eta Raimundak asteko jornala eman zion erosketak egiteko. Lehen pozik ematen zitzaion jornala gurasoei.

352. Gurasoei errespetu handia zitzaien (GET-028/029)

Mutilekin asteburutan egoten ziren. Gauean etxera joateko zer ordutan itzuli behar izaten zuten aipatzen dute. Agustinak zenbait plan prestatu zituen aitak gauzez irteten utz ziezaion, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Lehen gurasoei errespetu handia zitzaien, eta haien artean ere ez zioten elkarri kontrakoa esaten.

353. Gaztetan mutilekin nola ibiltzen ziren (GET-028/030)

Gauean musika izaten zenean, mutilek ordaintzen zieten neskei ur goxoa. Lehen mutilekin beste era batera erlazionatzen ziren, eta gaur egungo moduari buruzko iritzia ematen dute. Mutilekin dantza lotua egitea bekatua zenez, zigortu egiten zituzten neskak kongregazioan, eta batzuetan baita etxean ere. Hala ere, gurasoei beti errespetua zitzaien.

354. Plazako komediak ikustera pozik (GET-028/031)

Plazan komediak izaten ziren, eta denak egoten ziren hari begira aulkietan eserita.

355. Batzuen askatasunari esker, besteen jakinmina ase (GET-028/032)

Raimundari askatasun handia ematen zioten gaztetan. Gurasoek errespetua nola lortzen zuten aipatzen dute. Raimundari gauzez ere irteten uzten ziotenez, gero lagunek galdetzen zioten izandako gorabeheren berri.

356. Raimundaren mutil-lagunak (GET-028/033)

Zarauztik etortzen zitzaizkion Raimundari mutilak ate joka. Zarauzko beste mutil batekin ere ibili zen Raimunda, eta fabrikara etortzen zitzaion bisitan gorbata jantzita. Baina azkenean, senarra getariarra aukeratu zuen.

357. Mutil-laguna etxean sartzeko pausoa (GET-028/034)

Mutilekin ateratzen zirenean nola izaten zen azaltzen dute. Senargaia etxean aurkeztutakoan, laster zen ezkontza.

358. Jesusitaren senar alemaniarra eta haren familia (GET-028/035)

Jesuitaren senarra Alemanian jaioa zen, familia alemaniarra zuen, baina Zumaian bizi zen. 6 urte bizi izan ziren ezkontuta, senarra lan-istripuan hil zen arte. Bi ume txikirekin gelditu zen Jesusita. Orduetik ez da berriro ezkondu. Senarraren familiak elizarekin izandako harremana azaltzen du Jesusitak.

359. Bizikletan batera eta bestera (GET-028/038)

Bizikletan ibiltzen ziren, baina alokairukoan. Lehen trafiko gutxiago zegoen. Bizikletan txangoak nondik egiten zituzten azaltzen dute. Mutilen bizikletan ikasi zuten bizikletan ibiltzen. Behin Agustinak bizikletarekin anis botila bat puskatu zion lagun bati, eta berria ordaindu behar izan zion.

360. Euskal dantzetarako mutilen bila (GET-028/039)

Euskal dantzak egiteko, neskek mutilen bila joan behar izaten zuten, nahiz eta lotsa eman. Lehen orain baino auto gutxiago ibiltzen ziren errepidean.

361. Gerra nabaritu ez Getarian (GET-028/040)

Getarian ez zuten gerra nabaritu; janzkeran bakarrik antzematen zen bandoak zeudela. Getariako mutil gazteak gerrara eraman zituzten, eta Agustinaren anaia hil egin zen hala.

362. Gerraostean goserik pasa ez (GET-028/041)

Gerraostean ez zuten goserik pasa. Ogia eramaten zuten gazitze-fabrikara, eta antxoak jaten zuten bertan. Olioak nola lortzen eta gordetzen zuten azaltzen dute.

363. Umeak izateko zainketak eta abenturak (GET-028/044)

4 ume izan zituen Agustinak; Raimundak 4 izan eta 2 bizi; eta Jesusitak 2. Haurdun zeudenean lehen ez ziren medikuarengana joaten umea izan arte. Agustinak bikiak izan zituenean sorpresa hartu zuen, ez baitzekien bi zetozenik.

364. Balea zeinek harrapatu? (GET-028/046)

Jesusitaren aitona izan zen balea harrapatu zuten arrantzaleetako bat. Getariak, Zarautzek eta Oriok kontu hartan zer parte izan zuten azaltzen dute. Gaur egun, balea haren hezurak Donostiako aquariumean daude.

365. Arpoia, izurdeak eta orkak (GET-029/002)

Arpoia izurdeak harrapatzeko erabiltzen zen. Izurdea harrapatzeak pena ematen du, animalia azkarra baita. Orka harrapatu zutenekoa kontatzen du. Arpoiaren funtzionamendua.

366. Esparroia harrapatu zutenekoa (GET-029/004)

Esparroia harrapatu zutenekoa kontatzen du. Indar handia egin behar izan zuten hura otzantzeko. Denbora asko egon behar izan zuten esparroia itsasontzian jasotzeko. Esparroiaren zatiak beste itsasontzietako arrantzaleei eman zizkieten, hori baitzen ohitura.

367. Itsasontziko sukaldeak denboran zehar (GET-029/006)

Itsasontzietako sukaldeak denborarekin nola aldatu diren azaltzen du: tamaina, tresnak...

368. Kanabera motzarengatik ikusmena galdu begi batean (GET-029/007)

Kanabera motzei buruz hitz egiten du. Sebastianek, atunetan zebilen batean, kanabera motza zerabilen eta istripua izan zuen. Istripu haren ondorioz, ikusmena galdu zuen begi batean.

369. Atuna harrapatzeko prozesua (GET-029/009)

Atuna harrapatzeko kanaberak eta kakoak erabiltzen ziren. Kako handiak arrain beltzak harrapatzeko ziren. Haien haragiak ez zuen balio jateko; baina haien koipea sukaldean erabiltzen zen gerraostean, oliorik ez zegoenean. Atunak harrapatutakoan, matapasarekin buruan jo, amua kendu eta palketan sartzen zituzten.

370. Karnata-potoa (GET-029/013)

Atunetako karnata-potoa: bertara botatzen da antxoak bizia, atunak jan dezan.

371. Malutak atuna engainatzeko (GET-029/016)

Lehen artoaren zorroa erabiltzen zen atuna engainatzeko. Maluta orraztu egiten zen burdinazko orraziarekin.

372. Hainbat aparailuri buruzko azalpenak (GET-029/018)

Kluisak, boiak, kaxak, tretza-ohola, tretzak, kaxa-makila... nola erabiltzen ziren azaltzen du.

373. Balizaren zatiak (GET-029/022)

Baliza eta balizaren antenaz hitz egiten du. Balizaren zatiak: kortxoa, pisua, trapu zaharra...

374. Sondaren funtzioa (GET-029/025)

Itsasoaren hondoraino zenbateko distantzia zegoen jakiteko, sonda erabiltzen zuten. Sonda burdinazkoa zen.

375. Kalarria (GET-029/026)

Kalarria aparailua behera eramateko erabiltzen zen. Bisiguak nola jokatzeko azaltzen du.

376. Piedra-bolak (GET-029/028)

Piedra-bolei buruz hitz egiten du.

377. Kaleuak (GET-029/035)

Kaleua. Sebastianen aita haietan ibiltzen zen.

378. Arrantzako otarreak (GET-029/040)

Izkiretako otarrea eta bere funtzionamendua. Langosta-otarrea.

379. Sareak konpontzeko orratzak (GET-029/042)

Sareak konpontzeko orratz handiak eta txikiak.

380. Mundua, txalupa eta arrantzako jantziak (GET-029/047)

Mundua. Sardinian ibiltzeko txalupa. Galtza-zira.

381. Galtza-zirak eta txalupak (GET-029/049)

Galtza-ziren materiala. Txalupak.

382. Arraina neurtzeko pikarokeria (GET-029/050)

Antxoak neurtzeko kupela. Behin arraina neurtzean gertatutako anekdota kontatzen du.

383. Apasta txikitze makina (GET-029/051)

Sarea gora eta behera ibiltzeko arrabola. Apasta txikitze makina.

384. Txirritak (GET-029/054)

Arrantzako tresnen erabilerari buruzko azalpena: txirritak nola erabiltzen diren azaltzen du.

385. Arraina harrapatzeko modua lehen (GET-029/056)

Lehen arrain bila nola ibiltzen ziren azaltzen du.

386. Getaria eta Zarautz artean ibiltzeko garraiobideak (GET-030/004)

Gaztea zela, autobusa bazegoen Getaria eta Zarautz artean. Zerbitzu haren ibilbide eta maiztasunari buruz hitz egiten du. Getariatik Zarautzera bizikletaz joateko, errepidea nolakoa zen deskribatzen du. Batzuetan kamioiei heldu eta azkarrago joaten ziren bizikletaz. Etxean bizikleta bakarra zeukaten, eta anai-arreben artean txandaka ibiltzen ziren hura erabiltzeko.

387. 15 urtetatik okindegian lanean (GET-030/007)

15 urte zituenerako, okindegian hasi zen lanean. Egunero gaueko ordu batean jaiki behar izan du erretiroa hartu arte. Ogia egiteko makinak ezagutu izan ditu beti okindegian. Ogia nola egiten zuten eta ogiak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

388. Okindegia aitak sortu zuenetik martxan (GET-030/009)

Txikitatik ogi artean ibili izan denez, goiz ikasi zuen okindegiko martxa. Aitak, ezkondu zenean, okindegia sortu zuen. Okindegia non zegoen azaltzen du. Herriko okindegia bakarra zen.

389. Okindegiko ordutegi gogorra (GET-030/012)

Bazkalostean izaten zuten lo egiteko denbora, baina gaueko ordu batean lanerako jaiki behar izaten zuten. Besteek jai zutenean ere, beraiek lan egin behar izaten zuten okindegian. Noizean behin ateratzen zuten erromeriatara joateko denbora.

390. Itsasoko soldadutza hainbat lekutan egindakoa (GET-030/015)

Itsasoko soldadutzara joan zen 19 urterekin. Ferrolen, Madrilen, Donostian, Zumaian, Getarian... egon zen soldadutzan, eta zer zeregin izaten zituen azaltzen du. Soldadutzara gazteago joateagatik apuntatu zen itsasoko soldadutzan.

391. Lehengo trenak eta turismoa (GET-030/017)

Ferrolera trenez joaten zen. Tren haiek ikatzarekin ibiltzen ziren, eta keak arropa zikintzen zuen. Egun eta erdiko bidaia izaten zen Ferroleraino. Turismo gutxi zegoen lehen Getarian, baina bazegoen ostatu bat. Udatiar gutxi etortzen ziren lehen.

392. Elkanoren lehorreratzearen antzerkia (GET-030/020)

Elkanoren lehorreratzea lehen ere egiten zen. Jende asko etortzen zen egun hartan, baita kanpotik ere. Lehorreratzeko pertsonaiak nola aukeratzen ziren azaltzen du.

393. Zarauzko plaieroetan parte hartutakoa (GET-030/022)

Futboleko jokatzeko gaztetan, eta Zarauzko plaieroetan parte hartu zuen. Plaiero haietarako taldea osatu ezinik ibili ziren, baina azkenean lortu zuten.

394. Adinaren araberako arropak eta haien garbiketa (GET-030/025)

Arropak garbitzeko lokal bat zegoen lehen. 13 urtera arte galtza motzak eraman zituen. Jendeak normalean mahoizko galtzak eramaten zituen. Umetan eta gaztetan desberdin janztea gustatzen zitzairen.

395. Elizako kanpaiak eta haien bilakaera (GET-030/030)

Hiletak orain bezalakoak izaten ziren, baina lehen kanpai gehiago jotzen zen. Kanpaiak jotzeko modua nola joan den aldatzen azaltzen du.

396. Erlijioarekiko errespetu handia lehen (GET-030/032)

Elizara goizean joaten zen, eta anaiekin txandak egiten zituen lanean norbait gera zedin. Bera luistarren kongregazioan egon zen, eta han zer egiten zuten azaltzen du. Emakumeak Hijas de Mar&iacut;a kongregazioan egoten ziren, eta ez zieten uzten mutilekin dantza egiten. Lehen lau-bost apaiz egoten ziren, jende asko joaten zen elizara...

397. Zineman western asko ikusitakoa (GET-030/036)

Askotan joaten ziren zinemara Zarautzera. Oinez joaten ziren hara, westernak ikusten zituzten, eta jendeak bizi egiten zuen pelikula. Gerra ostean, Nodoa jartzen zuten, eta jendeak nola erreakzionatzen zuen azaltzen du.

398. Getariako medikuak (GET-030/040)

Herrian izandako medikuak aipatzen ditu. Medikuaren kontsulta haren etxean egoten zen.

399. Kontxako bandera ospatzen zen eguna (GET-030/043)

Surfa ez zen egiten lehen; estropadak, bai, ordea. Lehen estropada gutxiago izaten ziren. Kontxakoak beti ezagutu izan ditu. Oriokoak beti izan dira onak arraunean. Kontxako estropadak ikustera joaten ziren eguneko planak kontatzen ditu: Igeldora joaten ziren, besteak beste. Igeldon zer atrakzio zeuden aipatzen du.

400. Kontxako estropadetan zirkura (GET-030/045)

Kontxako bandera ospatzen zen egunean, zirkura joaten ziren batzuetan. Zirkua Amaran egoten zen. Tranbiaz joaten ziren batetik bestera Donostian. Zirkura kuadrillan joaten ziren. Apustu-giroa izaten zen goizez, portuko sarreran.

401. Pilotarako zaletasuna eta frontoietako giroa (GET-030/047)

Getarian egon izan da pilotan jokatzeko zaletasuna. Getariako pilotari onak zein izan diren aipatzen du. Pilota-partidak ikustera joateko ohitura bazeukan. Apustu giroa egoten zen partida haietan.

402. Getariako mahastiak eta txakolina (GET-030/052)

Etxean egiten zuten txakolina nora saltzen zuten azaltzen du. Inoiz ez da orain bezain beste mahasti egon Getarian. Lehen mahastiak non zeuden.

403. Getariako pertsona ezagunak (GET-030/054)

Fabiola Belgikako erregina Getarian jaio zen kasualitatez. Balentziaga jostuna Getariakoa zen. Placido Domingo tenorearen ama getariarra zen.

404. Getariaren itxura lehen (GET-030/057)

Getariako moila eta "Club Náuticori" buruz hitz egiten du. Lehen San Anton mendian baratzeak zeuden, baina gero hura bukatu egin zen, eta gazteek poza hartu zuten ez zutelako gehiago joan behar hara lanera.

405. Getaria inguruan eguraldiarengatik izandako istripuak (GET-030/060)

Getariara iristeko errepideetan gertatutako istripuei buruz hitz egiten du.

406. Familiako itsasontzi gehienek emakume izena (GET-031/002)

Bere familiak hainbat itsasontzi izan ditu. Itsasontzi haien izenak eta zergatia aipatzen ditu.

407. Arrantzale izateko irrika (GET-031/004)

Itsasontzien izenak etxekoen artean erabakitzen zituzten, eta gero kapitaintzan baimena eskatu behar izaten zen izena jartzeko. Lehen mutilen %85 itsasora joaten zen, baina gaur egun inork ez du nahi joan.

408. Sarea konpontzeko tresnak eta moduak (GET-031/005)

Ama sare-konpontzailea zen. Lehen egurrezko orratzak erabiltzen zituzten, orain plastikozkoak. Sareak non konpontzen zituzten azaltzen du.

409. Harizko sareetatik nylonezkoetara (GET-031/006)

Sareen materiala aldatzen joan da: lehen harizkoak ziren eta tindatu egiten zituzten gehiago irauten zezaten; gaur egun, ordea, nylonezkoak dira. Sareak tindatzeko prozesua nolakoa den azaltzen du. Hasiera batean jendeak ez zuen nahi izaten nylon erabili, baina orain denek erabiltzen dute.

410. Eskolan gauza praktikoak ikasitakoa (GET-031/007)

14 urtera arte ibili zen eskolan, eta gerora neguan joaten zen. Getariako eskolan 40 bat lagun ziren, adin desberdinetakoak, guztiak batera. Partikularrera ere joaten zen ikastera. Maisu ona izan zuen, gauza praktikoak eta baliagarriak irakatsi zizkien; gramatika ere irakatsi zien, baina ikasleek hori ez zuten gustuko. Entziklopediarekin ikasten zuten. Etxeko lanak ere izaten zituzten, eta egin egiten zituzten. Zigorrak izaten zituzten noizean behin. Maisuak ez zekien euskaraz.

411. Gaztelania behar eskolan ikasi ahal izateko (GET-031/008)

Gaztelania nola-hala ikasten zen orduan, beharrezkoa baitzen gero ikasteko. Liburu guztiak gaztelaniaz zeuden dotrinako liburua ezik. Dotrina non ikasten zuten azaltzen du. Bi komunio egiten ziren lehen, eta azterketa moduko bat pasa behar izaten zuten. Komunioan zer janzen zuten azaltzen du. Komunioko bazkaria etxean egiten zuten, kabitzen zen jendea elkartuta.

412. Txibiak harrapatzen 7 urte zituenetik (GET-031/009)

7 urte zituenerako aitonarekin joaten zen txibiak harrapatzera. Lehen txibiak harrapatzeko zaldiaren buztaneko ileak erabiltzen ziren. Amuan engainua eta beruna jartzen zioten lehen ere. Engainua erosi egiten zuten.

413. Eskuz egindako engainuak (GET-031/011)

Eskuz egindako engainuak erakusten ditu.

414. Kostako herrien arteko pikeak (GET-031/014)

Getariarrei "lapajale" deitzen zieten, oriotarrei "ijito" eta zarauztarrei "bina-bina". Balea harrapatu zenean izandako ika-mikatik sortutako kantua abesten du.

415. 14 urterekin txalupa-mutil eta 23rekin patroï (GET-031/017)

14 urterekin joan zen itsasora, legez 14 urte behar baitziren itsasoan lanean hasteko. Maria Zulaika itsasontzian hasi zen; eta geroago, Reina de los Mártires itsasontzian ibili eta han egin zen patroï 23 urte zituela.

416. Itsasoan hasi zeneko kanpainak (GET-031/018)

Itsasoan lanean hasi zenean, hainbat kanpainatan ibiltzen ziren. Gehienez 10-12 egun egiten zituzten arrantzan kanpoan, izotzak ez baitzuen gehiago aguantatzen.

417. Atunaren arrantza pausoz pauso (GET-031/019)

Atuna nola harrapatzen zuten azaltzen du: ura harrotzen zuten hondotik itsasontzia ez ikusteko, garnata bota, kanaberarekin atuna harrapatu, kakoa sartu, eta palkara bota. Palkatik azkar sartu behar zen hozkailura, bestela arraina galdu eta gazitze-fabrikarako erabiltzen zen eta.

418. Bakailaoaren eta angularen gorakada (GET-031/020)

Lehen bakailaoa pobreen janaria zen, merkeak zirelako. Lehen angulak soberan zeuden eta txerriei jaten emateko ere erabiltzen ziren. Bakailaoa leku hotzetan harrapatzen da.

419. Antxoa harrapatzeko prozesua (GET-031/021)

Antxoa harrapatzean, egunez saltoka ikusten zuten eta gaez distira egiten zuen. Sarearekin inguratu egiten zuten antxoa eta orduan harrapatu. Harrapatutako antxoa itsasontzira igotzeko garabi-besoa, salabardoa eta mundua erabiltzen zituzten lehen.

420. Antxoa lehorrera ekarri artean nola kontserbatu (GET-031/022)

Antxoa harrapatzean, lehen kaxa handi batzuetan ekartzen zuten, gerora kaxa txikiagotan; orain bizirik sartzen dituzte antxoak kaxatan eta izotza botatzen zaie bat-batean hiltzeko.

421. Sarean zer harrapatuko zain (GET-031/024)

Nahiago izaten zuten antxoa handia harrapatu txikia baino, merkatuan garestiagoak baitziren handiak. Hala ere, zorte kontua izaten zen zer

harrapatu; eta antxoa ez zen ezer harrapatuz gero, arrantzaleen artean banatzen zuten etxera eramateko.

422. Berdelak gutxi merezitako ospea (GET-031/025)

Antxoa karnatatarako erabiltzen zen atunetan aritzen zirenean. Gaur egun, ordea, konturatu dira atunari berdela jatea gustatzen zaiola. Berdelak lehen fama txarra zeukan eta orain ere merkea delako jendeak muzin egiten dio askotan. Berdelaren arrantzari buruz hitz egiten du: antxoa bezala harrapatzen da, baina taldean hura baino trinkoago joaten da. Antxoaren eta berdelaren arteko aldea igarri egiten da bista hutsarekin. Berdela non harrapatzen zuten azaltzen du.

423. Bisiguaren arrantza non eta nola (GET-031/026)

Bisigutako arrantzan ibili izan da. Bisigua non eta nola harrapatzen zen azaltzen du.

424. Itsas hondoaren geografia (GET-031/027)

Itsas hondoaren geografia itsas azalekoa bezalakoxea da eta non-nahi daude sakonuneak eta senaiak (kalak). Arraina sakonera gutxiko lekuetan egoten da eta itsasontzien aparailuek leku mota horietan harrapatzeko balio izaten dute.

425. Bisiguaren arrantzaren nondik norakoak (GET-031/029)

Bisigua harrapatzeko, lehenengo zer sakoneratan zegoen jakin behar zen. Geroago tertzak botatzen ziren, amuetan antxoa gazituak zituztela. Azkenik, tertzak jasotzen ziren. Batzuetan hainbat itsasontziren tertzak kateatu egiten ziren eta berandura arte egoten ziren haiek askatzen. Bisigua abendu eta otsail bitartean harrapatzen zen.

426. Inguruetako kostan arrainak desagertzen (GET-031/031)

Dagoeneko ez dago arrainik hemen gertuko senaietan (kalak), arrasteroek txikitu egin baitzituzten. Lehen Getariako moilan bertan harrapa zitezkeen pantxoak, baina gaur egun desagertu egin da arraza hori inguruotan.

427. Lazuna zeinek jan nahi? (GET-031/033)

Lazuna arrain txarra da jateko, haragi eskasekoa. Lehen Frantziatik etortzen ziren lazun bila, baina dagoeneko ez.

428. Zimarroia vs atuna (GET-031/035)

Zimarroia harrapatzen zuten: atunaren antzekoa da eta nola harrapatzen zuten azaltzen du.

429. Izurdeak non-nahi (GET-032/001)

Izurde eta balea asko ikusitakoa da. Izurdea noizean behin harrapatu izan dute jateko. Izurdeak itsasontziekin jolasean aritzen dira. Izurdea nola harrapatzen den azaltzen du. Non-nahi daude izurdeak.

430. Orkak eta baleak bakean utzi orain (GET-032/002)

Orkak eta baleak ikusi bai, baina ez dituzte harrapatu izan. Lehen baleak harrapatzeko ohitura handia zegoen, erabilera handia ematen baitzaien.

431. Itsasontzi barruko antolaketa (GET-032/007)

Itsasontzi barruko antolaketa patroia, makinista eta tostartekoak (marinelak) daude. Bakoitzak zer funtzio duen azaltzen du. Bera patroia lanetan ibili izan da 23 urtetatik erretiroa hartu arte.

432. Itsasoan ekaitza denean (GET-032/008)

Eguraldi txar asko pasa izan dituzte itsasoan. Halako egoeratan itsasontzia geldirik egotea da onena. Itsasontzi barruan nola moldatzen diren aipatzen du.

433. Itsasontzian bakoitzaren ardurak eta garbitasuna (GET-032/009)

Itsasontzian sukaldaria egoten da, baina arrantzako lanetan ere aritzen da. Lehen txalupa-mutilei ematen zitzaizkien inork nahi ez zituen lanak, baina orain dagoeneko hori ere aldatu da. Itsasontziko garbitasuna nola izaten zen azaltzen du.

434. Aparailuen erabilera (GET-032/012)

Aparailuei buruz hitz egiten du: sareak, kanabera, kazako aparailuak, salabardoa, otarreak...

435. Itsasontziko matxurak konpontzeko (GET-032/013)

Itsasontzian matxuraren bat egonez gero, makinistak konpontzen zuen normalean. Matxura handia izanez gero, hala ere, lehorrera etorri behar izaten zuten hura konpontzeko.

436. Lehorrera iritsitakoan, arraina saltzera (GET-032/015)

Itsasotik iritsi bezain laster arraina saldu behar izaten zuten. Iritsi zirela abisatzeko, lehen sirena jotzen zen herrian. Erostenek kopuru handitan erosten zuten arraina.

437. Poituari buruzko azalpena (GET-032/017)

Poitua zer den azaltzen du.

438. Kofradien eta Ermandadeen funtzioa (GET-032/019)

Kofradiak arraina saltzeko bidea dira. Kofradiak hainbat ardura ditu. Ermandadeak aseguru ziren eta Gipuzkoa guztirako bat zegoen.

439. Inguruko arrantzaleekiko harremana (GET-032/020)

Inguruko arrantzaleekin tratua beti eduki izan dute. Lehen komunikazioa zailagoa zen ez baitzegoen gaur egun dagoen bitartekorik.

440. Pez pilotoren komeriak (GET-032/021)

"Pez piloto" zer den azaltzen du. Lehen uste zen "pez pilotok" atuna beldurtu egiten zuela eta horregatik ezin zela arrantza ona egin. Maniobra ugari egiten zituzten "pez piloto" gaineratik kentzeko. Psikologikoki behintzat asko eragiten zuen "pez pilotok" arrantzaleengan.

441. Itsaso txarra denean, zer? (GET-032/023)

Patroiaren eta makinistaren funtzioak. Itsaso txarra denean, errespetu handiarekin gidatu behar da itsasontzia. Itsasoan izandako ekaitz gogorrei buruz hitz egiten du.

442. Itsasontzia nola gidatu (GET-032/025)

150 km/h-ko haizeak ere ezagutu izan dituzte itsasoan. Egoera horietan nola jokatu behar den azaltzen du. Lehen eta orain nola gidatzen zen itsasontzia.

443. Itsasora irteteko, eguraldiari begira (GET-032/027)

Lehen eguraldiaren parte ematen zuten Igeldo menditik, baina arrantzaleek ez zioten beti kasu egiten. Lehen lainoen koloreari ere begiratzen zitzaion eguraldiaren iragarpena norberak egiteko.

444. Itsasorako bedeinkazioak (GET-032/029)

Itsasora joan aurretik Ama Birjinaren aurrean egiten zuten agurra. Itsasontzia berria zenean, apaizak bedeinkatzen zuen. Xanpain botila ere puskatzen zen itsasontzia ontziolatik ateratzear.

445. Txakurra itsasontzian (GET-032/031)

Itsasontzian txakurra eraman izan dute. Lehorrera iritsi baino 300 km lehenago, hark dagoeneko usaintzen zuen mendiaren usaina.

446. Itsasontziko ordutegiak eta lotarako ohiturak (GET-032/033)

Itsasontziko ordutegiari buruz hitz egiten du. Ohatze (litera) estuetan egiten zuten lo, manta bat izaten zuten, eta bi gelatan egiten zuten lo: bata handia eta bestea txikia.

447. Itsasontziko otorduak eta txalupa-mutilak (GET-032/036)

Otorduetan, hasiera batean denek lapikotik jaten zuten; gerora norberak bere kazuelatik. Txalupa-mutilen eginkizunei buruz hitz egiten du.

448. Itsasontzi berria nola aukeratu (GET-032/038)

Itsasontzi bat egiteko enkargatzen zenean, 6 hilabete inguru itxaron behar izaten zen lehen. Itsasontzi berria nola eta zeren arabera enkargatzen zen azaltzen du. Itsasontzietarako egur batzuk txarrak atera ziren eta dena berritu behar izan zen. Lehen pinua erabiltzen zen gehienbat.

449. Telebistan ikusitako lehenengo albisteak (GET-032/041)

Herrira telebista iritsi zenean, albiste nagusia Kennedy hil zutela zen. Gizakia ilargira iritsi zenekoa ere telebista bidez jarraitu ahal izan zuten.

450. Patroi izateko ikasten (GET-032/042)

Patroi izateko, ikasketa bereziak egin zituen Pasaian.

451. Getaria, herri txikia (GET-033/003)

Astean zehar eta asteburutan egiten dituztenak kontaktzen ditu Jon Anderrek.

452. Getarian euskararik gabe bizitzerik bai? (GET-033/005)

Herri euskalduna da Getaria, eta testuinguru euskaldun honek atzerritarrak ere euskara ikastera daramatza, batez ere ume eta gazteak.

453. Gaztelaniaz, ez guztiz eroso (GET-033/007)

Ingurua guztiz euskalduna badu ere, urteekin gaztelaniaz hitz egitean geroz eta erosoago sentitzea lortu du Jon Anderrek.

454. Zaletasunak: kirola eta bertsoa (GET-033/011)

Kirolzalea da oso gaztetatik Jon Ander. Irakurtzea, musika eta bertso mundua ere gustatzen zaizkio. Bertso-eskolan aritu zen gazteagoa zenean.

455. Futbola baino, giroa nahiago (GET-033/012)

Triatloian trebatzen ari da gaur egun Jon Ander, bigarrenkoa prestatzen. Bestela, arraunean urte mordo ibili zen. Futbolarekin ere txikitatik izan du harremana, baina nahiago du futbola inguratzen duen giroa, kirola bera baino.

456. Triatloiak prestatzeko, diziplina (GET-033/013)

Arraunean urte mordo eman zuenez, kirolarekiko diziplina eta ohitura du aspalditik. Triatloiak prestatzeak askatasun handia ematen dio eta entrenamenduak egiteko malgutasuna.

457. Arrauna, afizio eta lan (GET-033/014)

Arraunean ibili ondoren, irratian hasi zen arraunaren inguruan lanean.

458. Idazteko zaletasuna (GET-033/016)

Herri aldizkarietan, Berrian eta Argian kolaboratzaile ere ibili izan da. Gaztetatik gustatu izan zaio idaztea eta egunkariek harremana izatea.

459. Getaria eta Bilbo, oso ezberdinak (GET-033/020)

Ikasketak direla medio, Gasteizen eta Bilbon bizi izan da. Euskararekiko kontzientzia hartzea ekarri zion Bilbon bizitzeak, eta harrezkerotik lehen hitza euskaraz egiten saiatzen da.

460. Getarian, kalera egiteko joera (GET-033/024)

Kalean egoteko ohitura handia dago Getarian, sozializazioa bertan gertatzen baita. Gaztetxea ere bilgune sendoa da herrian.

461. Getaria eta turismoa (GET-033/025)

Herrian turismoa geroz eta handiagoa da, tartean, Valenciaga museoak duen ospeagatik, eta baita telesailetan eta filmetan herria agertu izanagatik ere.

462. Turismoa: aberastasuna eta arriskua (GET-033/026)

Turismoak herrian jende mordoari ematen dio lana, baina Jon Anderren iritziz, neurritz eta tentuz ibili behar da turismoarekin, arriskutsua ere baitauka.

463. Itsasoko lana berriro zabaltzen ari da (GET-033/028)

Itsasoan lanean jende gutxiago dabil gaur egun, baina gazteek berriro ekin diote itsasoko lanean aritzeari.

464. Sare sozialak eta hauen erabilera (GET-033/032)

Sare sozialak lanerako zein aisialdirako erabiltzen ditu.

465. Artzape euskara elkarteko lehendakari (GET-033/034)

Getariako euskara elkarteko lehendakaria da Jon Ander. Bertako aldizkarian dabil, nahiz sei urte atzera galzorian egon zen.

466. Getaria, herri euskalduna (GET-035/002)

Familia eta arbasoak, getariarrak. Aita arrantzalea zen eta amak etxean arrain gazituak prestatzen zituen eta etxeko lanez arduratzen zen. Euskarazko lehenengo liburua dotrina izan zen. Getarian jende guztiak euskaraz hitz egiten zuen, baita kanpotik herrira lanera joandakoak ere.

467. Bi eskola zeuden Getarian eta biak euskaldunak (GET-035/003)

Lagunen artean euskaraz egiten zuten baina maisuarekin beti gaztelaniaz. Eskolan ez zuten "Cara al Sol" kantatu behar izaten. Bi eskola zeuden Getarian, bata plazan eta bestea moilan.

468. Saturrarango seminarioan euskaraz ikasi zuen I (GET-035/004)

Hamaika urterekin Saturraraneko seminariora ikastera joan zen. Bertan euskara ikasteko aukera izan zuen Juan Mari Lekuonarekin.

469. Euskalki ezberdinak seminarioan (GET-035/005)

Seminarioan, hiriburutik eta herri txikietatik joandako ikasleak zeuden. Euskaraz hitz egiten zuten haien artean gehienbat. Aita Zabalaren euskarazko liburuak. Gipuzkera. Donostiako seminarioan ere Juan Mari Lekuona izan zuen euskarazko irakasle.

470. Erromatik Elgoibarko ikastolara (GET-035/006)

Seminarioa utzi eta Filosofiako lizentziatura bukatzera joan zen Erromara. Ikasketak bukatzeaz zegoela, Antton Aranburuk deitu zion Elgoibarko ikastolatik, bertan lan egiteko eskatuz. Andresekin batera, Iñazio Garmendia eta Emilio Imaz hasi ziren ikastolan lanean. Ikastolako lehenengo irakasle lizentziatuak izan ziren, 6. mailatik aurrerako promozioei klaseak emateko.

471. Elgoibarko ikastola: testuliburuak (GET-035/007)

Elgoibarko ikastolan lanean hasi zenean. 6. mailako tutoretza eman zioten, 26 ikaslerekin. Parrokiako lokaletan zeuden gelak. Alfonso Guilló;, Nekane Iturbe eta hirurak ziren irakasleak. Testulibururen bat bazegoen euskaraz baina gehienbat gaztelaniatik itzultzen zituzten fitxak eta ariketak. Ikastolako hasierako familia eta haurrak euskaldunak ziren ia denak.

472. Getariatik Elgoibarrera: euskararen egoera eta erosteko ahalmena (GET-035/008)

Elgoibarrera bizitzera joan zenean, herri guztiz erdalduna zela sentitu zuen. Elgoibarren frankismoaren ondoriok euskaraz ikasi eta transmititu ez zitzairen belaunaldiari buruz hitz egiten du. Elgoibarren ere, erosteko ahalmena Getarian baino askoz handiagoa zela konturatu zen.

473. Elgoibarko euskalkira moldatzen (GET-035/009)

Hasieran, Elgoibarko euskalkira moldatu behar izan zen. Ikastolako lehenengo astean ikasle batekin gertatutakoa kontatzen du.

474. Galdutako euskal hiztunen belaunaldia (GET-035/010)

Elgoibarko kaleko giroa erdalduna bazen ere, auzoetakoak guztiz euskaldunak ziren. Kaleko pertsona nagusiak euskaldunak zirela badaki, baina bere adinekoak ez. Hala ere, bera euskal giroan ibiltzen zen, ikastolako jendearekin zuelako harremana.

475. Elgoibarko ikastola: kooperatiba (GET-035/012)

Elgoibarko ikastola kooperatiba nola bilakatu zen. Ikastola Elgoibarko Izarra elkartearen barruan zegoen baina hartzen ari zen dimentsioa hartuta, 1973an kooperatiba bat sortzea erabaki zen.

476. Elgoibarko ikastolaren eraikin berriaren bultzatzaile nagusiak (GET-035/013)

Ikastolaren eraikin berria sortzen Jesus Bilbao, Juanjo Araolaza eta Felix "Parapan" ibili ziren, beste batzuen artean.

477. Gau eskolak Elgoibarren (GET-035/014)

Ikastolako irakasleak ibili ziren gau eskolan ematen Elgoibarren. Talde asko zeuden. Kokalekua. Ikasleen perfila. Gazte askok nahi zuen euskaraz ikasi eta alfabetatu, gizartea oso politizatua eta idealizatua zegoelako.

478. Elgoibarko ikastolaren eraikina (GET-035/016)

1976an zabaldu zen Elgoibarko ikastolaren eraikina. Andres ikastolako zuzendari pedagogikoa izan zen lau urtez. Eraikuntza oso ondo pentsatuta zegoen bai barrura begira baita kanpora begira ere. Ikasle kopurua asko hazi zen eraikin berriaren hasierako urteetan.

479. Ikastolako metodologiak (GET-035/017)

Irakaskuntzako metodologikoa ezberdina zen ikastolan. Ekintzak, dinamikak...

480. Aubixako aterpetxea (GET-035/018)

Aubixako aterpetxea 1973an hasi zen ikasleei euskal giroan bizitzeko aukera ematen. Giro oso polita zuten bertan. Hamabost eguneko udalekuak ziren.

481. Bailarako institutuak euskalduntzen (GET-035/019)

Institutu euskaldunak sortzeko beharra zegoen bailara osoan baina ez zegoen dirurik bat zerotik eraiki eta antolatzeko. Lizentziatuak ziren irakasle batzuk, institutuetan lanean hasi eta bertako karguak hartzen hasi ziren, horrelako poliki-poliki euskalduntze-prozesua emanez.

482. Euskara irakasgai bezala (GET-035/020)

Andres Elgoibarko institutuan lanean hasi zenean, nahiz eta euskarazko irakasle ofizialik ez egon eta araudian sartuta ez egon, beste irakasgaietako irakasleek (Pello Arrieta, Enrike Larrañaga, Joxe Ramon Kortabitarte, Pello Gaztelurrutia, Gaztañaga...) euskara ere irakasten zuten. Geroago hasi ziren plazak ateratzen.

483. Euskarazko testuliburuak sortzen (GET-035/022)

Institutuko euskara mintegia, testugintzan lanean hasi zen eta Euskara eta Literatura irakasteko testuliburuak argitaratu zituzten 1986an Elkarrekin batera. Gainerako irakasgaien testuliburuak euskalduntzea beranduago heldu zen.

484. Ikastola eta elizaren laguntza (GET-035/025)

Ikastolan lanean hasi zenean, abadearen etxeko multikopistarekin sortzen zituen fitxak eta ariketak ikasleentzat. Don Carlos zen orduko abadea eta asko lagundu zuen ikastolaren egunerokotasunean eta batez ere sorrera ofizialean.

485. Euskararen zabalkundearen motorra falta da (GET-035/028)

Elgoibarren, euskara orain dela 50 urte baino egoera hobeto dagoen arren (udaletxean, banketxean...), euskararen erabilera ez dago normalizatua. Garai bateko Eusko Jaurlaritza eta alderdi politikoak, ideologia euskaldun baten alde egiten zuten eta euskararen zabalkundearen lan handia egin zen. Gaur egun, ez.

486. Gaur egun euskarak ez du eremu zehatzik (GET-035/029)

Garai batean euskarak bere eremuak zituen (baserria, landa eremua...) eta gaztelaniak eremu horietan ez zuen lekurik. Gaur egun, euskarak ez du lekurik (telebistan, interneten, mugikorren...).

487. Elgoibarko eta Getariako hitanoa (GET-035/030)

Elgoibarrera bizitzera joan zenean, hika pertsona helduek bakarrik egiten zuten. Emakumeak heldu batzuei lehenengoz "ikusiko jonau" entzun zienekoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com